

TXOMIN PEILLEN (koord.)

Edurne Alegria
Jokin Apalategi
Ur Apalategi
Xabier Apaolaza
Gorka Aulestia
Paulo Iztueta
Roldan Jimeno

**EUSKALDUN ETORKINAK
AMERIKETAN**



© Txomin Peillen (koord.)

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2003ko uztaila

ISBN: 84-932654-9-7

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

TXOMIN PEILLEN (koord.)

Edurne Alegria
Jokin Apalategi
Ur Apalategi
Xabier Apaolaza
Gorka Aulestia
Paulo Iztueta
Roldan Jimeno

**EUSKALDUN ETORKINAK
AMERIKETAN**

Utriusque Vasconiae

AURKIBIDEA

Lehen hitzak	7
Euskaldunak eta Venezuela. Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarra (1728-1785) eta 1936ko erbestaldia. Edurne ALEGRIA AIERDI . . .	11
Euskal emigrazio eta exilio amerikarraren zenbait ezaugarri (XV-XVIII). Jokin APALATEGI BEGIRISTAIN	39
Amerikak, euskal idazle berrien paratopia hautatua. Ur APALATEGI IDIRIN	83
Gerrate zibila baino lehen. Xabier APAOLAZA	107
Andima Ibinagabeitia Ameriketan. Gorka AULESTIA	119
<i>Euzko-Gogoa</i> (1950-59): Erbesteko euskaltzaleen lan kolektibo gaitza. Paulo IZTUETA ARMENDARIZ	135
Gerra zibilaren ondoko euskal diasporaren identitatea folkloreaken bidez: Caracasko Eusko Etxea. Roldan JIMENO ARANGUREN	157

LEHEN HITZAK

Baionako fakultatean 2001ean Euskal Herritik eta Ameriketarik bildu ginenean, gure xedea izan zen Ameriketara joan ziren euskaldunen eta haien ondokoen ekarpenaz balorazio baten egitea: bai Euskal Herriari emanak baita beren aberri berriei ekarriak. Bilduma honetan euskaraz jardunaldietan irakurri ziren txostenak eskaintzen dizkizuegu.

Lehenik eta behin, Jokin Apalategik, joale arrunten gizarte sailkapen bat eman zigun, eta honela erakutsi zigun, “artzain euskaldun” sailkatzea aurreiritzia dela. Mendeetan zehar, gure etorkinak arrantzaile, itsasgizon, herri eraikitzaile, eskulangile eta salerosle izan zirela, geroago nekazariak ere joan baziren ere. Orain Ipar Ameriketara artzainari estatua egin diote, dagoeneko, lehenagoko lanbidea delako.

Edurne Alegriak, Venezuelan jaio euskaldun andereak salerospenetan Caracasko Konpaniak Euskal Herrian eta Ameriketara eduki eragina aztertu zigun, baita euskaldunek Venezuelari eman ekonomia bultzada. Gero 1936tik landako eta berak bizitu hango giro abertzalea zein zen.

Gorka Aulestiak azpimarratu zigun zer garrantzia izan zuen Andima Ibinagabeitia idazleak, euskal itzultzaileak, euskaltzale amorratuak, eta euskaltzaleen sortzaile, sustatzaileak. Aitor dezadan hari zor diogula Jon Mirandek eta biok ere Parisen euskaldun eta idazle bilakatzea.

Paulo Iztuetak kontatu zigun Jokin Zaitegik Ameriketara (Guatemalan) zer lan eraman zuen: ahaztu gabe haren itzulpenak Platon eta Sofoklesenak, Zaitegi izan baitzen lehenbiziko euskal literatura aldizkaria *Euzko-Gogoa* Ameriketara atera zuena.

Ameriketako euskaldunen kulturaren beste bi ikuspegi eman dizkigute Roldan Jimeno Aranguren ek folkloreak euskal kulturak Venezuelako euskaldunen artean duen garrantziaz, eta Ur Apalategik gaurko euskal idazleengan Estatu Batuek duten erakarpenaz.

Euskaldunek Ameriketara orokorki bildu ospea, espainol batzuek menpekotasunetik, apaltasunetik etorri dela, idatzi dute? Ala ardiesten hori ezin ulertuz eta bekaiztuz, espainol ondokoek hala nola Borges, Neruda eta Sarmientok euskaldunei, amerindiarrei erakutsi gaitzespenez mintzo ziren? Zenbat nahi guk idatzi, zoritxarrez, gaurko Sánchez Alborno, Jorge Semprun, Georges Sarre eta Bernard Henri Lévy ez dira hobe.

Zeharka erantzun zuten txostenek erdal idazleek eta besteek euskaldunetz dituzten topikoen aurka. Unamunok berak zioenaz “birritan espainola” bilbotarraren ondotik Waldo Franck-ek Txilen 1937an argitaratu *España Virgen* liburuan “La comedia del vasco” lotsagarria idatzi zuen, zeinean euskalduna basati, apal, erlisio funtsik gabe, hizkuntza literatura gabe, artistarik gabe, iheslari herri bat irudikatzen zuen:

“... Espainolak bidean aurkitzen duen guztiari buru ematen dio, tragikoaren sendimendua hor dago. Euskaldunek, alderantziz topakari ihes egiten dio eta urrutze horretan dago komediaren gogoia”.

Nork desafiatu du Espainiako erregea, bere burua lehen amerikar bezala aldarrikatu? Lope de Agirrek. Nork askatu ditu Borgesen eta Nerudaren herriak? Euskaldun ondoko batek, Bolivar-ek. Hori al da ihes egitea, menpeko izatea? Zein dira Espainian frankismoaren aurka ia bakarrak borrokatu direnak? Euskaldunak. Hori al da komediaren gogoia? Komedia dira Inkisitore eta Konkistadore Gaztelako elite arraza amorratu horren jokabide eta predikuak.

Tragedia zer da? Frantzian norekin ikasi dute gizonaren tragedia zer den Pascal eta Racine Frantziako idazle handienek? Duvergier de Hauranne euskaldunarekin.

Topikoak ez dira errugabe eta kaltegabe iritziak Francoren garaian, eta beharbada oraindik badaude horrelako liburuak, espainol paradoretan kanpotarrek eta herritarrek jakin dezaten nola jardun zuen nola ibil.

Espainia kristautasunaren goi amasa zaintzen zutela Gaztelako eliza jende eta mistikoek, Espainiarren handitasun eta nortasuna

Gaztelako soldadoek, aldiz katalanak eta euskaldunak lanean eta ekonomian baizik ez zirela nabarmentzen eta, horregatik Espainiaren zerbitzuan izan behar zutela. Orain kalte egiteko beste hiztegi batekin berdin idazten da. Zorionez kastillanoek beren “una monja-un militar” xedeak apur bat galdu dituzte... bizitzeko.

Waldo Franck-ek euskaldunen basati arraza bezala mintzo denean ba al daki Ganboako Petiri, Aita Vitoriak nazioarteko zuzenbidea asmatu zuela, eta espainol barbaria buru egiteko, *De Indiis* eta *De Iure belli* idatzi? Basatia ote zen euskal idazle eta Mexikoko lehen apezpiku Zumarraga erregearengandik lortu zuena Mexikoko amerindiarrak ez esklabo jartzea, eta nahuatlezko lehen eskola eraikitzea eta dotrina itzulpena eragitea. Basatiak ote ziren Garay Buenos Airesen eraikitzailea eta Zabala Montevideoren fundatzailea? Basati Loiolako semea? Ez ginen zapaltzaile kume horien begietan basatiak izango Euskal Herria estatua izan balitz?

Denbora berean erbestetu horiek beti atosten zituzten herrien zerbitzuan jartzen ziren. Ez al zuen Larrañaga euskaldun semeak Uruguain hezkuntza sistema sortu, lehenbiziko unibertsitatea eraikiarazi eta Arechavaleta euskaldunak jakintzalaritza garatu, baita Montevideoko ur hornidura sistema antolatu. Lan polita basatientzat. Gaztelaniatzko kulturari Gabriela Alçayaga Mistralek ez al zuen Nobel saria irabazi eta zenbat idazle, jakintzalari eta politika gizon ez du eman euskaldunen diasporak. Berrikiago Zaitegik Guatemalan lizeo bat sortu zuenean eta Martin Ugalde euskal idazle bezainbat Venezuelako erdal hizkuntzan kazetari eta idazle handia, hala nola Bizente Amezaga, Uruguain eta Venezuelan ingeles eta euskara erakasle handia, baita euskal idazle ere.

Euskaldun etorkinek benetan ez zuten beren erroekin moztu. Mistralek, adibidez, bere euskalduntasuna goraiatu zuen. Euskaldun ondoko zen batek zioetan bi aberri zituela Uruguai eta Euskal Herria. Frankismoaren urte beltzenetan erbesteko euskal idazle horiek Buenos Airesen, Caracasen eta Mexikon gerra zibil aurreko euskal su hazia ez zuten iraungitzen utzi. Ameriketako lurak ez dira beti euskal sorkuntzan antzuak izan, Hemeretzigarren mendean Jose Mendiague batek bere obra osoa Montevideon idatzi du, Iparragirrek kantuak ondu, Otaño eta Otxalde herri horietan egon, herri haietan euskara bizi-bizirik zegoenean.

Galdera bat egin daiteke zergatik nafartarrek eta iparraldekoek Ameriketan hain ederki kausitu duten eta ez beren herrian. Erantzuna argi dago euskaldunak ez zirela herri horietan baldintza onetan kanpotik zetorren frantses eta espainol industriari egokitzeko: elite kontserbatzailea boterearen jabe eta baserrizalea; ahaztu zaiguna latifundio eta maisterrekin erraz bizi burgesia, zela hala nola Abbadia 40 etxalderen jabe, “Morrosko” hazpandarra ia ehunena. Erronkariko jende hustuketaren arrazoia, Mariano mendigatxa Bidangozoko azken euskaldunak Azkeri idatzi zion lurrak “bizpairoren eskuetan” zeudela; halan lehen garagardotegia ez zuen Baztandar batek Baztanen eraiki, baina “Corona” Hego Amerikako lehen garagardogintza izan zen. Meta ditzaitegu zuberotarrek, benafartarrek, garai nafartarrek, lapurtarrek sortu entpresak Euskal Herrian ezin eginez joan zirenak.

Gaur Hego eta Ertamerikan euskal sentimendua eta atxikimendua gorde duten gure arbasoen ondokoak ugari ditugu; konzientzia hori, ber ezagutza hori politikaz erbestetuei zor diete. Hemeretzigarren mendean karlista erbestetuek Laurak bat sentimendua sortu zuten, baita, Xabier Apaolazak erakutsi bezala, gerra zibilaren aurretik garatu ideologiak berekin eraman eta sotilki erein ere; azkenik Zazpiak bat ere diasporaren bil gaia da.

Hego amerikar euskaldun horiek hasieran herrian hobeki kokatzeko bildu ziren, gero besteen errezibitzeko. Denborarekin kirola eta folklorea izan ziren beren kezkek, baina politika erbestetuek beste jakinminik piztu zieten: lehenik, Euskal Herriaren historia eta gaurko bizitzaren ezagutzea, gero kultura orokorra, literatura, arte ederrak, musikarenak eta, azkenik, euskararen ikastea.

Zer bilakatuko da diasporaren euskalduagoa? Noiz arte iraungo? Uste dut gure euskalduntasuna sendotzen, azkartzen bada, bestelan ez, eta horrek darakusa zenbait ikas dezaketen diasporakoek gugandik, eta zenbatago guk ere haiengandik, haien eskarmentuak, iritziak, aholkuak entzunaz. Iparragirrek ederki esana *Eman ta zabaltzazu munduan frutua*, baina oxala izan dadin askatasun eta bake hazia!

Txomin Peillen

EUSKALDUNAK ETA VENEZUELA

CARACASKO ERRET KONPAINIA GIPUZKOARRA (1728-1785)
ETA 1936KO ERBESTEALDIA

EDURNE ALEGRIA AIERDI

*Ene aita eta amari,
Venezuelan euskaldun sortu nindutelako.*

Euskal Herriko eta Venezuelako egoera soziopolitiko eta ekonomikoa

Euskal Herria

Garai hartan Euskal Herria zazpi lurralde independenteok osatua zuten, hots, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroak. Bakoitza bere legedi edo foruen arabera gobernatzen zen. Hegoaldeko lurraldeei dagokienez, Espainiarekiko lotura Erregearen pertsonan gauzatzen zen. Felipe V.a (1706-1746) lurralde horietako Jauna zen, baina bertako legeak aintzakotzat hartu behar zituen. Aztertzeraz goazen garaian Espainiak hiru errege-agintaldi ezagutu zituen: Felipe V.arena 1700tik 1746ra arte, Fernando VI.arena 1746tik 1759ra arte eta Karlos III.arena 1759tik 1788ra arte.

Beraz, Gaztelako errege-agintea lurralde hauen gain zeharkakoa zen eta euskaldunek ez zioten zergarik zor, ez zeuden ere Euskal Herri-ritik kanpo soldadutza egitera behartuak eta, legearen aurrean euskaldun oro berdina zenez, edozein ohorezko kargu eskura zezakeen Penintsulako beste lurraldeetako biztanleek ez bezala. Horietan, nobleek baizik ez zuten eskubide hori. Hala zer idazten duen Salcedo-Bastardo historialari venezuelarrak: “Todos los llegados a América se considerarían señores: aquí se daba un fenómeno general de hidalguización, vale decir de igualación hacia arriba”¹. Datu honek garrantzia ukan zuen Ameriketara joan ziren euskaldun eta ez euskaldunen arteko harremanetan. Bestalde, Espainian, noble izaera eta eskulana lotu ezinak ziren bezala, Euskal Herriko aitoren semeentzat ez zen ogibide lotsagarri edo atzera bota zezaketenik, izan zedila nekazaritza, arrantza, burdingintza, ontzigintza edota merkataritza.

Komertzio arloan, Euskal Herria libreganbista zen eta 1841. urtea arte Ebro ibaia izan zen hegoaldeko muga. Egia bada Erdi Arotik aurrera merkatarigune batzuk garatu zirela, Bilbo eta Baionan adibidez, XVII. mende bukaeran eta XVIII. mende hasieran, baliabide eskaseko eskualde honetako ekonomia, nekazaritzan eta arrantzan oinarritzen zen batez ere. Gipuzkoan eta Bizkaian manufaktura-industria (burdinolak, ehundegiak, larru-zurrategiak) garatuagoa izan arren, Europako eta Penintsulako beste eskualde batzuekin alderatuz, ezin esan daiteke Euskal Herria garai hartan lurralde aberatsa zenik.

Demografia aldetik, jakin badakigu XIX. mendea arte gure herri-rik, sartu baino, biztanle gehiago irten zela. Alde batetik aipatu egoera sozioekonomiko kaskarra eta, bestetik, euskaldunen abentura-sena suspertzeko itsaso zabalak izan ohi duen erakargarritasuna uztartzen baditugu, uler genezake euskaldunok burututako hainbat eta hainbat ekintza eta balentria, besteak beste, gure gaia den Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarraren sorrera.

Venezuela

Amerikako aurkikuntzarekin batera eta kolonizazioaren ondoren, Venezuela, espainiar inperioko probintzia bilakatzen da. Bertara iristen diren espainolak, Mexikon eta Perun ez bezala, tribu anitzez osaturiko

¹ *Historia fundamental de Venezuela*, Caracas, 1972, 169.

biztanlego indigena aurkitzen dute, sakabanatua, hizkuntza ezberdine-
takoa eta antolatugabea. Nahiko erraza zaie beraz, lur horietaz jabe-
tzea. XVI. mendean zehar etxalde handiak eratzen dituzte eta kakao-
tabako- eta larru-ekoizpenari ekiten diote; *patricios maduanos* izenda-
tzen dira etxalde horietako nagusiak.

XVII. mendean, beste espainiar inmigrazio uholdea gertatzen da,
batez ere kanariar jatorrikoa. Iritsi berriak komertzio eta burokraziako
postuetan kokatzen joango dira gehienbat, eta XVIII. mende hasiera-
ko Venezuelako toki-agintea erabat kontrolatuko dute. Indiarrek, bel-
tzek eta mestizoez, aldiz, etxaldeetako eskulana osatzen dute.

Komertzioari dagokionez, eskualde hau, luzaz, ez da batere intere-
resgarria izan Espainiako Erresumarentzat. Aitzitik, 1498tik 1730era
arte, Venezuelak, diru-galera handiak eragin zizkion metropoliari. Eta
horren arrazoia ez datza ekoizpen faltan, ekoizleen, *patricios maduanos*
direlakoen jarreran baizik: berauek nahiago zuten Espainiari zergak or-
daindu baino, zuzenean ontzi holandar, frantses eta ingelesen kapi-
tainekin tratuan aritzea. Gai honi buruz goian aipatu historialariak
hauxe dio: “Por largo tiempo estas provincias –Venezuela, alegia– no
interesan a la Corona, su rendimiento es exiguo. Antes de la venida de
los vascos, el total de las exportaciones se aproxima tan sólo al medio
millón de pesos por año. Dos tercios de su producción cacaotera salen
de modo ilegal... De su mediana riqueza se benefician holandeses e
ingleses, traficantes y proveedores clandestinos, transportistas de sus
productos al Viejo Mundo. El intercambio lícito es a tal punto escaso
e insignificante, que en los veinte años anteriores a la creación de la
Compañía sólo cinco barcos vienen de España a Venezuela, y desde
1706 a 1721 ni uno llega a La Guaira, Puerto Cabello o Maracaibo”².

Beraz, XVIII. mende hasieran, alde batetik Euskal Herriko egoera
sozioekonomikoa eta euskaldunen haratagoko joera eta, bestetik,
espainiar diru-kutxetarako Venezuelak zuen errendimendu eskasa lot-
tzen baditugu, ulerterrazagoa egingo zaigu Caracasko Erret Konpainia
Gipuzkoarraren sorrera eta gauzatzea ulertzea.

Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarra

XVII. mendean zehar, Europako erresumetan garatzen joan ziren
merkatal konpainiak, euren koloniek harreman komertzialak erraz-

² Ibid., 158.

teko. Gehienetan, gobernuaren babes eta kapital pribatuari esker zertzen ziren. Hala nola Holandak, Indietako Holandar Konpainia sortu zuen 1621ean, frantsesek Ekialdeko eta Mendebaldeko Konpainia Frantsesa 1644an eta ingelesek berriz, Hudson's Company izenekoa eratu zuten 1670ean. Espainian ere izan ziren saiakera zenbait horrelakorik gauzatzeko, baina bertako administrazioak Sevillako *Casa de Contratación* bitartez mantentzen zuen monopolioaren alde egin zuen beti apustu Mundu Berriarekiko merkatal harremanetan. Horren ondorioz, Venezuelen kakao-kintalaren salneurria 8 pesokoa bazen, Espainian 70 pesoetara heltzen zen, era horretan ekoizleen etekinak eta eskaera bera murriztuz³. Jarrera horrek, gorago esan dugun bezala, Venezuelako kakao eta beste produktu-ekoizleen eta Karibeko merkatarari atzerriarraren arteko legez kanpoko tratuak areagotzea baino ez zuen lortu. Venezuelako ekonomia kontrabandoan oinarritzen zen gehienbat.

Sorrera

Beraz, esan dezakegu kontrabandoak eta monopolioak zerikusi handia izan zutela Konpainia Gipuzkoarraren sorreran. Bi datu hauei gehitu behar zaie ere, Caracasen finkatuta zegoen gipuzkoar batek, Pedro José de Olavariaga izenekoak, idatzitako *Instrucción general y particular del estado presente de Venezuela en los años de 1720 -1721* liburua, non kolonia honi buruz ordurarte egindako azterketa sakonen eta zehatzena aurkezten duen, bertako ahalbide ekonomikoak azalduz⁴. Liburu honek Gipuzkoan zehar izandako arrakastak, eta aipatu egoerak, zenbait gipuzkoar, herrialde honetako gobernuarekin batera, Espainiako errege Felipe V.ari euren proiektu ausarta aurkeztera bultzatzen ditu. Honela, Gipuzkoak merkataritza-konpainia bat eratuko du Venezuela kolonizatzeke eta bertako komertzioa kontrolatzeko.

Europar kasu bakarra da, non herrialde batek, Gipuzkoak alegia, Estatu subirano gisa, merkatal monopolioa negoziatzen duen Espainiako gobernuarekin, sektore pribatuen, nazioko beste eskualdeen eta atzerriko interesen aurka. 1728ko irailaren 25ean Patiño Jaunak, Espainiako erregearen izenean eta Felipe de Aguirrek, Gipuzkoaren izenean

³ Douglass, William A.; Bilbao, Jon, "Amerikanuak" *Los Vascos en el Nuevo Mundo*, Nevada, 1975, 120.

⁴ Salcedo-Bastardo, J.L., op. cit., 160.

Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarrari sorrera ematen dion hitzarmena izenpetzen dute.

Eraketa

Konpainia anonimo gisa eratzen dute akzioen bidez, garai hartako merkatal araudi modernoan oinarrituta, eta Loiolako San Inazio izendatzen dute zaindari. Kapitala milioi t' erdi pesokoa da, 3.000 akziotan banatua, 500 pesokoa bakoitza. Espainiako erregeak 200 akzio erosten ditu bere patrikatik, Gipuzkoako gobernuak 100, 8 akzio purgatorioko arimentzat eta Konpainiaren lanetan hiltzen diren pertsonen hiletalelizkizunak ordaintzeko. Bestalde, Jesuitek, Cadizen duten kolegioari 1.000 pesoko errenta esleitzen diote, eta gainontzeko akzioak salmentan jartzen dira. Apenas dute arrakastarik: garai hartako dirudunek konfiantza gutxi egiten diote enpresa jaioberriari, zaila ikusten baitute Espainia eta Amerikaren arteko komertzioa Sevilla eta Cadizeko portuetatik euskal portuetara bideratzea, eta gobernu espainiarreko ordezkariak mamu hori azaltzen diete konpainia berriaz interesatzen direnei. Orotara 750.000 peso harpidetzen dira soilik eta euskal fidatzaileek (fundatzaile eta kolaboratzaileak) aurre egin behar izango diote gainontzekoari.

Espainiako errege eta Gipuzkoaren arteko hitzarmena hogei urterakoa zen. Honen bidez Konpainiak, urtean behin gutxienez, ondo armatu eta Europako produktuz betetako bi ontzi bidali behar zituen Venezuelara Gipuzkoako portuetatik. Itzuleran, ontzi berek Venezuelako produktuak ekarri behar zituzten (kakaoa, tabakoa eta larruak, batez ere); baina euskal portuetan deskargatu aurretik, Cadizen gelditu behar ziren inportazio-zergak ordaintzeko, eta behin Euskal Herri-ratutakoan, merkantzia horiek, Gaztelako merkatuan inongo zergarik gabe sal zitzaketen. Euskaldunek euren gain hartzen zuten kontrabandoa desagertaraztea, kolonia hartako administrazioa zuzentzea eta Espainiako diru-sarrerak handiki emendatzea. Horren truke, Amerikako lur-zati horrekiko merkatal harremanen eskusibitatea eskatzen zuten. Hasiera batean, Erregeak monopolioa ukatu zion Konpainiari.

Emaitzak

Ikus dezagun orain, Atlantikoaz bestaldera zer nolako jarrera izan zuten inizatiba honen aurrean. 1730ean Donostiatik abiatu ziren lehen

lau ontziak harrera ezin txarragoa izan zuten Venezuelan: kakao-ekoizleek Konpainiari saltzeari uko egin zioten eta, gainera, matxinada bat antolatu zuten holandarren laguntzarekin. Argi dago, goian esan dugun bezala, lurralde honetako ekonomia kontrabandoan oinarritua zegoenez, ekoizleek eta merkatariek, bi alderdien onurarako eta metropoliaren kalterako, ondo baino hobeto finkaturik zituztela euren harremanak. Beraz, egoera horretan, ulergarria da Konpainia Gipuzkoarrek egon ezina sortu izana eskualde hartan.

Baina gipuzkoarrek ez dute etsitzen eta trabak gaintuz, hiru urte barru ia % ehun errentagarritasuna ateratzen diote kapitalari. Laster, etekinek inbertsioak eta gastuak gaintuzten dituzte; kakao-anega bat 10 pesotan erosten bada, 40 pesotan saltzen da Penintsulan eta 1733an % 20ko dibidendua lortzen dute. Urte berean, bederatzi ontzi holandar harrapatu eta kostazain lanetan jartzen dituzte⁵. Ereku geografikoa, hasiera batean Caracasera mugatzen bada, denbora gutxi barru Cumaná, Trinidad, Margarita, Guayana eta Maracaibora (1739) zabalitzen da. Halako arrakasta eta lorpenak ikusirik, erregeak bere laguntza dena eskaintzen dio Konpainiari eta honek monopolio osoa eskuratzeko du. Hara zer dion Salcedo-Bastardok honi buruz: “Esta –Konpainiak, alegia– por su éxito palpable alcanza un cierto grado de soberanía del cual ninguna empresa similar gozó jamás”⁶. Bestalde, egia da ere, euskaldunek ez dituztela pribilegio horiek hutsaren truke lortu. Horren frogara da Espainiako erresumaren interesak defendatzen zituztela itsaso eta eremu haietan. Ingalaterraren aurkako gerratean adibidez, Konpainiako ontziak laguntza handikoak izan zitzaizkion erregeari, tropak eta armak garraiatzeko eta ingelesen erasoei aurre egiteko (1737, 1743). Diru-laguntza ere jaso zuen erregeak Konpainiaren eskutik.

Dena dela, Konpainiaren xede nagusia merkataritza zenez, alor horretan nabarmendu zen bere arrakasta, eta 50 urte luze iraun zuen garai oparo bezain emankor honek. Emaizak eta etekinak ezin hobeak izaki, bulegoak ireki zituen Penintsula osoan kakaoaren salmenta errazteko, hala nola, Madrilan, Bartzelonan, Cadizen, Alicanten eta Donostian. Ezaguna da XVIII. mendean txokolateak Euskal Herrian

⁵ Douglass, William A.; Bilbao, Jon, op. cit., 122.

⁶ Salcedo-Bastardo, J.L., op. cit., 161.

eta kanpoan izan zuen onarpena eta zabalkundea, Baiona dugularik horren lekuko; garai horretan, liburuak argitaratu ziren produktu honen alde onuragarriak goraiatuz. Komentuen horma tzarrak ere gainditu zituen eta, Aita Larramendik Gipuzkoako komentuek erreformatu zituenean, txokolatearen aurkako gurutzadari ekin zion, seroren lasaikeriaren erruduntzat hartzen baitzuen: “Todo era miedo de perder los regalitos y las seis libritas de chocolate por Navidades. ¡Maldito chocolate, que tienes perdida a mi Provincia!”⁷. Eta hurrunago: “Observé en las Carmelitas de Zumaya... que en una cosa no vivían del común según sus Constituciones, y era que cada una buscaba el chocolate que se les permitía, y era causa de mucha relajación”⁸.

Urte horietan Venezuelako kakao-ekoizpena bikoiztu egiten da (1730ean 60.000 anega esportatzen dira eta 1749an 130.000 anega⁹), maila handiko kalitatea lortuz. Metal preziatuen atzetik Amerikako gai baliotsuena bilakatzen da –zenbaitetan kakao-aleak txanpon gisa erabiltzen direlarik-. Kakaoz gain, Konpainiak beste zenbait produktu sustatzen ditu, besteak beste, tabakoa, European oso preziatua, eta etekin itzelen iturria Espainiako Koroarentzat. Kotoigintza ere garatzen da esportazioak emendatuz eta, era berean, anila eta azukre-kanabera. Aragiako lurraldeen balio-handitzea nabarmena da eta, XVIII. gizaldi erditik aurrera kafearen laborantzari ekingo diote, produktu hau Venezuelako aberastasun-iturri bilakatuko delarik hurrengo gizaldian. Halaber, abelazkuntza hirukoiztu egingo da garai horretan.

Lehen egoitza Caracasko portuan kokatu zuten, hain ezaguna den la Guairako eraikuntzan. Gerora beste egoitza batzuk finkatu zituzten Karibeko itsas-hegian eta kaia berriak eraiki La Guairan eta Puerto Cabellon; bide batez, portu hauek denak kanpoko erasoetatik babes-teko gotorlekuak altxatu zituzten. Caracas hiria ere garapen esanguratsu honen lekuko da, garai horretakoak baitira zenbait eraikuntza garantzitsu, jauregi, eliza eta komentu.

Bestalde, Konpainia Gipuzkoarraren ontziak ez ziren jende eta gaien garraiari soilak, liburuek ere osatzen zuten euren kargamentua eta, hain zuzen ere, arrazoi horregatik izendatu zituzten “Ilustrazioko

⁷ Larramendi, Manuel de, *Autobiografía y otros escritos*, J.I. Tellechea Idigorasen edizioa, Donostia, 1973, 50.

⁸ *Ibid.*, 57.

⁹ Douglass, William A.; Bilbao, Jon, *op. cit.*, 122.

Untziak”, mende horretan Europan garatu zen kultur mugimendu berritzailea Mundu Berrira zabaldu baitzuten¹⁰.

Arrakasta ukaezina da eta 1752an akzioen kopurua bikoizten bada, 1766rako, etekinei esker, hirukoiztu egiten da¹¹.

Urteak joan ahala, euskaldunen eskuhartzea Venezuelan ez da merkatal eta nekazaritza esparruetara soilik mugatzen, politika arloan ere gero eta indar gehiago hartzen dute, bertakoen eta, batez ere, kanariarren kalterako. Hala nola, 1737an Zuloaga izeneko euskaldun bat, bertako gobernadore izendatzen dute eta bere agintaldian Venezuelak “probintzia oso”ko maila lortzen du, Santo Domingoko eskumenetik bananduz¹². Oparotasun urte hauetan, euskaldunen eraginez, Venezuela kolonia emankorra bilakatu da Espainiarentzat eta euskal emigratioarentzat tokirik erakargarrietakoa.

Laburbilduz, esan dezakegu Konpainia Gipuzkoarrak ekarpen handiak egin zizkiola, alde batetik, Venezuelari:

— Nekazal arloan, lehenago ikusi dugunez, bertako produktuen ekoizpena nasaiki emendatuz, eta nekazariei kreditu erosoak eskainiz (500.000 peso baino gehiago¹³).

— Abelazkuntza garatuz.

— Herri eta fundazio berriak sortuz eta lehendik zeuden hiriak garatuz eta aberastuz.

— Kostan, kaiak eta defentsarako gotorlekuak eraikiz.

— 1752. urteaz geroztik, venezuelarren artean akzioak salduz.

— Halamoduzko gizatalde ezezagunez osatutako biztanlego bati irudi erakargarriagoa emanez eta Ilustrazioko ideiak zabalduz.

Hitz gutxitan, Ameriketako lur-zati honi maila ekonomiko, politiko, kultural eta sozialean estatus berri bat lortzen lagunduz.

Beste alde batetik, baita Espainiari ere:

¹⁰ Euskal Herrian mugimendu hau Azkoitiko Zalduntxuen inguruan gauzatu zen eta horren fruitu izan zen 1764. urtean sortutako “Euskalerraren Adiskideak Elkarte” (Real Sociedad Económica Vascongada de Amigos del País).

¹¹ Estornes Lasa, J., *La Compañía Guipuzcoana de Caracas*, Buenos Aires, 1948, 22-23.

¹² Douglass, William A.; Bilbao, Jon, op. cit., 123.

¹³ Estornes Lasa, J., op. cit., 67.

— Tropak, armak, munizioak eta merkantziak bere ontzietan garraiatuz.

— Beste herrien erasoetatik defendatuz, askotan bere gizonen eta ontzien galerarako.

— Bere merkatal eta industria-ekintza Penintsula osora zabalduz: distilategiak eta kakao-saltegiak irekiz.

— Zerga, errenta eta eskubideen bidez Koroari eta Elizari etekin bikainak eskainiz, eta erregeari berari diru-aurrerakinak eginez.

Estornes Lasak esaten digunez, Espainiako erregeak Konpainia erabiltzen zuen gaur egun norbaitek enpresa bat kontrolatzen duen antzera bertako akziodun nagusia izateagatik¹⁴. Hurrengo lerro haue-
tan ere Larramendi orain arte esandakoa berrestera datorkigu:

“Caracas estaba ya en un pie tal, que no producía provecho ninguno para el rey y su Erario real, antes le costaba muchas cantidades, que adjudicaba de otras provincias, para la manutención de la tropa que allí era necesaria. Y hoy nada le cuesta la conservación y defensa de Venezuela y todas sus costas, y percibe las cantidades que quedan apuntadas. Todo el comercio de los frutos de Caracas era de los holandeses, y no venía un gramo de cacao ni un rollo de tabaco en rama sino por sus manos a los puertos de España. De aquí se seguía que todo el caudal que en estos géneros gastaba España, y era un caudal inmenso, se iba a Holanda; y hoy queda dentro de España y va circulando por todas sus provincias y es una utilidad de gran consecuencia”¹⁵.

Baina Venezuelara eta Espainiaz kanpo Euskal Herrian ere eragin ukaezina izan zuen bertan sortu eta eratutako enpresa honek. Hasiera batean, gipuzkoar talde sutsu batek bere dirua jokoan jarri behar izan bazuen ere, denbora gutxi barru eta 50 urte luzetan, merkataritzatik zuzenean edo zeharkako lanbideetatik, etekin mardulak jaso ziren. Alde batetik, Konpainiarekin berarekin zerikusi zuzena zutenak –inbertitzaileak, zuzendariak, Caracasera joandako faktoreak, itsasontzietako kapitainak eta ofizialak, herriko semeak gehienbat– eta, bestetik, Euskal Herrian bertan sustatu eta berpiztutako ofizio eta negozioen bidez, bertuko gizarte-sektore bat hala nola merkataria, itsasarotzak, zurginak,

¹⁴ Estornes Lasa, J., op. cit., 74.

¹⁵ Larramendi, Manuel de, op. cit., 208.

oihalgileak, errementariak, eta abarrek osatua, onuradun atera ziren. Ez dezagun ahantz, halaber, salerosketa mugimendu honetan euskal gaiak saltzeko merkatu bat ireki zela Venezuelan.

Bestalde, 1752. urtetik aurrera enpresa honek Nafarroako basoen monopolioa eskuratu zuen ontzigitzan baliatzeko, eta bakailao- eta bale-arrantzarako flotak antolatu zituen.

Konpainiaren garapenarekin batera, arma-industriak ere gorakada izugarria ezagutuko du. Espainiako beharrak handitzen diren heinean, Soraluzeko urteko arma-produkzioa 8.000 fusiletik 12.000ra pasatuko da hamar urtetan, eta fusilentzako giltzak lehen Liègetik ekartzen bazituzten, orain bertan egingo dira, 577 gizoni lana emanez¹⁶. Beste iturri batean ere irakur dezakegu antzeko daturik:

“Entre los años 1775 y 1777, solamente las factorías de armas de Plasencia y de Tolosa (ambas en Guipúzcoa), asociadas con la Compañía en una propiedad compartida, recibieron del rey el encargo de producir un total de: ‘14.199 armas de fuego de todas clases, 17.700 espadas, lanzas y bayonetas, 3.420 pistolas y 12.000 instrumentos para las tropas gastadoras... destinadas a América, Perú, Chile y países del Caribe, y toda clase de utensilios de trabajo para Maracaibo’”¹⁷.

Baina dena ez da arma-hotsa eta Konpainiaren etekinak eraikuntzan ere inbertitzen dira. Esate baterako, Gipuzkoako bazter askotan etxegintzari eta etxe berritzeari ekingo zaio; adibidez, Donostiako Andre Maria Deunaren eliza garai horretan jasotakoa da.

Begi-bistakoa da, beraz, Euskal Herriko ekonomian Konpainia Gipuzkoarrak izan zuen ondorioa, bizi zuen lozorro-egoeratik atereaz eta euskal herritarrei lan-aukera eskainiz, Venezuelan eta etxean bertan.

Alde txarrak

Halere, alde onak badu maiz bere alde txarra eta, giza enpresa orok bezala, gureak ere baditu bere akatsak eta aurkakoak. Euskal Herrian bertan badirudi Konpainiak sortu duen egoera berriarekin badela kon-

¹⁶ Estornes Lasa, J., op. cit., 66-67.

¹⁷ Douglass, William A.; Bilbao, Jon, op. cit., 126. Datua Hussey, Roland Dennis-en, *The Caracas Company 1728-1784. A study in the history of Spanish monopolistic trade* liburutik aterata dago, Cambridge, Massachusetts, 1934, 226.

forme ez dagoen jenderik. Larramendiren idatzietan irakur dezakegunez, komertzioaren eremuak hedatuz, lehendik barne-merkataritzatik bizi diren artean inbidia eta ikusezina pizten ditu enpresa berriak. Bestalde, lehendik zabaldua zegoen bakailao-, bale- eta beste arrantzamotak behera etorriko dira, Euskal Herriko portuetatik ontzi- eta jende-baliabide ugari Konpainiak bereganatu baititu Caracasera joateko. Azkenik, arrantzatik bizi diren familietan bertan bizi direnez, gizonak familiaz eta etxeaz arduratu ohi dira; baina orain urteak pasatzen dituzte etxetik kanpo, emazteak eta haurrak bakarrik utzirik¹⁸. Familiak, auzoak, parrokiak, eta herriak kide bat galtzen dute, gizarte mailan horrek sortzen duen desoreka eta arrangurarekin. Beraz, ikusten dugunez, zenbait kasutan, bizitza-molde bera aldatzen da Konpainiaren eraginez.

Azter dezagun orain venezuelarrek nola bizi izan zuten monopolio honen eragina. Egia bada erregearentzat eta euskaldunentzat, oro har, Caracasko Konpainiak ondorio ezin hobeak ekarri zituela, eta kolonia-esplotazio gisa eredugarria izan zela, venezuelarentzat ez zen gauza bera izan. Alde batetik, kontrabandoa eragotziz, etxaldeetako nagusien, *patricios maduanos* delakoen, negozioak hankaz gora bota zituen Konpainiak eta bestetik, eskulana, Euskal Herritik ekarriaz, bertako langile kanariarrak eta kreolak baztertuak izan ziren. Horrez gain, euskaldun anitzek, etxalde berriak sortuz eta garatuz, prezioak beheitarazi zituzten, Konpainiaren mesederako eta biztanleriaren erosalmenaren kalterako. Gainera, kakaogintzaren monolaborantzak arriskuan jarri zuen herri horretako ekonomia. Era horretan, itxurazko egoera oparo orokorrean, bertako ekoizleak txirotzen joan ziren. Laburbiltzeko, Salcedo-Bastardo venezuelar historialariaren hitzak ekarriko ditugu harira: “Desde el punto de vista de las relaciones económicas, la Real Compañía Guipuzcoana profundiza la dependencia colonial buscando el beneficio egoista de los capitales metropolitanos, al servicio de los cuales pone su eficiente organización”¹⁹.

Juan Francisco de Leon kapitainaren matxinada

Pixkanaka, monopolioaren ajeak handitzen doaz eta espekulazioa eta politika lotzen diren heinean egoera usteltzen doa, maila sozial des-

¹⁸ Larramendi, Manuel de, op. cit., J.I. Tellechea Idigorasen edizioa, 212.

¹⁹ Salcedo-Bastardo, J.L., op. cit., 163.

berdinen haserrea eraginez. Konpainiari, erosle eta saltzaile bakarra izatea leporatzen zaio. Kritika hauen aurrean “manifestu” bat plazaratzen du, monopolioa Venezuelarako ezinbestekoa eta onuragarria dela defendatuz. Baina bertakoak ez datoz bat iritzi honekin eta ernegazioak oldartzera bultzatzen ditu. Egoera honen isla nabarmena, hain ezaguna eta bortitza izan zen Leonen matxinada da, 1749tik 1751a bitarte iraun zuena. Juan Francisco de León kanariarrak ez du onartzen Echevarria izeneko euskaldun baten agindupean egotea eta kanariarren, kreolen eta *patricios maduanos* delakoen egonezina eta amorrua bere inguruan gauzatzea eta bideratzea lortzen du.

Egia da, urteak joan ahala, Konpainiak euskaldunen hegemonia hedatzea eta indartzea ahalbideratu zuela Venezuelako lurretan, Salcedo-Bastardok azpimarratzen duen legez: “La Compañía auspicia el asentamiento en Venezuela de un crecido contingente de vascos, los cuales –anota Depons– constituyen la mayoría de los europeos residentes en Puerto Cabello, y en Caracas son más del 10 por ciento de la población. En casi todos los pueblos el gobierno está en manos vascogadas”. Eta beste hau ere irakur dezakegu: “... el desempeño drástico y hasta tiránico en el cobro de los impuestos y en la represión del contrabando, irrita por igual a los sectores superiores y a los humildes, en Caracas como en el interior”²⁰. Era horretan, bertako biztanleen herra sustatzen euskaldunen aurka: “No queremos justicia de Vizcaya! Queremos isleños o criollos: pero vizcaínos no!”²¹.

Agiri batean, beraz, gatazka honek etnien arteko liskar itxura hartzen du, eta euskaldungoa gizartearen nahigabe guztien katalizatzaile bilakatzen da. Dena dela, horrelako kasuetan, maiz gertatzen den bezala, arrazoi asko nahasten dira. Ez dezagun ahantz Konpainiaz gain, beste merkatal eta ekonomia-interesik bazela eskualde horretan eta euskal hegemonia suntsitzea zutela helburutzat. Douglass eta Bilbaoren esanetan, “Las antipatías regionales del Viejo Mundo y la retórica racista inflamaron las pasiones, aún cuando el verdadero problema radicaba en una pugna por hacerse con el control del comercio – una pugna que parecía ser más entre vascos y holandeses que entre vascos y venezolanos”²². Holandesek, hain zuzen, armez hornitzen zituzten matxina-

²⁰ Ibid., 165.

²¹ Estornes Lasa, J., op. cit., 77.

²² Douglass, William A.; Bilbao, Jon, op. cit., 126.

tuak. Bestalde, azpimarratzekoa da, Konpainiaren aurka asaldatuz, venezuelarrekin, Espainiako erregearen agintea ahultzen zutela eta lehen aldiz erregea bera desafiatzera ausartu zirela, azken honek Konpainiaren alde jokatu baitzuen argiki Juan Francisco de León atxilotaraziz. Bide batez, esan dezakegu Konpainia Gipuzkoarrak, bere asmoetatik kanpo bazen ere, lehen urratsa ematera bultzatu zituela venezuelarrak hurrengo gizaldian lortuko zuten independentziaren bidean.

Gainbehera

Leónen matxinadaren ondoren, espainolen eskuhartzea Konpainian areagotzen joan zen, euskaldunen kontrola ahulduz. Horrela, 1751n Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarraren egoitza nagusia Donostiatik Madrilera pasa zuten Gipuzkoarren gaitzespenei entzungor eginez. “Pero la de Guipúzcoa –la Compañía– ni ya está en Guipúzcoa, ni mantiene su nombre: ya casi se llama Compañía manchega o cortesana. En Madrid está toda su dirección, con sus oficinas todas. Pues ¿por qué esta diferencia?”²³, galdetzen zuen Aita Larramendik, ikusirik Konpainia Gipuzkoarren ondoren sortutako beste merkataritza-konpainia guztiek euren jatorrizko izenak eta egoitzak mantentzen zituztela.

Bestalde, 1756an Espainiako errege Fernando VI.ak konpainia katalan berri baten sorrera baimenduko du, hots, La Real Compañía de Comercio de Barcelona-rena, eta laster Gipuzkoakoarekin lehian sartuko da, Cumanako eskualdean lehenik eta Venezuela osoan gerora.

Hala eta guztiz, gure Konpainiak ez du etsitzen eta 1776an Margarita eta Trinidad uharteekiko komertzio-monopolioa lortzen du, baina bi urte beranduago, aurrera segitzeko gai ez eta, monopolioa eten behar izaten du.

Interesen barreiatzea dakarren indar-higadurak eta Ingalaterraren aurkako gerla berri batek (1779), diru-arazo larriak eragiten dituzte Konpainiaren baitan. Baina azken sastada, Karlos III.ak ematen dio, beste merkataritza-konpainiei, Venezuelan lehenik eta Mundu Berriari gero, salerosteko baimena luzatzen baitie eta, bide batez, merkataritza-politika libreganbista bati bidea irekitzen baitio.

²³ Larramendi, Manuel de, op. cit., 207.

Giro horretan murgildurik, 1781. urterako, Konpainia Gipuzkoarrak, ordurarte monopolioak ahalbidetzen zizkion pribilegio guztiak galtzen ditu, eta 1784an François Cabarrus kondeak (1752-1820) –Baionan sortua bera eta, hain zuzen, Unibertsitate hau kokatuta da goen karrikak daraman izena–, zuzendaritza-batzordeko kide izanik, Habanako eta San Fernandoko Konpainiekin bat egitea proposatzen du, enpresa berri bat sortuz, hots, Filipinetako Konpainia. Azken hau 1788an gauzatzen da Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarrari bukaera emanez.

Konklusioa

Konklusio gisa esan dezakegu Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarrak venezuelar eta euskaldunen arteko harremanak eta loturak sendotzeko aukera paregabea eskaini zuela. Berari esker, Ameriketako lurralde hau bi mundu, bi zibilizazio eta bi kultura arrunt desberdinen topaleku izan zen, kontuan hartuta, noski, desberdintasun horiek sortarazitako mesfidantzak, ulertezinak eta liskarrak alde batetik, eta aberastasuna, elkar trukatzeko eta aditzea, bestetik. Batzuen eta besteen lanari esker, kemenik eta federik gabe bideraezinezko enpresa honek, geroa Venezuela herri aske bat osatzeko eta eraikitzeko, lehen zimenduak bota zituen, Salcedo-Bastardok dion legez: “En el proceso de la integración político-territorial venezolana gran papel desempeña la Compañía Guipuzcoana... Desde oriente a occidente, en el centro y los llanos, en todas las provincias que Karlos III fusionaría en Venezuela unida, se siente como un lazo común y compactador la presencia de esta empresa que transformó pedazos sueltos, al norte de la América meridional, articulando una patria con su cerebro y corazón en Caracas”²⁴.

Horrez gain, Konpainiak bidea ireki ziren hurrengo urteetan, arrazoi desberdinengatik, Venezuelara joango ziren beste euskaldun batzuei. Horien artean, gizaldi bat eta erdi beranduago, nazio jaioberri hau erbestaldirako hautatu zutenei, orduan, eta gaur egun oraindik, bere bidea, nazio bezala, aurkitu nahian dabilen Euskal Herri zaharretik alde egin behar izan zuten.

²⁴ Salcedo-Bastardo, J.L., op. cit., 167.

1936-39ko gerratearen ondorengo erbestealdia

Denok ezagutzen dugun Espainiako gerra zibilaren ondorioz eta Euskal Herriko eskubideen suntsipenarekin batera, euskal herritar ugari euren bizilekutik alde egin behar izan zuen. Gehienek Euskal Iparraldea eta Frantzia hartu zituzten lehen babeslekutzat, baina bertako bizi-baldintzak jasangaitzak zirenez eta Europan bigarren mundu-gerra ate joka zetorrenez, Atlantikoaz bestaldera jo behar izan zuten.

Euskaldun hauentzat Hegoamerika hautatzearen arrazoa bikoitza izan zen, bertako hizkuntza ezaguna zitzaielako eta aurreko gizaldiraiko euskal emigrazioek lur horietako bidea nolabait ireki zitelako.

Aitzindariak

Venezuela, bereziki, aspalditik ezaguna zen gure herri honetan: gogora dezagun Kolonekin joandako euskaldun marinela talde batek aurkitu zuela lurralde hori 1493ko azaroan (talde horretako kide bat Kristobal de Aguerre izenekoak kausitu zituen zazpi urte beranduago Margarita, Cubagua eta Cumaná); bestalde, Juan de Lakotsa kartografo bizkaitarrak “Venezuela” izena eman zion eta kosta horren lehen mapa marraztu zuen (1500)²⁵; Lope de Aguirre oñatiarrak eremu horiek zeharkatu zituen Perutik Venezuelako itsasoraino egindako espedizioan (1560)²⁶. Caracas hiriko sorreran ere sei euskaldun aurkituko ditugu: Francisco Agorreta, Alonso Andrea de Ledesma, honen anaia Tomé, Francisco Maldonado de Armendariz, Sancho de Villar eta Diego Henares Lezama; azken honek zirrimarratu zituen, hain zuzen, jatorrizko hiriaren planoak²⁷. 1587an berriz, Simon de Bolivar izeneko bizkaitar bat iritsi zen Venezuelara, berrehun urte beranduago jaioko zen Simon Bolivar askatzailearen arbasoa²⁸. Azkenik, XVIII. mendean zehar Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak hemendik joan ziren ehundaka lagun eskertu, lur haietan euskal ezarkuntza garatu zen.

²⁵ Xamurre, *Colonizadores de la epopeya americana*, Ekin, Buenos Aires, 1966, 49.

²⁶ *Ibid.*, 300.

²⁷ Amezaga, Vicente de, “*Los vascos en la fundación de Caracas*”, in *25 Aniversario del Centro Vasco de Caracas*, 1967, 9-13.

²⁸ Ispizua, Segundo de, *Los Vascos en América Vol. VI, Venezuela tomo III, La ascendencia vasca de Simón Bolívar, Libertador de América*.

Hortik, Germán Arciniegas jaunaren hitz hauek: “La historia de los vascos en América ha sido en cierta medida la historia de los vascos en Venezuela”²⁹.

Horiek oro izan ziren gure erbesteratuen aitzindari eta bide-erakusleak lurralde berri hartan.

Horrenbestez, XX. mende erdialdean, gure aita-amak –belaunaldi horren alaba bainaiz– Venezuelara joan zirenean, ez ziren jende arrotza bertakoentzat. “Vasco” hitza hagitz esanguratsua zen haientzat.

Irteera

Baina ikus ditzagun hurbilagotik, Venezuelara joateko aukera egin zuten horien zergatiak eta gorabeherak.

Erabaki honen oinarrian Simón Gonzalo Salas izeneko venezuelar bat egon zen. Garaitutako euskaldunekin Parisen harremanetan jarri ondoren, txosten bat aurkeztu zion López Contrerasen gobernuari Venezuelan euskaldunak onar zitzala proposatuz. Eta inizatiba honen aurkako propagandari erantzuteko, Venezuelan eta Hegoamerikan zehar oihartzun handia izan zuen liburuxka bat argitaratu zuen *Inmigración Vasca para Venezuela* izenburupean.

Hiru itsaso ontzitan iritsi ziren lehen erbesteratuak Venezuelara: *Cuba* izenekoa lehena, Le Havreko portutik abiatu zen 150 euskaldun zeramatzala eta 1939ko uztailaren 14an heldu zen La Guairako portura. *Flandre* izenekoa bigarrena, hilabete beranduago iritsi zen 200 bat bidaiari euskaldunekin, eta *Bretagne* izenekoa hirugarrena. Azken hau, Bordeletik irten zen eta urte bereko abuztuaren 26an iritsi zen 75 laguneko talde batekin. Jende guzti honek, Parisen exiliatuta zegoen Euskal Gobernuaren bitartez lortu zuen bidaia-txartela.

Hiru ontzi horiez gain, beste bi arrantzuntzi txiki ere ailegatu ziren La Guairara 1939ko urte hondarrean, *Donibane* eta *Bigarrena* izenekoak, biak Burgaña kapitain mutrikuarrak gidatuak.

Europa atzean utzia zuten bidaiari horietako batek idatzi zuenez, “La vieja Europa quedaría detrás. Con sus incomprendiones, sus vacilaciones y sus dudas. Con su cobardía. Con su temor. Con su democracia paralela e inoperante. Con su irrisorio guiñol de diplomáticos.

²⁹ Arciniegas, Germán, “Los vascos en Caracas”, in *Los Vascos en Venezuela, XV aniversario del Centro Vasco de Caracas*, 1957, 16.

Y su paraguas chamberlinesco. Los dados del Fascismo estaban echados. Y nuestra jugada perdida... En el llamado ‘continente vacío’ trataríamos de rehacer nuestros hogares. Las llamadas de Gernika iban a quedar lejos. Y sus ruinas serían en el curso del tiempo, recuerdos amargos, imperecederos y entrañables”³⁰.

Venezuelako egoera

Garai horretan, Venezuela trantsizio politikoa bizitzen ari da bete betean: 1935ean Juan Vicente Gomezen agintaldi autokratikoaren ondotik, López Contrerasen gobernu dator eta Salcedo-Bastardo historialariak dioenez, “El siglo de la definición venezolana, empieza aquí propiamente en 1936... A pesar de criticables limitaciones, timideces y paradojas se extiende por el país una sensación de renacimiento cívico, de recuperación venezolana, de actividad animosa y optimista”³¹. Ekonomia arloan petrolioaren aroari hasiera ematen zaio, horrek darraren garapen orokorrarekin; zementu, altzairu, aluminio eta elektrizitate-produkzioak gora egiten du nabarmenki. Hazkunde hau industria, eraikuntza, azpiegitura eta nekazaritzan islatzen da, besteak beste. Bestalde, moneta eta zerga-politika finkatzen da eta ekonomiaren goi mailako irakaskuntzari ekiten zaio. Demografia ere emendatuz doa. Beraz, begi-bistakoa da, euskaldunak Venezuelara iristen diren une berean, herri honen baitan aldaketa politiko, ekonomiko eta sozial garrantzitsuak hastear daudela.

Harrera

Venezuelan sartzea ez zen inolaz era klandestinoan edo isilpekoan egin. Aitzitik, euskaldun hauek erakunde ofizial baten bitartez egin zituzten lehen urratsak lurralde horretan, Arturo Uslar Pietriren zuzendaritzapean zegoen “Instituto de Inmigración” erakundeari esker. Lerro huez baliatu nahi genuke, bidenabar, orain dela gutxi hil den idazle, politikari eta intelektual venezuelar handi hori goraiatzeko, Vene-

³⁰ Mardozones Zabalandikoetxea, Francisco G. de , “Breve estampa de la diáspora”, in *25 Aniversario del Centro Vasco de Caracas*, 1967, 34.

³¹ Salcedo-Bastardo, J.L., op. cit., 580, 582.

zuelako euskaldunok asko zor baitiogu. Baina ez zen hura izan gure herrikideei harrera ona eskaini zien venezuelar bakarra; hor dugu Aristedes Rojas idazle ospetsua ere, euskaldunen lagun eta defendatzaile sutsua, *El elemento vasco en la historia de Venezuela* (1874) izeneko liburuxka argitaratu zuena eta era honetan deskribatzen gaituena: “El vasco es el araucano de los Pirineos, sereno, inmutable y temible en su lucha si ve en peligro su nacionalidad”.

Venezuelarren aldetik harrera ezin hobeia izan bazen ere, erbestaldiko lehen urteak, ohikoa den legez, gogorak izan ziren euskaldun haientzat. Klima, ohitura eta mentalitate berrietara moldatu beharrak, familia eta lan-arazoei aurre egin beharrak eta askotan eraso politiko interesatuen jomuga izateak ere nahiko burukomin eta kezka sortarazi zien. Dena dela, gogotsu eta ilusioz beterik ekin zioten hutsetik hasi behar izan zuten bizitza berri hari.

Lan bila

Caracas izan zen erbesterratu gehienen lehen helmuga, Venezuelako interes politiko eta ekonomiko gehienak bertan kokatuak baitziren. Garai hartan hiriburu txiki bat zen³², eta bertako biztanle-kopuruari 500 etorkinen gehitzea ez zitzaion oharkabea pasa. Gorago aipatu arrazoiengatik, une horretan, Caracas suspertze prozesu baten atarian zegoen eta eskulan gaituaren premian aurkitzen zen. Beraz, gure herrikideek ez zuten denbora gehiegi pasa lan-munduan murgiltzeko. Gehienak ofiziodunak, goi-mailako teknikariak edo ikasketak egindakoak zirenez, aise lotu ziren lanari. Batzuk bakarka eta beren kabuz, beste batzuk taldeka, urteak joan ahala, entrepresa berriak sortzen joan ziren.

— Enpresa horietako lehenetako bat “Pescaderías Vascas del Caribe” izenarekin osatu zuten *Donibane* eta *Bigarrena* arrantzuntzietan etorritakoek. Karibeko uretan harrapatutako arrainez hornitzen zuten Caracasko merkatua, bertakoen jateko ohiturak aldaraziz.

— Beste batzuek etxegintzari ekin zioten berehala. Hala nola hiri inguruko lehen apartamentu-eraikina Miguel Salvador donostiarrak

³² Errolda ofizialaren arabera 1936an 203.342 biztanle zituen eta 1941ean 266.725 (datu hauek Instituto Nacional de Obras Sanitarias-ek argitaratutako *Obras del nuevo acueducto de Caracas* (1948) liburuxkatik ateratakoak dira).

altxatu zuen Los Caobos auzoan (1940). Lehen euskal eraikitzaileen taldea 1939an osatu zen Manuel Chalbaud buru zuelarik; gero etorriko ziren Zubizarreta y Atucha, Francisco Badiolaren “La Vasco-Venezolana”, Isidoro Olaizola y Cía., Francisco Badiola, Marcelino Aguirrezabala, Miguel Salvador eta Angel Roussek sortutako “La Sociedad de Arquitectura y Construcción”. Bakarka ere ibili ziren beste batzuk, adibidez Isidro Monzon eta Antonio Alegria. Era guztietako eraikinetan lana egin zuten: edifizio publikoak (El Silencio-ko dorreak), ikastetxeak (La Salle), etxebizitzak eta abar. Gaur egun oraindik, usu aurkitzen dira Caracasko urbanizazioetan garai hartako euskal tankera eta izeneko etxeak: “Eguzki”, “Elizalde”, “Buruntza”, “Azkain”, “Zokoa”, eta abar luze bat.

— Herriaren hazkundearekin batera, azpiegituren garapenari ekin zitzaion eta hor ere euskaldunek esku hartu zuten. Hala nola, Caracasko ur-horniketarako “La Mariposa” eta “Agua Fría”³³ uharka eta ubidea eraikuntzan jardun zuten. Lan hauetan eta Ipar Amerikatik Hego muturreraino doan “La Panamericana” errepidean, Venezuelari dagokion zatiko obretan, beste batzuen artean, Juan Martin Alegriaren izena aurkitzen dugu.

— Medikuntzan ere trebatu ziren zenbait. 1938-1946 bitartean, 50 euskal mediku baino gehiago iritsi zen Venezuelara. Horietako batzuk hiriburuan bertan gelditu ziren, baina beste batzuk barneko lurraldeetan aritu ziren; kirurgian, paludismo eta tuberkulosiaren aurkako lanetan eta abar; medikuntza publikoan zein pribatuan. Izen batzuk emateagatik, aipa ditzagun Gonzalo de Aranguren eta Fernando de Unceta, Anzoátegui-ko estatuan eta Orinoco-ko eskualdean jardun zutenak, hurrenez hurren. Gerora, batzuek postu garrantzitsuak beteko zituzten Osasun Ministerioan, horren adibide esanguratsua José María Bengoa Lekanda delarik. Han 1938an heldu zen Venezuelara eta, barnealdeko herri txikietan lan egin ondoren, elikadura gaietan espezializatu eta Osasun Ministerioko goi-kargutan egon zen, 1955etik aurrera, Osasunaren Mundu Erakundearen Venezuelako ordezkari izatera heldu arte.

— Iritsi berriak aterpea eta jantokien beharrea aurkitzen zirela eta, ostalaritza ere garatzen joan zen. Hasieran, euskaldunak bakarrik biltzen baziren ere herrikideek gobernatzen zituzten ostatu, hotel, taberna eta jatetxe horietan, nahiko azkar hurbildu ziren bertakoak,

³³ Ibid.

euskal sukaldaritzaren ospea zabaldu zelarik. “Hotel Zuriñe” izan zen lehena, gerora “Amaia” izena hartuko zuena. Bertan jaioko zen gainera Caracasoko lehen euskal erakundea, hots, “La Asociación Vasca de Socorros Mutuos” deitua.

— 50eko hamarkadan, Venezuelako Chirgua bailaran, Francoren errepresiotik ihesi etorritako zenbait arratiar nekazari aurkituko ditugu. Jaioterrian lurretik bizi zirenak, erbestean ere lurrari loturik segitu zuten. Gizon-emakume hauen lana eta kemenari esker, eremu zabal eta antzuak, urte batzuk barru, patata-soro emankor bilakatu ziren, nahiz eta gero beste produktu batzuk landu. Familiaka etorri ziren, horien artean Meabe, Zenarruzabeitia, Atutxa eta Marzanatarrak, besteak beste. Gerora, euskal nekazariak beste eskualdeetara zabaldu ziren, Colonia Tovar, Tocuyito, Naguanagua, Zulia, los Llanos eta Andeetan³⁴.

— Euskaldunak beste ofizio eta zeregin askotan ere aritu ziren, zurgintzan, errementaritzan, lantegi mekanikoetan, galdaketan eta tipografian, besteak beste. Azken jarduera honek bereziki indar handia hartu zuen eta argitaletxe ugari sortu ziren: “Cromotip C.A.”, “Miangolarra Hnos.”, “Editorial Color”, “Editorial Rex”, “Tipografía Venezuela”, “Tipografía Lizarra”, “Editorial Excelsior”. Esan daiteke garai batean, herri honek, arlo horretan zituen behar gehienak, euskaldunek bete zituztela.

Talde-sena eta sorterriarekiko lotura

Lehen urteak pasa ahala, erbesteratu horiek Euskal Herrian edo Frantzia gelditutako ahaideei Venezuelarako bidea irekitzen diete. Aipatzekoa da William A. Douglass ikerlari ipamerikarrak izendatzen duen “kate-migrazio” fenomeno: “Una vez establecido en el país receptor, cada emigrante se convierte en un eslabón en potencia de una cadena continua. Es un contacto viable para futuros inmigrantes que suelen ser parientes, conciudadanos o, como mínimo, personas conocidas”³⁵.

³⁴ Ugalde, Martín de, “Los vascos en la agricultura”, in *25 Aniversario del Centro Vasco de Caracas*, op. cit., 46-51.

³⁵ Douglass, William A., “Factores que intervienen en la formación de la diáspora emigrante vasca al Nuevo Mundo”, in *Los otros vascos – las migraciones vascas en el S. XX*, Madrid, 1997, 31.

XIX. eta XX. mendeetako euskal migrazioaren historia aztertzerakoan, aipatu ikerlariak bi emigrante-multzo bereizten ditu: errefuxiatu politikoak alde batetik, eta politikoki konforme ez daudenak bestetik. Dagokigun kasu honetan ere, bi multzo hauek nabarmentzen dira: “La victoria franquista en la Guerra Civil española significó,... la salida hacia el exilio de muchas personas comprometidas o simpatizantes con la causa republicana. Este éxodo llevó también fuera de Euskadi, como factor de expulsión migratoria a un sector de la población vasca contrario, política y socialmente, al advenimiento del nuevo dictador”³⁶.

Bestalde, ezaguna da erbestera joan diren euskaldunek betidanik beren artean elkartzeko izan duten joera. Ezaugarri hau nabarmena da Venezuelako kasuan ere. Solidaritate etniko horrek 1939an “Asociación Vasca de Socorros Mutuos” izeneko laguntza-elkartea sortzera bultzatuko ditu. Gaixotasunak eta heriotzak komunitate horretako kideei eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko xedea izango du elkarte honek.

Ildo honi jarraituz eta talde-senaren eraginez, 1942rako lehen Euskal Etxea zabalduko dute. Egoitza txikiegi zaienez, urte berean etxez aldatuko dute eta bertan elkartuko dira 1950. urtea arte Caracasko euskaldunak. Urte horretako Aberri Egunean, gaur egun ezagutzen dugun “El Paraiso”ko egoitzaren ateak zabalduko dira Jose Antonio Agirre lehendakariaren eskutik. Urteak joan ahala, eta euskaldunak Venezuelako beste eskualdeetan finkatzen doazen heinean, Euskal Etxe berriak zabaltzen doaz: El Tigre (1957), Barcelona-Puerto la Cruz (1960), Maracaibo (1962), La Victoria (1961), Cumaná, Barquisimeto, Valencia, Puerto Cabello, Ciudad Bolívar³⁷. Arlo honetan Venezuela eredu bihurtzen da, eta 1956an Parisen ospatzen den Munduko Lehen Euskal Biltzarrean, Caracas aukeratzen dute “Federación de Entidades Vascas de América” (F.E.V.A.) delakoaren egoitzatzat.

Azpitarratzekoa da, hasierako erbesteratuentzat eta gerora etorriko diren herrikideentzat, Euskal Etxeak izan duen garrantzia. Elkartze gunea izateaz gain, euskal mikrokosmos bat sortzeko aukera emango baitu. Esan daiteke Venezuelan kokatutako Euskal Herriko zati bat

³⁶ Medina, F. Xabier, “*Emigrantes y emigrados: las migraciones vascas en el siglo XX*”, in *Los otros vascos – las migraciones vascas en el S. XX*, Madrid, 1997, 19.

³⁷ “*Los Centros Vascos en Venezuela*”, in *20 Aniversario del Centro Vasco de Caracas*, op. cit., 7-12.

dela, Gernikako Arbolaren kimu baten landatzeak irudikatzen duen legez. Bertan, bizirik mantentzen dira herri-ohiturak eta tradizioak: frontoia eraikiz pilota-partidak antolatuko dira, futbol-talde bat osatuko da “El Deportivo Vasco” (1944) elkartearen babespean, “Pizkundea” (1942) izeneko abesbatza sortuko da eta kultur alorreko ekintzak eratuko dira “Gernika” (1948) elkarteak eraginda. Gazteak “Euzko Gaztedi” (1948) izeneko taldearen inguruan bilduko dira, egunkari bat argitaratuko dute eta euskal dantzak, antzerkia, kirol lehiaketak, hitzaldiak eta ekitaldi-zerrenda luze bat-bideratuz. “Euzko-Deia, La Voz de los Vascos en Venezuela” (1959) irrati-saioak, sorterriko eta mundu osoko berriak, euskal eta venezuelar musika, eta iragarkiak hedatuko ditu euskal familietan. Formakuntza-gunea ere izan nahi du Etxe honek, bertan bizi diren euskaldunei (jatorrizko nahiz Venezuelan sortuei) euren herriari eta hizkuntzari buruzko gaien ezagutza eman nahirik. Horretarako “Asociación pro-universidad vasca” izeneko elkarte sortuko dute, eta horren ezaugarri dira 1961ean antolatutako euskal kulturari buruzko jardunaldiak³⁸. 1965ean, berriz, “Euzkadi” izeneko ikastola irekiko da 11 haurrekin, eta bi urte barru ikasurte desberdinetako 80 ikasle eskolatuko dira bertan.

Baina Etxe honek beste funtzio bat ere betetzen du, hots, Euskal Herriarekiko lotura politikoa mantentzea. Ez dezagun ahantz azken hau Francoren diktadurapean bizi dela eta Euskal Gobernuaren erbeste-ratuta dagoela Parisen. Agirre lehendakaria bi aldiz joango da Venezuelara, 1942an Berlinetik ihes egin ondoren, New Yorkerako bidean, eta 1950ean Euskal Etxearen inaugurazioaren kariatz, bertako euskaldunak laguntza handikoak baitzaizkio. Diru eta giza mailan, Euskal Gobernuaren finantzamenduan eta erresistentzi lanetan garrantzia handia dute. Arlo honetan aipatzekoa da Txomin Letamendiren kasua: 1940an heldu zen Venezuelara bere familiarekin, handik hiru urtera Euskadira itzuli zen berriro klandestinitatean sartzeko eta urte batzuk espainol kartzeletan igaro ondoren, bertan jasandako torturengatik hil zen 1950ean. Jose Felix Azurmendik berriki idatzi duenez, “en el Centro Vasco de Caracas, de donde salió para luchar en primera línea por sus ideas, cuelga una fotografía suya, junto a los presidentes del Centro y a la de los líderes más escogidos del PNV y el Gobierno Vasco”³⁹.

³⁸ “1961 – una gran labor”, *ibid.*, 44.

³⁹ Azurmendi, José Felix, in “Txomin Letamendi, hoy hace cincuenta años”, *Deia*, 2000-XII- 20.

Euskal Etxea hor egon da beti Euskal Herria eta Venezuelaren arteko distantzia murrizten. Bertan bizi ahal izan dira Euskadiko gorabeherak, tartean abertzaleen arteko liskarrak. Bera izanda gure herriaren historiaren isla eta lekukoa. Eta nahiz eta zuzendaritza beti EAJren eskuetan egon, gerora etorriko diren iheslarientzat ere babeslekua izan da, ideologia desberdinak gaindituz. Hemen aurkitzen dugu, hain zuzen, XVIII. eta XX. gizaaldietan joandako euskaldunen arteko alderik nabarmenena, hots: azken hauek, haiek ez bezala, euskaldun izatearen kontzientzia sakona daramate Luzio de Aretxabaletak gogoratzen duen legez: “Muy distinto había de ser el espíritu que animara a una y otra inmigración, que guiara a aquellos de antes y a éstos de ahora. Los primeros se sabían vascos de sangre, los otros de alma y corazón. Aquellos eran súbditos y servidores de reyes herederos de los que fueran dueños del mundo; éstos, unos pobres exiliados a los que Europa cerraba sus puertas de trabajo mientras América, Venezuela concretamente, les abría no ya las puertas sino los brazos fraternos para descansar en ellos y de ellos recibir la ayuda necesaria para volver a vivir con dignidad y decoro”⁴⁰.

Integrazio-ahalmena

Orain arte esandakoagatik pentsa genezake agian Venezuelako euskaldunak mundu hertsi eta mugatu batean bizi izan direla, ghetto batean bezala; aitzitik, errealitateak eta lekukotasunek arrunt bestelakorik dioskute. Lehenago ikusi dugunez, erbesterratuak aise integratu ziren lan eta enpresa munduan eta baita bertako giza arazoetan gogotsu inplikatu ere. Venezuelako euskaldungoa identitate bereziko komunitate bat izateaz gain, bertako jendearekin eta bertako gizartean txertatzeko gai izan zen, hala nola:

— kirol arloan, “el deporte vasco en Venezuela es una realidad, de amplias resonancias...compite, trabaja, suena, y eso es, a la postre meta definitiva de sus aspiraciones”⁴¹.

— irakaskuntza eta ikerkuntzaren esparruan hor dugu, besteak beste, euskaldunen esku hartzea “Instituto Nacional de Cooperación

⁴⁰ Aretxabaleta, Lucio de, “*Aquí y Allí*”, in *20 Aniversario del Centro Vasco de Caracas*, 1962, 54.

⁴¹ Polo, Pepe, (*El Nacional* egunkariko kirol-kazataria), “El deporte vasco en Venezuela”, *ibid.*, 1962, 73.

Educativa” (INCE) delakoan⁴². Eta zer esanik ez Hermano Ginés izenarekin ezaguna dugun Pablo de Mandazain nafar semeak natur zientzietan egindako lan eskerga, “La Sociedad de Ciencias Naturales de la Salle” (1940) eta “La Fundación La Salle de Ciencias Naturales” (1957) direlakoen sortzaile eta suspertzaile gisa: “Y así el caso del Hermano Ginés. Hoy en día margariteño. Antes goajiro, andino, llanero, ilustre hijo de la vieja Baruta, pero siempre profundamente venezolano y, ante todo, orgulloso vasco”⁴³. Bidenabar, esan dezakegu maila honetan euskal apaiz erlijioso eta misiolarien ekarpena handia izan dela.

— Integrazioaz hitz egiterakoan, bertakoen hizkuntza eta bizi-moldeak ikastea baino froga handiagorik ba ote? Hori da, hain zuzen, Aita Daniel Barandiaranek urteetan egingo duena Yekuena (Makiritare) eta Shirisana indioen artean misiolari gisa biziz eta Venezuelako jatorrizko biztanle hauei buruzko ikerketa antropologikoan murgilduz. Hara zer dion Indio hauetako batek: “Nuestro brujo Barandiaran no sólo habla nuestra lengua, sino que conoce también toda nuestra historia y la historia de Wanadi (Dios) mejor que casi todos nosotros. Un brujo anciano nuestro, kahiinawumuehidi, le enseñó todo, y hoy sabe más que nosotros”⁴⁴.

Atal hau laburbiltzeko, venezuelar baten hitz hauek ekarriko ditugu harira: “Sin olvidar a su Patria de origen, saben integrarse, y hacerse responsables y solidarios con los problemas y anhelos de la comunidad en la cual han venido a ser unos nuevos miembros”⁴⁵.

Venezuelari esker ...

Orain arte ikusi dugu Venezuelak gure herrikideei eskainitako babesa eta duintasun osoz bizitzeko aukera, baita euskaldunek jarrera abegitsu horri jotortasunez emaniko erantzuna ere.

Baina, jakin badakigu, erosotasuna eta baldintza ekonomiko hutsek ez dutela pertsonaren nahi eta xede oro asetzen. Bada artegintzan

⁴² Dolara, Jesús, “Aporte del elemento vasco al desarrollo económico de Venezuela”, *ibid.*, 55.

⁴³ Espinosa, Armando, “El Hermano Ginés, alma de la Fundación la Salle”, *ibid.*, 39.

⁴⁴ Mereshiwa, Witu (hijo del cacique indígena de Santa María de Erebató), “Santa María de Erebató o autobiografía de una Venezuela en Guayuco”, *ibid.*, 47.

⁴⁵ Dolara, Jesús, *ibid.*, 55.

eta idazten bere nortasuna garatzen duen pertsonarik eta arlo horietan ere Venezuelak euskaldun zenbaiti bideak irekitzen lagundu die. Hor ditugu margolaritzan, besteak beste, Enrique Albizu, Gezala eta Eloy Erentxun. Ricardo de Arrue zeramista, Jose Ulibarrena eskultorea⁴⁶; musika-sailean Nicanor Zabaleta harpa-jole ospetsua. Jose Estornes Lasa historialaria eta Pelay Orozko gazteleraz idatzi duen nobelagilea. Euskal idazleen zerrendara jotzen badugu berriz, izen hauek aurki genitzake: Aita Luis Mari Arrizbabalaga antzerkigilea, Toribio Etxebarria, Eibarko euskalkiaren aztertzaile garrantzitsuenetakoa, Jon Oñatibia *Argia* izeneko aldirakaritxoaren argitaratzailea, Bingen Ametzaga literatura eta historia gaietako zenbait lanen itzultzailea. Jesusen Lagundiko Aita Manzisidor *Santu Bizitzak egunean egunekoa* idatzi zuena, Gotzon Egaña, haur-literatura egilea, Andoni Arozena, artikuluidazle oparoa, Balendin Aurre olerkaria, eta Jon Urresti, liturgia berriari egokitutako *Euskal Meza* liburuaren egilea. Idazle hauen artean Martin Ugalde dugu literatura ofiziotzat hartu duen bakarrenetakoa: kazetari lanetan eta nobelagintzan ezaguna, venezuelarren erdara euskara bezain ondo erabiltzen jakin duena. Zerrenda hau Andima Ibiñagabeitiak idatzi artikulua bati esker osatua da⁴⁷. Zilegi deritzot idazle abertzale honen aipamen berezia egiteari, erbestetik, euskara eta herriaren defentsan eginiko lan suspertzaile bezain eskergatik. Hara zer idatzi zuen 1967an: “Euzkadin alako berpizkundea euskeraren inguruan ikusten ari geran bitartean, ezin gindezke gu emen (Venezuelan, alegia) besoak antxumaturu egon. Ia gazteak, zuen eskuarte dago euskeraren eta aberri maitearen etorkizuna”⁴⁸.

Argi dago, beraz, 1936ko gerratearen ondoren joandako euskaldunek sorterrian ez bezala, Venezuelan aurkitu zituztela pertsona eta talde-mailan garatzeko beharrezkoak ziren baliabideak eta askatasuna. Euren aberriari uko egin gabe eta politika, kultura eta hizkuntzarekiko loturak mantenduz, nazio berri batean errotzen jakin zuten.

Konklusioa

Bukatzeko, euskaldunak eta Venezuela protagonistatzat dituen bi gertakari historiko hauek aztertu ondoren, bi ideia nagusi azpimarra-

⁴⁶ Aresti, Bingen de, “El arte vasco” ibid., 67.

⁴⁷ Ibinagabeitia, Andima, “Mundu Berriko euskal idazleak”, ibid., 37-41.

⁴⁸ Ibid.

tuko genituzke: alde batetik, euskaldunek, beren nortasuna galdu gabe, munduan zehar ibiltzeko eta kokatzeko izan duten gaitasuna eta, bestetik, idazle venezuelar ospetsu batek dioen bezala, “siempre habrá un vasco o un descendiente, ayer y siempre, asociado a la empresa de hacer a Venezuela”⁴⁹.

Eta guk diogu inoiz ez dugula Venezuelarekiko dugun zorra kitatuko. Lantxo hau izan dadila gure zinezko eskerronaren adierazpena.

Bibliografia

Liburuak:

- AMEZAGA ARESTI, Vicente de (1963): *Hombres de la Compañía de Guipúzcoa*, Banco Central de Venezuela, Caracas.
- (1966): *El elemento vasco en el siglo XVIII venezolano*, Caracas.
- ARCINIEGAS, Germán (1957): *Biografía del Caribe*, Buenos Aires.
- ARISTI, Pako (2000): *Venezuela, iraultza ixilaren hitzak*, Tafalla.
- AROCENA, Fausto: “La Compañía Guipuzcoana de Caracas. Notas para su historia”, *Yakintza*, San Sebastián, I, 42-44.
- AZAOLA, José Miguel: “Vasconia y su destino II. Los Vascos ayer y hoy” Vol.1, *Revista de Occidente*, Madrid.
- DOUGLASS, William A. y BILBAO, Jon (1975): “Amerikanuak” *Los vascos en el nuevo mundo*, Nevada (itzulpena EHU).
- DOUGLASS, William A. (1991): *Cultura Vasca y su diáspora* (Compilación de Teresa del Valle), Baroja, Donostia.
- DEPONS, Francisco: *Viaje a la parte oriental de tierra firme* (edición de tipografía americana).
- ESTORNES LASA, José: *La Real Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas*, Ekin, Buenos Aires.
- HUSSEY, Roland Dennis: *The Caracas Company 1728-1784. A study in the history of Spanish monopolistic trade*, Massachusetts, Cambridge.

⁴⁹ Armas Chitty, J. A. de, “Pocas palabras a los hijos de Vasconia”, *ibid.*, 31.

- ISPIZUA, Segundo de (1914): *Historia de los vascos en el descubrimiento, conquista y civilización de América*.
- (1919): 6 volúmenes, Bilbao.
- MENDIZABAL, Javier de: “Real Compañía vascongada de Caracas”, *Revista General de Marina* CXXIII, Madrid, 255-256.
- MEDINA, F. Xavier (comp) (1997): *Los otros vascos. Las migraciones vascas en el S. XX*, Caracas.
- MERCADER, J.; DOMINGUEZ A.: “La época del despotismo ilustrado”, in *Historia de España y América*, tomo IV, 214-215.
- MORALES PADRON, Francisco: *Rebelión contra la Compañía de Caracas*, Sevilla.
- SALCEDO-BASTARDO, J.L. (1972): *Historia Fundamental de Venezuela*, Caracas.
- XAMURRE (1966): *Colonizadores de la epopeya americana*, Ekin, Buenos Aires.

Aldizkariak

Los Vascos en Venezuela

- 1942-1957: XV Aniversario del Centro Vasco de Caracas.
- 1942-1962: 20 Aniversario del Centro Vasco de Caracas.
- 1942-1967: 25 Aniversario del Centro Vasco de Caracas.

Liburuxka

- Obras del nuevo acueducto de Caracas* 1948, Instituto Nacional de Obras Sanitarias.

EUSKAL EMIGRAZIO ETA EXILIO AMERIKARRAREN ZENBAIT EZAUGARRI (XV-XVIII)

JOKIN APALATEGI BEGIRISTAIN

“Euskal erbestetuen produkzioa 1936-1975”
(E.H.U. programa)

Europearrentzat, orokorki, Amerika Kristobal Kolonen “aurki-kuntzarekin” esistitzen hasiko da, 1492ko espedizioaren ondotik, hain zuzen. Baina, Euskal Herriarentzat (eta beharbada beste herri batzuentzat ere), itsasoa bere bizimoduan elementu natural eta gehiagarrri izanik, data horren aitzinetik ere Ternua eta Kanada ezagutuak zirela, dirudi, hots, ez zela itsas haraindian lurralderik bazela inolako sekreturik. Quebeceko gobernuak, 1497an argitaraturiko eskuizkribu bat berrargitaratzean, “d’ample traditional evidence” dela dio Kolonen aurretiko euskal arrantzaleen presentzia lurralde haietan. John Readek ezkuizkribu hori komentatzean, berriz, hau dio: “L’expédition de 1492 ne fit qu’accomplir avec tout éclat de la puissance officielle ce qui, longtemps auparavant avait été réalisé silencieusement et sans appareil par ces humbles pêcheurs basques”¹. Hala ere, nola ez, iritzi honen

¹ Lhande, P., *L’émigration basque*, Nouvelle Librairie Nationale, Paris, 1910; edo Elkar, Donostia, 1984, 42.

aurkakoak nola zenbakiz hala kalitatez erraz nagusitzen dira. Dena dela, gaurko gure eginkizuna ezta extremo hau demostratzen saiatzea. Bide-nabar, eta abordaturiko gaiaren girotzaile bezala bakarrik egiten dut aipamen hau. Nik orain landu nahi dudan atala, euskaldunen emigrazio eta exilio amerikarrei buruzkoa, alegia, non hasten den izendatzeak berak dakartzan zailtasunak erakusteko aitzakiaz gogoratu nahi izan dut.

Balearen eta bakailoaren arrantzaleak

Bizkaiko Golkotik Groenlandiara bitartean mugitzen hasiak zirela XII. eta XIII. mendeen gero euskal arrantzaleak frogatuztat ematen da aspaldidanik gaia aztertu dutenen artean. Berrikitan, Joseba Sarrionaindia poetak, lizentzia osoz eta imaginazio aberatsenez, gogoratu digunez:

“... Eta arraun apurtuekin jarraituko dugu
bidaia
eta zelatzen gaituztenek ez gaituzte
kausituko:
faroaren kostaldean bilatzen gaituztenean
Albaniak
Groëlandiarekin bat egiten duen mugara
arribatuko gara”².

Eta Bernardo Atxagak bere obretako bat *Groenlandiako lezioa*³ izenpurutzen duenean, ez al gaude literatoek “diseminazio inkontzientea” deitu duten fenomenoaren aitzinean? Euskal kulturaren murgiltzen denarentzat toki komuna den erreferentziara heltzen garela, alegia.

Zergatik frogatuztat ematen da euskaldunentzat Groenlandia Erdi Aroztikakoa dela?

Alde batetik, balearen arrantzan garrantzi handienekoa izango den arpoia erabiltzen beste inork ez bezala ikasia zutelako IX. mendean, eta, ondorioz, arrantza mota hau beren bizimodurako funtsezko bihurtua zitzaielako. Honela, balearen atzetik, mugarik ez duten itsasoetatik zehar kurritzen zuten. “Des auteurs sérieux, dio aita Lhandek, comme Pastorin et Lyders, soutiennent qu’en 875 les baleiniers

² Sarrionaindia, J., “Faroaren talaia”, in *Hnyu illa nyha majah yahoo* (Poemak 1985-1995), Elkar, Donostia, 1995.

³ Erein, Donostia, 1998.

basques étaient aux îles Féroë”⁴. Eta bale arrantzarako itsasontzi haiek ez ziren nolana hikoak. Donibane Lohizuneko Herriko Etxearen Artxi-boan aurkitutako 1743ko dokumentu batek “St. Esprit” izeneko fragataren pertsonala zehatz-mehatz aipatzen digularik, orotara, 59 gizon-zekok osatzen zutela erakusten zaigu⁵.

Bestalde, kategorikoki esaten zaigu hau ere: “Au XIVe siècle, un siècle avant Sébastien Cabot et les pêcheurs bretons ou normands, le Guipuscoan Juan de Echayde suivant les uns, les Guipuscoan Matias de Echeveste suivant les autres, découvrit Terre-Neuve et y attira ses compatriotes”⁶.

Zergatik? Dakiguna da, 1497an Sébastien Cabot veneziar itsasgizona, Ingalaterraren izenean, Ternuako uhartea ezagutzera heldu zenean, han arrantzan ari zirenei biltzen zuten arrain hark zer izen zuen galdetzean, “bakallau” erantzun ziotela, eta ondorioz S. Cabotek uharte hura “Terra de Bacalaos” bere mapan izendatu zuela. Hala ere, “bacalaos” horren formakera nondik sortzen den eztabaidatzen da. Dakiguna baita indigenek edo bertako autoktonoek arrain hori bera “apagé” deitzen zutela. John Readen aburuz, gaztelerazko “bacalao” euskaratik etorri dator⁷. Ez gara horretan tematuko. Baina, badirudi dauzkagun elementu guztiak “amerikar aurkikuntzan” euskaldunoi lehentasuna ematera garamatzatela. Ternuari loturik, 1550az geroko hainbat euskal itsasontzitako kapitain eta pilotoren izenak ezagunak zaizkigu. Nola Donostia, Deba eta Pasaiaetik hala Bilbo, Donibane Lohizune, Ziburu eta Miarritzetik joan-etorrian ibilitakoenak, hain zuzen⁸.

Kristobal Kolonen aurkikuntza

Gaztela eta Aragoiko erregeek Kristobal Kolonen espedizioa finantzatzea onartu zutenean, europar espantsioari ondorio handiekiko

⁴ Pastorin et Nacher, *Les Pêcheries en grand océan, traduction Henry Léon*, Biarritz, 1902.

⁵ Bélanger, René, *Los vascos en el estuario del San Lorenzo, 1535-1635*, Auñamendi, Donostia, 1980, 118-123.

⁶ Lhande, P., op.cit., 39.

⁷ Reade, John, *The Basques in North America (Canadian Royal Society. Proceedings and transactions)*, vol. VI, sect. 2.

⁸ Bélanger, René, op. cit., 111-118.

marko berri bat ekarriko zion proiektua sostengatu zuten. Ez zen, hala ere, erabaki itsu edo inozo bat izan errege haiena; aitzitik, Erdi Arako estatu eskualdetiarren eredu desafiaturen ari ziren errege katolikoan anbizioaren barrenean naturaltzat eman behar da. Erdi Aroko lehen bostehuneko ziztrina gainditzen saioz saio ari baitzen eliza eta nobleziaren frontea X. mendez gero. Alde batetik, europar lurraldeak elkarrekin gurutzatu nahirik peregrinazio eta harreman sareak irekiaz, eta bestetik, unibertsalismo katolikoaren lemapean gurutzadetan hedapena eraginaz.

Kristobal Kolonen abenturaren gauzatzeak, hasteko eta behin, errege katolikoan estatu eredu berria inperiora proiektatu bazuen ere, horren ondorio jakin guziekin, bigarren eragin bat ere ukan zuen, emigratio eta exilioentzat marko berri bat estreinatzearena, alegia. Eta errealitate honen barrenean, geroztik, euskaldunok bete-betean aurkituko gara arazo eta arrazoi desberdinengatik. Azken hauek nolakoak izan diren eta nola aldatzen joan diren agertzeraz geroz saio honekin.

Gure saioaren luzean ez dezagun ahanztu Gaztela eta Aragoiko erregeek Amerikako aurkikuntza egin aitzinetik, Iberia penintsulako euskal lurraldeak menperatuak zituztela. Lehenik, Gaztelak, bere aldetik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, 1348an, jada integrazioaren formulapean eramanak zituen. Luis Suárezek dioenez: "... (se pusieron las bases) de una estructuración uniforme del país, desde el punto de vista jurídico, Alava, como Vizcaya, como Guipúzcoa, podrán conservar su jurisprudencia, lo que equivale a decir su forma de vida peculiar. Unión en la diversidad que es fórmula de vida política superior"⁹. Eta Nafarroarentzat, nahiz Gaztela eta Aragoiko erregeen partetik etorriko den azken konkista 1512koa izan, Fernando erregearen armadek Albako Dukea buruzagi zutela, Burunda eta Arakiletik sartuaz Iruña okupatzean, Erresumaren amaierako krisia 1425etik aurrera biziko da: "La muerte de Carlos el Noble abre un largo período de inestabilidad y luchas intestinas, simbolizadas en el emblema del Príncipe de Viana: dos lebreles disputándose un hueso. 'Utrinque roditur'. El debilitamiento de la monarquía, la ambición y enfrentamiento de la nobleza, las guerras civiles, los intereses de Francia y Castilla, cuyos monarcas reunifican dominios y señoríos, aumenta su poder y autoridad, y ejercen constantes presiones

⁹ Suárez Fernández, Luis, *El Canciller Ayala y su tiempo*, Vitoria, 1962, 11, zenbakitugabe.

sobre Navarra, harán difícil e imposible la independencia del reino vasco”¹⁰.

Eta Iberia penintsulako euskal lurraldeen menperatzea ez zen salbuespen bat izan Gaztela eta Aragoiko erregeentzat, inguruko erresuma eta jaurreri guziekin gauza bera egingo baitute gaur “Espainia” bezala ezagutzen dugun lurralde bateratu hori lortu arte. Aipaturiko menperatze jokabide honi loturik, esan dezagun, Amerikaren aurkikuntzaz ari garenez, urte berean, Gaztelak eta Aragoik Granadako erresuma menperatu zutela.

Bestalde, euskal jendeak, gizabanako bezala, hastapeneko amerikar abenturetan sartzea esplikatzeko duen errealitaterik badago: garai hartan herri pobrea ginela da guztiaren ardatza. Hau ilustratzeko Don Julio Caro Barojak idatzitako pasarte bat gogoraraziko dut: “Si examináis un texto del siglo XVI no de gente de fuera sino de nativos del país, os encontraréis con que hombres como Esteban de Garibay, que lo amaba ardorosamente aunque llegó a ser un funcionario al servicio directo de Felipe II, fundan, precisamente, la necesidad de ciertos tratos especiales, de ciertas exenciones, de ciertas garantías de éstas que se han considerado como abusivas, en la pobreza del país. Es decir, que en todas las actas de las juntas podéis ver que está preocupado siempre, no por esa especie de alto nivel del vida que ahora se le atribuye. No. Está preocupado porque hay que trabajar mucho, hay que trabajar en una forma específica dentro del mundo antiguo o del mundo tradicional y hay que defenderse, como sea, de la pobreza”¹¹.

XVI-XVIII. mendeetako euskal emigrazio amerikarraren tipologia

Ez da batere erraza lehen emigrazioaren berri zehatzik ematea. Gure aitzinetik fenomeno hau aztertzen saiatu direnek ere hurbilketa egitea besterik ez dute lortu. Egunen batez, beharbada, luzerako finantzatutako lan talde batek gauzak argituko dizkigu. Baina, oraingoz gaiaz daukagun ezagutzak gogoratzea beste egitekorik ez zaigu gelditzen.

¹⁰ Huici Urmeneta, Vicente; Jimeno Jurio, José María; Monzón, Javier, Estevez, Alfonso, *Historia de Navarra*, Txertoa, Donostia, 1982.

¹¹ Caro Baroja, Julio, *Introducción a la historia social y económica del pueblo vasco*, Txertoa, Donostia, 1986, 20.

Douglass eta Bilbaok¹² argitaraturiko lan batean diotenez, 1768-1800 urteen artean euskal jenderia Espainiakoaren % 4,7 edo % 5 zenean, Ameriketara Estatu horretatik joandako emigranteen artean euskaldunak % 15 izan ziren. Zaldivar, Vial eta Rengifok¹³ esaten digutenez, beriz, Euskal Herriko eta Nafarroako emigranteen kopurua Espainiakoaren batezbestekoa baino lau aldiz handiagoa izan zen XVIII. mendean (1768 eta 1787an % 3,84 eta % 3,59koa, gaineratiko Espainiarena % 0,94 eta % 0,93 izan zenean). Emigrazio jariakin hau XIX. mendearen hasieran apaldu egin zen Espainiaren barrenean gerrateak hastearekin bat. Honela bada, gure saioaren lehen planuan XVI.etik XVIII.era arteko emigrazioaren tipologia egiten saiatuko gara, ondotik abiatuko den emigrazioaren izaerak azterketa propio bat eskatzen baitu.

Eskribau, alkate eta gobernadoreak

Euskaldun jende mota hau noiztik da historiografiarentzat ezaguna? Espainiarentzat lanean jarduten hasiko diren unetik. Egia esan, arazoak daude iturri historikoei dagokienean. Don Julio Caro Barojak behin baino gehiagotan antzekorik idatzi izan du: “De todas maneras, en comparación con el tiempo histórico de otros pueblos de Europa, el tiempo histórico nuestro es muy difícil de estudiar en términos técnicos, en términos científicos. Es un tiempo histórico irregular en la misma Edad Media, puesto que hay irregularidad de conocimientos; mucho para unas zonas, muy poco para otras”¹⁴. Baina, hori bai, Errege Katolikoek batasunean euskaldunak sartuz gero historia aberatsago heldu zaigu: “La leyes se codifican o imprimen y el nivel cultural en la primera enseñanza aumenta de modo considerable. Tanto es así que del corazón del país, de Guipúzcoa y Vizcaya, salen bastantes maestros al exterior, de suerte que los vascos son conocidos en España como hábiles en ‘cosas de Pluma’. Es decir, buenos calígrafos y pendoristas y hábiles pedagogos. Esto explica que de la misma juventud del país desde la época de los reyes Católicos a la de Carlos III salgan a

¹² Douglass, W.A.; Bilbao, J., *Amerikanuak: los vascos en el Nuevo Mundo*, Servicio Editorial de la UPV, Bilbao, 1986.

¹³ Zaldivar, T.; Vial, M.J., Rengifo, F., *Los vascos en Chile: 1680-1820*, Ed. Los Andes, Santiago de Chile, 1998.

¹⁴ Caro Baroja, Julio, op. cit., 16-17.

ejerker cargos administrativos y secretariales muchos, que llegan a ocupar lugares preeminentes en las cortes de Carlos I, Felipe II, Felipe III, Felipe IV, Carlos III y Felipe V sobre todo, dando lugar a envidias, descontento y murmuración a veces. No son sólo oficinas, son también el comercio, la banca y la marina real los que presentan un gran porcentaje de vascos (o ‘vizcainos’, como se decía vulgarmente)”¹⁵.

Honela izanik garai hartako giro orokorra, normala da, bada, kulturadun euskal hiritar parte bat, emigrazioaren euskal partearen proportzioan gutxi-gorabehera, Ameriketako abenturan aurkitzea. Horrelakoekin zerrenda osoa egitea bera luze joango litzaiguke. Lekuko gisa, hastapen-hastapenetik nabarmenduko den Migel Lopez de Legazpi (Zumarraga, 1505 - Manila, 1572) nabigatzaile eta konkistatzaile gipuzkoarra dakargu. Mexikoko eskribau eta alkate izan zen, Felipe II.ak Andres Urdanetari Ozeano Barerako espedizioaren ardura eskaini eta honek bere osaba Legazpi eskadra-almirante eta troparen jeneral izendatu zuen arte. Domingo Martínez de Irala (Bergara, 1509 - La Asunción, 1566) Paraguaiko kolonizatzaile izan zen. Buenos Airesko fundazioan partaide. Asuncióneko kaia eraiki eta La Candelaria fundatu zuen. Gainera, Rio del Platako gobernadore bilakatu zuen.

Beste hainbaten artean, Jose Garro Artola (Arrasate, 1623 - Donostia, 1702) militar eta administrari gipuzkoarra ere aipatuko dugu, Tucumango gobernadore (1674-82) eta Buenos Aireskoa izana (1676). Espainiako lurraldeetan eratutako Sacramentoko kolonia portugesar eraso eta garaitu zuen; bertako gobernadorea preso hartu zuen (1680). Txileko lehendakari eta kapitain jenerala izan zen (1682-92); bere agintaldian, gotorleku ugari eraikiarazi zuen. Lekukoekin jarraituaz, aipatuko ditugu ere beste probintzietako euskaldunen kasuak. Alonso de Ercilla eta Zuñiga (1533-1594) Madrilen sortu bazen ere, bere gurasoak Bermeokoak zituen. Karlos V.a enperadorearen ikaskide izan zen. Ameriketara araukaniarrak Espainiaren aurka altxatu zirela eta haien aurkako espedizioan (1555) sartu zen. Gertakizunen lekuko “La araucana” izeneko lehen poema epikoaren estreinako kantuak idatzi zituen. Kristau eta indio jentilen arteko gorabeherak deskribatuko ditu. Norbaitek Homeroren idatziekin konparatu izan du bere obra. Beharbada zertxo bat indioen psikologia inbentatu badu ere, badirudi benetako izenak, pertsonaien izaerak eta karakterrak fidelki transkri-

¹⁵ Caro Baroja, Julio, *Problemas vascos de ayer y de hoy*, Txertoa, Donostia, 1986, 23.

batzen dituela. Joan Garai (Urduña, 1527 - Argentina, 1583) konkistatzaile bizkaitarra da. Hamabost urterekin Perura joan zen bere osaba Pedro Ortiz de Zaraterekin eta hango konkistatzaileen armadan trebetasunez jokatu zuen. Santo Domingo eta Santa Cruz de la Sierra (gaur egun Boliviakoa dena) hirien fundazioan esku hartu zuen (1561). Río de la Platarara joan eta lurralde hartako zaindari izendatu zuten. Hiri bat sortzeko agindua jaso zuenean, Santa Fe de Vera Cruz hiria fundatu zuen Paraná ibaiaren ertzean (1573). Río de la Platako kapitain jenerala izan zen. Uruguai eta El Salvadorko lurraldeak, berak Bizkaia Berria izena eman zienak, esploratu zituen. Argentinara itzuli eta Buenos Aires hiria jendetzea erabaki zuen (1580); hiri hau 45 urte lehenago sortua zen, baina indiarrek suntsitu eta setiatu egiten zuten. Lehendik ere, 1544an, Alvar Núñez de Vaca hiria jendetzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Garairen aginduz beste hiri berri bat sortu zen aurrekoaren ondoan; ez zen bertako indiarren gustukoa izan eta, Tububa buru zutela, erasotzeko prestatu ziren. Espainolek erasoari aurre egin eta Tububa buruzagia hil zuten. Buenos Airestik hegoalderako lurraldea esploratzeko espedizioa prestatu zuen; itzulerako bidean indiarrek espainolak inguratu zituzten eta erasoan Joan Garai hilik gertatu zen.

Pedro Ursua (Arizkun, 1525 - Amazonas ibaia, 1561) militar, esploratzaile eta konkistatzaile nafarra ere, lehen aroan hainbat euskaldunek jokaturiko errolaren eredugarri dugu. Sevillan untziratu eta Perura joan zen (1543). Migel Diez de Armendariz, Ursuaren ahaidea, zebait lurraldetako epaile boteredun izendatu zuten (1544) eta honek Ursua bere laguntzaile izendatu zuen (1545). Kolonbiara egindako espedizio buru izendatu zuen eta Granada Berriko lurraldeko agintaritzara eman zion; han Pamplona eta Tudela hiriak sortu zituen (1549). 1558an, El Dorado konkistatzeko espedizioari ekiteko baimena eman zion Peruko erregeordeak; Andeatatik Ozeano Atlantikora bitartean konkista zitzakeen lur guzietako gobernadore eta agintari nagusi izendatu zuten. Indiarrek erasoka eta klima ere etsai, espedizioak porrot egin zuen. Gosea nagusitu zenean altxamendua izan zen itsasontzian, Lope de Agirre buru zela; honen aginduz Ursua hil egin zuten¹⁶.

Honela, beste hainbat euskaldun aipa litezke, hain ospetsu izan gabe ere toki bat izan zutenak espainiar ameriketako administrazio berrian.

¹⁶ Pertsonaia honi buruzko berri gehiago jakin nahi bada, ikus Jean Irigaray.

Marinel eta itsaskariak

Euskaldunok dugun itsas kosta ezagutuaz ez da harritzekoa itsasgintza bizibide eginaz abilak izan gintezan. Amerikaren aurkikuntza aitzinetik ere munduko itsasoen berri euskaldunek bazutela garbi utzi dugu saio honen sarreran. Gainera, lehorrean industria mota desberdinak ekarriko ditu itsasgintzak. Aitzinatetik hasi eta gure egunetarainoko untxiolen eta kontserba fabriken bilakaera hor daukagu lekuko. Euskaldunen memoria kolektiboan itsasoaz duguna Joseba Sarrionaindia poetak ondotxo agertu izan digu:

-Nik iada ez dut kemenik itsasora
partitzeko
baina portura inguratzen naiz
oraindik ere
hurrutira bidaian abiatzen direnei
begiratzera.
Txikota lotzen edo askatzen
laguntzen diet.
Eta harrigarria egiten zait ene
nekaduran
beste batzu abiatzea eta, areago, inor
handik honaino arribatzea.
Bultzatzen dituen indar misterotsua
oroitu nahi nuke¹⁷.

Historiografiari gomendatzen bagara berriz, Erdi Aroko itsas afe-retan euskaldun itsaskarien erreputazioa handia bezain ezaguna da: “Las naos ‘vizcaínas’ contribuyeron poderosamente a la conquista de Sevilla y al dominio de la zona Sur de España en tiempo de San Fernando. Después intervienen también de modo decisivo en la reconquista del reino de Granada y algunos capitanes vascongados fueron los encargados de transportar a tierras africanas a los moros que no quisieron aceptar el yugo de los vencedores¹⁸. Por otra parte, hallamos

¹⁷ Sarrionaindia, Joseba, “Itsasoak emandako indarra”, in *Hnuy illa nyha majah yahoo*, op.cit., 125.

¹⁸ Julio Caro Barojaren oharra (*Los vascos*, op.cit., 196): “Sobre la marina vasca medieval aún sigue siendo libro no superado el de Cesáreo Fernández Duro, “La marina de Castilla desde su origen y pugna con lade Inglaterra hasta la refundición

nautas vascos luchando en Francia a favor de ingleses o franceses durante las guerras de los siglos XIV y XV. Los vasco-franceses se inclinan al bando inglés; los vasco-españoles, al francés. No hay que olvidar que todavía entonces Bayonne era en los textos castellanos ‘Bayona de Inglaterra’¹⁹. Hallamos asimismo naos vascas comerciando en los mares y países escandinavos y en el Mediterráneo oriental. Y, claro es, al lado de marinos y comerciantes aparecen corsarios e incluso piratas que atacan las costas inglesas y francesas, que se meten también a veces en el mismo Mediterráneo o en los mares del Norte”²⁰.

Testu honen irakurketatik ondorioz atera behar duguna da, euskaldunen itsasgintza, gerrarekin, komertzioarekin, kortsario eta piraten egintzekin loturik dagoela. Baita ere politikoki kontraerriak ziren proiektuak lanbide bezala bizi izan zituztela. Amerikaren abentura gauzatzean bada, normala da euskaldunen itsas protagonismoa alor desberdinetan nabarmentzea: “Las empresas que tienen como punto de partida el descubrimiento de America dieron, sin embargo, a la navegación vasca un nuevo sello bastante especial. Ya a fines del siglo XIV los vascos y los sevillanos habían intervenido en el primer reconocimiento de las Canarias... pronto Sevilla y Vasconia fueron ejes de primer orden del Imperio español”²¹. Ardatz zertan izan ziren? Euskaldunei dagokienean, hasteko untzigintza berria eraikitzen: “En un momento dado se creó el galeón, y, aunque el mar Cantábrico no se

de la Armada española” (Madrid,s.a.). Menos informativa es la obra de F. Javier de Salar, “Marina Española de la Edad Media”, 2 vols. (2ª ed., Madrid, 1925). Los textos sobre la actuación de los marinos vascos cuando la conquista de Granada pueden verse en “Colección de documentos inéditos para la Historia de España”, XI (Madrid,1847), pp. 509-532 y las que siguen hasta la 558; XIV (Madrid,1849), pp. 462-475, etc.

¹⁹ Julio Caro Barojaren oharra idazlan berean: “Así en la “Crónica de Enrique III”, en “Biblioteca de autores españoles”, LXVIII, p. 23. En la carta del cardenal de España al rey de Francia que da Fernando del Pulgar en su “Crónica de los Ryes Católicos”, I (Madrid, 1943), p. 252, se lee: “Los castellanos, en especial los de las provincias de Guipúzcoa e Vizcaya, siempre tuvieron guerra por mar e por tierra con los ingleses, vuestros ancianos enemigos, e contra los protugueses sus aliados; e derramaron su sangre por conservación de la corona real de Francia”.

²⁰ Caro Baroja, Julio, *Los vascos*, op.cit., 196.

²¹ *Ibid.*, 197.

prestaba mucho a la navegación a remo, de los astilleros de Vizcaya salieron flamantes galeras y galeazas. Había en la costa del Señorío, así como en la de Guipúzcoa, una actividad febril: se multiplicaban las formas nórdicas y mediterráneas. Urcas, pataches, filipotes..., son nombres que surgen en los documentos una y otra vez. Más modernamente, las fragatas y otros tipos de embarcación”²².

Honela hainbat jende nola lurean untzigintza eginaz, hala itsasoan gerra eta komertzioa gurutzatuaz, Amerikari loturik biziko da XVI-XVIII. mendeetan Euskal Herrian.

Alde batetik, erregetiar proiektuen itzalean arituko direnak daude: “Su marina (la de los vascos), desde la época de Felipe II a la de Felipe V, está ligada estrechamente a la realeza. Así se explica que del país hayan, salido tantos generales de mar y almirantes. Entre ellos cabe destacar a los Oquendo, a Recalde, a Zubiaur, a don Blas Lezo... En el último instante del Imperio español en Indias, a don Cosme Damián Churruca. Todos o casi todos estos capitanes tuvieron que experimentar reverses en luchas furibundas con las naos de Holanda, Inglaterra y Francia. Y lo que caracteriza a varios de ellos es que tanto o más que guerreros fueron, pura y simplemente, marinos o técnicos navales”²³.

Itsaskari izanik Amerikekin zerikusian erroi nabarmena izandako batzuen gorabeherak laburbilduko ditugu hainbat euskal marinel ofizialen lekuko.

Joan Sebastian Elkano (Getaria, 1476 - itsasoan, 1526), nabigatzaile gipuzkoarra, munduari bira eman zion lehena da. Hala ere, gaztetan arrantzalea izan zen eta gero kontrabando-merkataritzako bidaiak egin zituen. Magallaesek Moluka irletara prestatutako bost itsasontziko espedizioan parte hartu zuen. Sanlúcar Barramedatik abiatu ziren 1519an eta “Concepción” itsasontziko maisu izendatu zuten. Filipinetara iritsi eta Mactan irlako erasoan Magallaes hilik suertatu zen (1521). Bost itsasontzietatik bi besterik ez zitzairen geratzen eta espedizionario anitz gaixorik hil zen. Elkanok “Victoria” itsasontziko eta espedizio osoko agintea hartu zuen. Moluka uharteetara iritsi eta itsasontzi bat bertan deseginda geratu arren, bestea espeziez kargatu eta

²² Ibid.

²³ Ibid., 200.

itzulera antolatatu zuen. Hiru urte eman zuten Sanlúcar Barramedarako bidean eta 265 gizonetatik 18 baino ez ziren itzuli (1522). Karlos V.a erregeak Elkanori armarrarian munduaren irudia eta honako esaldi hau ipintzeko baimena eman zion: "primus circumdedisti me". Moluka uharteetara antolatutako beste bidaia batean abiatu zen 1525ean, baina gaixotu eta bertan hil zen; gorpua kareletik behera itsasora bota zuten.

Andres Urdaneta (Ordizia, 1508 - Mexiko, 1568). Gipuzkoar itsaskari handien trilogian sartzen da. 1525ean egindako Loaisaren espedizioan partaide izan zen. Agustindarren abituak hartu bazituen ere, Legazpiri lagundu zion Filipinetara.

Antonio Okendo (Donostia, 1577 - Coruña, 1640), militar gipuzkoarra, Bizkaiko eskua-buru eta Kantabriako eskua-drako kapitain jeneral, Espainia Berriko flotako kapitain jeneral eta almirante nagusi izan zen. Espainia eta Holandaren arteko gerran, itsas bataila askotan parte hartu zuen holandarren aurka; Felipe IV.ak bizkonde titulu eman zion.

Frantzisko Ibarra (Durango, 1539 - Mexiko, 1575), nabigatzaile eta konkistatzaile bizkaitarra, Mexikora joan zen IM-ko zilar meategien ustiapenez arduratu eta bere osaba Diegorekin batera hiriak sortu eta konkistatzera. Felipe II.ak Mexikoko lurralde bateko kapitain jeneral eta kartzelari egin zuen (1564). Ibarrek lurralde honi "Bizkaia Berria" izena eman eta bertan Durango herria eraikiarazi zuen. Halaber, Sinaolako I-ko lurralde aberatsen konkistari ekin eta hainbat hiri fundatu zituen (1564). Fundatu zein konkistatutako hirietan, nekazaritza sustatzeaz arduratu zen bereziki.

Karlos Ibarra (Eibar, ? -artzelona, 1639), militar gipuzkoarra, Indietako flotako almirante egin zuten eta flota berrantolatatu zuen (1618). Indietara bidaia asko agin zituen eta Gibraltarren holandarren kontra borrokatu zen (1628). Katalunian ere borrokatu zen, Salcesko gaztelua berreskuratzen. Alcántarako Ordenako kide izendatu zuten eta markes eta bizkonde tituluak eman zizkieten.

Bruno Maurizio Zabala (Durango, 1682- Parará ibaia, 1736), konkistatzaile eta kolonizatzaile bizkaitarra da. Flandesko gerran parte hartu zuen, baita Espainiako Ondorengotza-gerran ere, Espainiako Felipe V.aren alde (1710), baina gerran besoa galtzeaz gain preso hartu zuten. Erregeak Rio de la Platak kapitain jeneral eta gobernadore izendatu zuen (1716). Portugesek Montevideo hartu eta gotortu egin zuten, baina Zabalak gobernuaren laguntza izan zuen eta portugesak kanpora bota zituen; Montevideo berreskuratatu eta hiri bilakatzeko

prozesuari ekin zion. 1730ean lortu zuen Montevideok hiri-titulua; horregatik eta portugesen aurka borrokatu izanagatik, Uruguaiaren kolonizazioari lotuta agertu zen. Paraguain ere ibili zen bertakoen maxtinadak kontrolatzen; erregeak Txileko kapitain jeneral izendatu zuen, baina karguaz jabetu aurretik hil zen.

Blas Lezo (Pasaia, 1687 - Cartagena, Kolonbia, 1741) militar gipuzkoarrak ingelesen kontrako itsas bataila batean hanka bat galdu zuen (1704); karrera militarra ez zuen utzi, ordea. Geroago, begi bat (1707) eta, aurrerago, beso bat ere galdu zituen (1714); ez zen, hala ere, erretiratu eta Kariben pirata ingeles eta nederlandarren kontra ibili zen 1730era arte. Oran hiria eskuratzeko ekintzan parte hartu zuen (1732); turkiarrek kapitulazioa errespetatu gabe hiria berreskuratu eta bigarren aldiz Lezok Oran eskuratu eta turkiarren itsas armada hondoratu zuen. Ekintza honen ondoren armadako teniente jeneral izendatu zuten (1734). Kolonbiako Cartagenako gobernadore eta kapitain jeneral ere izan zen (1737); bertan Vernon almirante ingelesaren eraso jasan zuen hainbat egunez, eskudra ingelesa menperatu eta hondoratu zuen arte. Gerra honen ondorioz gaixotu eta hil egin zen.

Kosme Damian Txurruka (Mutriku, 1761 - Trafalgar, 1805), militar gipuzkoarra Espainiako itsas armadan sartu zen (1776). Ponce de León eskudra-almiranteak laguntzaile izendatu zuen; gero Santa Barbara itsasontzira pasa eta Gibraltarren izan zuen lehen bataila (1782). Teniente maila lortu zuen 1787an. Magallaesen itsasartera antolatutako espedizioan parte hartu zuen 1788an; astronomia eta geografiaz arduratu zen. Ameriketako itsas atlasa egiteko asmoz, plano, karta eta mapak egiteaz gain, liburu interesgarriak idatzi zituen (*Carta esférica de las Antillas y la particularidad geométrica de Puerto Rico*). Itsas armada itzuli zen eta Trafalgarko batailan parte hartu zuen; bertan hil zen.

Garai honetan Iparraldeko itsaskariak ere goi proiektu politikoe-tan nahasten dira. Martin Oihartzabal ziburuarrak, 1632an, liburu bat²⁴ argitaratu zuen bere itsas abenturak eta nabegazio egoki baterako arauak aipatuaz. Liburuaren sarreran otoitz formulapean bere ibilbideak seinalatzen ditu: “Au nom de Dieu le Père, et du Fils, et du Saint-Esprit, ainsi soit-il. Scaches qu'en ce présent liure sont comprises

²⁴ Oihartzabal, Martin, *Les voyages avantereux du capitaine Martin de Hojarzabal, habitant de Cubiburu. Contenant les Reigles et enseignements necessaires à la bonne et seure navigation*, Rouen, 1632, In -4°.

les routes, lieues, sondes, marées, entrées, cognoissances, et hauteur. Soit pour le Leuant, Espagne, France, Bretagne, Normandie, Picardie, Flandres, Anglaterre, Hïrlande, Ecosse eta Terreneufue, tout au long, ainsi qu'il est escrit, soit pour vn chacun maistre pilote qui va sur la mer, pour se garder des lieux dangereux”²⁵.

Renau Elizagaraik, bere aldetik, 1680an bonba asmatuz Aljerko bonbardaketan frantses itsas flotak garaipena eskuratzea bideratu zuen. Luis XIV.ak marinako ikuskari orokor izendaturik, 1696 eta 1700 urte bitartean Ameriketako frantses koloniak defentsa egoerak ezarri zituen. 1705ean Espainiako hainbat postu fortifikatu zituen. 1719an hiltzean, aldi berean, Luis XIV.ak eta Felipe V.ak Errege Katolikoen armadetako teniente jeneral titulua eman zioten. 1689an argitaraturiko bere *Théorie de la manœuvre des vaisseaux* obra gelditu zaigu.

Bestalde, amerikar itsasbideari loturik, euskal kortsario eta piraten gertakizunak dauzkagu. Kortsario famatuenek, hasierak desohoretuak izanik ere, gehienetan, erregeen armada ofizialean graduakin amaitzen dute beren jokabidea. Garaiko kronikek adierazten dutenez, alfer eta intsumisoekin batera, euskaldunak eta nafarrak nahasten omen ziren Karlos V.aren armaden bide nagusietan²⁶. Hauetariko hainbat kortsarioen bizimodura igarotzen dira. XVI. eta XVII. mendeetan bizkaitar eta lapurtar kortsarioek holandarrekin norgehiagoka latza biziko dute itsasoetan. XVIII. mendean ez da gutxiago izango: “Algunos tal vez estudien el Archivo de Caracas y se encuentren en sus veinticuatro tomos las bases que regían el Derecho de Presas, así como datos abundantes sobre la vida de los corsarios y el alma de acero de aquellos vasos que saliendo de Puerto Cabello cualquier mañana, cuando el sol iluminaba el mar Caribe, avistaban naves enemigas y disparaban sus cañones y pedreros... ‘cortos en palabras, pero en hechos largos’”²⁷. Donibane Lohizune eta Baiona jatorri zuten hainbat kortsario ezagun izan da: Duconte, Cépé, Harismendy, Dolabatatz, Sopite, Duler, Dalbarade, Larréguy, eta abar. Gero, Erregeen armadako graduetan amaituko

²⁵ P. Lhandek aipatua, *L'émigration basque*, op.cit., 81; horretarako J.Vinsonen, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Maisonneuve, Paris, 1891, 132.

²⁶ Lande, Louis, “Trois mois de voyage dans le Pays Basque”, *Revue des Deux-Mondes*, 1877, I, 812.

²⁷ Estornés Lasa, J., *La compañía guipuzcoana de Caracas*, Ekin, Buenos Aires, 1948, 10.

zuten kortsario famatuen artean Joanes Suhigaraitxipi, Le Croisic edo Le Coursic izengotikoa, Baionatarra, eta Ixtebe Pellot, Hendaiakoa historiografiak aipatzen dizkigu beste anitzen gainetik²⁸.

Zer egin zuten? Joanes Suhigaratxipiko, Le Coursicek, 1691n, “Légère” deituak, hogeita lau kanoiko fregata bat armatu zuen. Espainol, holandes eta ingelesen terrore bilakatu zen. Zokoako kariatik irte- nez euskal kostara inguratzen ziren itsasontziak, baldin eta lili lorerik ez bazaramaten, nola armen, hala arrain edo azafran garraioa egin erasotzen zituen. Egun batez, Bokaleko kariatik irten eta, 120 gizon eta 64 kanoi zaramatzen ingeles gerrauntzi bati eraso zion. Goizeko zortzietan hasitako eraso arratsaldeko hiruretan amaitu zen Le Coursicen garai- penarekin. Baionako jende multzoak Aturriren sarrerako bi aldeetan txaloka zituela sartu omen zen ingeles itsasontzia arrastaka ekarriz bere ontziaren gibelari lotuta. Beste batez, Bizkaiko kostan bi itsasontzi ho- landarri erasotzean, sorbaldan musketoi kolpe batez zauritu zuten. Hala ere, zubi gainean jarraitu omen zuen bere lagunak animatzen, eta de- sarmaturiko fragata bateko kapitain arerioa, hiltzeko zaurituari, eskuan antortxa bat zuela bolborara arrastaka ailegatzen ari zen unean aurre hartu omen zion. Sei urtez, berak bakarrik, ehun merkantzia-ontzi, eta erregearen fregataren laguntzarekin, zortzi hilabetez, ehun eta hogeita bost itsasontzi bildu omen zituen. Beste egun batez, Galizian, bertako alkate bati “euskaldunaren hitza” eman omen zion uraren bila lurre- ratzean ez zutela inolako kalterik egingo. Hurrengo batean, bera eta bere itsasontzi lagunak arma gabe lurreratu zirelarik, bertakoek tiroka hartu omen zituzten. Hori ikustean ahal zuten moduan beren itsasontzira itzuli, armatu eta erasotzeari ekin omen zioten. Ondorioz, hogeita bost galiziar hil, beste hogeita hamar labana kolpez zauritu, eta berrogei presuner hartu omen zituzten. Baita herrian azken baliorainokoa la- purtuaz gero, sutan erretzeko prestatu ere. Une hartan bertako apaiz- zak, gurutzea eskuan zuela, Le Coursici barkatzeko eskatu omen zion, eta honek, “konpasioz, hala egin omen zuen nahiz kortsario izan”.

Bere ibilaldi eta portaerek fama handia ekartzeaz gain, Baionako gobernadore zen Gramont dukearen eskuetan uzten omen zituen arerioei kenduriko hainbat ontasan. Honela, M. de Pontchartrain, Luis XIV.aren

²⁸ Ducéré, E., *Les corsaires bayonnais*, Lamoignon, Bayonne, 1856, I vol. in -16 de 280 orrialdeak. Baita ere, Duvoisin, J., *Le dernier des corsaires ou vie d'Etienne Pellot-Montvieux, de Hendaye*, Lamoignon, Bayonne, 1856, I vol. in-16 de 138 orrialdeak.

ministroak, halako batez dukeari ondoko hau idatzi omen zion: “Sa Majesté avait eu pour agréable d’accorder au sieur Coursic un brevet de capitaine de frégate légère”, eta hori estimatzen zuelako kortsarioari “cela lui convenoit mieux et luy feroit plus de plaisir qu’une médaille”.

Berehala, Le Coursic holandarren aurkako espedizio batean parte hartzeko hautatua izan zen. 1993ko ekainaren 30ean, Donibane Lohizunetik irten ziren, komandante Baionako kaiako M. de Varenne eta konpainiako kapitain Bidarteko Luis Harismendi zirela, Spitzbergeko izotzetara bidean jarriaz. Le Coursicez gain, Larregi kapitaina, Etxebehere banderazaina eta hainbat euskaldun marinela elkartu ziren itsasontzi berean. Uztailaren 28an Spitzbergeko uretan zeuden. Euskal kapitain biek, holandar itsasontzi zenbait hartzeaz gain borrokaldi gogor bat eraman zuten. Bertan hil zen Larregi kapitaina. Denetara bi euskal fregatek balez beteriko hamaika itsasontzi harrapatu eta Baionara ekarri zituzten, abuztuaren 22an garaipen ohoretan kaian sartuz.

Baionako gobernadoreak erregeari gertatutakoaren berria igorri zion, eta itsas ministroak ondoko erantzun hau eman zuen: “Sa Majesté a vu avec plaisir le plan que vous lui avez envoyé de la baye où les sieurs Croisic et Harismendy ont attaqué les pêcheurs hollandais. Sa Majesté a été très satisfaite de ce que ces deux officiers et leurs équipages ont fait en cette occasion et vous pouvez les assurer qu’Elle se souviendra quand il y aura lieu de leur faire plaisir”²⁹.

Hemendik aurrera, Suhigaraitxipi amerikar bideetan sartuko da. Dakiguna da Ternuatik zetozten marinela euskadun eta bretoiak ingelesen aurka zaindu zituela denbora batez. 1694an, azkenik, Ternuan hil zuten. Hiri berean, XVII. eta XVIII. mendeetako euskal hilobi harrien artean Placentiako eliza zaharrea, lauburu baten bi zati aurkitu izan dira, zeinetan ondoko hau irakur daiteke:

Cy. Gis. Jovannes.
De. Svigaraichipi.
Dit. Croisic. Capit
aine. De. Frégate
Du Roy.
1694.
...(?) Envieux (?) pour

²⁹ Lhande, P., *L’émigration basque*, op.cit., 72.

l'honneur de (?) mon
prince. I Allois en (?)
svivant. Sa. Carrière
Attaqver. Les.Enne
mis. En. Leur. Mesme.
... (Repaire?) + DM³⁰.

Ez da gutxiago aipagarria Ixtebe Pellot hendaiarraren kortsario bizitza. Hamahiru urterekin Marquise-de-Lafayette itsasontzian sartu zen M. de Suffrenen aginduetara Amerikan gerra egitera joateko. Hemeretzi urterekin balearen arrantzan dabil Islandiako kostetan. Hogei urterekin, Flibustier izeneko itsasontzi kortsario bat, bere kontura, prestatzen du. Zortzi kanoi eta berrogei euskaldun gazte ditu bere aginduetara. Bibolin jole batek giroa alaitzen die.

Behin eta berriz, nola Espainian hala Ingalaterran presuner hartuko dute. Baina, beti aurkituko du eskapatzeko bidea. Batean, almirante jantzita, bestean, Konpostelako erromes itxura hartuz. Baionako kartzelan zeuden lau euskaldun behar zituela eta, ihesa prestaturik lortuko du. Ingelesen itsasontzi ofizialak aurrez aurre topatzean, bere ahots ozenez oihu egiten omen zien: *I am the Pellot!* itsasontzi piloto bat balitzan harturik hurbiltzen ikusten zituenean malkoz beteriko irriak ateratzen omen zitzaizkion. Eta irispidera jartzean erasotzen omen zituen.

Hainbat aldiz horrelakoak eginik, ingelesek bere burua ekarriko zitetenei 500 gineako prezioa eskaini zien. Hala ere, Ingalaterrako kostetaraino ingeles itsasontziak erasotzera joaten jarraituko du. Bere karrasi elkartzailea: Gora zoriona! Gora Pellot! Bera baino bi edo hiru aldiz indartsuago ziren arerioei erasotzen omen zien. Nola gainditu? Berak zioenez, “azerikeriaz jokatzu!” Bere itsasontziak sua zuela itxurak eginaz; baita komertziantze zintzo baten itxurak hartuaz ere, besteen konfiantza ukan arte; eta arerioak lotaratzean erasora igarotzen zen.

Harrigarriago dena zera da, Pellot larogeita hamaika urterekin Hendaian gizon ezti bat bezala hil zela. Hori bai, 1843an “Légion d’honneur” titulua ukana zuen. Azken ohore horrek garbi adierazten du botere ofizialak errekuaperatu egin zuela.

³⁰ Lhandek aipatua, *L'émigration basque*, op.cit., 73. Baina gai honetaz ikerketa zor diogu T. Rév. Howley jaunari Ternuako artzapezpikuari (archevêque de Saint-Jean, Tre-Neuve), “Les anciennes tombes basques à Placentia”, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, II, 1908, 734.

Amerikar produktuen merkatariak

XVII. mendean zehar, Amerika dela eta ez dela, klase berri bat antolatuko da euskal kostan; suspertzen joan den itsas komertzioari esker aberastu direnena da hori. Ez da Amerikaren eragin hutsa, europar produktuen banatzea ere fenomeno honen erdi-erdian baitago. Ordurarte ez bezalako azoka internazionala saretzen da itsas komertzioa izanik medio. Honen berri Julio Caro Barojak bere estilo sintetiko zorrotzean honela ematen digu: “Más interesante que esto (geroago ikusiko dugun indianoen agerpena) es observar cómo en el XVII se constituye con toda claridad una clase poderosa, que tiene su sede en los núcleos de población mayores, como Bilbao, o en las villas costeras, y que corresponden a lo que en Inglaterra se denomina ‘the gentry’. Esta clase, enriquecida por el comercio marítimo, disfruta de gran influencia local, sustituye a los representantes de los linajes antiguos que están representados ya por la aristocracia castellana y cortesana (ausente del país y a la que están vinculados los títulos de ‘parientes mayores’ y otros) o se encuentran en franco estado de decadencia”³¹.

Klase berriak goraka egingo du denborarekin: “En el siglo XVIII aumenta, si cabe, la influencia de esta clase, y si bien es verdad que los representantes de ella solicitan hábitos, títulos, honores y dignidades, en el fondo se ve que están más atentos a lo que pasa en el mundo que a lo que ocurre en la corte. El precio del hierro o la calidad de los fletes son sus preocupaciones primordiales. Gustan de traer muebles de Inglaterra, trajes de Francia, etc.”³².

Amerikar merkataritzari loturik XVIII. mendeko euskal enpresarik adierazgarriena sortuko da: “De este sector de la sociedad vasca surge la idea de fundar la Compañía de Caracas, que comenzó a funcionar en 1728, y que está inspirada en las que funcionaban en Inglaterra, Holanda y Francia. Este mismo sector es el que da aliento a la ‘Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País’ que empezó a funcionar en 1766 y el que, en suma, no sólo introduce en España los principios del capitalismo moderno, sino también una especie de movimiento filosófico utilitario que queda reflejado en las publicaciones y en los trabajos realizados por la ‘Real Sociedad’ citada”³³.

³¹ Caro Baroja, Julio, *Los vascos*, op.cit., 201.

³² Ibid., 202.

³³ Ibid.

Hemen bereziki azpimarratu nahi duguna zera da, Amerikarekin irekitako merkataritzari esker burgesia eta nobleziako zati batek, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren garapen ekonomiko, zientifiko, tekniko eta kulturala sustatuko duela “Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte” formulapean. Azkoitiko zalduntxoan inguruan eratu zen, Peñafloidako kontearen eraginez bereziki. 1763an aurkeztu zuen berak bere plana eta 1764an eraiki zuten elkartea. 1765ean Espainiako errege Karlos III.aren onarpena eta babes hartu zituen. Gipuzkoan sortu zen arren, hiru herrialdeak batean zituen hartuak bere ikuspegiaren –elkarrekin loturik hiru eskuren irudia zen Elkartearen logotipoa, “Iruac bat” idazkunarekin–, eta hiruretara zabaldu zen erakundea eta berroren jarduera.

Europako Ilustrazioaren espirituak gidatzen zuen³⁴, eta, beraz, zientziak, artea eta literatura herrian zabaltzea, eta ezjakintasuna eta honen ondorioak desagertaraztea zuen helburu behinena. Horretarako gazteak atzerrira bidali zituen hainbat alorretako ezagutza berriak jaso eta ekar zituzten, sariak antolatu zituen ikerlanak bultzatzeko, biblioteka garrantzizko bat antolatu zuen, obra modernoenez hornitua, eta zientzilaria ospetsuak ekarri zituen, eraikitako eskoletan irakasteko.

Kultur proiektu eraginkorra Bergarako Erret Mintegia, hots, irakaskuntza eta ikerkuntzarako mintegia, Peñafloidako konte berak sortu zuen (1776). Humanitateekin batera, zientzia eta teknikak ere lantzen ziren, pixkanaka, kimika, fisika eta minerologiako ikerketagune garrantzitsu bilakatu zen arte. Horren lekuko adieraz dezagun, Elhuyar anaiek wolframioa aurkitu zutela bertan. Espainiako lehen mailako ikasketak eta ikerketa gune bihurturik, Espainia eta Europako ikertzaile eta irakasle ospetsuek egin zuten lan bertako laborategi modernoan.

Herriz herri jendarte orokorrean izandako eragina ez da eskasagoa. Azkoitiko udaletxean, esaterako, Manuel Ignazio Altunak, herriko alkate eta “erregidore” bezala, gramatika ikasketak eta musikako kultura sostengatzen ditu. 1746an, Azkoitian, dantzen arazoan, hots, neska mutilek eskuetatik elkar harturik dantzatzen zituzten tradiziozko dantzak,

³⁴ Xabier Palacios, “Prólogo-Aurkezpena, al texto inedito de J.J.Rousseau”, *Instruction d'un père à son fils sur la manière de se conduire dans le monde*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Gasteiz-Vitoria, 1996. Ikus, halaber, Palacios, Xabier, *Modernidad y nacionalismo: método y utopía en el pensamiento de Jean Jacques Rousseau*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Gasteiz-Vitoria, 1992.

ttuntunaren doinuak, eta bereziki “tafetan” deitu dantza debekatu nahirik elizak hartutako jokabidea gelditu nahi izan zuen, biztanleak plebisizatzera animatuz³⁵. XVIII. mendean Euskal Herriko hainbat elizatan jarritako Cavallé-Coll organoak ere “Euskal Herriaren Adiskideen Elkartekoek” finantzatu zituzten. Honetaz bezala Ameriketako Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarrak izandako hainbat gertakizunez J. Estonés Lasa³⁶ kontsultatu beharreko autorea da.

Indianoak

Ameriketara bizimoduaren bila joan eta gero aberasturik Euskal Herrira itzulitakoari deitzen zaio indianoa. Beste zehaztasunik ematen ezbadu ere, figura sozial honen sorrera konstatatzen du Julio Caro Barojak: “Así, por ejemplo, en el siglo XVI comienza a tener una importancia cada vez mayor dentro del país la figura del hombre enriquecido en las Indias: el ‘indiano’”³⁷. Inolaz ere gai hau agortzeko asmorik gabe, zeren biziki gai zabala eta bihurria baita bere zerikusien-gatik, indianoek ekarria XVI. mendeko euskal “akumulazioa” deitu duen historialari baten aipamena ekarriko dut hona: “En el País Vasco este proceso de acumulación va íntimamente ligado a la suerte de los emigrantes; los que van a Madrid o a Andalucía o los que vuelven de las Indias. Un ‘trabajo de campo’ en archivos privados de familias que hoy día se tienen por ‘ilustres’ en el País nos permite pensar en que la acumulación se llevó a cabo a través del oro y de la plata llegados de fuera del País desde mediados del siglo XVI, nos da la clave del gran número de mayorazgos fundados en Guipúzcoa y en Vizcaya a fines del mismo XVI y comienzos del XVII. Se observa claramente cómo las gentes que se enriquecen fuera del País regresan a él; cómo por medio de la usura (censos, ventas en ‘carta de gracia’, etc.), de las crisis o de una violencia apagada, el recién llegado va acumulando propiedades; cómo, por último, esa acumulación se perpetúa vinculándola en la familia, por medio del mayorazgo. Al fin, llegarán los préstamos a los viejos linajes y en muchos casos el patrimonio de un ‘pariente mayor’

³⁵ Palacios, Xabier, “Prólogo-Aurkezpena”, op.cit., 111-112.

³⁶ Estonés Lasa, J., *La compañía guipuzcoana de Caracas*, Ekin, Buenos Aires, 1948.

³⁷ Caro Baroja, Julio, *Los vascos*, op.cit., 201.

pasará a manos extrañas, bien en forma de compraventa que encubra el préstamo usurario o bien concertando un matrimonio entre la descendencia del deudor y la del acreedor”³⁸.

Zazpi Euskal Herrietan, ia herriz herri, Ameriketan fortuna egin eta itzulitakoen eraginez eginiko etxegintza nabarmena ageri zaigu gaur oraino. Alor horretan utzitako arrastoak ekarritako aberastasunen lekuko dira: “Por otra parte, los hombres venidos de América, los soldados con fortuna, etc., comienzan a llenar los viejos recintos de las villas con mansiones sólidas y de nuevos estilos. El proceso de edificación de ellas va ‘in crescendo’ hasta el siglo XVIII. Se hacen ensanches, y, sobre todo, ‘plazas nuevas’ más amplias para celebrar las ferias y mercados con todo desahogo. Las más viejas casas del aire comercial que hoy día se conservan en ciudades como Vitoria, pertenecen también a los comienzos de este período o fines del anterior”³⁹. Gauza bera Donostiarentzat: “Se estima que un 70 % del crecimiento urbano de San Sebastián se financió con capital de las Américas, especialmente Argentina y Méjico”⁴⁰. Eta Gipuzkoan jarraituaz indianoen aportazio hau Humboldték honela deskribatzen du: “Getaria es entre todas las localidades que encontré en esta parte de España, el más vivo ejemplo del patriotismo vascongado. El poblado era primitivamente un puerto de pescadores con poca apariencia, como todavía hoy lo muestran las antiguas y mal edificadas casas. Ahora cuenta con varias casas grandes, completamente de piedra, y está adornado con muelles de piedra, fuentes suntuosamente edificadas, y una estatua de un héroe marino en medio. Todo esto es la obra de algunos particulares enriquecidos en América, y que aquí acostumbran a desinar con el nombre de Indios”⁴¹.

Nafarroan hainbat eskualdetan dugu indianoen ekarpenen presentzia. Baina bereziki Baztango etxalde anitzen historiak aztertzea aski litzateke indianoen eragin hau aurkitzeko. Indianoek ekarritako onta-

³⁸ Otazu y Llana, Alfonso de, *El “igualitarismo” vasco: mito y realidad*, Txertoa, Donostia, 1973, 95.

³⁹ Caro Baroja, Julio, *Los vascos*, op.cit., 98.

⁴⁰ Douglass, W.A.; Bilbao, J., “*Amerikanuak*”: *los vascos en el Nuevo Mundo*, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Bilbao, 1986.

⁴¹ Von Humboldt, W.F., *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, Añamendi, Donostia, 1975.

sunak eta kontrabandoak utzitakoak toki handia dute bailara eder horren eraikuntza urbanoan.

Hau guztia berdin garrantzizkoa da Iparraldeari dagokionean. Egia bada ere “que los vascos de Iparralde, súbditos de la corona francesa, no participaron en el descubrimiento ni en la administración del Nuevo Mundo”⁴², ez da ahantzi behar, ordea, “que los corsarios laburdinos fueron hasta Italia, mientras los pescadores de ballenas y de bacalaos fueron a Terra Nova desde 1520, y, a partir de 1537, frecuentaron las Antillas, las costas de Venezuela y Méjico”⁴³. Indianoei zor zaie ere ekonomian hain eragin zuzen eta sendoa edukiko duen artoaren sarrera: “De América o de las Antillas, los marinos vascos trajeron antes de 1523 el maíz, entonces llamado en euskara: arto mairo, y que se cultivó por primera vez en la llanuras de Ustaritz. El arto mairo iba a tener un papel primordial en la alimentación y la riqueza del país, y por lo tanto en la demografía. Desde principios del siglo XVII, Bayona exportó maíz a Guipúzcoa y Vizcaya”⁴⁴.

Hau horrela izanik, ez da harritzekoa, hainbat etxalde ederren eraikuntzaz gain, gaur monumentu kontsideratzen direnak ere garai horretakoak direla jakitea: “Después de las guerras franco-españolas y de las guerras de religión, quedan en Iparralde muy pocos monumentos de la Edad Media; menos en Bayona, todos fueron quemados por unos o por otros. Apenas subsistían trozos de murallas y torres incendiadas, que se restauraron a veces, abriendo ventanas de crucero como en Belzuntzia (Aiherra) y Larrea (Ispura). En Bidache, alrededor de la enorme torre medieval, los Agramontes construyeron el castillo más importante de la región, obra, tal vez, de arquitectos franceses y españoles; en Garro, la torre medieval es el núcleo central de un palacio; en Azkain, el obispo de Bayona, Juan de Sosiondo construye el palacio de Azkubea; en Sara, Ibarrola es construida por Juan de Ibarrola, consejero del Parlamento de Burdeos; en Iholdy, Juan de Olzo, obispo de Bayona, abandona el castillo primitivo a favor de un palacio decorado de estucos; en Zuberoa el palacio de Trois-Villes, el de Monreal en Leixtarre, la casa fuerte de Goyhenetxea en Moncayole, la de Urrutia en Altzürükü y sobre todo el palacio de Maitia en Leixtarre son testigos

⁴² Goyhenetxe, Eukeni, *Historia de Iparralde*, Txertoa, Donostia, 1985, 54-55.

⁴³ *Ibid.*, 55.

⁴⁴ *Ibid.*

de esta época, donde eran contemporáneos edificios de estilo medieval y de estilo clásico, persistiendo el estilo del renacimiento hasta el siglo XVIII⁴⁵. Gai amaigabea hau ere. Ikerketa espezifikoez irakaspen handiak ekarriko lituzkete, noski.

Konkistatzaile eta abenturazaleak

Gaur egun bada zinemara eramaten den Amerikarekin loturiko euskal abenturazalerik. Instituzio zibil edo erlijiosoen zerbitzurako Ameriketara joan, urte zenbaitez beste inork baino hobeto betebeharrak eramaten, eta une batez gero aparteko gertaera edo ekintza arriskutsu edo segurtasunik gabeak egitera igaro direnetaz ari gara. Horietariko bi aipatuko ditugu, jakinaren gainean egonda beste hainbat ere izan direla beren modura antzeko jokabidea izan dutenak.

Lehena, Lope de Agirre (Oñati, 1495 - Barquisimeto, 1561) gipuzkoarra dugu⁴⁶. Familiatik aitoren seme izanik ere, Ameriketara joan zen (1536-37) eta La Plata hiriarren fundazioan parte hartu zuen. Peruko gerra zibilean, erregearen eta honen ordezkari Blasco de Nuñez Vela erregeordearen alde eta Pizarroren aurka jardun zuen (1544). Hona arte inperioko instituzio zibilaren zerbitzari fin eta leiala izana, diziplinatik ateratzen hasiko da Pedro de Hinojosa korregidorearen hilketan parte hartzean. Urtebeteko kartzelaz ordaindu beharko du jokabide hori. Baina, zuzenaren arretaz egindakoa zigorraz pagatu beharrak betiko markatuko du instituzioarekiko mesfidantza barneratzen duela-rik. Chiquingako batailan zauritu eta herren geratu zen. Hala ere, bere izena oroitzapen historikora eramaten, Pedro Ursua nafarra buru zuela, El Dorado konkistatzeko prestatutako espedizioan parte hartzean gertatutakoek eramango dute. Bere alaba Elvirarekin batera engaiatu zen (1560). Espedizioak ez zuen emaitza onik lortu eta marinelen arteko egonezina handituz joan zen, Agirre buru zutela matxinatzera iritsi arte. Agirrek Ursua hil eta espedizioan agintea hartu zuen (1561); Fernando de Guzman jeneral izendatu zuen, baina benetako boterea Agirrek zeukan. Agirreren kontra zerbait esan edo egiten zuen oro hil

⁴⁵ Ibid., 56-57.

⁴⁶ Hogeigarren mendeko euskal letretan zenbat aipamen izan dituen jabetzeko, ikus: Jon Bilbao, *Eusko bibliografia, Suplemento 1961-1975*. "A.Beitia", in *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Añamendi, Donostia, 1978, VIII, 401.

egin zuen, Guzman barne; Espainiako Felipe II.aren aginduak ere ez zituen jada betetzen eta gerra deklaratu zion. Talde txiki bat osatu eta Peru konkistatzera abiatu zen, baina bortizkeria eta nekealdi ugari medio, lagunek abandonatu egin zuten eta alabarekin bakarrik geratu zen. “Doilorren koltxoi” izan ez zedin, alaba hil egin zuen. Agirreren amaiera nola kontaktzen den jakiteak balio duelakoan, aipatzera igaroko gara. Bere alaba hil ondotik taldekide zen soldaduetariko bati agindua eman omen zion eskuan zuen arkebusa disparatzeko. Hala eginik lehen aldian, oihu egin omen zuen, esanaz, “mal tiro!”, izan ere bala albora joan omen zen. Bigarren bat jaurtirik bihotzean jo zuenean, beste hau esan omen zuen lurreratzearekin bat, “este tiro sí es bueno”⁴⁷.

Hau idazten ari naizen unean, Felix Ibarrola oñatiar musikari internazionala Lope de Agirreren gaiarekin opera bat eraikitzen ari dela esan behar dut. Ziurrenik ez da azkena izango gai honekin obra artistikoa sortzen. Agirreren jokabideak balentria, ausardia, zintzotasuna, itsukeria, gaiztakeria, nihilismoa eta dena ala ezerrez, beste inork ez bezala bizitza berean nahasten baititu.

Bigarrena, Katalina de Erauso (Donostia, 1592 - Mexiko, 1650) serora alferzea gipuzkoarra dugu⁴⁸. Txikitan gurasoek Donostiako domingotarren serora-etxean sartu zuten, baina hamabi urte zituenean komentutik ihes egin eta handik aurrera mutiltzat hartua izatea erabaki zuen. Morroi ibili zen Gasteizen eta Bilbon eta 1605ean Pasaiko portuan Amerikarantz itsasoratu zen. Ameriketara abentura luze eta ikusgarriak bizi izan zituen: morroi, soldadu, iheslari, preso borrokalaria, eta horrelako egoera anitz ezagutu zuen. Txilen zegoela, Alonso Diaz izenarekin soldadu bihurtu eta alferetz izatera iritsi zen. Hamaika istilu eta liskarretatik ihes egitea lortu zuen, babesleren bat zela medio gehienetan, baina Perun zaurituta gertatu zenean emakume zela aitortu behar izan zuen. Berria Espainiako inperio osora zabaldu zen. Komentu batean egon zen ondoren, Aita santuak komentutik kanpo bizitzeko baimena eman zion arte. Felipe IV.ak emandako biziarteko

⁴⁷ P. Lhande, *L'émigration basque*, op.cit., 65-66. Baina, berak dioenez, kontakizuna ondoko autorearen obratik jasoa du: Aristides Rojas, *El elemento vasco en la historia de Venezuela*, Caracas, 1874, 7-15.

⁴⁸ Pertsonaiaren inguruko emaitza literarioa jarion dago. Honen lekuko ikus: Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía, Suplemento 1961-1975*. “Beiträge-Izuzkiza”, in *Enciclopedia General del País Vasco*, Añamendi, Donostia, 1980, IX, 275.

pentsioarekin, Mexikora itzuli zen (1630). Autobiografia idatzi zuen 1624an.

Misiolariak eta ebanjelizatzaileak

P. Lhande, gai hau aipatzen hasten delarik, erronka bat egitera ausartzen da: ezetz beste herri bat atzeman Europan gureak bezainbat misiolari historiko eman dituenik azken lau mendeotan⁴⁹. Figura handi horien artean bi bereizten ditu, hain zuzen, eta biak amerikar abenturatik kanpo mugitu zirenak, Xabierko Frantzisko Asian jardun zena, eta Lavigerie kardinala Afrikan bere misiolaritza garatu zuena.

Ameriketan misiolariak eraman behar zuten jokabidea arrazoitze-ko orduan eztabaida sakonak emango dira. Hasteko eta behin, lurralde haien konkistarako eta okupaziorako Espainiak zuen zilegizko eskubideaz. Euskaldunek protagonismo jakin bat edukiko dute eginkizun horretan. Gogora dezagun Ameriketan ageriko diren lehen ordena erlijiosoak frantziskotarrenak eta domingotarrenak direla. Eta batzuek eta, besteek, indioekiko dituzten jarrerak izentzean, batetik indigenista edo indiofiloak eta, bestetik, indiofoboak aurkituko ditugula. Lehenentzat, Fr. Bartolome de Las Casas domingotarren *Brevísima relación de la destrucción de las Indias* (1552) jarraituaz, India bertute guztien jabe denean, bigarrenentzat, Fr. Totibio de Motolinia frantziskotarren *Historia de los indios de la Nueva España* gida lekuko, lurralde eta tribu desberdin guztietako indioak ahalmen eskaseko jende ahulak baizik ez dira. Hala ere, domingotar guztiek ez zuten Las Casasen kritika onartzen, eta alderantziz, frantziskotarren artean oso jarraitzaile sutsuak ere baziren⁵⁰. Baina errealitatea jarrera kontuetan nabarduraz beteta dago. Saiatuko gara ibilbide orokorra laburbilduz aipatzen, eta horien artean euskaldun batzuen ekarpena azpimarratzen. Garai horren ikertzaile espezialistek esaten digutenez, “en général tous les religieux et même la majorité des autorités, proposèrent que les Indiens fussent ‘bien traités’. Nous trouvons même cette attitude chez ceux qui, comme le Dominicain fray Tomas Ortiz, nous laissèrent une peinture très défavorable du caractère de quelques Indiens, et même chez ceux qui pen-

⁴⁹ Lhande, P., *L'émigration basque*, op.cit., 100.

⁵⁰ Canedo, R.P., “Las Casas et ses amis franciscains”, in *Libro Jubilar de Emeterio S.Santovenia en su centenario de escritor*, La Havanne, 75-85.

sèrent que l'on devait limiter la liberté de ces derniers grâce au système des encomiendas y repartimientos”⁵¹.

Indigenista edo indiofiloen aldea hartzen zutenen artean ere, “on considérait comme indiscutable donc que l’Espagne possédait un droit légitime à la conquête et à l’occupation des nouveaux territoires; ce qui se discuta fut le fondement de ce titre”⁵².

Batezbeste, hala ere, frantziskotarrak izaera arazoak afrontatzera emanago agertzen dira antolaketa teorikoetara baino. Baina, frantziskotarren artean teorizazioan bereizten den pentsalaririk ere bada. Honela, Fr. Alfonso de Castrok, Felipe II.a aholkatzen zuen teologo-juristak, Espainiaren zilegizko eskubidea aitasantuaren donazioan finkatzen du, baina indiarren ebanjelizazioa leramake kontrapartidatza. Jeronimo Mendieta (Gasteiz, 1525 - Mexiko, 1604) misiolari eta idazle arabarrak, 1493ko maitzaren 4ko “Inter caetera” bulda interpretatzen duelarik, Indiak espainiar erregei aitasantuak donatzea ebanjelizatzaile lanaren oparizat ematen du, baina ebanjelizazioa konkistaren betebeharrak bat izan zela aitortu gabe. Fr. Pedro de Arzaugak aldiz, espainol konkista eskubidea “indioen fede faltan eta bizioz beteriko bizitzan” finkatzen du, zeina gainditzea kristaudentzat ezinbesteko betebehartzat aipatzen baita. Argudiatzeko molde hau Juan de Gines Sepulvedaren *Democrates, sive de justis belli causis* obratik hurbil dago. Eta arras urrun euskaldun pentsalari handi eta Amerikaren gaian zuzenbide internazionalen eredu den Francisco de Vitoria (Gasteiz, 1486 - Salamanca, 1546) teologo-jurista arabarraren *De jure belli* eta *De indis* obretako tesietatik. Bigarreanean, Ameriketako lurraldeen benetako jabeak in-diarrak zirela aldarrikatu zuen; adierazpen iraultzailea ordurako. Dena dela, Amerikaren konkista zilegitzeko argudioak bilatzen saiatu zen.

Bestalde, 1517az gero, Indietan zeuden frantziskotar batzuen errekomentazioa izan omen zen aurrez frantziskotar eta domingotar talde batek Cumaná kostan praktikaturiko “konkista baketsua” deitu jarrera. Esan nahi baita, “sans aller avec des troupes ou une quelconque force”⁵³. Bide egingo du metodo honek. Honela, dakiguna da Fr. Martin de Valencia, Espainia Berria deitu eskualdean, frantziskotar talde

⁵¹ Canedo, R.P., “Différentes attitudes face à l’indien”, in Collectif, *La découverte de l’Amérique*, Librairie Philosophique J. Vrin, Paris, 1968, 196-197.

⁵² Ibid., 197.

⁵³ Ibid., 198.

batekin horretan saiatu zela: “ils se rendirent à Tehuantepec afin de s’y embarquer et d’aller prêcher ‘l’évangile de Jésus-Christ sans procéder à une conquête au moyen des armes’, et également avec l’espoir de trouver ‘des gens plus raisonnables’”⁵⁴. 1537an, Fr. Marcos de Nizak konkista armatuen ezabapena eskatu zuen. Eta 1544an, Fr. Juan de Zumarraga euskal jatorriko mexikarrak Don Felipe printzeari berak parte hartuko duen espedizio baten intentzioa iragartzen dio. 1550ean, Fr. Rodrigo de la Cruzek Jaliscotik gauza bera defendatuko du, berak eta bere lagun zen Fr. Bernardinok lortutako emaitzetan oinarrituaz. 1553an, Fr. Gaspar de Burguillosek antzeko espedizio bat antolatu zuen Txilera begira. Eta 1556an, Fr. Andres de Olmosek Tampico eskualderako prestatu zuen.

Beste hainbati, aldiz, espedizio mota horiek misiolari bizitzen xahuketa zela iruditu zitzaion. 1562an, Nueva Galiciako apezpiku izendatu berria zelarik, horrelako aburua erakutsi zuen Fr. Pedro de Ayala frantziskotarrak, ordenan bere anaia zen Fr. Jeronimo de Mendoza Zacatecas eta Nueva Vizcayan sartu zelarik. Domingotarren artean antzeko aburua agertua zuen jada 1558an Fr. Domingo de Santa Mariak.

Badirudi, berehalako neurriekin neurtuta, “konkista baketsua” zail egin zela garaipen gisa kontsideratzea sortzen ziren eraso eta ezusteen-gatik. Orduan, egoeraren hurbilketa errealista baten beharra aipatu zen: “il ne s’agissait pas de revenir à la violence des anciennes conquêtes, mais on comprit la nécessité d’envoyer des escortes destinées à servir de protection aux missionnaires contre toute attaque non provoquée; on recommanda surtout de peupler au moyen de paysans, d’abord Castellans (auskalo penintsulako zein tokitakoak, hainbat euskaldun ezpairik gabe horien artean), et ensuite Indiens amis comme les tlaxcaltèques. Privée de colonisateurs, la mission échouait”⁵⁵, esaten zaigu. Dakiguna da, “eskorta defentsiboaren” teoria hau Fr. Juan Forcerek, *Itinerarium Catholicum*-en, Sevillan 1574an argitaraturiko obran lantzen duela. XVII. eta XVIII. mendeetan, bada, jarrera arrunta bihurtuko da.

Puntu honetara ailegatzean interesantea izango litzateke “indio errepublikari”, “reducciones, encomiendas, servicios personales y repartimientos” sistemaren bidez, eman zitzaion erakundetze politiko,

⁵⁴ Ibid.

⁵⁵ Ibid., 199.

sozial eta ekonomikoa, okupatutako nazioz nazio, nola bilakatu zen aztertzea, baina gaurkoz aipatu dugunean utziko dugu gaia.

Misiolari eta ebanjelizatzaileen beste arlo garrantzizko bat formazio eta irakasgintzarena dugu. Dimentsio honek zuzenki argitzen ari garen gaia ukitzen duenez zertxo bat zirriborratuko dugu gertatua. 1622an sortu zen “De Propaganda Fide” deitu Kongregazioak, 1626an misiolarien formakuntzarako kolegio urbano bat eraiki zuen Erroman, Fr. Gregorio de Bolivarrek (1626) aurkezturiko proiektu baten ondorioa. Fedegabekoen ebanjelizazioan aurrera egiteko helburua zuen. Honela, Indietarako tituluarekin apaiztuko ziren seminaristen hirutatik bat eginkizun horretan konprometi zedila eskatzen zuen. Bolivarrek honela argudiatzen du: “le même précepte doit être imposé à tous les ordres qui ont des provinces aux Indes, demandant qu’il y ait dans chacune d’elles une maison ou un couvent important, où l’on enseigne les langues des provinces les plus proches des infidèles, à la fois aux religieux formés dans tels couvents et à ceux qui le voudraient, qu’on indique les chapitres et les ministres provinciaux pour le dit ministère, en leur communiquant les privilèges et en les envoyant dans les territoires convenant le mieux aux infidèles en nombre raisonnable et pour le moins vingt dans chaque chapitre; ainsi sera appliquée la volonté des Souverains Pontifes et des Rois Catholiques qui envoient chaque année, à si grand frais, un si grand nombre de religieux aux Indes sans qu’ils voient le visage du moindre infidèle... au contraire, s’ils n’atteignent pas la prélature, ils mettent tout leur soin à obtenir une des cures que détiennent les ordres, et à la poursuite de l’une et de l’autre, au point d’être assailli par mille difficultés... ils meurent sans avoir vu l’ombre d’une telle charge...”⁵⁶.

Honela, “De Propaganda Fide” Kongregazioak animaturiko hogeitabat Kolegio Apostoliko ireki ziren “kolonial aroan” espainiar Ameriketara: sei Espainia Berrian, bi Amerika Ertainean, bat Panaman, hiru Kolonbian eta Ekuadorren, bi Perun, bi Bolivian, eta beste zenbait Txilen, Argentinan eta Venezuelan.

XVII. mendearen bigarren erditik aurrera, bada, espainiar Ameriketako misiolari egitatean indigena ez-ebanjelizatuen bila berealdiko mugimendua suspertuko da. Orain arte aipaturiko bi ordenaz gain,

⁵⁶ R.P. Canedok aipaturiko obran dakarren pasartea dugu. Ikus 211 orrialdea.

eginkizun berrian XVI. mendeaz geroztik Ameriketako erroterik zeuden jesuitak, 1573an Quiton ezarri ziren agustindarrak eta orain XVII. an lehen aldiz heldu diren kaputxinoak ere protagonista izango dira.

Ordena guztietan euskaldunak ageri baziren ere, bereziki olde bat izango dira jesuiten artean misiolari joango direnak. 1549an, jada Juan de Azpilikueta barasoaindarra Brasilera joango da. Jesuiten garaiko kroniketan⁵⁷ esaten zaigunez, Bahia eta Porto-Seguro eskualdeetan herri antropofogoak aurkitu omen zituzten. Euren tupinamba hizkuntza biziki ongi ikasteaz gain, kristau dotrina poema eta kantuetan jarri omen zien.

Tupinamba hizkuntza galdu bazen ere, guregana heldu izan zaigu Antonio Ruiz Montoya, Jose Antxieta eta Luiz Figueira jesuita misiolariari esker⁵⁸. Brasilen ere agertzen dira Jean de Mayorga misiolari martiria eta Etienne Zurara.

Martin de Azpilikuetak, berriz, Mexikora joanik misiolari, Sinaloa Xabierko Frantziskoren izena eramango zuen eliza bat altxatu zuen. Ordena bereko Juan de Ugartek, euskal jatorriko mexikarrak, Kalifornian misio berri bat estreinatu zuen XVII. mendearen hasieran. Sinaloako misioan ere agertzen zaizkigu Agustin Arriola euskal jatorriko mexikarra eta Jose Olaberrieta euskalduna. Jesuiten indietako misioen analetan agertzen zaizkigunak dira ere Elorriko Juan de Ajuria, Juan de Verentia Nafarra eta Azpeitiako Pedro Oyarzabal. Pedro de Vega bizkaitarra, berriz, Paraguaiko Cordoba de Tucumanen ehun urterekin hil zen lau orduko eritasun baten ondorioz. Paraguain ere Julian de Lizardi aurkitzen dugu. Andres Ortiz de Oruña Karibeetako apostolu bezala ezagutua da. Francisco Ugalde Gran Chacon aritu zen. Jose de Arriaga Peruko apostulua deitua izan da. Eta hainbat gehiago.

Espainiar Ameriketako Kolegio Apostolikoaren misiolari abentura, 1767an jesuitak ohilduak izatean, krisi sakonean sartu zen, nahiz eta frantziskotarren ordena jesuitek utzitako tokiak betetzen ahalegindu: "A cette date, les Jésuites constituaient le second ordre missionnaire d'Amérique; on peut presque affirmer qu'avec les Franciscains, ils monopolisaient les oeuvres missionnaires proprement dites, dans les possessions espagnoles, à la seule exception des Capucins au Venezuela.

⁵⁷ Polanco, P. de, *Monumenta historica Societatis Jesu*. Chronicon, S.J., II, 387.

⁵⁸ Lhande, P., *L'émigration basque*, op.cit., 112.

Leur élimination aussi soudaine que totale dans ce domaine de l'Apostolat devait avoir une terrible conséquence, malgré les moyens pris pour l'éviter. Il n'y avait pas un personnel suffisant, encore moins suffisamment préparé pour faire face à cette nouvelle situation. Nombre de missions n'avaient pas encore atteint le degré de développement nécessaire à leur sécularisation, bien que quelques évêques même, parmi les plus distingués, tel Tamaron à Durango, se laissèrent bercer par de tels rêves. Dans d'autres cas, les religieux remplaçant les Jésuites auraient pu être de bons catéchistes, mais non de bons missionnaires. Il fallut surtout abandonner, faute de personnel, un grand nombre de missions"⁵⁹.

Unibertsitarioak

Ados nago R. Konetzkerekin⁶⁰, espainiar Ameriketako unibertsitateak eduki zuen bilakaera konprenitzeko, aurrez Europan eta bereziki Espainian goi irakaskuntza nola hedatu zen jakin behar dela, dioenean. Ideia honi jarraikiaz eta gaia laburbilduz, unibertsitateen sorrera orokorrean eta espainiar unibertsitatearena, bereziki, nola izan ziren adieraziko dugu.

Orokorki onartua da Mendebaldeko Unibertsitateak beren kabuz bildutako maisu eta ikasleen elkarteetatik sortu zirela, hots, jakinmin zientifikoan oinarritutako erronkei erantzuten zietela: "le désir de savoir et de connaître pour l'amour de la vérité"⁶¹. Baita ere giro urbanoan sortu zirela. Baina jakitatearen kontrola disputatzen zuten elizak eta estatuak ez zuten utziko bere horretan joaten. Laster unibertsitateak beren ikasketentzat bezala pribilegio korporatiboentzat autoritate espiritualak eta tenporalaren onarpena bere espresio gorenean biltzen saiatuko dira.

Denbora igaro ahala, Erdi Arotik Errenazimenturako bidean, oraino Unibertsitateak gero eta gehiago botere publikoenganako dependentzian areagotzen eta beren pribilegio korporatiboetan urritzen joango dira.

⁵⁹ Canedo, R.P., "Différences attitudes face à l'indien", op.cit., 222.

⁶⁰ Konetzke, R., "L'implantation de l'Université européenne en Amérique espagnole pendant l'époque coloniale", in Collectif, *La découverte de l'Amérique*, op.cit., 157.

⁶¹ Grundmann, Herbert, *De l'origine de l'Université au Moyen Age*, 2. argitalpena, Darmstadt, 1964, 58.

Espainiako unibertsitateak, hasteko, ez ziren sortu ikasketa jakintsuen aldeko inpulsiio bat-batekoak eraginda, ezta maisu eta ikasleen korporazioen formazio libre baten ondorio bezala ere. Abiadan jarri zirelarik apezpiku eta katedraletako eskolei lotuak ageri dira, zeinetatik ateratzen baitira garaiko eliz pertsonalitate zuzendariak eta erregetiar kantzilerietako funtzionarioak⁶². Gisa honetan ingurugiro horrek ikasketa orokorretarako proiektuak egin zituen. Hortik etorri dator Palentziako unibertsitatea, Tello Tellez apezpiku zela katedraleko eskolatik sortua, zeinari Gaztelako errege Alfonso VIII.ak, 1208 eta 1214 urte bitartean, unibertsitate pribilejioa eman baitzion. Arte liberaletarako prestakuntzaren ondotik teologia ikasten zen. Jakin dakiguna da 1263. urtea arte iraun zuela, eta data horretan finantza arazoak medio desagertu zela.

Berehala katedraleko eskolatik ere Salamancako unibertsitatea eraiki zen. Nahiz eta ordurako Santiago Konpostelako katedral eskolan teologiaz gain zuzenbideko ikasketa bikainak egon, Extremaduraren konkistak hala agintzen zuela eta, bere erdigune izaeragatik, 1218an Alfonso IX.ak Salamanca hautatu zuen “studium orokor” deklaratzeko. Eta errege honek horrelako eraikuntzak argudiatzeko zergatik egiten dituen darabilen testuak Aquinoko Santo Tomasek *De regimine principum*⁶³ liburuan, hiri berrien eraikuntzarako betebeharrezko aipatzen dituenak gogorarazten dizkigu: “La villa donde el ‘studium’ se instituya debe tener buen aire y buenas salidas, para que los maestros que enseñan las ciencias y los escolares que las aprendan en ella vivan sanamente y se puedan pasear y regocijar por la tarde si se levantan del estudio cansados”⁶⁴. Geroago, 1243an, Fernando III.ak Salamancako unibertsitateari bere lehen pribilejio erregetiarrak emango dizkio. Are

⁶² Vincke, Johannes, *La politique de l'école supérieure des chapitres cathédraux espagnols u Moyen Age*. Görres Sozietatearen ikerketa espainiarrak. Espainiaren historia kulturaz bildutako artikulua, 9. tomo, 1954, 144-163. González, Julio, “Alfonso IX”, I, Madrid, 1944, 449 eta hurrengoak.

⁶³ Aquino, Santo Tomás de, *De regimine principum*, Gráfica Excelsior, Madrid, 1917, 79 eta hurrengoak. Atal buruan hau dio: “Los territorios elegidos por el rey para fundar poblaciones deben tener sitios de recreo, de que ha de usarse con moderación, porque son causa frecuente de la corrupción de costumbres, que es de donde procede la corrupción de los imperios”.

⁶⁴ Alfonso X, *Las siete partidas*, “partida” 2, título 31, ley 2.

gehiago, Alfonso X.ak pribilejio zabalagoz beteko du. Azkenik, aitasantuaren baiespena jasoko du 1255ean. Hala ere, Salamancan, Palentzian ez bezala, ikasketa juridikoak izango dira nagusi. Bi zuzenbideak, hots, zuzenbide publiko edo zibila eta zuzenbide kanonikoa, aldi berean garatuko dira. Gainera, Alfonso X.ak medikuntzako bi katedra eraiki zituen. XV. mendetik aurrera bakarrik teologiako ikasketak kontzentratuko dira Salamancan.

XIII. mendekoa da Valladolideko unibertsitatea ere. Erregetiar interbentzioa dago bere fundazioan. Lege orokor bezala esan behar da Gaztela-Leongo lehen hiru unibertsitateen fundazioan erregetiar iniziatiba dagoela, nahiz eta elizaren partetik inpuetsioak eta errentak agertu.

Aragoiko erresuman beste hainbat gertatuko da Erdi Aroan. Leriadako unibertsitate zentrala Santiago II.a erregeak 1300ean sortu zuen, katedraleko kapituluak, katedrak hornituaz, kantziler funtzioa betetzen zuelarik. XIV. mendean zehar Aragoiko erresumaren unibertsitate eskualdetiarrak eraikitzen dira: Huescan eta Perpignanen. Beren aldetik, unibertsitate maila, Zaragozakoak 1474an eta Valentziakoak 1499an eta 1500ean lortzen dute. Aldiz, XVI. mendetik aurrera espainiar unibertsitate gehienak eliztarren iniziatibei esker gauzatuko dira. Preseski hauekin loturik baitaude espainiar Ameriketako unibertsitateak, beren sorrerak eta prozedentziak zehatz-mehatz izendatuko ditugu.

1.- Sevillan, Santo Tomas deitu “estudio general” pontifikala eta inperiala sortzen da.

Fray Diego de Deza artzapezpiku domingotarraren eskariaz, 1516an, aitasantuaren bulda batez San Pablo komentuan “studium” bat eraiki zen domingotarrentzat zein beste ordenetakoentzat irekia; 1539ko aitasanduaren beste bulda baten ondorioz eliztar sekularrak eta laikoak ikasketa horietan onartuak izan ziren, eta horrekin, hala behar zelako, 1541ean erregetiar onarpena heldu zen.

2.- Toledon, Santa Katalina kolegio-unibertsitate pontifikala eta erregetiarrak, Alvarez de Toledo, katedraleko eskola maisu doteari esker, 1521ean, aitasantuaren buldaz sortu zen. Lehenetsunez, duintasun kanonikoak lortzeko ikasketak bete behar zituen. 1529an Karlos V.ak fundazioa konfirmatu zuen.

3.- Santiago Konpostelakoan, unibertsitate pontifikala eta erregetiarrak eraikitzen da. Bere sorrera, Alonso de Fonseca, Toledoko artzapezpikuak utzitako testamentu dote aberatsean dauka. Bere sorterrian zegoen kolegio bat haziaz unibertsitate bihurtzeko aholkua ematean,

Santiago Konpostelako eta Galiziako erresuma guztiko bizilagunek teologia eta bi zuzenbideak ikas zitatzela asmoa zuen. 1525ean baimen pontifikala lortu zuen eta beranduago erregetiarra.

4.- Sahagungo “estudio general” pontifikala: 1534an aitasantuaren buldaz sortua, monje beneditarrei eta klero orokorrari eksklusiboki xedatua izan zen.

5.- Oñatiko “Sancti-Spiritus” unibertsitate pontifikala eta erregetiarra: 1540an Rodrigo Sanchez de Mercado Zuazolak, euskalduna zen Avilako apezpikuak, jarritako laguntzei esker aitasantuak onartu eta Karlos V.ak bere gerizapean hartu zuen.

6.- Baezako unibertsitate pontifikala eta erregetiarra: 1542an aitasantuaren buldaz sortua eta 1583an erregearen gerizapera bildua.

7.- Gandiako unibertsitate pontifikala eta erregetiarra: Francisco de Borjak altxatutako jesuiten kolegioa, 1547an aitasantuak unibertsitate mailara jaso zuen eta Karlos V.ak baiestatu.

8.- Avilako Santo Tomas unibertsitate pontifikala: 1504az gero domingotarrek beren komentuan erakundetua zeukaten teologia eta arteak ikasteko “estudio general”a; 1576an unibertsitatetzat ezagutua izan zen.

9.- Almagroko “Nuestra Señora del Rosario” unibertsitate pontifikala eta erregetiarra. Monje domingotarrek eta Calatravako ordenako kideek utzitako dote bati esker teologia eta arte liberalak ikasteko kolegio bat sortu zen hiri honetako domingotarren ordenan; XVI. mendearen amaieran lortu zuen unibertsitate pribilejioa.

10.- Orihuelan “Santa María de los Socorros” unibertsitate pontifikala: Leridako apezpikuaren inizatibaz eta dotez domingotar ordenak kolegio bat jaso zuen, zeina, 1569an, aitasantuak unibertsitate mailara altxatu izan zuen.

11.- Oviédoko unibertsitate pontifikala: Valdesek, Sevillako artzapezpiku eta inkisidore orokorrak, ontasun garrantzizko bat utzi zuen unibertsitate bat eraikitzeko. 1574an, aitasantuak fundazio pribilejioa eman zion.

12.- Tarragonako unibertsitate pontifikala eta erregetiarra. 1572an, Tarragonako artzapezpikuaren dote aberats batek ahalezko bihurtu zuen, eta 1574an aitasantuaren baimena lortu zuen.

XVI. mendean salbuespen bezala bakarrik ezagutzen dugu erregetzatik eraikitako unibertsitatea. Honela egin zuen, 1526an, Karlos V.ak Granadako Alahambran jauregi bat eraikitzeko proiektua gauzatu zuelarik. Granadako artzapezpikuari ikasketa eklesiastikoak egiteko

kolegio bat eraikitzeke erabakia agertu zion, eta artzapezpikuak aitasantuari berria luzatuaz, honek 1531ko buldaz “estudio general”aren onarpena egin zuen. Felipe II.ak berriz, 1587an, aitasantuaren baime-na jaso zuen Escorialeko komentuan teologia ikasketako kurtsuak era-kundetzeko.

XVI. mendean, esandakoagatik agerian gelditu denez, unibertsita-tea ez zen gehiago katedraleko eskoletatik sortu. Goi ikasketa zentruak ordena erreljiosoen eskuetan daude, batik bat. Bereziki domingotarrek beren kolegioan “studium generale” delakoa jasotzen saiatuko dira. Je-suitei dagokienean, Espainian, beren unibertsitate propioa lortua zuten jada XVI. mendean. Arrazoi nagusia, ikasketa teologikoak prestatzea zen.

Azpimarratzekoak dira, Valdes artzapezpikuak Oviedoko uniber-sitate sortzerakoan jarraitutako kontrarreformaren eredia. Baita ere Granadako unibertsitatea eraikitzean Karlos V.ak agertutako intentzio misiolariak. Bestalde, XVI. mendean laikoek unibertsitatearekiko era-kutsitako grina motela nabarmendu behar da. Aldiz, Avilako apezpi-kuak euskaldunen aberriari laguntzeko asmoz egindako keinuan ikus-pegi laikoaren nabardura daukagu: “L’*évêque d’Avila, qui devint le fon-dateur de l’Université d’Oñate, était Basque et voulait procurer la pos-sibilité d’étudier aux habitants du Pays Basque, aux aptitudes intellec-tuelles desquels il croyait. Il écrivait: ‘Je tiens pour très certain qu’avec de bons principes, beaucoup deviendraient de signalés lettrés qui ser-vaient Dieu et honorerait beaucoup cette patrie’.* Le Conseil Mu-nicipal d’Oñate défendit vivement le projet et parvint à des conven-tions avec l’*évêque*”⁶⁵. Antzeko zerbaít gertatzen da Sevillako Valdes artzapezpiku asturiarrak Oviedoko unibertsitatea eraikiz egindako kei-nuarekin. Azkenik, J.Télléz-Gironek, Ureñako konde laikoaren dote testamentarioak Osunako unibertsitatea eraikitzean, goi profesio seku-larrak zerbitzatu nahi izan zituela gogoratuko dugu. Gisa honetan, be-re borondatez, teologiarekin batera bi zuzenbideak eta medikuntza erakutsiak izan zitezela lortu zuen. 1548an aitasanduaren buldaz fun-datu eta geroago erregetiar pribilejioak jaso zituen.

Hau guztia funtsezkoa gertatzen da, bada, espainiar Ameriketari unibertsitate fundazioen jarraipena egiteko orduan. Lehenik eta behin, esan behar baita Mundu Berrian unibertsitateak eraikitzean emigrante

⁶⁵ Konezke, R., *Implantation de l’université européenne en Amérique espagnole pendant l’époque coloniale*, op.cit., 162.

eklesiastiko eta laikoen bidez, hauek unibertsitate formazio kontinentala edukitzean, espainiar unibertsitateak bertan txertatu zirela.

Bereziki, Salamancak eta Alcalak Mundu Berrian garrantzi handienekoak izango diren misiolari ospetsuak formatuko dituzte.

Nondik nora eta nortzuen eskutik sortzen joan ziren espainiar Ameriketako unibertsitateak?

– XVI. mendean

Lehena, Santo Domingon, domingotarrena izan zen, zeintzuk 1509an, Mendebaldeko Indietara ailegatu baitziren “paganoak ebanjelizatzerak”. 1538an euren kalostrepean unibertsitatea eraikitzeke baimena jaso zuten. Aitasantuaren bulda batez domingotarrak bezala gainerako erlijiosoak, klero sekularrak eta laikoak denak onartuak ziren ikasketa liberalak eta teologia egiteko. 1570ean, hala ere, erregearen baimenik ez zela etorri eta, Audientziako Fiskalak ixteko agindua eman zuen.

Bigarrena, “Santiago de Paz” deitua, han ere Santo Domingon, 1558ko otsailaren 23an, Karlos V.ak emandako pribilejio baten gaineran sortu zen. Ez zen jatorriz erlijiosoak izan; aitzitik, hiriko burges batek utzitako dote baten itzalean sortu zen. 1603an seminario bilakatu zen, “Seminario Conciliar” deitua, eta 1745ean jesuiten unibertsitatea izan zen.

Hirugarrena, Mexikokoa dugu. 1551ko irailaren 21ean, Karlos V.aren dekretu baten ondorioz sortu zen unibertsitate pontifikala eta erregetiarra. Azteken kapitala oinperatu eta handik hogeita hamar urtera, hain zuzen.

Laugarrena, Liman aurkitzen dugu. 1551ko martxoaren 12an Karlos V.ak onartu zuen “estudio general”a, domingotarren komentuan irekia izan zedin. Salamancako unibertsitatearen pribilejio berak izan behar zituen.

Bosgarrena, Bolivian, Tomas de San Martin domingotarra apezpiku izendatzean, “estudio general”a proiektatu zuen La Plata de Charcasen (gaur Sucre), eta 1552ko uztailearen 11n Karlos V.ak, dekretu baten bidez, Salamancako unibertsitatearen eredura irekitzeko baimena luzatu zuen. Baina gauzatzea, 1624an jesuiten eskutik bakarrik etorriko da, orduan San Francisco Xabier izena hartuko duen unibertsitateak.

Seigarrena, Santa Fe de Bogotako unibertsitatea, 1580an, domingotarren inizatibapean aitasantuaren buldaz sortzen da. XVII. mendean bakarrik helduko zaio erregetiar baimena.

Zazpigarrena, 1586an, Quitoko hirian, agustindarren kalostren klero eta laikoentzat fakultate guztietan gradu akademikoak emateko aitasantuaren baimena lortuko da. Baina, erregetiar onarpena ez ziztaion behin ere iritxi.

– XVII mendean

Unibertsitate komentualak izan ziren XVII. mendean espainiar Ameriketara sortutakoak. Honela, Guatemalan, 1572az gero, domingotarrek egindako eskariak hutsak gertatu ondoren, 1619ko martxoaren 11n, aitasantuaren idatzi labur bat jaso zuten Lima eta Mexikoko unibertsitateetatik 200 legoara zeuden ordenako kolejio guztietan baxilergoa, lizentzia, maisutza eta doktoregoa lortzeko aukera adieraziaz. 1624ko urriaren 1ean errege dekretuaren bidez “studium generale”a onartu zitzaion Guatemalako domingotarren komentuari. Hala ere, San Carlos unibertsitate pontifikala eta erregetiarrera izatea, 1676ko urtarrilaren 31ko agindu erregetiarrak ekarriko zuen. Eta unibertsitatearen onarpen pontifikala 1687an heldu zitzaion.

Txileko Santiagon ere, domingotarren kalostira eskolak unibertsitate bihurtzea XVII. mendean lortuko da. 1619an, Felipe II.aren gomendioz, aitasantuak arteen eta teologiaren fakultate izateko baimena emango du. 1682an ikasketa unibertsitario hedatu eta publikoetarako pribilejioa eskatuko diote aitasantuari, eta 1685ean onartuko zaie. Quiton, 1688an, unibertsitate domingotarraren irekitzea ospatuko da, 1683an aitasantuaren baimena eta 1683an erregearena jaso ondoren. Agustindarrek, beren aldetik, 1694an lortuko dute Santa Fe de Bogotako ikasketa kolegiak, arte liberalak eta teologia ikasteko unibertsitate bihurtzea.

XVII. mendeko jesuiten unibertsitateen sorrerak, espainiar subiranotasunaren eskariaz, 1621eko aitasantuaren idatzi labur baten ondorioz heltzen dira. Idatzi labur horrek dioenez, jesuitek Txilen, Tucumanen, Rio de Platan eta Granadako erresuma berria probintzietan ziztuzten kolegioetan, eta espainiar Amerikako unibertsitate gabeko beste eskualdeetan, unibertsitate bat zegoen tokitik 200 legoara egonez, gradu unibertsitarioak eman diezazkiekete ikasleei. Honela sortu ziren ondoko unibertsitate hauek: Quiton (1622) San Gregorio, Cordoban (1622) San Ignacio de Loyola, Santa Fe de Bogotan (1623) San Francisco Xabier, Txileko Santiagon (1623 eta 1627) San Miguel, Cuzcon (1648) San Ignacio de Loyola.

Jesuitekin borrokan Cuzcon, 1692an, bertako apezpikuak aitasantuaren eta erregearen onarpenak lortuaz, beste unibertsitate bat ireki

zuen. Huamagan (Peru), bertako apezpikuak 1677an unibertsitate bat jaso zuen, zeinak 1680an erregearen eta 1682an aitasantuaren onarpena izan baitzuen.

– XVIII mendean

Kalostra eskolak eta seminarioak unibertsitate bilakatzeko joerak jarraitzen du. Kuban, San Juan de Letrán domingotarren kalostra gradu akademikoetara jasotzeko saioa onartuko da. Lehenik, Felipe V.ak gomendatuta, 1721ean, aitasantuak emango dio behar duen laguntza eta ondotik, 1728an, errege dekretuak berretsiko du. Teologia eta bi zuzenbideaz gain, medikuntza eta matematikak irakatsiko dira. Caracasko kolegio-seminarioa unibertsitate bihurtzea, 1721ean errege dekretuz eta 1722an aitasantuaren onarpenez emango da. Estatuaren eragin zuzena sentitu zen, 1784an, unibertsitateko erretorea seminarioko zuzendaritzatik kanpo uztean. 1763an medikuntzako katedra gehituko zaie filosofia, teologia eta zuzenbideko ikasketei.

XVII. mendean unibertsitate orokor eta publikoak irekitzeko joera sakonduko da. Txileko Santiagon, domingotar eta jesuiten unibertsitateak egonik ere, 1747an unibertsitate orokor bat ireki zen.

Guadalajaran, unibertsitate proiektuak zaharrak baziren ere, 1791n Karlos IV.aren dekretuz sortu zen unibertsitate erregetiarra eta literarioa, aitasantuaren baimena eskatu beharrik izan gabe.

Zer dakigu seroren eragin intelektual eta unibertistarioez?

Oraindanokoa aipatu dugunez, beti gizezkoen jarduna ageri zaigu: baina, ordena erreljiosoetan emazteen espedizioak ere egon ziren. Ez zirela intelektualak edo unibertistarioak? Maila handi batean egia izan badaiteke ere, ez da egia osoa. Honen frogak ekarri eta emazteei buruz hierarkia erreljiosoak zuen ikuspegia nabarmenduko dugu.

Sor Juana Ines de la Cruz, euskal jatorriko serora intelektualaren gorabeherak aipatuko ditugu. XVII. mendean Mexikon sortutako serora honen jatorriari buruzkoa, Bartzelonan 1931n argitaraturiko obra batean honela eman zigun don Ezequiel A. Chavezek: “Sabe alguien cuándo, ni cómo, llegó a esta América nuestra, desde España madre, a la casa de los padres de doña Isabel Ramírez de Santillana, españoles ambos, un vizcaino, el capitán don Pedro Manuel de Asbaje, nacido en la pequeña villa de Vergara, a las márgenes del alegre riachuelo de Deva, que de las montañas del País Vasco descendiendo, por un valle fértil, al mar Cantábrico? Sábese sí, que el español recién llegado, y doña Isabel —que hoy se declararía española por ser descendiente de padres españoles, aunque entonces se la consideraba mexicana por haber nacido

en México—, se amaron, se casaron y tuvieron varios hijos: noticia hay de dos niñas y de un niño; la menor de ellas fué la que, a su tiempo, hubo de ser llamada Sor Juana de Inés de la Cruz. Cuando vino al mundo, vivían sus padres en San Miguel de Nepantla, en aquel lugar que es como el vértice del abiertísimo ángulo que tiene abajo, al sur, la cañada de Yacapixtla, y arriba, al noroeste, el pueblo de Ozumba”⁶⁶.

Poesian bezala antzerkian goi maila lortu zuen serora honek ausardia eta inteligentziarik izan zuen aita Vieyra garaiko sermolari famatuenari erasotzeko. Nor zen Vieyra delakoa? Hona hemen xehetasun batzuk: “Tiene una personalidad demasaido turbulenta. Hay en él algo de luciferino, de verdaderamente ‘desvanecido’ en la altura. Conocido en su tiempo como el Cicerón Lusitano. El Abate Raynal considera uno de sus sermones, pronunciado en Bahía en 1640, celebrando la victoria de las armas portuguesas contra Holanda, como ‘el más extraordinario discurso pronunciado nunca en púlpito cristiano’. Extraordinarios debieron ser todos los suyos, pues le valieron el favor sin límites del rey y asesor en los asuntos del gobierno”⁶⁷.

Ez zen horretan geldituko. Polemika handi bat sortuko zuen, bereziki emazte bat zelako eztabaida intelektual eta teologikoetan sartzen zena. Honela Manuel Fernández de la Santa Cruzek, Pueblako Apezpikuak, “Sor Filotea” izenordez, ausardia hori erreprotxatuko dio. Erantzunez sortuko da Sor Juana de Inés de la Cruzen obrarik ederrena, *Respuesta a sor Filotea de la Cruz*. Hara nolakoa den idatzian dagoen defentsa tonua: “Porque qué inconveniente tiene que una mujer anciana, docta en letras y de santa conversación y costumbres, tuviese a su cargo la educación de las doncellas? Y no que éstas o se pierden por falta de doctrina o por querérsela aplicar por tan peligrosos medios cuales son los maestros hombres, que cuando no hubiera más riesgo que la indecencia de sentarse al lado de una mujer verecunda (que aún se sonrosea de que la mire a la cara su propio padre) un hombre tan extraño, a tratarla con casera familiaridad y a tratarla con magistral llaneza, el pudor del trato con los hombres y de su conversación basta para que no se permitiese... Y todos conocen que esto es verdad; y con

⁶⁶ Guilarte, C.G. de, *Sor Juana de Inés de la Cruz, Claro en la selva*, Ekin, Buenos Aires, 1958, 13-14.

⁶⁷ *Ibid.*, 153.

todo, se permite sólo por el defecto de no haber ancianas sabias; luego es grande daño el no haberlas”⁶⁸. Ez da harritzekoa emazte askatasunen aldekoek gure egunetan idatzi hau ikurretako bat bezala hartzea eta aldarrikatzea.

Zer dakigu euskal unibertsitarioen presentzia orokorrak?

Batetik, esan dezagun, euskal emigranteen partaidetza ezin handiagoa izan zela “Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País” elkartearen barrenean: kideen % 42 Ameriketara bizi baitziren, % 32 Espainiako probintzietan eta % 18 bakarrik Euskal Herrian⁶⁹. Ehuneko ehunera ailegatzeko falta direnenak gainerako europar estatuetan gehienbat bizi ziren. Jakinik elkarte hau gogoeta zientifiko eta filosofikoaren aldeko erakundea zela, zilegi da pentsa dezagun espainiar Ameriketako unibertsitateetan lankide anitz zuela. Arrazonamendu honen hariari jarraituaz, adierazitakoaren frogatzat har dezakegu, adibidez, Jean Joseph Elhuyar, hain rol garrantzizkoa kimiko bezala eduki zuena Bergarako Erret Mintegiko laborategian, aita hiltzean 1784ko abuztuaren 16an, Nueva Granadara emigratu zela. Bogotan, José Celestino Mutis famatuaren laguntzaile bezala meatze lurraldeetan metal baliosen ondotik jardungo da. Muzo distritoan esmeralda aztarnategian pertsonalaren formazio eta aurrerapen teknikoaren egokitzea bere esku egon ziren. 1793an “Paramo de Ruiz” ikastean bi iturburu termal aurkitu zituen; 1796ko irailaren 20an hil zen.

Dakiguna da ere Simon Bolivar bizkaitar jatorriko libertadorea familia dirudun eta kultura girokoan sortua zela, eta geroago 1797an Ustaritzeko markesarekin Cadizen aurkitzen dugularik, bere kalitate intelektualengatik Caracasen ospe haundienekoa zen markesarekin, Bolivarrek zeukan arranguraren adierazle bezala interpretatu behar dela adiskidantza hori. Eta Kolonbiako lehendakari egingo dutelarik, bere lehendakariorde Francisco Antonio Zea botanista izan zuela jakiteak berriro intelektual giroarekin harremantzera garamatza. Azken hau, Baionako euskaldunen semea, 1766an Medellinen sortua zen. Nueva Granadan zegoen, ikastegi nabarmenatariko bat zen Popayango erret seminarioan, eta Santa Fe de Bogotako San Barthelemy kolegioan egin zituen zuzenbide ikasketak. Baina bere jakintsu fama beste

⁶⁸ De la Cruz, Sor Juana Inés, *Respuesta a Sor Filotea de la Cruz*, Ed. Laertes, S.A., Barcelona, 1979, 59-60.

⁶⁹ Douglass, W.A.; Bilbao, J., op. cit.

arlo batetik datorkio, botanista bezala, José Celestino Mutisen inguruaran ikasia izatetik, hain zuzen. Bere ezagutzengatik bezala bere pedagogiako dohainengatik izen handia lortu zuelarik, 1791n, Ezpeleta erregeordearen semea hezteko kargua jaso zuen. Ikusten dugunez, euskaldunen artean ilustratu eta irakasle anitz dago.

Euskaldunek aitoren seme unibertsalaren ezagutza zutelarik, mende horietan beste jende batzuen kondizioa ez zena, hezkuntza unibertsitariora eta estatuko karguetara ailegatzeko aukera handiak zituzten. Eta euskaldunen artean oinordetzaren tradizioa, zeinen arabera familiako seme bakar batek bakarrik heredatzen baitzuen, beste seme-alabak kolonietara bideratzea zekarren anitzetan, militar, klerigo edo funtzionario bezala. Honela, bada, erraz imagina dezakegu hainbat ordena erlijiosotako irakasleak euskaldunak izatea. Gainera, euskaldunak, esana dugunez, nabegazio aferetan iaioak eta nagusiak ziren Austrien inperio aroan⁷⁰.

Dena dela, harrigarria gertatzen da euskaldunok hain multzo txikia izanik, garai hartako espainiar estatuan (oraino gutxiago frantses estatuan) hainbat oinordeko Ameriketara uztea. Eta nolako kalitateko oinordekotza: “Estos emigrantes vascos formaron parte de la élite social de los nuevos países americanos. Doce de las 50 mayores familias propietarias de tierras en 1958 en Argentina tenían apellidos vascos y diez de los 22 presidentes argentinos entre 1853 y 1943 eran descendientes de vascos. Casi el 40 % de los miembros del poder legislativo en Chile entre 1810 y 1940 portaban apellidos vascos. A principios del siglo XX el 23 % de las 554 grandes propiedades agrícolas chilenas pertenecían a personas con ancestros vascos”⁷¹. Horrela joan gindezke beste amerikar estatu batzuetan euskaldun oinardekotzarekin gertatzen dena estatistiken bidez aipatzen. Baina, bego honetan! Botoi bat aski da erakuskari.

Iheslariak eta indarrez kanporatuak

Euskal emigrazioaren hurrengo aroan nola Espainian hala Frantzia emango den hainbat gerra eta gatazka soziopolitikoren ondorio

⁷⁰ Ibid.

⁷¹ Paez, Darío; Basabe, Nekane; Zubieta, Elena, *El País Vasco como una región multicultural*, Facultad de Psicología, San Sebastián, 2000, 7.

iheslarien kategoria hau garrantzi handieneko bihurtuko zaigu. Baina, gure informazioarako esan dezagun lehen euskaldun iheslari bat aurkitzen dugula jada XVI. mendean. Eta ez da nolana hikia, izan ere Loiolako Inazioaren aitona baita. Gipuzkoako bandokide-familien artean, jatorriz Azkoitikoak diren Baldatar ezagutuen leinukoa. Horiatariko ezagunenak nabarmenduko ditugu. Joan Martinez, ganboatarren ahaide nagusia, Baldako Jaurerriko jauna, Oinaztarrengandik jazartua, haren lurra erre eta beronen seme Pedro hil egin zietena (1319). Lope Lopez, bandokide ganboatarra, berriz, Arrasateko alkate bezala nabarmendu zen, Gipuzkoako lehen meatze-legeriaren prestaketan parte hartu zuelarik (1434). Ladronek (Azkoitikoak, XV. mendean), ganboatarren ahaide nagusia zelarik, bere anaia Fortunekin batera, Lazkaoko erasoan (1420), Zumarragako batailan (1446) eta Arrasateko setioan (1448) parte hartu zuen.

Honela bada, ahaide familia horretatik zetorren Inazio Loiolakoaren aitona, XVI. mendean, bere gogoaren aurka, Sakramentu Saindua bere jauregiko kaperatik parrokiako eliza berrira ateratzen ausartu zen apaiza arkabuz tiro batez hil ondoren, espainiar Ameriketara ihes egin zuen, honela lehen euskal iheslari bihurtuaz, esan baliteke. Hemen agertzen zaigunez, Euskal Herritik ihesi, espainiar Ameriketara aterpetzen den norbait dugu.

Baina bada, baita ere, espainiar Ameriketara koroiaren aginduekin disidentzian sartuz gero komentuetara aterpe eske mugitzen denik. Honelakoa izan zen Pedro de Vega, bizkaitar maisuaren kasua. Hasierran Granadako maisu, Paraguaiko Cordoba de Tucumanera joatea erabakitzen du. Arrakasta handienez lan egin ondoren, hirurogei urterekin monastegi batean sartzeko nahia agertzen du. Baina, borondate hori bete ez zezan, agindu publiko baten bidez, inork muntadurarik ez ziezaiola presta, eskatu zitzaion hiritar edonori, multa mehatxua eginez. Ihes egitea lorturik, jesuiten komentuan aterpetu zen. Han betiko gelditzeko ofizio zehatz baten jabe izan behar zela eta, josten ikasi zuen. Bere obedientzia zorrotzgatik famatu eginda, ehun urte beteak zituela hil zen.

Quebecen Frantziak jarraitutako inmigrazio politika ezagutzen dugunez, hortik atera dezakegu Ameriketara heldu zen beste jende kategoria bat, hots, europar botere politikoei indarrez kanporatutakoena. Hara hemen lehen deskribapen bat: “Le gros de l’immigration se produisit de 1630 à 1760. On a établi que, durant cette période, environ 10.000 Français passèrent en Nouvelle-France. Parmi eux, on compte

à peu près 3.9000 artisans, 3.500 soldats, 1.000 prisonniers faux-sauviers et fils de famille ainsi que 1.100 filles à marier. A ce nombre, on peut ajouter quelque cinq cents nobles et nobliaux. Ces Français sont à l'origine de la société canadienne-française"⁷².

Nortzuk ziren "Nouvelle-France"ra indarrez kanporatuak? Dakigunez, kriminal handiek ez zuten aukera horrenik izaten. Kartzeletatik atera eta "Nouvelle-France"ra eramaten zituztenak "parmi les faux-sauviers" delakoen artetik, hots, garai haietan hain garrantzi handikoa zen gatza ilegalki fabrikatzeagatik edo kontrabandoa egiteagatik zigorturikoen artetik hartzen zituzten.

Gatzak legez fabrikatzeko ohitura oso zabaldua zegoen Frantziako klase oren artean. Izurrite sozial bezala ageri da autoritateen aitzinean. Krimeneztat definitu eta zailkatua izango da 1664, 1668 eta 1688ko lege-manuengatik.

Hala ere, neurria aipatzen hasiz gero, anitz kostatuko da presoak "Nouvelle-France"ra eramateko erabakia hartzen: "Mais dès la fin de la Régence (1721), le Conseil de la Marine ordonna à M. de Lamirande d'embarquer un contingent de prisonniers. Ce contingent arriva à la Rochelle après son départ. Et ce n'est qu'en 1723 que le premier groupe de criminels débarqua en Nouvelle-France. Il se composait de trente hommes qui furent incorporés dans des compagnies ou engagés par des 'habitants'"⁷³.

Berehala Québeceko ordezkari erlijioso eta politikoen protesta hasiko da. Gehiagoz ez dute "kriminalik" nahi soldadu bezala zerbitzatzeko. Baina, Frantziatik ez zaie kasurik egingo eta beti "kriminal" berriak igortzen jarraituko da.

Aldi berean, kanporaturiko familien semeak zigitututako gutunez "Nouvelle-France"ra bidaliko dira. Ia "kriminalekin" batera helduko dira. Dakigunez, 1722tik 1730era bitartean, hogeita hamazortzi kanporatutako familietako semeak igorri izan ziren. Hauekiko ere protestak berehala altxatu ziren Québeceko ordezkarien aldetik, baina, Frantziak bere politikarekin jarraituko du.

Euskaldunei dagokienean, zenbat izan ote ziren kanporatu haien artean? Galdera egiteak merezi du, dakigunean, urte horietan errebolta

⁷² Le Moine, R., "La première immigration française au Québec", in Collectif, *La découverte de l'Amérique*, op.cit., 127.

⁷³ Ibid., 130.

ugari dagoela Euskal Herrian: “En Labourd, plusieurs révoltes contre les impôts furent surtout le fait de femmes: en 1696 à Mouguerre et Saint-Pierre-d’Irube, en 1724 à Aïnhua, en 1726 dans presque tout le Labourd, en 1748 à Bayonne. En 1784, l’établissement de la franchise pour Bayonne et la rive gauche de la Nive, provoqua la révolte du Labourd intérieur; Hasparren fut occupé par les troupes royales et le clocher de son église fut abattu”⁷⁴. Errebolta horien kausa behin baino gehiagotan gatzari loturik ageri zaigu. Gainera, kanporatzeko bigarren arrazoa kontrabandoaren “krimena” zela jakinean, tronpatzeko arriskurik gabe imagina genezake Euskal Herrian betikorra den praktika horren ondoriozko presondegia eta indarrezko kanporatze batzuk pairatu behar izango zituztela. Mereziko luke gai honi buruzko ikerketa burutzeak.

⁷⁴ Gohieneche, E., *Notre terre basque*, Ed. S.N.E.R.D., Oau, 1979, 81.

AMERIKAK, EUSKAL IDAZLE BERRIEN PARATOPIA HAUTATUA

UR APALATEGI IDIRIN

Ez gaitzala harritu, beraz, batek baino gehiagok izatea bere bizitza fikzioa bailitzan zuzentzeko tentazioa. Ezen bizitza erromanesko horiek ez al zituzten, hasieratik beretik, idatziak izateko asmoz bizi?

José-Luis Diaz, *Le poète comme roman*.

Obra bakan bezain baliosa ekoizten ahitu zen Flaubert hori kondairako Flaubert bera da, eta (bere korrespondentziaren lau tomoek ez badiote gezurrik) historiako Flaubert ere bai. Eta Flaubert hori, aurreikusi eta gauzatu zuen literatura garrantzitsua baino are garrantzitsuagoa da [...]. On Kixote eta Santxo, asmatu zituen soldadu espainiarra baino errealoagoak badira, ez dago Flauberten errealtasuna gainditzen duen Flauberten pertsonaiarik

Jorge Luis Borges, *Discusiones*.

Testua sakralizatu duten teoria literarioen kaltetan izanik ere, onartu behar da idazleaz irakuleak duen errepresentazioak obraren beraren irakurketa baldintzatu egiten duela. Kontalariaren nortasunaren arabera, hau da, kontalariaz dugun ideiaaren arabera epaitu eta ulertuko dugu testua. Aristotelesek, jada, zera zioskun bere *Erretorikan*: «Erretorikaz aritu diren batzuek diotenaren aurka, ez da egia hizlariaren zintzotasunak ez duela eraginik bere hitzen komentzimendu indarraren

gainean; aitzitik, aiurri moralean kausitzen du ia diskurtsoak, esan nezake, bere komentzimendu indarririk gehiena». Hizlariaren edo idazlearen aiurri edo jitearen arazoa –*ethos*arena, beraz, terminologia erreterikoan– berriro modan jarri zaigu, bereziki literatura komunikazio gertaera gisa aztertzen hasi denez gero¹.

Alabaina, zein da hemen ikertu nahi den idazlearen irudi edo errepresentazioa? «Oso eskematikoki hitz egiteko, esan dezakegu aipatu nahi dugun autorea ez dela literaturaren historiarena nahiz filologiararena, bere segetu zein intentzioekikoa. Ezta Freud eta psikoanali-siarena ere, bere inkonzientearekikoa [...]. Ez da bere obraren subjek-tua, edo ez hori bakarrik bederen. [Aipatu nahi den autorea] *biografiko* izenpean bil ditzakegun hainbat ekintza diskurtsibo nahiz ez-diskurtsiboren objektua ere bada» (Lavialle & Puech, 2000, 10). Esan deza-kegu, beraz, dela, lehenik, idazle izateko modu bat: «Idazle-pertsonaia bat onartzeak suposatzen du gizakia eta bere obrari hirugarren termi-no bat gehitzen diegula, bien arteko harreman tradizionala eta azken honi zegozkion galdera eskolarrak aldatu egiten dituen [...] Hortik aurrera, presentzia biografikoa deritzonak (sasi-presentzia, nahi bada, baina xarma egiazkoz kargatua) Liburuaren efektuan eta abstrakzioan esku har dezake» (Ibid., 12).

Baina arazoa da autore guziek ez dutela idazle izateko manera bera. Idazle bakoitzaren irudia berau osatzen duten *biografema* ezber-dinak aztertuz marraz dezakegu. Zein dira, bada, idazlearen biografema-k? Honela zerrenda genitzake, nahas-mahasean bada ere: obratik kanpoko autorearen hitzarekin zerikusia duten biografemak (elkarriz-ketak, entrebistak, korrespondentzia, lagunen bitartez dakizkigun erranaldi gogoangarriak, etab.); janzkera edo irudi fisikoa osatzen du-ten biografemak (bere txapela, bere bizarra edo bigotea, ibilera distrai-tua, gabardina luze eta zikina, etab.) bere izena (edo ez-izen literarioa), bere famili kondaira (kokapen soziologikoa, psikanalitikoa, genealogi-koa), bere bizilekua edo dekoratua (baserria, etxebizitza burgesa, idaz-gela mahain gainean lotan datzan katuarekin, bizi izandako azken egoitza, sortetxea, bere liburuetan aipatzen diren hiri edo natur gune enblematikoak, etab.), gertaera biografiko famatuak (presondegira-

¹ Cf. Jaussen harreraren estetika edo Ecoren irakurlearen tokiari buruzko gogoetak eta gogoeta hauei jarraiki zaizkien korronte teoriko anitzak, zeintzuen artean aurkituko bailitzateke «autorearen teoria» deritzana.

tzea, presondegitiko ihesaldia, Nobel Sariari uko egin zionekoa, frankistek fusilatu zutenekoa, rock talde underground bateko kantari izan zenekoa, HIES eritasunaren aitortza publikoa egin zuenekoa, etab.), eta abar luze bat. Finean, idazlearen biografia benetako drama literario bat litzateke, hain zuzen aipatu berri ditugun biografema guzti horien sintesiaren emaitza, zeinaren zuzendari artistikoa bailitzateke autorea bera. «Izan ere, bada zer esan idazle imaginario bihurtzeko behar horretaz. Hots, bere buruarentzat fantasmatika pertsonal batean oinarritutako nortasun propio bat sortzeko beharraz; nortasun bat zeinak aldi berean imaginario sozialean kokatzeko erraztasunak eskaini behar dituen» (José-Luis Diaz, 2000, 61). Guzti honen gibelean idazlearen benetako “estrategia identitario” baten garapena soma daiteke.

Haatik, hitzaldi honek biografema bakar bat hartu nahi luke aintzat, sakondu asmoz: idazlearen kokapen geografikoa idazten ari den unean. Nundik idazten ari zaigu? Ba al du garrantzirik *Apokalipsia* Patmos-ko uhartean idatzia izanak obraren irakurketarako? Ba al du eraginik gure interpretazioan Sarrionaindiaren obra gehienak erbeste kokagaitz batetik datozkigula jakiteak? Bai.

Izan ere, eta honetara gentozen, idazle baten kokapen geografikoak, bere tokiz aldatzeak edo ez-aldatzeak, bere obrak izanen duen harreran (errezepzioan) badu eraginik. Bere irudia moldatzeko modu bat da toki jakin batean bizitzea, toki hautatu edo inposatu batetik idaztea. Autore batek tradizio literario jakin bati lotu nahi izaten dio bere obra eta tradizio hori toki edo zentru literario batean sortua izanki toki horretara bizitzera joatea da irakurleriaren baitan lotura hori segurtatzeko estrategiarik erabiliena. Joycek, adibidez, ez zuen hautatu Londresa joatea Dublin gibelean utzi zuelarik, nahiz eta ingelesa izan bere literatur hizkuntza. Joycek Parise hautatu zuen (hastapen batean, bederen). Nola uler daiteke hautu bitxi hau? Gauza segurtzat jo dezakeguna da orohar Joycen proiektu literarioa ulertzeko, eta partikularzki *Ulises* obra ongi ulertzeko, baitezpadakoa dela datu geografiko hori aintzat hartzea.

James Joyce irlandarrak alter ego gisa erabili ohi duen pertsonaia-ri, Stephen Dedalusi, esanarazten dio liburu batean erbestea (exilioa) arma bat dela idazlearentzat. Hori idazten duen garaiean Joycek berak sorterria utzia du eta nazionalismo hertsia baten menpe dagoen Irlandar literaturaren baitan kausitzen ez zuen askatasun bila abiatua da Europan barna, irlandar idazle izateko manera berri baten bila. Joyceren erbeste egoera fisikoak eragin erabakigarria izanen du bere obraren arrakastan eta ulermenean. Londresa joatea Irlandaren betiko etsaiari men

egitea zatekeen (eta literaturaren konzepzio nazionalista baten aurka bazegoen ez zen horregatik Irlandaren askatasunaren ideiarekin kontra) beraz Parisen hartu zuen egoitza, hots, mende honen hastapenean oraindik literatura unibertsalaren hiriburua, munduko artista guztien aberri kosmopolita, nazionalitaterik ez duen Artearen aberria. Erbeste Paristarrari esker frogatzen zien Irlandarrei posible zela irlandar idazleentzat literatura nazionalismoaren esparru geografiko zein ideologikotik kanpo egitea, alegia, literatura egitea, eta aldi berean Ingesei frogatzen zien ingelesez idazteak ez zuela esan nahi bortxaz Ingaterraren “Commonwealth literarioaren” baitatik idazten zuenik. Askatasun artistikoa, idazle izateko manera berri eta pertsonala Joycek, partez, Parisera bizitzera joanez moldatu zuen.

Gurera hurbilduz, Atxagaren kasuan ere kokapen geografikoak berebiziko garrantzia izan du bere hastapenetatik gaurdaino. Badakizue Jose Irazu Asteasu deitu herrixka gipuzkoar batean sortu zela. Idazle izan nahi zuela erabaki zuelarik, alta, ez zuen Donostia hautatu —garai hartan, eta gaur egun ere, hiribururik euskaldunena, euskal argitalgintzaren gune eta mintzaira aldetik ere literaturan nagusi den euskara batua edo estandarren habia. Donostiako euskal giro literarioari muzin egin eta Bilbora joatea erabaki zuen. Bere goxaita literarioa bilbotarra zuelako, naski, baina beste arrazoi sakonago batzuegatik ere, zeren Aresti hil ondoan ere Bilbon sortu baitzituen *Pott* taldea eta izen bereko aldizkaria. Zer sinbolizatzen zuen Bilbok Atxaga gaztearentzat? Hiritartasuna (Donostia baino hiritarragoa, kosmopolitagoa da Bilbo), modernitatea, artearekiko irekidura handiagoa (Bilbok badu tradizio literario bat, Operarekiko zaletasuna, antzerkian aditua den publiko bat) eta behar bada euskal abertzaletasun hertsia eta base-ritarregitik at literatura egiteko aukera? Nola jakin? Zilegi dea orenen buru pertsona fisiko arrunt bat ere baden Joseba Irazuren gertakizun biografiko bakoitza *literaturaren* galbahearekin interpretatzea? Bere garai hartako kezka literario obsesiboaren aitortzarik ez bagenu² ez ginateke ausartuko. Dena den, hortik denbora gutxira, Atxagak Bilbo utzi eta Bartzelonara alde egingen du filosofia ikasketak egitera. Xehetasun bat ez da ahortzi behar. Atxagak ez zituen Bilbo eta Euskal Herria bakarrik utzi gibelean, banku batean zuen lana ere utzi zuen historian le-

² 1992an, Baionako IUTen UEUkari, Gure Irratiko bi kazetariri esaten die orduan ez bezala, hogei urte zituenean literatura bizitzaren gainetik ezartzen zuela.

hen aldiz bere lumatik bizi den euskarazko idazle bihurtzeko xedea aldarrikatuz. Biografema hau ere idazleak bere irudia moldatzeko erabiltzen dituen estrategien zakuan sartu behar da. Ez da gauza bera irakurleriarentzat dena literaturari sakrifikatu dion idazle baten obra irakurtzea, ala literatura lanetik kanpoko denborapasa gisa bizi duen idazlearen obra irakurtzea, edo bizitza osoan liburu bakarria idatzi duen norbaiten obra irakurtzea. Profesionaltasuna idazle izateko manera berezi baten adierazle da dudarik gabe, idazletzaren mitologia konkretu batean sartzen da, hain justu euskal idazleek orain arte erabili ez zuten mitologia batean (izan ere, nola izan idazle profesionala euskal merkatua hain estua izanki?). Profesionaltasunaren erronkari Atxaga eta bere belaunkideek haur literaturaren bitartez egin zioten aurre, hori baitzen, euskarazko irakaskuntzaren hedapena eta normalizazioa zela medio, egiazko merkatu literario bat existi zitekeen genero bakarra. Ondotik, Atxagak aukera espazial erradikal bat egingo du bere idazlegaitzaren krisalidatik idazle kontsakratuaren tximeleta gorputza erdiestera eramango duena: *Obabakoak* famatua idazteko hiriburuko literarioi aberatsei bizkarra emanen die eta Palentziako probentziako herrixka ezezagun batean hartuko du egoitza hilabete batzuetarako. Haurtuen bitartez bi mezu helarazi nahi lizkiguke autoreak, egin gogo duen obra literarioa ez dela euskal idazle baten obra bezala bakarrik irakurri behar eta bestalde idazleak bere burua munduko gune literario handietatik aparte sentitzen duela euskarazko idazle gisa, euskaraz idazteak mundu literarioaren periferian bizitzea esan nahi duela. Baina ere esan nahi duke, funtsean, literatura unibertsalaren munduan periferiko izatea nahiago duela euskalgintzan zentrala izatea baino, bere egiazko afera literatura delako, “L” handi batekiko literatura. Eta honekin badirudi frogatuxea geratzen dela biografema berezi honen garrantzia. *Nondik idatzi, hala irakurri* aforismoaren bitartez laburbil dezakeguna. Bide batez, ohartzen gara nola diharduen idazleak, obraren sorkuntzan aritzeaz gain, bere sortzaile figuraren sorkuntzan murgildurik.

Amerikar kontinentean edo kontinentetik idatzitako literatur lanak ez dira berriak euskal literaturan, kongresu honek ikustera eman digunez. Gerraurretik, jada, Amerikar toposa, edo hobeto esatearren, euskaldun amerikartu edo *indianoaren* toposa existitzen zen gure eleberrigintzan (ikus, adibidez, XX. mendearen hasieran Txomin Agirrek egiten duen erabilpena *Kresala*-n). Baina topos honek zerikusi handiagoa du testuen edukiarekin testuen ekoizgunearekin baino. Han edo handik idatzitako obrak aintzat har ditzagun beraz, guk aukeratutako biogra-

femari dagozkionak, eta ohartuko gara egon, badaudela, aspalditik gainera. Eta, sinplifikazioa bada ere, esan dezakegu gerraurrea eta gerraondoa bereiztuko lituzkeen erbesteratze ekonomikoa hartu ala politikoa, hango euskal literaturan nagusituko den toposa herri galduarekiko nostalgia idealizatzailea izango dela, herrimina alegia.

Azken urteotan, haatik, Amerikak esanahi berri bat hartu du gure literaturan, oraindik gutxi aztertu dena. Guk, hemen, Harkaitz Cano eta Joseba Gabilondok egiten duten kokapen estatu-batuarraren erabilpena izango dugu aztergai. Zergatik joan dira Kaliforniara edo New-Yorkera beraien obrak idaztera? Zein eragin du beraien kokapen estatubatuarrak gure irakurketan? Horiek dira gogoan izango ditugun galderak eta badirudi aktualitate kutsu bat badutela. Izan ere, Jon Kortazarrek, bere azken liburuan, eta erantzunik ematen saiatzen ez bada ere, galdera hauexek egiten baititu bere modura: «Euskal Herrian kokatu behar dira gaiak, edo New Yorkeko giroa ekarri behar da gure nobelara? Hemen idatzi ala New Yorkera joan behar da eleberririk idaztera? Bietatik ditugula esango nuke, Harkaitz Canok egin duen esperientziaren ondoren. Hain zuzen ere New Yorken lan egin, ea zer gertatzen den ikusteko. Ez da bakarra» (Kortazar, 2000, 305). Fenomenoa, fenomeno hitza erabiltzea zilegi bazaigu, ez da mugatzen, noski, aipatu bi idazleetara. Cano eta Gabilondoren izenez gain, besteak beste Gotzon Garate, Joseba Zulaika, Andolin Eguzkitza, Gorka Aulestia, Iñaki Zabaleta eta Atxaga beraren izenak ere lot baikeniezaizkioke Amerikari. Edo, zehatzago izan nahi badugu, Estatu Batuei. Ezen hau baita, azken urteotako moda honen ezaugarri nabarmenetako bat: Amerikatik idatzi duten edo idazten diharduten euskal idazle belaunaldi berri honetako kide gehienek Estatu Batuak izan dituzte helburu eta ez gainontzeko herri pobreak, aurreko belaunaldiekiko haustura garbian. Hego Amerika aipatzen duten gaurko euskarazko liburu bakarrak bidai liburuak dira, eta salbuespenak salbuespen (aurreko belaunaldi literario «zahar» bateko kide den Koldo Izagirre datorkit gogora), ez dute loturarik *stricto sensu* ulerturiko euskal literaturarekin. Nola ulertu orduan Estatu Batuekiko lotura hain hedatua gure literatur-egileen artean? Hara idaztera joaten diren idazle berri hauek ez dira, itxura batez behintzat, erbesteratu ekonomiko edo politikoak³.

³ Egia esan, erbeste politikoarenak azterketa geldoagoa eta sakonagoa merezi luke. Ez dira, ez, noski, espainiar errepresioari ihes egindako idazleak, baina zein neurritan ez dute alde egin euskal gizartearen barne-giro usteldu edo nahasi bati ihes egitearren?

Uste dut mintza gaitzkeela *erbesteratze literario edo zientifiko* batez, esaldiak potoloegia badirudi ere. Hots, ematen du idazle hauen helburua edo motibazio sakona idazketari berari lotuta dagoela, ez dela zirkunstantzia hutsa. Beste hitzetan esteko: idaztera joan dira hara, hobeto idazteko asmoz jarri dira Estatu Batuetan bizitzen, zerbait gehiago, plus bat, erakarriko dielakoan. Hain zuzen, Harkaitz Canoren eta Joseba Gabilondoren esperientziak alboratuz eta erkatuz saiatuko gara frogatzen ez dela exageratua gure hipotesia.

Gure gogoetaren euskarri eta ardatza Gabilondo eta Canoren liburu bana dira: hurrenez hurren *Kaliforniatik bihotzez* (Elkar, 1992) eta *Piano gainean gosaltzen, New-Yorkeko kronikak* (Erein, 2000). Zerk batzen ditu lehen behakoa hain ezberdinak diruditen bi liburu hauek? Gabilondoren *Kaliforniatik bihotzez* gizarte posmoderno amerikarraren inguruko gogoeta bilduma bezala aurkeztua zaigu eta ambizio literario xumeko idazkera darabil autoreak. Estiloa edo tonu orokorra giza zientziena dela esango genuke, hori bai giza zientzia posmodernoena, alegia humorez zipriztindua. Eta eredu bat egozteketan Umberto Ecoren *Apocalittici e integrati* gogoeta bilduma famatua litzateke aproposena, azken hau ere EEBBtan idatzia. Canorena, berriz, hainbat eredu ospetsu izan ditzakeen kronika literarioa da, eta esan daiteke estilo ariketa bat baillitza ekiten diola autore gazteak erronkari. Canorentzat New York ezer baino lehen paisaia literario bat da (errealia baino gehiago) eta jadanik literarioa den paisaia horrekin hiriaren erretratu berri bat egiten du, egiazko palimpsestu artxi-literarioa den liburu sortuz.

Ezberdintasun horiek baztertzen baditugu, ordea, bi idazleon proiektuek antz handia dute. Ikusi bestela: batak zein besteak Euskal Herriko egunkari batentzat idatzitako artikulua konpilatzen ditu (Canok *Euskaldunon Egunkaria*-rentzat idazten du, Gabilondok *El Diario Vasco*-ko *Zabalik* gehigarriarentzat), batak zein besteak denboraldi luze bat han eman ondoren (edo bitartean) idazten diete herrian geratutako euskaldunei munduko toki modernoetakoak eta bertako bizimoduak aurkezteko asmoz⁴. Batarentzat zein bestearentzat liburu hauek beren ohiko eginkizun literario zein zientifiko nagusiei egindako gehigarri batzuk dira. Canoren kasuan benetako proiektu literario

⁴ Geroago aztertuko dugu zerk bereiz ditzakeen, maila sinboliko batean, Kalifornia eta New York.

bat, eleberri bat, idazten ari zen bitartean hartutako oharren emaitza da⁵; Gabilondorenean hango bizitza unibertitarioari eta anbizio literario aitortuei arnasaldia edo prestakuntza eskaintzera datorren *divertimentoa*.

Azken datu hau txit interesgarria da ezen erakusten baitigu obra hauen helburua zeharkakoa dela, beste zerbaiti balorea ematera datozela testu hauek. Aitortuki obra nagusietatik kanpo ekoizten diren testuak obra nagusiaren atari edo gehigarri gisa irakurtzeko ohitura zabaldua da kritika literarioan eta paratestu, peritestu zein epitestu hitzak erabili ohi dira testu hauen berezitasuna azpimarratzeko. José-Luis Diazen esanetan testu nagusiak laguntzera datozen testu hauek «oso egokiak dira idazlearen sorrera kirikatzeke, bere burua nola sortzen duen ikusteko» (J.L.Diaz, 2000, 65). «Testu, peritestu nahiz epitestu berezien bitartez saiatzten da idazlea postura bat definitzen, izaera bat» (Ibid., 61). Ikus ditzagun jarraian zer-nolakoak diren Gabilondo eta Canok liburu hauen bitartez landu nahi dituzten idazlearen irudi edo figurak.

New Yorketik datorren artista bat naiz ni...

Berria izanagatik dagoeneko mardula den Harkaitz Canoren obra literarioa pixka bat ezagutzen duenak badaki idazle honen kezka nagusietako bat preseski idazle izateari lotuta dagoela. Paradoxa badirudi ere Harkaitz Cano, bere hastapen literariotik beretik, obsesiboki *idazle izan nahi duen idazlea* da. Horretan datza, gainera, bere figuraren originaltasuna euskal panorama literarioan. Baina obra asko argitaratzen baditu –eta hala da, bera da idazle gazteen artean obra gehien plazaratu duena eta alde handiaz– zergatik da kezka idazle izatearena edo ez izatearena? Canorentzat, apika, literaturaren funtsa ez dagoelako obretan, baizik eta idazlearen nortasunean. Bestela esateko, Canorentzat literatura idazleak dira, obra guztien gaineratik. Obren justifikazioa

⁵ Liburuaren aurkezpen ekitaldian Canok azaltzen du bere bidaiaren lehen helburua *Pasaia Blues* eleberria bihurtuko zena idazteko giro egoki bat aurkitzea izan zela eta kronika liburuarena premeditatu gabeko zerbait izan zela: «Izan ere, New Yorkera joan aurretik Martxelo Otamendik *Egunkaria*rako hango kronikak egiteko eskatu baitzion. Eta horrela hasi zen Harkaitz Cano, astero-astero kronikak bidaltzen New Yorketik. Kronika literarioak idatzi zituen baina. Hiriak hori eta gehiago egiteko ematen zuela, eta folio bakarreko kronika haiek labor samarrak iruditzen zitzaizkiola adierazi zuen Canok. Beraz, hutsune hori betetzeko [...] jarraitzen zuen idazten» (*Egunkaria*, 2000-11-24).

idazlearen figura artistikoa bermatzean datza. Hortik, seguraski, bere eleberrietan azaltzen den artistaren figurarekiko lilura, zeinaren adierazgarri ederrena baita *Beluna Jazz*-eko Bob Ieregi saxofonistaren erretratu liluratu-liruragarria. Canorentzat artista izatea ez dute kriterio objektiboek baieztatzen (disko kopurua, liburu kopurua, arrakasta, etab.), norberarenganako fedean datza gakoa. Canoren eta bere pertsonaia askoren arazoa ez da besteen begirada –sinetsiko al didate artista naizela?– baizik eta bere burua konbentzitzea. Eta hori bertigoa sortzen duen galdera bat da: zerk ziurtatzen dit artista naizela? Fedeak, ez daukanez oinarri objektibo edo finkorik, etengabe dago kolokan eta idazlearen baitan beti dabilta borrokan batetik artista izatearena iruzurra delako uste erruemailea eta bestetik genio artistiko bat delako esperantza. Duda-muda kezkatu horrek ematen die, nik uste, Canoren testuei beren lilura indarra. Canoren idazkiak itxuraz irakurlea seduzitzeko eginak badirudite (eta bere estiloa maiz da txundigarria) sako- nean bere burua konbentzitzea izugarri kostatzen zaion idazle baten tresna auto-iradokitzaileak ere badira.

New Yorkera egindako idazketa-bidaiaren zergatia ez da oso ezberdina. Hemen ere, irakurlearen sedukzioa eta txunditzea ageri da azalean baina azpian bizirik dirau bere buruarekiko galdeketa obsesi- boak: benetako idazlea al naiz?

Alde batetik beraz, irakurlea txunditzeko beharra. Eta zer egokia- gorik, horretarako, New York hiria baino?⁶ Izan ere New York urruti da- go, jende gutxi du eskura, eta mundu artistikoaren edo arte mundiala- ren bihotzean kokatzen da⁷. Ez dago munduan hiri irudikatuagorik egungo media artistikoetan (literatura, zinema, kantagintza, pintura...).

⁶ Argitaldarien ere ulertu bide dute New Yorken txunditze ahalmena ezen Harkaitz Canok bertan idatzitako liburuen salmenta argudio bihurtu baitute segituan: orain dela egun batzuk jasotako Susa argitaletxearen e-mail promozionalean *Norbait dabil sute-eskaileran* olerki bilduma berriaren aurkezpena hitz hauekin hasten da: «Harkaitz Canok poesia liburu berria aurkezten du, New Yorken idatzia [...]» (euskara posta zerrendara igorria 2001eko apirilaren 25ean).

⁷ Hemen, ohar bat gehitu beharrean aurkitzen naiz. Harkaitz Canok amesten duen idazlearen figura nahiko berezia da oso hurbil dagoelako artistaren figuratik (margolariak –Basquiak–, musikariak –J. K. Perez, Coltrane–, zinemaegileak, ia maizago aipatzen ditu Canok idazleak baino). Hori kontuan harturik are ulergariagoa da New Yorken hautua. Izan ere, egon badago prestigio literario gehiago duen hiribu- rurik, baina arteari dagokionean ez dago, gaur egun New York gainditzen duenik.

Kale kantoi bakoitza erreferentzia artistiko bilaka daiteke. Canoren hitzak hartuz: «Zine munduko fetitxistentzat paradisua da hiri hau» (Cano, 2000,15). Eta segituan datozkio gogora *Taxi Driver* edo *El Clan de los Irlandeses* filmeetako eszenak. Bat-batean, Jack Londonekin akordatzen da (ibid., 99). Literaturaz kutsatutako hiri honetan ez da harritzekoa Cano ohartzea bera bizi den etxean bizi izan zela berak pertsonaia literario gisa erabilitako aktorea underground bat (Lupe Velez): «Eta orain, lau urte beranduago, hara non nire pertsonaia bizilagun bihurturik aurkitzen dudana» (Ibid., 25). Beste pasarte batean, pasatzen dabilela, binilozko disko piloa aurkitzen du espaloian. Eta hona zer dioen: «Beraz hiri honetan binilozko diskak kalean aurkitzea normala da. Zerutik erortzen dira» (Ibid., 101). Han ez dago literaturan pentsatzen jarri beharrik, hiriak berak eragiten ditu ameskeria literarioak: «Batzutan irakurgaia eramaten dut labanderiara, baina beste batzuetan eskotilatik begira geratzen naiz, Julio Vernerren istorio bateko protagonista banintz bezala» (Ibid., 127). Dena da aitzakia literatura egiteko: «Argindar instalazio zahar asko dagoelako edo ez dakit zergatik, baina suteak ugari dira. Narrazio eta ipuinei amaiera emateko era egokia izan daitezke suteak» (Ibid., 138). Heinrich Böllen pertsonaia bat gurutzatu eta idazle alemandarrari gutun bat idaztea erabakitzen du. Literatura guzti hau kontenitzeko liburudendak ere neurri eginda egon behar: «Liburudendak ikaragarriak dira hemen: mahaiak eta aulkiak daude, bertan eseri eta kafea hartuz nahi duzun liburua irakurtzeko [...]. Makina bat liburu ari naiz irakurtzen» (Ibid., 19). Zerrenda hau nekerik gabe luza genezake... Hain da literarioa toki non Cano bere *Beluna Jazz* eleberriko Bob Ieregi saxofonista New Yorkar guztiz imaginarioaren bila ere hasiko baita listinak lagun dituela. Oraingoan ez du zorterik izango. Gehiegitxo litzateke.

Toki bat literarioa da literaturaz kargatua dagoelako baina baita ere, txanponaren beste aldea, sorkuntza berrietarako inspirazio iturri delako. Bi alderdi hauek elkartzen dira Canoren bizileku new yorkarrean: «Tuberkulosia harrapatzeko leku aproposa iruditzen zait [Mme Bovary eta beste hainbat pertsonaia famaturen eritasuna]. Definitiboki literarioa. Orain idaztea besterik ez zait falta» (Ibid., 67). Eta hala gertatuko da, hirian oin hartu bezain laster jartzen zaizkio martxan Canori pulsio artistikoak: «Paper erreziklatuzko patrikako uzta koadernotxoan lehen hitzak idatzi ditut [...] eta gero poema simulakro bat [...] Gaur marrazteko gogoia daukat» (Ibid., 17-18). Urrunago: «Bi poema posibleren zirriborroak ekarri ditut etxera» (Ibid., 22). Baina

estimulo artistikoa orokorra da, ez da literaturara mugatzen: «Kamera hartuta zubira txuribeltzezko karrete bat botatzera abiatu naiz [...] Hiri honek argazkilari sena, margolari sena, zerbait egiteko sena pizten dizu. Arratsalde oso eman dut argazkiak ateratzen» (Ibid., 95-96). Gauzak gaizki doazenean ere –idazteko inspirazioa ez denean inondik ageri– New Yorke Canoren artista sena kitzikatzen darrai: «hutsune handi bat sentitu dut. Enbalatzeko papera lurrean itsatsi eta pintzel pare batekin garabato bat egiten hasi naiz, desahogatzeko» (Ibid., 86). Idazleak aitortzen digunez, “idazten ari zarenarekin bizi eta murgiltzeko era bat dela horrelako leku batean bizitzea” (Ibid., 85).

Kontua da hiria, dekoratu artistiko-literario erraldoia izateaz gain, artistaz beteta dagoela, lepo eginda. Sarrera eta epilogoia kenduta liburua osatzen duten 38 kroniketako baten tituluak iradokitzen duen bezala («Bohemia eta glamourra») bidaia hau, Harkaitz Canorentzat, XIX. mendeko idazle zein artistek Parisen egiten zuten bohemiari artistikoaren pareko litzateke. Alegia, bizimodu artista bat eramanez inspiratzeko ahalegin bat, hiriburu kosmopolitenera helburu berarekin hurbildutako hainbat jenderekin nahastuz. Eta, hala, bohemiarren mitoaeren ezaugarri gehienak bereganatzen ditu Canoren egonaldi amerikarrak: diru gutxi, auzune erdi-pobre erdi-sofistiktua –Williamsburg⁸–, etxe-bizitza erdipurdikoa –*loft* konpartitu bat–, giza-fauna anitza –maila sozial guztietako jendearekiko harremana. Hala ere, bohemioarentzat garrantzitsuena beste jende bohemioarekin egotea da, elkar-ezagupen erritua bailitzan, eta jende bohemioaren bilaketan dihardu beti Canok, espezie zoologiko baten atzetik usnaka bailebilen: «*Artista jendea* bizi bide da hemen» (Ibid., 61, guk azpimarratua). Egia esan, edonon eta erraz aurkitzen du bazka. La *Cueva del Poyo* ezizenez izendatuko duen lofteko bizilagunak, kasu, artistak dira, bakoitza bere modura: «Alexandrak kulebroiak egiten zituen Venezuelan, eta orain abeslaria da bere mutil lagunaren taldean [...] Riccardo margolari italiarra [...] eta Kyra argazkilaria da» (Ibid., 62) Eta hori gutxi balitz: «Lehendik musikari esperimental bat bizi ei zen bertan» (Idem). Eta ez daudenean bizirik, hildako artisten arimak arnasten duen airean sumatzen ditu Canok: «Eta hor abiatu da [Cano, bere buruaz hirugarren pertsonan],

⁸ Liburuaren amaiera aldera zera esaten zaigu bizi izandako auzoaz: «Gu bizi ginen Williamsburg auzoa oso *trendy*, oso boladan omen dago orain, Manhattan baino are *fashionableago* [...]. Alokairuak gora doazela, gero eta artista gehiago bizi direla Williamsburgen [...].» (Ibid., 181).

batare jendekin ez den idazle isila, Julian Schnabel pintore eta zinemaegilearen jabetzakoa den Chelsea Hoteleko gelara [...] eta hor goaz, elurretan oinez, Jim Morrison, The Beatles, The Eagles eta beste hainbestek kantuak eskaini eta bolada luzeak eman zituzten Chelsea Hotel mitikora» (Ibid., 96). New Yorken gurutzatuko dituen euskaldun bakarrak ere, nola ez, artistak: «Alexek, urte batzuk daramatza New Yorken eta, besteak beste, musika tresnak asmatzen ditu» (Ibid., 29). Ainhoa Arteta diva euskaldunarekin ere afaria izango du Harkaitz Canok eta hiriko Euskal Etxera hurbilduko denean Alex eta honen lagun artista batekin bertako euskaldun tradizionalak harrituko dituen performance artistikoa burutuko dute: «Alexekin Euskal Etxean zer-bait egitekotan geratu gara. Bruce Mc Clure izeneko bere lagun batek super-8ko filmak azidoz erre eta koloreztatuz oso efektu bereziak lortzen omen ditu. [...] Euskal Etxeko xahar guztiak jo ta ma geratu dira Bruceren irudiekin eta Alexen musika tresnekin» (Ibid., 30-33).

Egia esan, eta hau da liburuaren enkantuaren arrazoietakoa bat, oharkabean errealismotik ihes egiten du Canok, eta badirudi hiri horretan bizi den oro dela artista deklaratu edo izkutukoa. Entzun bestela: «New Yorken inork ez dizu esango aroztegi batean lurra berdintzen, hormak margotzen edo testuak ordenagailuz garbira pasatzen lan egiten duenik, bere diru iturri bakarra hori izan arren. Larunbatetan izebaren tabernan diskoak jartzen dituen arotzak musikaren negozioan dabilela esango dizu, laburmetraia batean extra bezala lan egin zuen horma margotzaileak *filmakerra* dela etabar. Miresgarria da izpirituan bakarrik duten lan horri halako adoreaz eustea» (ibid., 116). Azken esaldi hau errepikatu behar dut: *miresgarria da izpirituan bakarrik duten lan horri halako adoreaz eustea*.

Izan ere, arestian iradoki dugunez, hori baita Canoren literaturgintzaren giltzarrietako bat: artista izaeraren iheskortasunaren aurreko kezka. *The amateur emigrant* deitu kronikan, Canok *mise en abyme* delako figura erabiltzen du bere animoaren eta egoeraren berri emateko. Robert Louis Stevenson idazleak Estatu Batuetara egindako bidaia bat aitzakiatzat harturik idazle nahiz artista izan nahi duen edozeinek bizi duen a-topia (tokirik eza) salatzen da. Cano literaturaren bila badoa New Yorkera, Stevenson, bere aldetik, maite duen emakume libre eta moderno baten atzetik doa. Eta kontinente berrirantz daraman itsasontziko bidaideek ez dute ulertzen bere eginkizun literarioaren helburu ez-ekonomikoa (itsasontziko bidaiarien izenen zerranda kopiaetzea

proposatzen diote diru-truk, eta iseka eginez). Canok zera komentatzen du: «idazle izan eta zure lana serio hartuagatik ez da beti erraza izaten horrekin bizitzea [...] irakurtzen edo dibujatzen ikusten nauean [bere bizilagun euskaldunak] denbora galtzen ari naizela iruditzen zaio» (Ibid., 83-84). Idazlea fikziozko pertsonaia da beti, *izpirituak bakarrik duen lana* delako berea, eta Ana Urkizak, liburuaren aipamen kritikoa egiterakoan dioenez: «New Yorken, bestalde, idazle-bisitariak bere burua aurkitzen du eta berdefinitu egin behar izango du bere kokalekua. Literaturak fikzio hori ulertzen eta bizitzen lagunduko dio baina delako fikzio hori bizi ondoren, Canok etxera bueltatu-beharra dauka, idazle egina» (Urkiza, 2001). Beste hitzetan esanda, New Yorkeko egonaldia Canok errito inizatiko bat bailitza pentsatu du, idazle dela segurta liezaiokeen erritua hain zuzen. Hori, bidaiaren jatorria eta prestakuntza aipatzen zaizkigunean geratzen da agerian. «Bi urte pasa nituen jende guztiari New Yorkera joan behar nuela esanez» (Ibid., 9). JFK aireportuan lur hartu baino lehen, hegazkinean oraindik, bertako adunara heltzean eman beharreko papertxoa betetzen ikusten dugu Cano: «Zalantza momentu bat izan dut laukitxo horretara heltzean. Ogibidea galdetzen dit. Writer and Journalist idatzi dut lotsagabe. Gehitxo akaso?» (Ibid., 12). Bere literaturaren eta bokazioaren iturburu mitologikoa den hirira heltzean biluzturik sentitzen da eta azterketa bat pasatzera joango balitz bezala sentitzen da betiereko idazle-gaia: «Mesfidantzaz begiratuko ote didate nire ibilera sosegatua ez delako, edo sosegatuegia delako? Nire editoreak egindako kontratu faltsu bati esker, urtebeteko bisa lortu dut. *Artistei* emate zaien horietakoa. Hona zer dioen kontratuak: argialetxeak nire egonaldia eta gastu guztiak ordaintzen dituela New York blues izeneko liburua idazteko baliatuko ditudan bederatzi hilabeteetan» (Idem). Jokoan dagoena idazle izatea da eta bederatzi hilabete haurdunaldi literarioaren ostean (idatziko al du bere liburua?) jakingo da idazlea sortu den ala ez liburuarekin batera. Izan ere, jazz musikariei mailegatzen dien eserak ongi baitio «beste edozein tokitan arrakasta lortzen baduzu, ederra da pagotxa. Baina Manhattanen arrakasta lortzen baduzu, aixkidea, orduan Sagar Handiari eginen diozu kozka» (Ibid., 73). New York transformaketaren toki magikoa da Canoren unibertso literarioan, Proppen ipuinaren funtzioen eskeman *beste* lurraldea heroiairen aldatetarena zen bezalaxe. Baina baliteke transformaketarik ez gertatzea. Eta duda hori dela eta «inorentzat ez dela garrantzitsua sentitzearen beldur da, atzerrian dagoen bitartean existituko ez ote den» (Urkiza, op.cit.).

Bitartean bertako euskaldun bohemioekin eztabaida bohemioetan sar- turirik dakusagu: «-Artea okurrentziatik hain gertu dagoenean artista nor den eta nor ez den bereizten saiatu beharko genuke [...]» (Ibid., 30).

Egonaldiaren bukaeran Canok «New Yorken idatzi beharreko liburua» (Ibid., 178) kostata baina idatzi duela esaten digu. Eta sinbo- lismo gardeneko azken ekintza bat bururatzen zaio orduan: «karta bat idatzi nion nire buruari: erremitean nire Brooklingo helbidea jarri nuen eta kartazalean berriz Donostiakoa. *Bi pertsona ezberdin izango ziren finean karta idazten zuena eta jasoko zuena*. Kartazala itxi aurre- tik diskette batean New Yorken idatzitako eleberriaren kopia bat sartu nuen. Superstizio kontuak. Badaezpada ere, hegazkina eroriko balitz edo. *Beste ahalegin bat gure bizitza literarioa izan dadin*» (Ibid., 178, guk azpimarratuta).

Eta orain arte deskribatzen saiatu garen kezka esistentzial horreta- tik (*to be an artist or not to be*) abiatuz ulertu behar dela Harkaitz Ca- noren literaturgintza esatera ere ausartuko nintzateke. Horregatik da kronika liburu xume hau, behar bada, orain arte idatzi duen testurik unkiarriena eta lortuena. Artista garenaz ziur ez gauden bitartean joka dezagun ahal bezainbateko konbentzimenduz izatera. Hau litzateke Canoren lema, eta hau, baita ere, bere estilo literario hain bereziaren giltzarria. Canoren literatura literatura simulakro bat litzateke, preses- ki simulakroaren estetikaren indarrez simulakroaren literatura bihur- tzen dena⁹. Hortik, hemen azken zertzelada batzuen bitartez agertuko dugun figura estilistiko jakin baten erabilpen errepikatua, zeinak Ca- noren idazkera guztien artean ezagugarri egiten baitu. Hiperbatona esaldiaren ustegabeko luzapen harrigarri eta perturbatzaile bat da. Ematen du esaldia edo pasartea osatuta dagoela (behintzat gramatika- ren eta logika diskurtsiboaren araei begira) eta horra non idazleak az- ken osagai bat gehitzen dion efektu estetiko indartsua lortuz. Hori da Canok behin eta berriro, naturaltasun handiz, egiten duena. Hona hemen lau adibide (letra etzanez jarri ditugu hiperbatona egiten duten ezusteko gehigarriak):

⁹ Eta alde horretatik ezin zezakeen aurkitu New York baino kokagune egokiagorik, hiria bera (Canok berak Lincolnlen estatuarekin gertatzen dena deskubrituz ulertzen duenez –usoak hurbil dakizkion norbaitek goizero ogi apurrak jartzen dizkio sor- balda gainean) simulakro erraldoia baino ez baita. Gezur eta exagerazio literario guztiak zilegiztatzen dituen toki ideiala.

«Pianoaren gainean jarrita, zutik idazteko ohitura hartu dut. Poemak idazten ditut, batez ere, eta *eguzkia piano gainean erortzen denean bereziki*» (Ibid., 84).

«Lanean sartuta zaudenean horretara zaude eta gogaikarri suertatzen da konpromiso oro, konpainia oro, jan beharra bera ere enbazaru bat besterik ez da. Jean Michel Basquiatek bere koadroen gainean egiten zituen otorduak, bertan egiten zuen lo. Areago, *margotzen zituen lientzoetan apuntatzen zituen bere neskalagunen telefono zenbakiak ere [...]*» (Ibid., 85).

«Hutsune handi bat sentitu dut. Enbalatzeko papera lurtean itsatsi eta pintzel pare batekin garabato bat egiten hasi naiz, desahogatzeko. *Gauerdian* hasiko naiz berriro idazten [...]

» (Ibid., 86).

«Gauerdia jotzear dela, Paolaren lagun kolonbiarrek osatzen duen foru hispanoak bere lobby izaera erabili du, japoniarrei ere hamabina mahats ale helaraziz. Kalera goaz denok. Yushio Travoltak zarama poltsen artean aurkituriko pertxa zilarreztatu batekin hamabi kanpaikada kosmiko imajinarioak markatzen ditu Williamsburg zubipean dagoen zabor-poltsaz osaturiko meta batera igota. *Gogotik ari du elurra*» (Ibid., 70).

Gehienetan azkeneko xehetasun horrek ez du lotura logikorik aurretik esandakoarekin eta ia beti dator hor arte idazleak egindako deskribapen nahiko estetizatua areago kargatzera. Alde horretatik, esan daiteke Canoren hiperbatona barrokoa dela, kitscharen mugarekin jolasean beti. Estilo artista dudarik gabe, batzuegan narritadura sor dezakeena, hala nola Javier Rojo erreseinariarengan: «Heriotza, adibidez, behin eta berriro azaltzen den gai errekkurrentea da; nago, ordea, gai hau ez ote duen literarioegi erabili, literatur jolasa baino ez balitz bezala» (Rojo, 2001). Eta egia da Canok gai guztiak literarioki, *literarioegi*, darabilzkiela, baina ez al da hori barkagarria idazletza bera hil ala biziko zertzat daukan idazle batentzat?

Visak uzten didan bitartean ez dut itzultzeko asmorik

Joseba Gabilondoren ibilbide literarioa (?) bitxia da, atipikoa. Orain arte ez du sorkuntza literariozko liburu bakar bat ere argitaratu eta, hala ere, euskal paisaia literarioan itzala (hitzaren bi zentzuetan) duen (edo den) pertsonaia dela ezin uka. Bere ausentzia/presentzia hori literatur bizitzan parte hartzeko aukeratu duen modu berezitik da-torkio. Libururik ez, esan bezala, baina azken urteotako artikuluko kritikoa

interesgarrienetakoak (euskal kritika literarioan estilo berri bati hasiera emanez, ez hain filologikoa, ez hain estuki unibertsitarioa, ez hain instituzionalizantea), zutabegintza paraliterarioa (hemen iruzkindu gogo dugun liburuan biltzen dena), eta sariketa literarioetan parte hartze bakan bezain arrakastatsuek (besteak beste Ignacio Aldekoa ipuingintza saria eskuratu du «Madrid, New York, Tokyo» ipuinarekin). Idazle-tzaren muga definigaitz horretan ekilibrista bailitzan ibiltzeko gaitasun berezia erakutsi du Gabilondok eta euskal literaturan (idazleen euskal literaturan, ez kritikoenean) norbait bada, hain zuzen betidanik idazle izateko asmo zindoa aldarrikatu duelako da. Irakurleriaren aurrean behin betirako idazle egingo luketen obra hori edo horiek ez dira oraindik iritsi baina, bai irakurleen eta bai argitaldarien atsekaberako. Kuriosoena, alabaina, zera da, izateko asmoa duen balizko idazle horren irudia –*ethosa*– obra paraliterario geroago eta hornituagoaren bitartez zizelkatzen diharduela etenik gabe. Horregatik esan daiteke idazle irudi oso finkatu eta zehatza duen obrarik gabeko idazlea dugula Gabilondo, denok sinesten baitugu halako batean argitaratuko duela aspalditik agintzen ari zaigun obra.

Kaliforniatik bihotzez kronika liburua 1992an argitaratu zen eta geroztik igaro den hamarkadan ere ez du, Gabilondok, argitaratu sor-kuntza libururik. Orain artean eramandako ibilbide sasi-literarioaren erdibidean kokatu beharko litzateke amerikar bizitzaren deskribapen hau. Eta bertan inon baino setatsuagoki ekiten dio kronikariak bere baitan daraman idazlegaiaren promozioari. Liburua jende konkretuari (batzuetan irakurleari ere ezagunak zaizkion jendeari) zuzendutako gutunez osatua dago. Artifizio hutsa intimosasun kutsu hau, noski, jakinik *El Diario Vasco*-n agertzen zirela astero-astero. Baina interesgarria nolana ere. Izan ere, aspalditik erabili izan baitute idazleek gutungintza beren irudia lantzeko lanabes gisa. «Eskutitzen birtute autogenetikoa usu erabiltzen dute idazle gazteek batik bat, laborategi honi esker beren hartzailaren begiradapean modu epiko batean gauzatu bait daitezke. Korrespondentzia ez da soilik obraren obra [...] askotan, autorea izatera iritsiko den eta oraingoz kimatzen ari den beste obra nagusi horren laborategia ere bada» (J.L. Diez, op.cit., 62). Solaskide isil horien presentzia ezinbestekoa du Gabilondok bere idazle nortasuna finkatzeko orduan: «Nortasun horren eraikuntza ez da lan bakartia eta korrespondentzia, besteekiko (beste idazleak, taldeak edo erakundeak) loturak egiteko balio duelako, eraketa horren gertagune pribilegiatua da» (Ibid., 39).

Cano ez bezala Gabilondo ez da turista edo bohemioa Ameriketara, han bizitzea erabaki du, hango unibertitate sisteman bere tokia eginez. Hauto biografiko-literario horren jatorriaren zergatia izan daitekeenaren zati bat liburuko pasarte batean ematen ematen zaigu: «Hor non-bait, 80ko hamarkadan koskortu nintzenez, erretrospektiboki neuk ere Jean Paul Sartre izan nahi nuela konturatu nintzen. [...] Alegia, zera izan nahi nuen: intelektuala (familia erabat errural-proletario bateko mugatasun kultural guztiak konpentsatu nahiz edo), politikan aurrerakoa eta engaiatua, eta gainera oso tipo “cool”a, alegia fina-serioa-elegantea» (Gabilondo, 1992, 162). Arazoa da figura hori dagoe-neko existitzen zela Euskal Herrian, ordurako inkarnatuta zeukatela idazle batzuk, eta ez zela beraz eredu egokia bisibilitatea erdiesteko paisaia literarioan. Nork gorpuzten zuen intelektualaren irudi amestu hori? Ez dut uste Txillerdegi sartrearra zuenik gogoan Gabilondok. Ez zatekeen aski cool. Bai ordea gure *gauche divine*-ko partaideak eta horien artean Gabilondok berak bere aitortzaren amaieran izendatzen duen Ramon Saizarbitoria: «Uste dut euskal literaturan idazle serio, aristokratiko burutsu eta misantropo ugari pasa dela –izenik ezin eman jakina. Beno, ausartuko naiz: Saizarbitoria. Maila honetan eta neure burua idazletzat kontsidera badezaket behintzat, argi utzi nahi nuke hau: [beste idazleok ez bezala] autograforik eman ez badugu ere, nahi bai» (Ibid., 170). Uste dut aitortza labur honetan eskaintzen diren elementuak funtsezkoak direla Gabilondoren gustuak eta aukerak ulertzeko. Bil eta laburbil ditzagun elementuok: intelektualaren figurarekiko miresmena (idazlearen azpi-genero berezia), gipuzkoar menditar pobreaken hiriburu ñoño eta sasi-modernoarekiko bekaizkeria eta errebantxa nahikeria, euskal literaturak pairatzen duen donostiazentrismoa idazgune berri baten bitartez kortozirkuitatzeko beharra (Saizarbitoria, kasualitatea, donostiarra da), azkenik, idazle figura berri baten bila hasteko beharra, gaztaroan amestutakoa beste batzuen monopolioa denez gero.

Estatu Batuetan, eta zehazkiago Kalifornian, aurkituko du Gabilondok bere arazoaren konponbidea. Zer eskaintzen dio, bada Kaliforniak? Apika intelektualaren figura berriago bat, modernoagoa (post-modernoa, beraz), *cool*-agoa, eta hori bai, batez ere ordura arte inork ez duena gorpuztu Euskal Herrian. Kalifornia ez da Paris (zaharregia), ezta New York ere (europarregia). Kalifornia Amerika da, eta are gehiago, amerikarren Amerika berria. Gabilondoren ikuspegitik Kalifornia da gerora mundu guztira hedatuko diren moda, pentsamolde eta azturak

ernetzen diren laborategia. Kalifornia da planeta globalizatu honetako *nec plus ultra*. Han, dena da ezberdina, handiagoa. Eta beraz, hango bizitzara egokitzen dakiena gai da modernitate horren ordezkari izateko. Baina hori intelektual posmodernoaren figuraren eraketaren bigarren etapa izango da. Lehenik utz diezaiogun hitza Joseba Gabilondori bere Amerikaren aurrerakuntza eta ezberdintasun guztiak deskribatzen.

1. Handitasuna: «Hau oso handi baita: Los Angeles seguru aski Gipuzkoa adina da [...]. Unibertsitateko ikasleek ez dakite Euskadi / Basque Country bat badenik» (Ibid., 43).

2. Gauza guztien zapore ezberdina: «Telefonoa zerbait diferentea da herri honetan» (Ibid., 50); «Badakit horko pubetan entzuten dela, baina hemen bizitzeak beste zentzu bat ematen dio rapari. Jakina, horixe da Kalifornian bizitzearen abantaila [...], hemen beti gauzak amerikarrago direla» (Ibid., 41); jende arteko harremanei dagokienean ere «hemengo mekanikak oso desberdinak dira» (Ibid., 56); «Agian biolentzia bera ez da hor baino handiagoa, agian diferentea da» (Ibid., 72); «Ni neu beti izan naiz terrorezko filmeentzat beldurtia. Baina halako batean, EEBBetan nagoenez gero, terrorezko filmeek ere beste zentzu bat hartu dute, eta azkenean zale bihurtu naiz [...]» (Ibid., 74-75); eguraldia ere hobea da «Hor ez dakit eguraldia zer moduzkoa den, baina hemen apiril hasieratik 20-25 graduko eguraldi eguzkitsuan sartu gara. Belzten ere hasia naiz eta hondartza luze hauetan ematen ditugu aste-amaierak, lanak uzten dizkizun aisi tarte apurretan, surfari ekinez» (Ibid., 124).

3. Moda guztien iturburu: liburuaren atzeko azalean esaten digunez, «beti bizi gara Ameriketara» zeren gauza guztiak handik datozkigu zuzenean: «Punka, Levis prakak, 68ko iraultza, rocka eta popa, iraultza sexuala eta abar, guzti horiek, hemen sortu dira eta hemen diraute. Beno agian ez da horrenbesterako baina uste dut ulertzen didazula» (Ibid., 82-83). Moda guzti hauek ez ezik, modak kontsumitzeko moduak ere handik agintzen dizkigute: «gizarte posmodernoak “moda” bihurtu dute kultura formarik nagusiena: janzteko moda, halako gorputz itxura izateko moda [...]. Gure jardun guztiak [...] modazko zeinu bihurtu dira. [...] Eta modaren hizkuntza berri hau erabiltzeko zeinu guztiak *shopping center*-etan [hipermerkatuetan] topatzen ditugu [...]» (Ibid., 144). Gabilondo bera ere Kalifornia den moda intelektual berrienen hipermerkatuan ikusten dugu posmodernitatearen zeinu edo ikurren bila. Bilaketa horrek unibertsitatera darama, baina ez edozein unibertsitatera, San Franciscoren inguruetan aurkitzen den

Santa Cruzeko kanpusera, hau da, Kalifornia super aurrerakoi horretan are aurrerakoiagoa den kanpusera: «adibidez ni nagoen departamentua bakarra da EEBBtan. *Board of Studies in History of Consciousness* du izena. [...] Bertan antropologia klasikoaren kritika eragin-korrenetakoak garatu dituzte zenbait irakaslek. Zine teoriarik ere munduko zenbait irakasle ezagunenetakoak daude, eta abar. Alegia, oso departamentu hippy-antzekoan nago» (Ibid., 82). Santa Cruzeko unibertsitatearen super modernitatearen ikurren artean ikusgarrienak honako hauek dira: fisika tradizionalaren prediktibilitatearen aurka doan kaosaren teoria bertan ekoiztu izana, munduko komunitate lesbien handienaren kokagune izatea. Eta, jakina existitu ahal izateko, modatik kanpoko eskualdeak behar baititu, eskualde hauetako bat Euskal Herria litzateke, eta bertan berezikiago Donostia. Gabilondoren topologia berezian, euskal esparri sozial zein literario estu eta modaz kanpoko sinbolizatuko lukeen Donostia gorrotatura dena heltzen da atzerapenarekin: «Ez dakit termino hauek, “hyperspace” eta “virtual reality”¹⁰ [...] hor ezagun izango diren [...] Imajina, beraz, 1930eko hamarkadan idatzi dizudala eskutitz hau, eta zuk sekulan ikusi ez duzun tresna berria deskribatzen ari natzaizula: telebista. Orain konprenitzen duzu, ezta? Beno bada [...] 80 eta 90eko hamarkadako “telebista” berriez hitz egiten ari natzaizu» (Ibid., 91-92). Tolosaldeko papelerak aro industrial zaharkituaren aztarna itsusiak badira, Kaliforniako beirazko eraikin garden eta xumeak aro postindustrialaren lekuko dira. Kultur industriaren produktuekin ere halako zerbait gertzen da: «Eta, beraz, filmea [Euskal Herriar] ateratzen denerako, Amerikan bizi garenon bizitza sufritu Hollywoodeko haizeek ekarritako objektu eta memorabilia guzti hauetaz beteko digute. Zuek ere ez zarete hain erraz libratuko» (Ibid., 59). Are okerrago, hona gauzak berandu iristen dira –iristen direnean– eta iristen badira desitxuraturik, autentizitatea galduta: «Itzultzen benetan zaila dela kontutan hartuta [William Ginson idazlearen *Neuromancer* zientzia-fikziozko eleberriaz ari da], agian gazteleraz ez da hain ona izango» (Ibid., 91).

Zein da, bada, azken moda intelektual posmodernoak agintzen duen jarrera? Hitz bakarraz laburbildu behar bagenu – eta Gabilondok

¹⁰ Orrialde hauetan egiten du Gabilondok behar bada euskaraz egin den interneten lehen aipamena eta deskribapena (oroitu liburua 1991n idatzitako artikuluen bilduma dela).

ez du modazko jarrera intelektualaren definizio zuzenik proposatzen, asmatzeko parada ematen baitigu moda horren ikurrak bereganatuz deskodetu ditzagun–, hitz hau polimorfismoa litzateke. Intelektual post-sartrearrak polimorfikoa izan behar du, orojalea. Liburuan zehar ethos posmoderno hori marrazten digu Gabilondok, bere burua modelo gisa erabiliz. Hor dakusagu, kasu, lagun bat eskertzen beregandik jasotako gramatika japoniar batengatik (91. or.), edo surfari baten etxean bizitzen: «Kuriosoena zera da, San Diegon lehenengo hiru hila-beteetan surfari batzuen etxean bizi izan nintzela. Alkohola eta beste-lakoak ugari ibiltzen ziren etxe hartan eta beti izaten zen festaren bat» (Ibid., 86). Beste batean jet-setak antolaturiko festa batera joateko zorian egon zela aitortzen du: «Nere lagun Oliviak jet-set party batera gonbidatu nau New Yorka. Zenbait alkate-ohi new-yorkar, Trump familiakoak eta abar omen datoz» (Ibid., 56). Intelektual polimorfikoa ideien arloan ez eze jendearekiko harremanetan ere denetik probatu behar du: «Detailerik tipiena interesgarri bihurtzen da. Kuriositate apur bat eta jende berria ezagutzeko interesa – edo abilezia – izanen gero [...] beti da interesgarri. Esperientzia hori ez zaizu inoiz ahantziko» (Ibid., 107-108). Eta batez ere joera taldekoi eta errutinarioak baztertu behar dira: «Koadrila-mutila bazara, beti lagunekin astean gertatutakoak eztabaidatzea gustatzen zaizunetakoa, eta neskatratua beste neska koadrila baten bidez izatea gustatzen zaizunetakoa, hobe hor geratzea, hemen behintzat jai duzu. Aldiz, jende berria eta arraroa ezagutzea gustatuz gero [...] partyak gauza zoragarria» (Ibid., 56). Polimorfismo horren adierazgarri litzateke, baita ere, liburua egituratzen duen eskutitz gehien azkenean agertzen den agur aldakorra. Beti izenpetzen ditu gutunak mozerro berri bat jantziz: «Kaliforniako euskal surferoak, bihotzez», «Kaliforniako bihozberak», «Kaliforniatik partyzaleak bihotzez», «Kaliforniako nostalgikoak bihotzez», «Kaliforniar paranoikoak», «Kaliforniako hippy eukaldunak bihotzez», «Kaliforniako euskal deserriratuak bihotzez», eta abar. Azkenik, esan behar, liburua osatzen duten artikuluek eskaintzen duten espektro tematiko zabal bezain ñabarra Gabilondoren kuriositate intelektualaren froga berri bat dela.

Argi dagoena zera da, baina; moda hori (eta orokorkiago bizimodu amerikarra) jarraitu ahal izatea ez dagoela edonoren eskutan. Koadrila-mutil euskaldun tradizionalak jai daukatela ohartarazi digu Gabilondok berak, baina moderno direlako ustez hanpaturik bizi diren ñoñostiarren ahaleginak ere hutsalak dira: «Badakizu Donostiako

klase ertain eta garaiak beti izan direla oso snobak edo azken modan ibiltzekoak. Oraingoan moda EEBBak direnez [...] hor halako moda bat sortzen ari dela konturatzen naiz, alegia seme-alabak EEBBetara estudiantzera bidaltzekoa» (Ibid., 107-108). Gabilondok donostiar burgesia bera eratzten ari den ethos posmoderno eta polimorfikoaren kontra-irudi edo negatibo modura darabil. «Karrera ikastera laupabost urterako etorritz gero, prestatuta etorri behar da. Moda donostiarrak ez du balio [...] unibertsitatean lan izugarri egiten da [...], ikasketek ez dizute asti handirik uzten lagunak egiteko. Beraz adiskideak egiteko abilezia berezia ez baduzu [...] hemen ez da berriketarik [...]. Agian unibertsitate amerikarraren deskribapen garratzegia eman dizudala esango didazu. Bai, egia da. Baina Donostiako “moda amerikarra” snobkeria hutsa dela azaldu nahi nizun» (Ibid., 109-103).

Donostiar-euskaldun ezinak, noski, *a contrario* Gabilondoren egokitze ahalmena agerian uzten du. Are gehiago behin eta berriro azpimarratzen duenean bera han gustura bizi dela eta, batez ere, beste euskaldun askok ez bezala, ez duela herrimina pairatzen: «Ez dut jende gehiegi ezagutzen nere egoeran. Alegia, euskaldunak atzerrian gustora bizi direnak eta etxera itzultzeko asmorik ez dutenak» (Ibid., 133). Nahigabekoa dirudien hitz-joku bat eginez, zera diosku Gabilondok liburuaren bi pasarte ezberdinetan, bera ez dela itzuliko «bisadoak» eta «visak» utziko dioten bitartean. Gabilondo amerikarra sentitzen da. Bere *hemen-a* Kalifornia da bere *han-a* Euskal Herria delarik, liburuaren *incipitak* argi uzten duenez hasieratik: «Nere Kalifornia maiteko San Franciscora itzuli naiz, astebete zoroa Donostia-Bartzelonatan eman eta gero» (Ibid., 13). Euskal Herriarekiko lotura modu nahiko saminean azaltzen du gainera: «Badirudi AberriAk [bakarrak] minkorki hautatu zaituela zu zeu. Eta beraz, hautapen hau ukatuz ematen dugu bizitza Aberritik kanpo, AberriAren deserrian. AberriA gogoratzen ez dizun edozein herri maite duzu. Hortik, ausaz, hain bestelako den EEBBen aukera: «gauzak hain dira ezberdin hemen!» (Ibid., 107).

Haatik, eta ez da hau testu honetan azaleratzen den paradoxarik txikiena, liburu bera bertakotze prozesu orbaingabe horren ezeztatze –denegazio, zentzu freudiarrean– bat ere badateke. Izan ere, Gabilondok Euskal Herriko jendeari idazten baitizkio eskutitzok, eta are adierazgarriago, oso loturik ikusten baitugu Euskal Herri urrun eta periferiko horrekin, dela hedabideekiko harremanari esker, dela euskal literaturan *sartzeko* erakusten duen nahikeriagatik: «Oraingoz hiru egunkarientzat lan egiten dut, Euskadi Irratiko korresponentsala naiz, eta

“Ignacio Aldecoa” ipuin sariketa irabazi dut. Alegia, trantsizioan nago» (Ibid., 163). Sarrionaindiaren pastiche-a eginez, zera esan genezake, han izanik honako idazten duela. Eta egia da, ageri da liburuaren pasarte-arraildura batzuetan, liburu hau artifizio baten gainean eraikita dagoela eta bere izateko arrazoia ez dela euskaldun amerikartu zoriontsu baten kroniken bilketa soila egitea, baizik eta euskal literatur edo intelektual esparruan toki bat apailatzea Gabilondorentzat, liburuan bertan lantzen den autorearen irudia delarik horretarako tresna. Liburuaren benetakoa helburua salatzen duketen arraildura horietako bat bukaera aldera agertzen den «*Dear irakurle*» diosala eta jarraitzen zaizkion hitzak dira. «Oraingoan zuri zuzentzen natzaizu. Bai zuri [...] komunean edo autobusean egunkaria erritualistikiro irakurtzen duzun horri. Eta azken eskutitz hau hain zuzen agur esateko da, edota hemen diogun bezala, “*see you later alligator*” [...] Azkenean “Ignacio Aldecoa” ipuin saria ere eman didate, astero eskutitzak idatzi beharrean ipuinak eta elaberriak idazten has nadin. Horiek ere laster irakurriko dituzu» (Ibid., 153). Ameriketatik idatzitako liburu honen egiazko destinatarioa, egiazko jomuga, ez dira eskutitz bakoitzaren sarrean izendatzen diren lagun horiek, euskal literaturako irakurleria baizik, eta irakurleria horri *see you later* esaten zaio, hots, gero arte. Kronika liburu hau, zeinen pertsonaia nagusia Gabilondo bera baita –Gabilondoren erretratua idazle-intelektual-post-sartrear-post-moderno-poli-morfo gisa–, finean, iristear edo iristeke dauden Gabilondoren lan literarioen harrera prestatzera datorren *teasing*¹¹ luze bat besterik ez da eta ez da harritzekoa beraz bere xede literarioaren berri hain modu zehatzean ematea eta errepikatuki: «Ipuinek harrera ona badute, seguru ipuin liburu bat argitaratuko dut laster. Eta hitz ematen dudan gauza bakarra zera da, Kaliforniatik idazten ditudan eskutitz ero hauek baino eroagoak eta erakargarriagoak izango direla [...] Orainsu eleberri bat ere amaitu dut, eta zertxobait berridatzi beharrean banago ere, laster argitaratuko dudala ere agintzen dizut. Euskal literaturan maitasun istorioak ez dira oso usu oraingo ene elaberri honetan [...]» (Ibid., 123). Egia esan, liburuaren atzeko azaletik beretik, argitaldaria berak ematen digu abisua: «[Gabilondok] eleberri batekin egiten digu mehatxu».

¹¹ *Teasing* delakoa iragarkigintzan asko erabiltzen den teknika bat da, eroslearen jakinmina kitzikatzeko. Lehen fase batean produktua hitz egiten da baina izendatu gabe eta erakutsi gabe, eta hurrengo fasean, jakinmina bere gorenear dagoenean, produktua erakutsi egiten da eroslearen gogoa asetzuz.

Baina, jakina, mehatxu egitekotan hobe Kaliforniatik egitea ezen, Gabilondok aitortzen duenez: «Ukraniatik bihotzez idatzi izan banu ez dut uste gauza bera zatekeenik» (Ibid., 169. Irakurlearen irakurmina –iragartzen dituen eta etortzekoak diren bere literatur lanekiko irakurmina– kitzikatzeko, eta berak amestutako idazle figura gorpuzten has-teko Amerikatik idaztea ezinbestekoa zen.

Kronika liburuaren idazketa bukatzen ari dela Gabilondori erru-duntza sentimen bat ernetu zaiola dirudi ezen desenkusutzen saiatzen baita, idazle izatera jokatzeko saiatzeagatik desenkusutzen preseski: «Az-kenean Donostian nago. Zeure Amarako etxetik hamar minutura. Es-kutitz hau idatzi beharrean kafea hartzera ere gonbida zintzaket, baina [...] hemen daukazu eskutitz infame hau. Espero dut hau irakurtzera-koan hemendik ospa eginda egotea, oraindik ere lotsa ematen baitida-te gauza hauek. Sasoi bateko literatur idale serio eta transzendentalak gogoratzen dizkidate. Lagunekin kafea hartu beharrean elkarri eskuti-tzak idazten baitzizkieten, gero norbaitek argitaratuko zituen segurta-sunak ematen duen seriotasun estupido horretaz mozorrotuta» (Ibid., 159-160). Eta artifizioaren aitortza erabatekoa bihurtzen da Gabilon-dok Amerikar kokapenaren arrazoia ematen digunean. Hau beste pa-sarte labur eta itxuraz ezdeus batean ematen da. Arestian aipatu jet-se-taren festa dela eta, Gabilondok zera botatzen du: «Baina imajina di-rua nonbaitetik atera banu [gonbidaturik zegoen festara joan ahal iza-teko], benetan eskutitz interesgarria idazteko aukera, hi!». Eskutitza, beraz ez da egonaldi amerikarraren ondorio naturala. Alderantziz, ego-naldi amerikarra eskutitz “interesgarriak” (bere idazle irudia molda-tzen lagunduko diotenak) idazteko aitzakia da.

Artifizio kutsu honek ez dio liburuari kalterik egiten; aitzitik, gure literaturan figura berri bati sarrera ematen baitio: obrarik gabeko idaz-le konfirmatuaren figura bitxiari, hain zuzen. Autorearen teoriak dioe-nez, «autorea ez da ekoizturiko testuetara mugatzen, bere xedeek, huts egiteek eta saialdiek ere zehazten dute» (Simonet-Tenant, 2000: 90). Areago, «noski autore batzuk olerki batzuk direla –edo dramak, edota eleberririk. Zenbaitzuk hitzaurre batzuk besterik ez dira...» (Diaz, op.cit., 63).

Bibliografia

ARISTOTE, *Rhétorique*, Livre de Poche, Paris, 1991.

- CANO, Harkaitz, *Piano gainean gosaltzen (New Yorkeko kronikak)*, Erein, Donostia, 2000.
- CANO, Harkaitz, *Pasaia blues*, Susa, Zarautz, 1999.
- CANO, Harkaitz, *Beluna Jazz*, Susa, Zarautz, 1996.
- DIAZ, José-Luis, «Le poète comme roman», in Lavialle & Puech, *L'auteur comme œuvre, L'auteur, ses masques, son personnage, sa légende*, Presses Universitaires d'Orléans, Orléans, 2000, 55-68.
- ECO, Umberto, *Lector in fabula*, Livre de Poche, Paris, 1985.
- ECO, Umberto, *Apocalittici e integrati*, Bompiani, Milan, 1964.
- GABILONDO, Joseba, *Kaliforniatik bihotzez*, Elkar, Donostia, 1992.
- JAUSS, Hans Robert, *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard, Paris, 1978.
- KORTAZAR, Jon, *Euskal literatura XX. mendean*, Prames-Las tres sorores, Zaragoza, 2000.
- LAVIALLE, Nathalie & PUECH, Jean-Benoît, *L'auteur comme œuvre, L'auteur, ses masques, son personnage, sa légende*, Presses Universitaires d'Orléans, Orléans, 2000, 123.
- MAINGUENEAU, Dominique, *Le contexte de l'œuvre littéraire. Énonciation, écrivain, société*, Dunod, Paris, 1993, 196.
- MORETTI, Franco, *Atlas du roman européen 1800-1900*, Paris, 2000, 235.
- ROJO, Javier, «New Yorken zehar», *El Correo*, 2001-02-07.
- SIMONET-TENANT, Françoise, «Paul Valéry secret», in Lavialle & Puech, *L'auteur comme œuvre, L'auteur, ses masques, son personnage, sa légende*, Presses Universitaires d'Orléans, Orléans, 2000.
- URKIZA, Ana, «Osoko newyorkerra», *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-1-13.

GERRATE ZIBILA BAINO LEHEN

XABIER APAOLAZA

Gaur egun, globalizazioaren garaian, leku desberdinetako arazozen elkarren arteko eragina argi ikusten bada, beste hainbeste gertatzen zen kontuan hartuko dudan Espainiako gerra zibila baino lehenagoko garaian. Orduan Europa osoan mota guztietako eragin-indarrak –ekonomiazkoak, politikazkoak, kulturazkoak eta sozialak– etenik gabeko desoreka bizian mugitzen ari ziren. Bertan sortuak zeuden antagonismoak azkenean gerrate ankerren –1914-1918, Espainiako gerra zibila, eta II. gerrate mundialaren– bidez ebatzi ziren. Hau honela izanik, Espainiako estatua zein Hego Euskal Herria, Europako aztoramenduaren parte-hartzaileak ziren, batez ere, ideologiaren alorretan. Espainiari begira, Euskal Herria estatuaren zurrunbiloaren barnean, monarkia eta Errepublikako gorabeheretan murgildua zegoen. Halaz ere, desberdintasunak begi-bistakoak ziren.

Hogeigarren mendearen hasieratik Espainiako II. Errepublika desagertu bitartean, Hego Euskal Herrian garrantzi handiko gertakizunak izan ziren. Gertatutakoek berezko kutsua izan zuten: berezia izan zen euskal abertzaletasuna sortzea, berezia gizarteaz kontrajarriak ziztuzten ikuspuntu ideologikoak, berezia Bizkaian izandako gerra eta gobernu, eta berezia ere geroko erbestea.

Baionako jardunaldi hauetan gainbegirada orokor bat eman nahi diet orduan zeuden zenbait pentsamolderi. Orduko ideologia nagusiak liberalismoa, sozialismoa, euskal abertzaletasuna, Espainiako nazioko kultura liberala eta tradiziok eskaintzen zuten estatuaren forma, eliza eta erlijioa ziren; azpian, bere idazlanetan intelektualek agerian jartzen zituzten, moder-

nismoa, bitalismoa, zientzien garapena, eboluzionismoa, pragmatismoa, eta pentsamendu kontserbatzailea. Azken hau alboan utzita, honek beste mota bateko lana eskatzen baitu, kasu egingo diot lehen aldeari, hau da, orduko ideologiei buruzkoari. Ameriketako erbestera joandakoen pentsamendua ere aipatuko da.

* * * * *

Tradizionalismoarentzat, edozein arlotan lehen oinarri eta bakarra Jainkoa zen eta benetako eliza erromatarra. Katolizismoa zen ordena publiko zein pribatuan benetako erlijioa eta doktrina. Horregatik, aldarrikatzen zuten Jesukristoren nagusitasuna arlo sozialean, politikoan, ekonomikoan edo kulturean. Honen arabera, Espainiako gizarteak honelako berezitasunak izan behar zituen: batasun katolikoa; katolizismoa estatuaren erlijio ofiziala eta bakarra; arazoak konpontzeko Aita Santuak emandako irizpidei jarraitu behar zitzaien. Gobernuaren formari begira, Santo Tomasek, Suarezek eta antzinako zenbait doktorek gomendatzen zutenaren arabera —teologo hauek beste aukerak teorikoki onartzen bazituzten ere—, eta espainiarren izaerari eta ohiturei begira, aproposena monarkia zen.

Historiaren interpretazioa narrazio bat zen tradizionalistentzat; bertan, Jainkoaren probidentziari esker lortu zuten Amerikak eta Afrikak gurutzearen jabe izatea. Estatu barrualdera begiraturik, Espainiako lurren foru antolaketa, aberriaren batasunera egokitzen zen; horrela izan zen Errege Katoliko eta Austriarren garaian. Espainia tradizional honen etsai nagusia, atzerritartzen zuen liberalismoa zen, hau da: subiranotasun nazionala, parlamentarismoa, progresoa, zibilizazio modernoa, edota kontzientzia, pentsamendua, eta imprimatze askatasuna.

Hego Euskal Herrian, euskal abertzaletasunarekin zenbaitetan harremanak izan zituzten, katolizismoa zela medio, abertzaleen artean bazeuden eta integritate erlijiosoaren inguruan zebiltzanak. Baina tradizionalismoko buruengan gizarte eta erlijiozko arazoetan gero eta azalezkoagoak. Hori dela eta, kontrako muturrean gelditu ziren tradizionalismoaren eta abertzaletasunaren jarrerak. Esate baterako, Victor Larumbe Pradera emandako aldaketaren adibidea izan zen: katolikotasunaren, foruen, interes dinastikoaren defentsatik, arrazionaltasun eta patriotismo espainiar katoliko, batu, kolpista eta autoritario bateraino joan zen, *Acción Española*-ren ildoarekin erabat ados zegoen. Victor Pradera karlistak, 1935ean *El Estado Nuevo* argitaratu zuen, bertan

monarkia organizista, katoliko, batu eta korporatiboaren berreskurapena proposatzen zuten, hain zuzen Errege Katolikoaren estatu zaharra zena. Honela zebilen orduko tradizionalismoaren bilakaera.

Alfontso XIII.a erregearen interesak II. Errepublikara garaietan, 1933an, *Renovación Española* alderdi politikoaren inguruan elkartu ziren. Haietako buru bat José Calvo Sotelo zen. Charles Maurras eta *L'Action Française*-ren eraginez, José Calvo Soteloren ustez, nazioak berak zuten bere burua helburu. Nazioa, kanpo zein barruko etsaiegandik babestu behar zen, baita printzipio filosofiko errepublikar eta Iraultza frantsesetik ere, eta noski, demokrazia, sufragio unibertsal eta mito parlamentarioetatik gorde; hauek guztiak gehiengo gutziaren edo interes partikularren nahiaren menpe zeuden. Oinordeko monarkikoak, berriz, Maurrasi ere jarraituz, erregea buru izanik, nazioaren zerbitzura egoteaz gain, nazioaren batasuna ziurtatuko luke, baita honen irautea eta subiranotasuna ere.

Errepublikaren kontrako beste indar bat izan zen *Confederación Española de Derechas Autónomas* delakoa, 1933 eta 1936 urte bitartean Errepublikaren gobernua lortu zuena. Bere buruzagia Gil Robles zen. Hego Euskal Herrian bere lekua hartua zuten Alfontso erregearen aldekoek eta tradizionalistek. CEDAren programa ideologiko eta politikoak, gizarte eredu konfesionala eta nekazaritzari egokitu eskaini zuten; klasearteko borrokaren kontra eta abertzaletasun periferikoen kontra gogor jarri zen. Gainontzeko gaietan zehaztasunik eza nabarmendu zen. Angel Herrera Oriak eta elizak bultzaturik, eta iritzi kontserbadoreek babesturik, erlijioaren defentsa, familiarena, aberriaren batasuna, ordena soziala, lana eta jabetzaren eta baita nekazal eremuaren antolaketa zehatza bultzatu zituen Gil Roblesekin, dena ikuspuntu kontserbadore eta klasista batetik.

Acción Española Errestaurazio monarkiaren aldeko aldizkaria zen. Zenbait intelektualek bultzaturik, eskuin erradikalaren bozeramailea eta Errepublikaren kontrako altxamenduaren bultzatzailea izan zen. *Acción española*-k sostengatzen zuten Espainiako nazionalismo esentzialistaren ezaugarriak, hauek ziren: Espainiaren historia, egoera eta patua, ikuspegi autoritarioa, korporatiboa, sakralizatua eta inperiala. Ikuspegi hau, mundu mailako krisi ekonomikoak eta gailurrean zen faxismoak eta nazismoak bultzatu zuten. Aldizkari horretan eliteak, burdinezko zirujanoak, agintzea, bizi-indarren eta boterearen gogoia, eta honekin batera, indarkeriaren eta garaipenaren moralak, eta inperioa goraiatzeko ziren. Era berean, kontrairaultza helburuen artean

zegoen; iragan mitiko batean oinarrituz, “erregenerazioa”, birsortzea, gizarte osorako eskatzen zen; baita, klase, erlijio, historia, eta patu inperialaren batasuna ere, Austriarren garaian bezala. Gizon probidentzialak argitu eta gidatu behar zuen historia. Tradizio katolikoa, monarkia batua, indartsua eta agintaria edota ekoizpen-modu korporatiboa eta organikoa eskatzen zituen, hauek baitziren Espainiako esentziak. Estatu zesarista, buruzagi karismatikoa, pertsona bakarreko agintea, goi graduko boterea eskatzen bazen hasteko, gero monarkia-aren esku utziko da manua. Ramiro de Maeztu izan zen *Acción Española* aldizkariaren zuzendaria.

Hogeigarren mendean, lehen gerratearen ondoren, kapitalismo liberala pairatzen ari zen krisiarekin batera, faxismoa agertu zen Europan. Faxismoak autoritarismo eta indarraren bitartez konpondu nahi zituen gizarte klase ezberdinen arteko kontraesanak eta sistema demokratiko liberalaren nazioarteko krisi sakonaren zenbait antagonismo. Erakunde liberalen aurka agertzen zen, baina, krisi garaian, aldaketa historiko eta iraultzailearen arriskupean zirenean zenbait talde kontserbadorekin elkartu zen. Bere burua erabat autoritarioa zen: antide-mokrata, anti-individualista eta gizarte liberalaren etsaia; nazioaren abertzale intrantsigentea, inperioen ameslea; kanpoko etsaiekin eta aberriaren aurkakoekin obsesionatua; intelektualismoaren aurkakoa, kultura eta indarkeriaren aldekoak; gizon probidentzialaren eta alderdi totalitario baten zerbitzura dagoen estatuaren defentsa egiten zuten. Estatu faxista berri honek gaindituko lituzke klaseen arteko kontraesanak. Espainian *Falange Española* izenarekin mugimendu faxistaren sortzaileak izan ziren José María Albiñana, Ramiro Ledesma, Onésimo Redondo eta José Antonio Primo de Rivera. Hego Euskal Herrian Falangen parte hartu zuten espainiar nazionalismo erradikaleko zenbait, baita monarkiko alfonsiarrek, idazle intelektual batzuek eta goiko burgesia-koek ere.

* * * * *

Liberalismoak, gizabanakoaren askatasunaren alde eta edonolako dogmatismoaren kontra jotzen du. Askatasun honetan sartzen dira iritzi teologikoak eta filosofikoak, politikoak eta ekonomikoak. Politika arloan diktaduraren kontra eta demokraziaren aldekoa da; teologian edonolako dogmatismoari jartzen zaio aurka; filosofiaren alorrean liberalismoak gizaki guztien izaera berdina defendatzen du. Hau da:

izaera arrazionala eta askea; ekonomian muga edo inposaketa gabeko bideari jarraitzen dio.

XIX. mendearen bukaeran, liberalismo teologiko-filosofiko eta politikoaren kontra gogor jo zuen eliza katolikoak, batik bat, hierarkiak. Liberalismo hau elizaren botere nahiz aginte politikoaren kontra eta demokrazia politikoaren aldekoa zen; nahiz eta fedezko arazoetan ortodoxoak izan, eliza katolikoak gogor gaitzesten zuen.

Modernismoa XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran eliza katoliko barruko berritze erlijiosoaren mugimendu intelektuala izan zen. eliza katolikoko zenbait pentsalarik, intelektualismoa eta eskolastika gutxietsiz, kontuan hartu nahi izan zituzten neokantismoa, pragmatismoa, bitalismoa, eboluzionismoa, jakintzen garapena eta gizarte ideia berriak; alegia, filosofia berrien eta jakintza fisiko nahiz sozialen ekarpenak. Modernisten arabera, gizakiok ez dugu ezagutzen errealitatea bera, bakarrik fenomenoak eta itxurak. Beraz, Jainkoaren existentzia edo katolizismoaren egitasuna demostratzeko erabili ohi diren arrazoiek ez dute balio; dogmen balioa sinboliko eta pragmatikoa besterik ez da, eta egiazko balioa galtzen dute praktikotasuna galtzen dutenean. elizaren historia era zientifikoagoan irakurri behar da; Biblia zalantza kritiko-filologikoaren esku uztekotan eta kristau-irakatsi tradizionaleri adiera berria bilatzekotan zeuden. Blondelen inmanentismoa erabiltzea defendatzen zuten. Erlijioaren balioa ezagutzeko beste bidetik jokatu behar da: Kanten arabera arrazoi praktikoa defendatzen zuten, eta Bergsonen intuizioa. Bi pentsalari hauei jarraituz –Blondelen inmanentismo metodoari, batez ere–, erlijioa ez zen transzendentea, baizik eta norberaren baitakoa; pentsamendua eta jainkozko beharraren sentimenduan oinarritzen zuten erlijioaren errealitatea.

Modernismoaren sustraian berritze asmoa zegoen; hain zuzen, kristauen ideiak eta doktrina filosofikoak, teologikoak, sozialak eta zientziari buruzkoak gizarte modernoaren eskakizunei egokitzea zuen helburu. Nahi horrek bultzatu zuen teologiaren ikasketak era positiboan aztertzea.

Pio X.ak, 1907ean, *Pascendi* enziklikaren bidez gaitzetsi zuen modernismoa. Enziklika honen arabera, modernismoan bildu ziren heresia guztiak, eta kristautasuna desegitearen oinarriak ezartzen ziren.

Pentsamenduaren joera hauek eragin handia izan zuten Espainiako estatuan eta Hego Euskal Herrian. Hain zuzen ere, XIX. mendean liberalismo eta tradizionalismoaren arteko eztabaida latza izateaz gain, gerrateak gertatu izanaren arrazoi nagusien artean hartu behar

da hori; batez ere, Hego Euskal Herrian. Gazteizko Elizbarrutia, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoa biltzen zituena, 1862an sortu zen eta hasieratik liberalismoaren kontra jokatu zuen. Errepublikara garaiaren sentimendu tradizionalistatik euskaltzaletasunera aldatu zen neurri handi batean. Gasteizko apaizgaitegi berria 1930ean sortu zen eta ikastegi ospetsua izatea lortu zuen, ikasketetan zenbait berrikuntza sakon ezarri zituelako, argitaratu zituen aldizkariengatik, eta izan zituen neurri handiko irakasle esker. Ospe handiko irakasle-zerrenda zegoen bertan: Barandiaran, paleontologia eta historiaurrean nazioarteko aditua izango zena; Antonio Pildain, gero Las Palmasko gotzaina; Jesus Enciso Biblical aditua, Erroma Biblia-eskolan ikasia; Leoncio Arabio-Torre, biologoa; Manuel Lekuona, etnologoa, euskal kultura trebea; Angel Sagarmínaga, misiologian gero oso esaguna izango zena. Irakasle talde honek sortu zuen heziketa aurrerakoi eta berritua, eta giro guztiz humanista eta erabat kultura eta zientziaren aldekoa sustatu zuen. *Gymnasium* aldizkarian parte hartzen zuten apaizgaitegi literaturako, zientziatiko, eta apostoluzako idazlanekin. Gaurkotasunezko filosofia arazoak, elkarrekiko psikologikoak, etnologikoak eta soziologikoak aztertu zituzten. *Idearium* aldizkariaren helburua, kristau ikuspuntutik, Leon XIII.aren *Rerum Novarum*-en ildotik, gizarte arazoak lantzea izan zen; Errepublikara garaiaren kanpo ikerketa interesgarriak burutu zituzten. Baina interesgarriena hauxe da: alegia, *Syllabus* eta *Quanta Cura* garaiako gomendio eta aginduak gaindituak gelditzen zirela *Idearium* aldizkarian; bost urtez argitaratua izan ondoren, apaizgaitegi barruko zenbait irakaslek salatu zuten moralaren eta dogmaren ikasketak nahasten zirela *Idearium*-i garrantzia emateagatik; orduan, Apezpikuak itxi egin zuen aldizkaria. Gazteizko apaizgaitegian liberalismo, sozialismo, modernitate eta abertzaletasunaren garaiaren, edota zientifikotasunaren erakarpenera berezia zuenean, prestakuntza egokia eskaintzen ari zen. Hau guztia ez zen aurrera eramaten modu errazean. Elizako hierarkiak, alde batetik, neurri batean lotuta jarraitzen zuen eredu integristekiko eta, beste aldetik, apaizgaitegiko abertzaletasunaren kutsuak ez zuen gogo onik sortzen.

Jesuitak, bere aldetik, bere formaziotegietan sustatzen ari ziren kultura klasikoa eta unibertsalia; eta hizkuntza modernoaren lanketa. Honenkin batera, euskal kulturaren gaiak eta euskal literaturaren irakaskuntzak bere lekua izan zuten; arlo honetan nabarmendu zen Jose Mari Estefania Zabala. Honen eskutik, eta Raimundo Olabide euskaltzainaren adorez, sortu zen geroago ospe handia izango zuten zenbait

euskalzalearen taldea, besteak beste, Plazido Mugika, Andima Ibina-gabeitia, Jokin Zaitegi, Esteban Erkiaga, Nikolas Ormaetxea eta Patxi Altuna osatua. Gainera, jesuitek goi mailako ikastegiak zituzten: Deustuko unibertsitatea eta unibertsitate komertziala. Ikasgune hauek eragin handikoak izan ziren Bilboko gizartean.

Orokorki abertzaletasuna konfesionala zen eta bat egin zuen eliza katolikoaren doktrinarekin. Baina era berean zenbaitetan kritikoa azaldu zen eliza erakundeak abertzaletasunaren edo eukal kulturaren kontrako jarrera zuelako. Hasieran abertzale gehientsuenak integrismoaren joerakoak izan ziren eta zenbaitek horretan jarraitu zuen. Baina modernitatearen aurrean, laizismoa areagotzearekin batera, apaizen azken belaunaldiaren eraginez eta Europatik, batik bat, Belgika eta Frantziatik, katolizismoari buruz zabaltzen ari ziren ideiei esker, lehengo sinesteko modua aldatu eta berritu zen. *Malinasko kode sozialak*, *Quadragesimo Anno* enziklikak, *Esprit* aldizkariak, eta, zeharka bada ere, sozialismoaren eta demokraziaren ideiek, besteak beste, eragin handia izan zuten aldatze horretan.

* * * * *

Liberalismo errepublikarrak eta sozialismoak, oinarri filosofiko desberdinak bazituzten ere —lehenak liberalismo demokratikoa eta besteak marxismoa—, elkarren arteko interesengatik bat egin zuten politika egiterakoan. Errepublikaren eraketa ez zen indartsua; sozialistena, aldiz, ondo antolatua zegoen Espainia osoan, eta zer esanik ez Hego Euskal Herrian, batez ere, Bilbo inguruan. Hemen indartsua zen eta bere eragina erabatekoa zen lanean, gizartean eta politika-munduan. Bere mezua eta doktrina zabaltzeko *La Lucha de Clases* astekaria eta *El Liberal* egunkaria zituen, besteak beste. Sozialisten diskurtsoak alde politiko eta sozialera jotzen zuen; hauek ez zuten sakontzen sozialismoa ideologiaren eta ekintza politikoaren oinarrietan. PSOEko intelektualek sozialismoaren edo marxismoaren arazoei buruz ez zuten teorizatu; eztabaida teorikoak ere ez ziren izan ugariak; sozialismoaren klasikoen itzulpenak eskasak izan ziren. Beraz, gogoeta teorikoak egiteko zeuden. Joera intelektualaren gabezia eta langileriarekiko ardura izan ziren sozialismoaren berezitasuna gerra zibila ailegatu arte. Buru ziren sozialistek ikusi eta pairatu zuten zapalketa ekonomikoagatik eta gizartearen premia larria ikusteagatik, injustiziaren kontra eta langileriaren alde, hau da, kontzientziaren eskabidez, jardun zuten, ez azterketa teorikoak eraginda. Hala ere, doktrinalki, bere ideologiari begira, alegia,

sendo eta ondo prestatuak zeuden. Herriko Etxeetan garrantzia ematen zieten erlijio, ekonomia eta jakintza gaiei, eta liburutegian baizeuden, Adam Smithen ondoan, Marxen eta Engelsen lan dibulgatzaileak. Irakurtzeko zaletasuna handia zen.

Sozialisten alderdi politikoak XIX. mendean egindako programa zehatz bati jarraitzen zion. Hau zen alderdiko kideentzako gida ideologikoa. Laburbilduz, programa horren arabera, gizartea zatitua dago klase antagonikoetan; hain zuzen, burgesia da lan tresnak dituen, eta proletalgoa, lan indarra soilik duena; menpekotasun ekonomikoa da morrontza sozial, intelektual eta politikoaren lehen zergatia; botere politikoak bermatzen du langileriaren gaineko zapalkuntza. Beraz, ezinbestekoa da giza sistema burgesa aldatzea edo eraistea, hau da, lan tresnak sozializatu behar dira; hau lortzeko, proletalgoak botere politikoa eskuratu behar du; ondoren, gizartearen antolaketa berriak ez du izango menpekotasun ekonomikorik; azkenean, klase bakar bat izango da, langileriarena, librea, berdintasuneko, zintzoa eta azkarra.

Euskal Herriari begira, sozialistek ez zuten sekula aipatzen estatu gabeko nazionalitateei buruz Europan eztabaidatzen ari zena. Hor zeuden Karl Renner eta Otto Bauer autonomia defendatzen; nazioarteko VIII. Biltzar Sozialistan, 1910ean Copenhagen, sozialista txekiarrek eztabaida bizia izan zuten Austriarekiko askatasuna lortzeko arazo nazionalengatik; Ezohiko Nazioarteko Biltzar Sozialistak, Basilean 1912n, Albania eta Serbiaren askatasunaren aldeko erabakia hartu zuen; Leninek jadanik 1913an herrien autodeterminazioa defendatu zuen. Ez PSOEk, ez Euskal Herriko buruzagi sozialistek, ez zuten ulertu abertzaletasuna; topikoz beterik, ez zuten ulertu abertzaletasunaren aldeko burrukaren balio demokratikoa.

* * * * *

Iraultza frantzesaren ondoren, Mendebaldeko Europako estatuak behin-betiko kokatzen dira estatu-nazioa izateko bidean; hau da, industriaren iraultza eta nazio iraultza burutu behar zuten. Bilakaera hori ekonomia, politika eta kulturara heltzen da eta gizarte osoak parte hartzen du. Gaur egungo estatuetak nazionalismoak orduan agertzen dira. Estatu-nazioaren helburuak eskuratzeko ezinbestekoa zen eraketa demokratiko liberala ezartzea, eta estatuaren lurralde osoan merkatura izatea, hau da, merkatu nazionala. Honekin batera, kultura liberala gizarteratzea beharrezkoa zen; alegia, hiritar guztiek uste bera izan

behar zuten, hau da, hizkuntza, historia, artea, literatura bera zituztela eta komunitate kultural bereko partaideak zirela. Ez zen beharrezko etnia, kultura edo historia bera izatea. Nahikoa zen botere politiko eta ekonomikoa behar zuten sineste berriak onartzea eta ikusmolde zahar-
rak alboratzea. Espainiako nazionalismo liberala sortzen da XIX. mende-
dean. Politikoki esan daiteke Canovasen Konstituzioarekin hasten
dela, ekonomikoki XIX. eta XX. mendeetako industrializazioaren
arogan gorpuzten da, baina kulturalki XX. mendeko lehen hamarkade-
tan indabitzen da. Errestaurazio-sistema urratzen ari zen XX. mendea-
ren hasieran. Industria inguruan sortutako erdiko klaseek, langileria-
ren aldeko erakundeek, estatu barruan piztutako ziren nazionalismo
ezofizialek hausten zituzten Errestaurazioak bultzatu zituen indarrak
eta, era berean, hauen boterearen monopolioa agortu eta ideologia
ahitzen zituen. Ezinbestekoa zen benetako kultura liberala bultzatzea.
Lan honetan parte hartu zuten “erregenerazionistek”, Ganivetek, Una-
munok, modernismoaren belaunaldiak, Menendez Pidak, 98koek,
Ortega y Gassetek, 27ko belaunaldikoek, Artetak, Zuloagak, Rego-
yosek, II. Errepublika erori zen arte. Intelektual hauek Espainiako kri-
siaren izaeraz, arrazioiez eta ondorioez hausnartu zuten. Era horretan
Espainiako ikusmolde berriak, ideologia berria, edo estatu-nazioari ze-
gokion nazionalismo liberalaren mentalitate nazionala sortu zuten, baita
gizarteratu ere. Hau literatura, saiakera, egunkari eta aldizkari kultu-
ralen bidez bideratu zuten eta garrantzi handia izango zuen zenbait
erakunderi esker, hemen sartuz besteak beste, Madrilgo Ateneoa,
unibertsitateak, “Institución Libre de Enseñanza” eta “Centro de Es-
tudios Históricos”.

Baina bazegoen Espainian nazionalismoaren beste adar bat ere,
estatuaren sakralizatzearekin zer ikusia zuena. Honek estatu-nazio kle-
rikala, dinastikoa, iraultzaurrekoa defendatzen zuen eta espainoltasuna
sakralizatzen, beraz, politika, ekonomia eta kultura ebanjelioaren ara-
bera eraman behar ziren. Hauen ustez liberalismoa, bekatua zen eta
ezinezkoa zen ezein adostasunik. Erreferentea Antzinako Erregimena
mitikotua zen eta ustezko tradizio espainolean sustraitua zegoen, edota
fede katolikoa eta Espainiako izaera gauza bera ziren. Egiazki pentsa-
kera hori ez zen espainola, baizik eta Ilustrazioaren kontra Europako
tradiziozko pentsakeraren modu bat, Antzinako Erregimenaren aldeko
talde boteretsu batzuek defenditzen zutena; gero erabili zuten XIX.
mendearen hasieran demokraziaren eta Cadizko borteen kontra eta Fer-
nando VII.aren absolutismoaren alde. Honekin bat zetozen monarkia

eztazerakoan gerra galdu ondoren parte hartu gabe baztertuak gelditu zirenak, baina 1936n gerra zibilean burrukatzeko aukera ez zuten utzi nahi pasatzen.

Espainiako nazionalismo liberala antolatzen ari zen bitartean, Hego Euskal Herriari euskal abertzaletasuna sortu zen Sabino Aranaren eskutik XIX. mendearan bukaeran. Sabino Arana oso lotua zegoen orduko karlisten pentsamendu erlijiozale eta foralistari; bere ideia askatzaileak dagoeneko beste batzuek adieraziak zituzten, besteen artean, XVIII. mendean Laramendi jesuitak, eta Agustin Chahok lehen gerrate karlista garaian. Sabino Aranaren berezitasuna beste zerbaitetan zegoen. Bere ideiak, arrazoi konplexu eta zehatzengatik, arrakasta izan zuen, hau da, Euskal Herriko biztanle kopuru garrantzitsu batek komunitate bateko parte-hartzaileak izatearen kontzientzia hartu zuen, gu izatearen kontzientzia, eta berezko proiektu politikoa izatearena; eta bere jarraitzaileek gero eta eragin handiagoa izan zuten gerrate zibila ailegatu arte. Gainera, Sabino Aranak antolatu zuen askatzailea zen proiektu hura aurrera eramateko modua, alderdi politikoa antolatu zuen, Eusko Alderdi Jeltzalea. Orduz geroztik, abertzaletasunak eskaintzen zuen oinarri berri bat Euskal Herriari buruzko politika, ekonomia, kultura eta gizarte bizitza ikusteko, dagoeneko subiranotasunaren kodean. Epe laburrera bertan behera utziko ditu erregionalismoa eta foralismoa, Espainiako estatu-nazioarekin bat egiten zuen ikuspegia. Abertzaletasunak, giro hiritar eta industrial baten interes eta garapenarekin loturiko klase modernoek bidez, euskal izaera etniko-kulturala jasotzen zuen. Zentzu ezberdina emanez, sineskera eta sinboloak eskaini zituen, lau lurralde historiko foraletan banatu, ofizialarekiko ezberdina zen komunitate zentzua biztanleei eskaini zien eta instituzionalizatzeko politikarako proiektua, bere mugen barruan euskal estatu nazionala izango zena proposatu zuen. Ekimen hau “Euzkadi da euskaldunen aberrian” laburtuta, euskal herritarren kopuru handi batek barneratu zuen. Honela, ondorenean, abertzaletasunak euskaldunen historia zurgatuko zuen, eta, hein handi batean, Espainiako estatuari atxikitako arazoetako bat izango zen; izan ere, estatu hau itxura irmo baten azpian, nazio periferikoen abertzaletasunaren aurrean, sistema ambiguo eta ahula zela argi azaldu zen. Espainiako estatu-nazioren nazionalismo liberalak egiten zuen bezala, abertzaletasunak ere herriarren historia berreraiki zuen, mitoak interpretatu zituen, euskaldunen jarrera sublimatu, eraikuntza sozialak esentzializatu, ikurrina sortu zuen, ereserkia, euskal geografia markatu, autoritate zentrala eta gune

sakratu bat ezarri zuen, erlijioa eta demokraziaren antzeko sentimendu sozialak esentzializatu zituen, folklorea, antropologia, herri mailako ekintza, mendia eta kantagintzaren gisakoak indartu zituen, euskal hizkuntza eta honen irakaspenari funtsezko pisua eman zion, euskal unibertsitatearen alde egin zuen; hain zuzen ere, identitate kolektiboa eta estatu-nazio ofizialarekiko nazio ezberdin bat lortu nahi zuen. Azken batean, estatu zentralarekiko ezberdina zen arrazionaltasun ezberdin bat sortu zuen.

Mugimendu politiko sozial honekin batera bultzatu zen euskal kultura. Euskal hizkuntza ez zegoen prestaturik bizimodu kaletar eta modernoetarako; bestalde, esentzialimo, ustezko arrazionalismo eta moralismoaren joerak sortu ziren hizkuntzaren inguruan. Hala ere, hau guztia gauditua izan zen eta euskal kulturak ordura arte ezagutu ez zuen berpizkundera lortu zuen. Lan zientifiko eta itzelaren bidez nortasun handiko intelektuaren belaunaldi bat sortu zen. Parte-hartzaileak izan ziren, besteak beste, Azkue, Kanpion, Barandiaran, Arantzadi, Eguren, Lekuona, Ariztimuño, Urkijo, Onaindia, Mujika, Ormaetxea, Erkiaga, Lizardi, Guridi, Donostia, Sorozabal, Usandizaga, Zubiaurre, Arrue, Tellaetxe, Maeztu, Arteta. Era berean, sortu ziren euskal kulturarako garrantzi handia izango zuten erakundeak eta aldizkariak ere, besteak beste: *Eusko Ikaskuntza*, *Euskaltzaindia*, *RIEV*, *Euskal Esnalea*, *Euskalerrriaren Alde*. Hau guztia euskal kultura nazionala suspertzea eta eraikitzea helburu zuen osotasun baten barnean kokatua zegoen. Gerra zibilaren ondoren, errotik moztu zuten eta ia desagertu zen. Horren ordez “nazional katolizismoa” deritzanaren kultura ezarri zuten.

* * * * *

XIX. eta XX. mendeetan zientzien eta teknikaren aurrerapenak harrigarriak izan ziren. Honekin batera, galdera filosofiko batzuk berriro ziren, gizakien jatorria edo materiaren irautea eta jatorria, eta, honen ondorioz, zientzien eta fedearen arteko zerikusia, kasu. Eliza katolikoak dogmatikoki ezkor jokatu zuen jakintzek sortzen zituzten arazoaren aurrean, esateko *Syllabus* enziklikan eta Vatikanoko II. kontzilioan. Hala ere, azken ahalegin hauek alferrikoak izan ziren modernitate eta industrializatzearen aurrean. Jakintzen eta tekniken aurrerapausoek lilura eta jakinmina eragiten zuten gehienbat. Liberalismoaren filosofiarri jarraituz, arrazoari eta askatasunari esker gizateria aro berri, orekatu eta aurrerakoi baterantz zihoan. Honela, Europa guztian bezala,

zientzia positiboen arrazionaltasunaren aldeko joera, Espainiako estatu osora zabaldu zen, eta positibismoa sortu zen eta, honekin batera, darwinismoa, termodinamikaren, entropiaren arazoak edo materiari eta gizakiaren jatorriari buruzkoak, besteak beste. Honekin batera, Darwinen idazlanak itzuli zituzten; zientzia esperimentalak eta jakituria zientifikoa bultzatzeko sortu ziren elkarteak; irakaskuntza eta argitalpen alorretan ere gai hauek indarra hartu zuten.

Hego Euskal Herrian ere, XX. mendearen hasieran, zientzien aurrerapena eta teknologiaren garapena arrakasta handiko gaiak ziren. Batez ere, liberalen, sozialisten eta euskal kulturaren inguruan zebiltzenen artean. Batzuek materialismoari buruz zuten interesa; besteak pentsamendu askatasunaren alde zeuden; azken hauek euskal ikerlanak, urrats prezientifikoak gaintuz gero, mahai zientifikora eraman nahi zituzten. Denak ziur zeuden zientziaren garapena oso lagungarria izango zela gizateriaren onerako, askatasunerako eta aurrerabiderako.

Baina, zientziak teorikoki ideologietatik eta grinetik libre egon beharrekoak badira ere, esan behar da, zenbaitetan zientziaren ordez ideologiak lehentasuna hartzen zuela. Orduan zientzien arrazionaltasunaren gorespenak zeraman gehiegizko ondorioetara, adibidez, unibertsoko igarkizunei irtenbide errazak ematera; edo Ernst Haeckelen modura, monismo naturalista onartzera; eta, Marx eta Engelsen eraginez, sozialismoa zientzien artean kokatzera; edo, Schopenhauer eta Bergson nahastuz, Carnot eta Clausiusekin, gertakari biologi-psiki-koak eta termodinamikarenak homogeneotzat hartzera; eta abar. Hogeigarren hasierako hiru hamarkadetan izan zen zientziaren gain fedea, gero, denborak aurrera egin ahala, fedea eszeptizismo bihurtzeko da.

* * * * *

Hego Euskal Herrian egindako bide azkar honetan, giza talde, erakunde edo alderdi politikoen jarrera bakoitzak, bere ideologiaren arabera eraikiz zihoan heinean, gizartearen antolatzea edo bideratzea ildo desberdinetatik zeraman; errealitatea modu desberdinean ikusten zen. Honela, joan zen Hego Euskal Herria errealitate konplexua zen. Egia bada gizarte guztiak anitzak direla, orduko euskal gizartea behin-behinekoa zen; bere baitan Euskal Herria antolatzeko zeuden asmoak elkarren aurka zeuden, zenbaitetan antagonikoak ziren. Herri honen egituraketak lortu gabe jarraitzen du oraindik ere, eta hau erbestera-tutakoek berekin eroan zuten Ameriketara.

ANDIMA IBINAGABEITIA AMERIKETAN

GORKA AULESTIA

Euskaldunak arrazoi politikoengatik sarritan alde egitera behartuta egon dira. Esate baterako, Frantziako Iraultzan (1789), bi gerra karlistetan (1833-1839, 1872-1876) eta M. Primo de Riveraren diktaduran askok erbestera jo behar izan zuten. Baina iraupena (40 urte) eta joandakoen kopurua direla-eta (100.000 pertsona baino gehiago), Espainiako gerra zibilak eragindako exilioa krudelena izan zen. Euskal Herritik arrazoi politikoek bultzatuta irten ziren pertsona talde handiek batez ere Latinamerika izan zuten helburu: Mexiko, Argentina, Uruguai, Dominikar Errepublika, Venezuela, Guatemala, e.a. Hemen aurkeztu nahi dugun pertsonaiak azkenengo bi nazio hauetan lan egin zuten. Berau Andima Ibinagabeitia idazle bizkaitarra dugu.

Andima Ibinagabeitia Elantxoben 1907ko urtarrilaren 26an jaio zen. Galok, bere aitak, Sabino Aranarekin izandako adiskidetasunaren oroitzapenak (gainera Bilboko Larrinaga espetxean elkarrekin egon ziren) Andima umearen bizitza markatu zuen. Jesuiten zenbait komentutan ikasle emaniko urteetan euskararenganako eta Euskal Herriarenganako bere maitasuna handituz joan zen, batik bat Jokin Zaitegi, Pl. Múgica eta Lauaxeta bezalako lagunen adiskidetasunari esker. Apaizteko gutxi falta zitzaionean, Marneffen (Belgika) bizi zela, 1935ean Jesusen Konpainia utzi egin zuen eta “Explosivos de Galdácano” lantegian bulegari sartu zen. Trafarian (Portugal) enpresa bizkaitar horrenztat lanean ari zela, gerra zibila hasi zen. Berau amaituta, 1943an Bilbora itzuli ahal izan zen eta Eusko Jaurlaritzaren eta aliatuen zerbitzuan

klandestinitatean parte aktiboa hartu zuen. Polizia frankistak atxilotzeko zorian zegoelarik, 1947an Parisera alde egin ahal izan zuen, non bere atzerrialdiaren lehenengo zatia bizi izan baitzuen: guztira zazpi urte emankor (1947-1954) berarentzat eta euskal kulturarentzat.

Artikulu labor honetan Guatemala (1954-1956) eta Venezuelako (1956-1967) egonaldi luzean idazle bizkaitar honek egindako bizi-tza eta lana deskribatzen saiatuko naiz. Horretarako bere gutunak oinarritzat hartuko ditut, alde batetik Patri Urkizu irakasleak 2.000n editatu eta *Susa* argitaletxeak argitaratutako *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967* liburuan agertzen direnak eta, bestetik, Txomin Peillenen hamalau gutun argitaratugabeak eta P. Suduperen *Andimaren idazlan hautatuak* (1999) liburua.

Guatemalako egonaldia

A.Ibinagabeitia Frantziako Le Havre-ko portutik 1954ko otsailaren 21ean Guatemalarantz abiatu zen. J. Zaitegi adiskideari idatzitako gutun batean irteera ordua bera ere adierazi zion:

“Gaur, goizeko amaiketan aterako gera kai ontatik” (156).

Itsasontziko bidaia ordu luzeetan A. Ibinagabeitiak denbora atsenden hartzeko erabili zuen, baina lana guztiz baztertu gabe. Hain zuzen, idazle bizkaitar honen kualitatetik aipagarrienetako bat beti lanerako gogoia izan zen. Berak adierazten duenez, Virgilioren *Bukolikak* obra itzultzen gogotsu aritu zen eta beraietako bost bukatu zituen. Aldi berean, bere buruari agindu zion Guatemalara heldu aurretik beste bostak bukatuko zituela. Eta hala gertatu zen. Bidaia lasai bateko 18 egunetan liburu horren itzulpena amaitu ahal izan zuen:

“Nola nai ere Bergiliren Bukolikai ekin diet, eta bortz itzuli ditut, ez ain gaizki ere. Lantxo au orra baino len burutu nai nuke, beste bostak bukatuaz” (157).

1954ko apirilaren 27an Parisen bizi zen J. Mirande adiskideari J. Zaitegik zuzendutako *Euzko-Gogoa* aldizkarian egiten zuen lanaren berri eman zion. Aldizkaria oso atzeratuta zegoela iruditu zitzaion J. Zaitegiren zeregin ugariengatik (San Carlos unibertsitateko greko eta latin ikastaroak eta Landibar lizeoaren fundazioa) eta Orixek, sei hila-betez *Euzko-Gogoa*-n kolaboratu ondoren, alde egin zuelako. Guate-

malan emandako bi urteetan A. Ibinagabeitiak, aldizkariaren ardura hartzeaz gain, bere lanetariko asko argitaratu zuen: aipamenak, artikulak, saiakerak, itzulpenak eta kritika literarioa. Horietan guztietan euskaraz ondo zekiela eta idazkera ederra zuela erakutsi zuen.

Euzko-Gogoa Guatemalako hiriburuan 1950ean sortu eta 1955ean Miarritzera aldatu zen, non 1956tik 1959ra argitaratu baitzen. Zalan-tzarik gabe, Buenos Airesko *Ekin* argitaletxearekin batera, euskal atzerriko kultura errealitaterik garrantzitsuena izan zen. Espaniako gerra zibilaren ostean euskaraz idatzitako lehenengo aldizkari kulturala izan genuen. Bere ia 4.000 orrialdeek bereziki euskal literaturaren gaiak (antzerkia, kritika literarioa, narratiba, poesia), hizkuntzalaritza, historia, filosofia, psikologia, erlijioa, arte ederrak eta natur zientziak jorratu zituzten. Gainera, atzerriko euskal idazleentzat eta Euskal Herriko belaunaldi berrientzat plataforma izan zen.

I. López Mendizabali (*Ekin* argitaletxearen zuzendarikidea) 1954an igorritako gutun batean adierazi zion Francoren diktadura zela-eta zein garrantzitsua zen Euskal Herri penintsularrean *Euzko-Gogoa* argitaratu eta banatzea eta, halaber, hori egiteak zenbat arrisku zekarren berarekin. Idazle tradizionalak eta erlijiosoak (Orixe, A. Labayen, M. Lekuona, S. Onaindia, S. Mitxelena, e.a.) eta F. Krutwig, J. Mirande, Txillardegi eta G. Aresti bezalako agnostikoak, ateoak eta apurtzaileak euskal kulturaren sostengua ziren eta aldizkaria hor zegoen transmisio uhal moduan. Horregatik, zailtasun guztien gainetik, egiten zitzaion harrera ona ikustea atsegingarri zuen:

“Dakizunez, *Euzko-Gogoaren* inguruan, euskal idazle bikainak bildu dira eta orok gerturik daude gure inguruan jo ta ke jarraitzeko. Baita ere gure aldizkariak arrerarik onena ukan du Euskadi barnean [...]. Ez dakizu zer nolako idazki beroak igorri dizkiguten gure lanean aurrera jarraitzeko eskatuz. Eta guk ez ditugu inoiz ere gure euskaldunak bertanbera utziko, ez orixe. Oraingo ontan, politika bideak ertsi-rik dauden ezkerro, euskera beste biderik ez daukagu Euskadiri berean iraun-eratzeko” (162).

A. Ibinagabeitiaren tankera irekia agerian geratzen da *Euzko-Gogoa*-n J. Mirande eta F. Krutwig bezalako idazle agnostiko eta nihilisten artikulu batzuk argitaratzeko onartu zituelako. Orixe adiskideak behin baino gehiagotan horren kontrako iritzia azaldu zuen arren, Elantxobeko idazleak argitaratzen jarraitu zuen. Eta are gehiago, batzuetan bere

ikuspuntuak ez datoz aldizkariaren sortzailea izan zen J. Zaitegirenekin bat:

“Zarathustrak beldur aundia ematen dio Zaitegiri, niri ez” (163).

Federico Nietzsche, *Zarathustra hala mintzatu zen* obraren egilea, 1900ean hila, XX. mendean katoliko tradizionalisten aldetik gaitzespen gehien jaso duen idazleatariko bat da. Arrazoiak honako hauek ditugu: bere antiteismo erradikala, nihilismo ateo, kristautasunaren kontrako sumindura, Nazaretheko Jesusen moralaren kontrako erabateko gaitzespena, supergizonaren alde zegoen eta eliza katolikoak predikatutako “artalde moralaren” aurka indarraren eta ankerkeriaren moralak jartzten zuen. Bere irakurleetako askok, erradikaltasunak eta lengoaia erakargarriak liluratuta, Jainkoarenganako eta balore kristau tradizionalenganako sinesmena utzi egin zuten. Hori ez zen A. Ibinagabeitiaren kasua izan, zeren bere erlijio sinesmenei sendo eutsi baitzien. Dena den, Vatikanoren eta Espainiako elizaren kontrako iritziak izan zituen Francoren erregimenaren alde eta Euskal Herriaren kontra azaldu zirelako. Elizaren sortzailearen mezuarekiko “traizioaren doktrina”, F. Nietzschek aldarrikatua, zati batean behinik behin, gure idazle bizkaitarrak onartu egin zuen haren nihilismoarekin izutu gabe.

A. Ibinagabeitiaren tankera irekia oso zabala zen. Horren adierazgarri dugu Euskal Herrian inork ez zuela J. Miranderen idazlanik onartzen (ezta *Egan* aldizkarian Koldo Mitxilenak ere) beren eduki erotikoa, pagano edo kristauen kontrakoa izategatik; gure idazle bizkaitarrak, ordea, bere adiskide paristarrari *Euzko-Gogoa*-n argitaratzeko artikuluak eskatzen zizkion. Horrez gain, *Haur besoetakoa* nobelaren argitalpena egiteko dirua biltzeko ere prest azaldu zen. Azkenean, nobela egin zuenetik 12 urte igaro ondoren, G. Arestiren arretari esker, 1970ean argia ikusi zuen:

“Euskal eta Europar paganismoari buruzko ikerlana ere betor [...]. Poemak zer esanik ere ez. Idazkinaren zain ez egon eta igor lenbailen” (164).

Euzko-Gogoa hain tamaina handiko aldizkaria zenez, berarekin era askotako zailtasunak zeramatzan: lan, administrazio eta ekonomia arlokoak, pertsonalak, e.a. Lehendabizi, aldizkaria maila gorenean eta zuzentasunez argitaratzeko sortzen ziren oztopoak zeuden. A. Ibinagabeitiaren espiritu kritiko eta perfekzionista zela-eta, ez da harritzekoa J. Mirande eta N. Etxaniz adiskideei eginkizun horren nekeak aitortzea.

“A zer nolako burrukak ditudan utsik gabe aldizkaria ateratzeko” (170).

“Aldizkaria bear bezala ateratzea ez da txantxetako gauza, eta lanak ematen ditu eta aundiak alajaina!” (176).

Lan zailtasunen artean *Euzko-Gogoa*-ren mailako argitalpenak eskatzen duen erritmora egokitu gabeko langile batzuekiko harreman pertsonalak zeuden. Baina A. Ibinagabeitia irmotasunez eta gogoz eragozpenik handienak gainditzeko gai izan zen:

“Izugarrizko oztopoak garaitu bearrik arkitzen gera aldizkaria ateratzeko, irarkolako langileak dirala-ta. Gu baino motelagoek berlanbera utziko zuten. Lenago lertu, ordea, ilten utzi baino” (174).

Guatemalako poliziak sortutako eragozpenak ere ez ziren falta izan, zeren *Euzko-Gogoa*-ren ibilbide ona ikuskatu eta oztopatu nahi baitzuen. 1954-VIII-25ean N. Etxanizi zuzendutako gutun batean Guatemalako agintariek egindako kontrolaz kezatu egin zen:

“Gainera, ertzainak ibili zitzaizkigun irarkolan, eta arkitu zituten paper guztiak, orijinalak alegia, gureak eta besterenak ere, eraman zituten, eta ezin izan ditugu inola ere eskuratu” (168).

A. Ibinagabeitiak bi urtez, 1950ean hasita, *Euzko-Gogoa*-ren zuzendaritzan eta erredakzioan parte aktiboa hartzeaz gain, artikulu ugari idatzi zuen, beti ere euskararen alde, batzuetan Euskal Herriko idazle gazteak animatzeko eta beste batzuetan euskal elizbarrutiak artezten zituen hierarkia eklesiastikoaren euskaldunen kontrako jarrera gaitzes-teko. A. Ibinagabeitia *Euzko-Gogoa*-ren garrantziaz jabetuta zegoen, Euskal Herrian egiten zitzaion harrera ona zela-eta. Koldo Mitxelena (*Egan* aldizkariaren zuzendaria) Erreterian 1954ko irailaren 12an idatzitako gutun batean honako hau irakur daiteke:

“Zuen aldizkaria eta han agertzen dituzuten lan ederrak, berandu bedere, gogor irakurtzen ditut. Nik esan bearrik eztuzute noski, lan bikaina egiten ari zeratela jakiteko. Euskal gaietan inoiz egin denik ederrena, nik derizkiodanez” (171).

Euzko-Gogoa aldizkaria Euskal Herrira isilpean heltzen zen, politzia frankistaren kontrolak saihestuz. Etorkizun hobea eskuratzeko aire berri eta itxaropen bolada bat izan zen, batez ere euskal idazle gazteentzat. Andimak hori bazekien eta euskal literatura berria sortzen

jarraitzeko bultzatzen zituen. Euskara batua zela-eta, J. Mirande, G. Aresti eta Txillardegirekin zituen desadostasunek ez zioten gazteongan euskararen eta euskal literaturaren etorkizuna ikustea galarazi. A. Ibinagabeitia R.M. Azkuek proposatutako gipuzkera osatuaren aldekoa zen eta ez zegoen euskara batzeko ahaleginen aurka; dena den, bereziki F. Krutwigen berrikuntza ahaleginekin ez zetorren bat. Berarentzat desadostasun horiek edo beste ideologiko batzuek G. Aresti eta Jose Luis Alvarez, “Txilladergi”, bezalako euskal idazle gazteak animatzeko sekula ez ziren oztopo izan. Alfonso Irigoieni 1954ko azaroaren 16an zuzendutako gutun batean honako hau dio:

“Aresti olerkari gaztearen poemak atsegin bitsetan irakurri ditut [...]. Gazteak bear ditugu euskal arloan, bestela zarrok suntsitzen geranean euskerarenak betiko egingo du. Euskaltzaindik ere gazteen eskuartean bear luke, kemen ta gogo berri bat txertatuko dien gazte azkarren eskuartean, ez zarrakituen esku dardaritsuetan” (174).

Urte batzuk geroago, 1957an, Txillardegi gaztearen nobela berria zela-eta, ostera ere bere izakera irekia erakutsi zuen. Orixe adiskideak ez zituen ez nobela hau ez *Peru Leartzako* (1960) onartzen, eta haren iritziaren kontra A. Ibinagabeitiaren ustez Txillardegiren obra oso garrantzitsua zen aro berria irekitzen baitzuen idazle gazte falta handia zuen euskal literaturarentzat. J.P. Sartre, S. Kierkegaard eta M. de Unamuno bezalako idazleen existentzialismoak eta agnostizismoak, hain zuzen, Txillardegiren lehenengo bi nobelek oinarritzat hartutakoak, ez zuten A. Ibinagabeitiaren harrera beroa galarazi. J. Miranderi 1957-XII-12an zuzentutako gutun batean honela dio:

“Irakurria duzu or nunbait, *Leturiaren Egunkari Ezkutua*. Txalo andiak jo dizkiot egileari ene kritika-bideari jarraituz” (213).

Gai berari buruz, L. Michelenak hitzaurreko hitzak bere eginez, *Euzko-Gogoa*-n (V-VI, 1957, 111-113) ere honako hau irakur daiteke:

“Paketean zetozen beste liburuak aldebat utzita, Txillardegirenari ekin diot, gogoz ekin ere [...]. Ongi etorri, Txillardegi, gure soro mear ontara, hitzaurregilearekin mintzatzeko [...]. Gaiñera zu bezelako langille azkarren bear-gorrian arkitzen da gure baratzatxo au”.

Batzuetan, A. Ibinagabeitiak Guatemalatik euskararen inguruan Euskal Herrian gertatutako albiste tristek jaso egiten zituen. 1950ean Gasteizko elizbarruti zaharretik beste bi euskal elizbarruti sortu ziren:

Bilbo eta Donostiakoa. Eta Gasteizko elizbarruti zaharrek azkenengo apezpikua, Carmelo Ballester Nieto Mons., hil ondoren hiru apezpiku berri izendatuak izan ziren: José M^a Bueno Mons. (Gasteiz), Jaime Font Andreu (Donostia) eta Casimiro Morcillo (Bilbo). Hiruron arteko loturak asko baziren ere, bi nabariak ziren: Francorenganako begikotasuna eta euskararenganako maitasun eskasa. Donostiako apezpikuak, katalana izan arren (sarritan bere hizkuntzaz mintzatzen zen), euskal apaizei ez zien bere aurrean euskaraz hitz egiten uzten. A. Ibinagabeitiak, oso jarrera erlijiosoa izanda ere, baina halaber kritikoa, artzain honen jokabidea gaitzetsi egin zuen eta apezpiku aulkia betetzera Jainkoak bidal zezakeen gotzainik ergelentzat jo zuen:

“Jainkoak gotzai-alkian exeri-araz zezakean gotzairik ergelena Font ori duzu” (142).

Bilboko lehenengo apezpikua, Casimiro Morcillo madrildarra, geroago Zaragozako eta Madrilgo artzapezpikua izango zena, A. Ibinagabeitiaren erasoan jopuntua ere bada, euskaldunen kontrako jarrera izateagatik ume euskaldunak dotrina gaztelaniaz ikastera behartzen baitzituen. Bilbotik zetozen albisteak kontuan hartuta, idazle bizkaitarrak *Euzko-Gogoa*-n (1954, 11-12, 191-193) “...Euskera urkatzen!” izenburua zuen artikulua idatzi zuen. Izenburu osoak “Eliz Ama euskera urkatzen” izan behar zuen, baina egileak lehenengo bi hitzak kendu zituen bere barneko drama erakutsiz. Alde batetik, kristau zintzo eta praktikatzailea zenez, eliza maite zuen, baina bestetik Gerra Zibilean euskaldunen kontra elizak izandako jarrera gaitzesten zuen. A. Ibinagabeitiaren aburuz, gogoz kontra bazen ere, eliza ama izan beharrean, amaizuna da:

“Idaz-buru onek bi itz guren bear zitukean aitzinean: Eliz Ama [...]. Eliz Ama begikoen behar litzaiguke, maiteen. Baiñan Ama amorde gaizto billakaturik ikustean, neke da egizko amari bezelako maitasun aratz eta semekoia erakustea [...]. Eta egia esan, egun gure Bizkai ederretik jaso ditudan berri saminañak ez dira bat ere eliz-ama duenarekiko maitasun itsua pizkortzekoak, ez alaiainkoa [...]. Munduak entzungo al du Bizkai saminduak darion oiuhatz au; entzungo al du urkabetik zintzilik daukaten gure aberri-izkeraren erioasperen hau”.

1955. urtearen erdialdera, Landibar lizeoan latin irakasle eta *Euzko-Gogoa* aldizkaria zuzentzen lanean buru-belarri jardun eta gero,

nekatuta sentitzen zen, eta atzerrian hamar urte eman ondoren Guatemalako egonaldia bukatzera zihoala somatzen zuen. Ordurako J. Zaitegi Euskal Herrira (Miarritz) joana zen eta aldizkariaren amaiera, Ameriketara behintzat, heldu zen. Pariseko 7 urteko atzerrialdia gure bizkaitarraren bizitzan gogorra izan zen, baina han etxeokak mugan eta Iparraldean ikusteko aukera izaten zuen. Koldo Mitxelenari idatzitako gutun batean euskal kulturaren alde lan egitea ere galarazten zion bakardade sentimendu hau adierazi zuen:

“Beti bezela ari naiz ni, jeiki ta erori, erori ta jeiki. Auxe: atzerriko lorra geroago ta astunago gertatzen ari zaitala. Amar urte laster zama akigarri au bizkargainean daramala. Arinagoa egiten zitzaidan Parisen Euskalerriko aizeak urbilago izaki, emen aldiz, gero ta pixuago. Burmuina ere elkortzen ari zait, luma nagitzen, biotza zainiltzen. Onenak eman ditudala deritzat, inoiz onik eman baldin badut” (180).

Hiru egun geroago antzeko sentimenduei eutsi zien N. Etxaniz, “Amilaitz”, lagun min eta apaiz azkoitiarrari idatzitako gutun batean. Euskara aberats eta adierazkor batean eta konparazioz beteriko estilo literario errealista batez, A. Ibinagabeitiak, hartutako mandatuarekin bete gabe eta neka-neka eginda, bere sentimendurik ezkutuenak adierazi zizkion. Guatemala betiko utzi baino lehen burutzeko zenbait egiteko geratzen zitzaizkion:

“Nereak egin du! Bakardade gorri ontan ito bearrean arkitzen naiz deusetarako ere kemenik gabe nago, idaztea ere neke egiten zait; nere burua adarra baino elkorrago dago ezer erretzeko gai ez dala: zartzaroaren zantzu ondagarri guztiak nere izate osoan nabaitzen ditut. Nere mixioa bukatu dala uste, mixiorik inoiz ukan balin badut, eta obe dut betiko bazterreratu. Egun ori ere, Amilaitz, ez dago ain urruti, bainan ixilik konplitu nai ditut nere asmoak oso, barreia gabe, inori ezer esateke itxaso zakarrean ondatzen dan itsasontzi ezpaldua bezelatsu” (181).

J. Zaitegik bere adiskideari emandako eta *Euzko-Gogoa*-ri loturiko zeregin horien artean, batez ere, aldizkaria ixteak sortarazten zituen arazo burokratikoak eta administratiboak zeuden. Gipuzkoarra Euskal Herrira itzulia zen eta bizkaitarrak, kontuen azken balantzea egiteko orduan haren zuzentasuna zela-eta, xehetasunik txikienen berri ere adierazi zion.

“Ondo dakit diru kontuetan garbizale zerana. Ni ere bai” (182).

Guatemalatik 1955eko abenduaren 23an J. Zaitegiri idatzitako azkenengo gutunetako batean, biok aldizkariaren alde beren bizitzaren onena eman eta gero, A. Ibinagabeitiak itxiera ofiziala jakinarazi zion. Halaber, zorte ona opa izan zion *Euzko-Gogoa* Euskal Herrian ager zedin, hain zuzen, geroago Miarritzen hala gertatu zen.

“Eta orra *Euzko-Gogoa* emen bukatu! Agertuko ote da or nun-bait, zuen artean edo?” (184)

Lehenengo zatia bukatzeko (hau da, Guatemalan emandako bi urteetan, 1954-1956, A. Ibinagabeitiak egin zuen lanari eskainia) *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaraturikoa labur bilduko dut. Amerikara iritsi aurretik Elantxobeko idazlea aldizkariko idazlea izan zen, hura 1950ean sortu zenetik. Urte horretatik 1954ko otsaila arte, hots, Guatemalako hiriburura heldu zen arte, 50 artikulua baino gehiago argitaratu zuen. Han egindakoak 12 dira, eta haietariko batzuk liburu baten atalak zirela argitaratuak izan ziren. Adibidez, Birgili´ren idazlanak osorik (1966) obran Virgilioren Bukolikak eta Georgikak lanen itzulpenak agertzen dira (S. Onaindia adiskideak egindako Eneidaren itzulpenarekin batera). J.M. Barandiaranen Euskal Mitologia liburua ere euskaratu zuen. Gainera aipatzekoa da Guatemalatik BIAEV, *Euzkadi*, *Euzko Deya*, *Euzko Gaztedi*, *Gernika*, *Karmel*, *Olerti* eta *Zeruko Argia* euskal aldizkarietan maiz kolaboratzen zuela.

Venezuelako egonaldia

Guatemalan *Euzko-Gogoa*-ren inguruko arazoak konpondu ondoren, 1956ko otsailaren erdialdera A. Ibinagabeitia Caracasera heldu zen. Lekualdaketa hau bere bizitzan ere aldaketa handia izan zen. Lan arloan postu finko eta saridun bat utzi zuen eta langabezian sartu zen; arlo sozialean Caracasko Euskal Etxean elkarte handiago bat aurkitu zuen. Han beste atzerriratu batzuk ezagutu ahal izan zituen, esate baterako, Martin Ugalde, Vizente Amezaga eta Toribio Etxeberria. Politika arloari dagokionez, konprometituago agertzen zaigu. Parisetik Guatemalara aldatzeak moldaketa zaila eragin baldin bazuen, berdin gertatu zitzaion Guatemalatik Venezuelara joatean. Orduan A. Ibinagabeitia 50 urteko gizon heldua zen eta euskal kultura eta euskarari buruz

iritzi sendo eta sakonak zituen; horren ondorioz, Caracasen emanda-ko hamaika urteetan nahigabe faltan ez zen egon.

Elantxobeko idazlearen ustez, euskara komunikazio bide egokia izateaz landa, euskaldunon ezaugarriarik nagusiena zen. Euskaldunak estatu espainiarreko gainerako herriengandik bereizten zituena hizkuntza zen eta beronengan zegoen beren berezitasuna. Hortaz, bere ama hizkuntzaren iraupen eta sustapenerako buru-belarri jardun zuen:

“Beraz, herritasun osoa gure Aberrira berriz ere erakarri gura badugu, aberriaren ezaugarri nabariena den gure ele jatorra begiak baino areago zaindu eta aldeztu behar dugu...” (P. Sudupe, *Andimaren Idazlan Hautatua*).

Euskal Etxera joaten ziren euskaldun askok eguneroko harremanetan ez zutela euskaraz egiten ikustean, bihotza estutu egiten zitzaion. Ohitura hori zenbateraino arbuizaten zuen ondoko hitzotan atzeman daiteke:

“Biotz urragarria benetan aberritik landa bizi diran euskoen jokabidea, euskerarekiko batez ere. Emen inun baino euskaldun gehiago izango dira noski, alare ez dut emen baino saieskeri aundiagorik ikusi euskerarekiko. Erderaren itsaz itogarrian murgilduta bizi zaizkigu [...]. Ni Eusko-etxeara ez naiz joaten. Zertako? Obe dut nere etxean euskeraren alde ekin, ez erdal-etxe artan alperkerian astia igatu” (191).

Lehenago adierazi dugunez, Caracasko egonaldi berriaren ondorioz ikus daitekeen aldaketarik nabarmenetako bat euskal arlo politikoan gero eta sartuago dagoela dugu. A. Ibinagabeitia, bere familia giroaren eraginez, beti abertzale sabindar sentitu zen. Euskal abertzaletasuna eta euskara idazle bizkaitar honen bizitzaren bi ardatzak dira. Guatemalako egonaldian euskara eta euskal literatura, *Euzko-Gogoa* aldizkariaren bitartez, nagusi izan bazituen, orduetik aurrera politika izango du erakargarri, *Irrintzi* eta *Eman* bere aldizkarietako artikulugarietan egiazta daitekenez:

“Ni orain, politikan murgilduta ari naiz sortu dugun aldizkari berria dala merio, *Irrintzi*, alegia” (220).

Aldizkari hau soil-soilik Euskadi euskaldunen aberria dela pentsatzen zuten euskal idazle guztientzat zegoen zabalik, beren erlijio sinesmena kontuan hartu gabe. Kasu honetan, antzeman daitekeenez,

A. Ibinagabeitiarentzat Sabinoren “Jaungoikoa eta Lagi zarra” leloaren bigarren zatia betetzen zen:

“Abertzale aldizkari bat besterik ez da izango, Irrintzi, beraz Euzkadi da Euzkotarren Aberria ontzat dadukaten guztiek idatzi leza-kete aldizkari ortan, bat ere Jainkorik dela sinesten ez badute ere. Ori bai Euzkadi dala Euzkotarren Aberria sinistuko ez lukenaren idatz-lanik ez dugu argitaratuko, ots Euzkadi ukatu nai duenik ez dute gure aldizkarian tokirik izango” (222).

Aldizkari abertzale honen bidez idazkera dotorez erakunde eta hur-bileko pertsoneri buruz bere ideiak eta sentimendu kritikoak azaldu zituen. Kasurik gehienetan gaiak honako hauek izan ziren: EAJ; Eusko Jaurlaritza eta lehenengo euskal lehendakaria, Jose A. Agirre adiskidea; Euskaltzaindia; euskal burgesia; eliza katolikoa; Espainia eta Frantzia, e.a.

Horago abertzaletasuna etxe giroan ezagutu zuela esan dugu. Gailo, bere aita, 1903an Sukarrietan (Bizkaia) ehortzitako Sabino Aranaren adiskidea izan zen. A. Ibinagabeitiarentzat (Lizardi eta garai hartako euskal idazle askorentzat bezala) “Abandoko Maisua” bere ideia politikoen oinarria izango da:

“Sabini zor diogu. Euskara oraindik bizi bada ere, Irakasleari zor diogu” (*Andimaren Idazlan Hautatuak*, 274).

“Arana bizi balitz zein bide artuko ote lukean? Gaurko alderdiak daramana ez beintzat eta are gutxiago Jaurlaritzak daroana. Ark idatziak gaur egunean inoiz ez bezelako indarra dute, eta aren bideetatik oldartzen ez geran bitartean ondamendira (goaz) euskotarrok Euzkadirekin batean” (218).

1956an I. Euskal Biltzarra egin eta gero, bere alderdiaren (EAJ) eta Eusko Jaurlaritzaren kontrako kritika gogor eta zorrotzen adierazpenak gehitu zituen, bere ustez, Sabino Aranaren bide independentistatik aldenduta, errepublikazale espaniarrekin ituna egiten saiatzen zirelako:

“Jel-Alderdiari ere jipoi ederrak eman dizkiogu, espaniarrekin paktu inozo ta burugabekoetan naasi delako, jaurlaritzari jarraituz” (222).

J. A. Agirre lehendakaria bera ere, adiskide mina zuen arren, ez zen eraso horietatik salbu geratu. 1959ko martxoko data duen gutun batean (lehendakaria hil baino urtebete lehenagokoa) A. Ibinagabeitiak

abertzaletasuna eta euskaldun askoren askatasun egarria desitxuratu zituen kolaborazionistatzat jotzeko ez zuen zalantzarik izan:

“Gainera Agirrek, abertzaletasuna, au da askatasun naia, lausotu egin du bere jardunakin, bere politika kolaborazionismoz irotutakoakin. Garaia diralako (sic.) agintariak argi mintzo ditezen, espainiprantsezekin ez daukagula bizi-bidea aldegia, independentziaren alde burruka gogor bati ekiteko” (235).

Kultura arloan sarritan, nahiz eta bera euskaltzaina izan, bere kritiken helburua Euskaltzaindia izan zen. A. Ibinagabeitia beti euskara batzearen alde egon zen eta hasieratik R. M. de Azkuek proposatutako “gipuzkera osotua” (gipuzkera gainerako euskalkiekin osotua) aintzat hartu zuen. J. Miranderekin izandako postatrukearen bitartez jakin dugu euskara batua eraikitzeko hain garrantzitsua izan den lapurtera ere gogokoa zuela. Baina, 1956an Arantzazun euskal idazleek izandako bilera baten ondoren, euskara batzeko iritzi kontrajarriak agertzen hasi ziren. A. Ibinagabeitia behin baino gehiagotan euskara batuaren aldeko ziren Txillardegi eta G. Aresti bezelako euskal idazle gazteen literatura modernoaren bultzatzaile azaldu bazen ere (Orixe adiskidearen iritziaren kontra), orduan batze hori sustatzen zuten gazte berri-tzaile horien jarreraren kontra jo zuen:

“Nor dira gizon oriek idazleei mugak ezarteko? Eta gainera izparringietan barreiatu mundu guziaren irrigarri gu jartzeko. Orixe besterik ez genuen bear...«Ni naiz kapitan pilotu... neri bear zait obeditu» [...] noiz suntsiko ote dira gure arteko diktadoreak?” (236).

Gizarte arloan A. Ibinagabeitiak euskal burgesiaren kontra zuzendutako erasoak aipagarriak dira, batez ere euskal kultura sustatzen lagundu ez zuten abertzale aberatsen kontra. Noizean behin, Caracasko Euskal Etxeko euskaldun horiekin elkartzen zenean, errealitate gordin hori hitz gogorrekin azaltzen zuen. Aldi berean, beren egoismotik sortutako axolagabekeriagatik egunen batean merezi zuten zigorra jasoko zutela ohartarazten zituen. Miarritzen *Euzko-Gogoa* aldizkariari eusteko ahaleginetan zegoen J. Zaitegiri idatziriko gutun batean honako hau irakur daiteke:

“Ainbeste dirudun, ainbeste aberats abertzale ao andi, eta ain lukurrak. Gure jendea baino iguingarriagorik (aberatsak ditut gogoan) ez da inun ere sortu. Lau txanponekin zure gora-bera guzia eta euskera-

rena antola dezaketenak, adarra baino elkorrago emateko. Egunen baten ondo astindu bearko ditugu jente orien ondasunak, onez nai ezpaldinbadute eman, indarrez eman bearko dute. Ez dugu errukirik izan bear olakoekin” (233).

Lehenago oharatarazi dugunez, A. Ibinagabeitiarentzat Gutatemalatik Venezuelarako bizitza aldaketa oso latza izan zen. *Euzko-Gogoa* aldizkarian egiten zuen lanagatik euskal kulturari emana egotetik euskararekin zerikusirik ez zuten beste zeregin batzuetara pasatu zen. Horren ondorioz, lanaldi gogorren ostean unatuta, idazteko gogorik gabe heltzen zen etxera. Adiskide batzuekin izandako korrespondentzian (L. Michelena, J. Zaitegi, Tx. Peillen, N. Etxaniz) lazeria hori ikus daiteke eta Guatemalako egonaldia etsipenez oroitzen zuen. Lehenengo aipamenean *Egan* aldizkariaren zuzendaritzan L. Michelena egiten zuen lana goratzen du:

“Orain zearo baztertuta bizi naiz euskal alorretik, zuen lan ederra miresten” (197).

“Guatemalan, ez nuen inoiz olako ezaldirik ezagutu” (199).

“Ez dut lurralde au bainon elkorragorik ikusi idaz-lanerako, euskerazkorako batez ere” (205)

“Lan berrian ari naizen ezkeru, ordu guztiak zearo artuta dauzkat, eta etxeratzen naizenean zearo nekatuta iristen naiz ezertako ere gogo gabe. Zerbait irakurri ta... kito. Luma eskuartetik erortzen zait txoarre zarrari baino errexago. Zer ote da gaztetasuna! (226).

Lan arazoak, inguru berrira moldatzeko zailtasunak, inkomunikazioa, sakabanaketa, itzultzeko eguna ez jakitea eta urrutiko aberri mina izan ziren Venezuelako egonaldi luzean idazle bizkaitar hau bere bizitzan bakardade, akidura eta depresio aldiak jasatera eramane zuten arrazoiak. Baina gairiditu zituen hain garai latzean euskal kulturaren su sakratuak piztuta iraun zezan. Euskara, diglosia endemiko batek ia itotako hizkuntza, desagertzeaz zegoen. Horregatik A. Ibinagabeitiak bere aberri maitea eraikitzeke eskumenean zuen tresna bakarra erabili zuen: euskara eta euskal literatura. Bere herritik urrundu izanak bultzatu zuen, euskal sustraiak ez ahazteke, bi aldizkari (*Irrintzi* eta *Eman*) sortzen eta beraietan idazten. Hori zela-eta, adorez beteta, Kixote bakar-tiaren antzera, atzerrialdi latzean borrokan jarraitu zuen:

“Ala ere aberriaren deiari ezin entzungor egin, eta andik edo emetik kemenak ateratzen ditut lan ori egiteko” (227).

Caracasko Euskal Etxetik afiliatu askoren euskal kulturarenganako arduragabekeriagatik hiru urtez (1956-1959) ia agertu gabe igaro ondoren, A. Ibinagabeitiak azkenean zentru horretako “Euskal Kulturaren Alde” batzordeko kide eta idazkaria izateko gonbitea onartu zuen. Umeentzako ikastola bat sortu eta, bera irakasle hartuta, helduak euskaraz alfabetatzeko ikastaroak antolatu nahi zituzten. Euskararen alde izanez gero, dena egiteko prest zegoen:

“Euskal Kulturaren Alde’ emen ere jaio da egunotan. Amar gera batzordekoak, eta egoitza Eusko-Etxean dauka. Ni izendatu naute idazkari [...] asmo ederrak ditugu euskera emen indartzeko, batez ere aurren artean. Kinder baterako oinarriak ere jarriko ditugu. Nik gainera euskaldun barrientzako ikastolak ere jarri nai nituke, euskera osotuz gainera irakurtzen eta idazten ikasi dezaten. Zaila da ordea emen lan egitea [...] ni ez naiz Euzko-Etxetara joaten, baina orain euskerari laguntzearen, gertu nago edozertarako, baina euskerari laguntzeko soilik” (241-242).

Bere euskararenganako maitasuna hain handia izan zen, ezen gus-tura ez zegoen lanetan jardun baitzuen. *Irrintzi* aldizkariak, hamasei zenbaki argitaratu arren, nahigabe ugari eman zion; baina euskararenganako maitasunarengatik jarraitu zuen, harik eta lehendakariaren heriotzaren ondorioz, 1960an, idatzi zuen artikulua laudatzaile batengatik kargutik kendu zuten arte:

“Aldizkari orrek, atsegin baino burukomin gehiago eman dit, egia esan. Euskera izan ez palitz, ez nion eutsiko, ori ederki dakite paper ortan idazten dutenak” (245).

“*Irrintzi*-ko jabearekin ere aserratu naiz, betiko aserratu. Agirre lendakaria zanari buruz idatzi nuen artikulua izan da kausa” (251).

A. Ibinagabeitiaren espiritu kritikoa eta bere euskararenganako maitasuna agerian daude J. Zaitegi eta N. Etxaniz bere bi adiskide onekin izandako desadostasunetan. Idazle bizkaitarra *Irrintzi* aldizkari-ko lana gabe geratzean, bere bi lagunak *Alderdi*-n, EAJren aldizkari-ko kolaboratzaile lortzen saiatu ziren. Baina gonbite horri uko egin zion buletin horretan argitaratzen ziren artikuluetan euskara gutxi agertzen zelako. N. Etxanizi zuzendutako gutun batean, gaztelaniaz hainbeste artikulua irakurtzeaz gogaituta, erabateko ezetza adierazi zuen:

“Gure *Irrintzi*-ko ixtiluak bukatuxe dira. Bestelako bakea [...] Alderdin idazteko dinostazu. Egia esan ez dut bat ere gogorik politika gaietaz aritzeko. Kokoteraino nago politikarekin eta erabakita gainera gai orietaz ezertxo ere ez idazteko euskeraz gure aldizkari erdeldunetan [...]. Alderdiak euskera utsezko aldizkaria sortzen ez duen bitartean, ez dut ezer ere idatziko. Alperrik ari zerate zu eta Zaitegi nere lantxoak Alderdirako eskatzen” (251-252).

A. Ibinagabeitiak, hamabost urte atzerrian eman eta gero, Euskal Herrira itzuli nahi zuen; baina, Gerra Zibila bukatu zenetik hogeitau urte igaroak ziren arren, frankismoak atzerriratuen etorrera galarazten jarraitzen zuen. A. Ibinagabeitiak muga zeharkatzean Martuteneko espetxean sartu zuten bere adiskide min baten kasua kontatu zuen. Berari berdin gertatuko zitziolakoan zegoen. N. Etxanizi 1960an idatzitako gutun batean honela dio:

“Ni neu, orrako gogoz nago eta emengo askok bezela bidea garbi banuke or sartzeko, ez bat eta ez bi, aberrira joango nintzateke” (252).

“Jakingo duzu, noski, nere adiskide aundi bati jazo zaiona: mugara eldu eta Martutenen sartu dute [...]. Ni arrapatuko banindukete, txiki txiki egingo nindukete” (1960-VII-14, 260).

Idazle honentzat bere bizitzaren azkenengo urteak gogor-gogorrrak izan ziren, zeren osasun eta lan arazoak izan baitzituen. Euskal Herriko adiskide minei bidalitako gutunetan tristezia, bakardadea, akidura, larritasuna eta etsipena atzematen dira. Heriotzaren ideia ere aipatzeraino heldu zen. Liburu bat idatzi nahi zuen, baina besteei egiten zizkien zerbitzuekin lanpetuta ikusten zuen bere burua. Hala eta guztiz ere, 1967an (bere bizitzaren azken urtean), ahulezia gaindituz, sei zenbaki izan zituen *Eman* aldizkaria sortu zuen:

“Ez dakizu zenbat denbora galtzen dudan nere gogoeta ilunen artean. Aki, aki eginda nago” (256).

“Nik ere zerbait egin nai nuke il baino lenago, baina emen nabilkizu beti besteren otseinketan nere lanak bazterrean utzi-ta” (259).

A. Ibinagabeitiarentzat Amerika askatasun oasisa izan zen, non bizia salbatu zuen eta bere hizkuntzari eutsi ahal izan zion, baina hogeitau urteko atzerrialdi luzean beti bere aberri maitera itzultzea izan zuen amets. 1967ko azaroaren 2an, arimen egunean, Caracasen hil zen.

Bere heriotzarekin batera beste itxaropen bat itzali zen, Euskal Herria, euskal kultura eta batez ere euskara biziki maite izan zituen euskal borrokalari batena.

EUZKO GOGOA (1950-59):
ERBESTEKO EUSKALTZALEEN LAN
KOLEKTIBO GAITZA

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

“Euskal erbestetuen produkzioa 1936-1975”
(E.H.U. programa)

Aldizkari honek, 1950ean sortu eta 1960ko uztaillean hil, hamar urteko bizialdia izan zuen. Iraupen laburrekoa izan zela? Baliteke. Bere garaikidetakoren batek oraindik bizirik segitzen duela? Bai. Galdera hauek eta antzekoak egitea jakingarri bada ere, ez dira nolnahi nahas-tekoak, zeren *Euzko-Gogoa*-ren bizi-giroa, erbesteko kumea izaki, arras berezia izan baitzen, egiazki esanda utopia sano baten zitu paregabea.

Bizialdi luzea ala laburra izan, emaitzak dira garrantzitsuenak eta horiek zifratuaz azaltzera pasatuko gara jarraian. *Euzko-Gogoa*-ren emaitzak, orotara hartuta, ondoko hauek dira: 44 zenbaki argitaratuak hamar urteko epealdian, guztira 3.658 orrialderekin, eta 150 inguru-ko idazle-multzoaren partaidetza. Ingurukoa diogu, bi arrazoi hauen-gatik: batetik, ezezagun guztien egiazko nortasuna jakitera iritsi ez garelako eta, bestetik, ezagutu ahal izan ditugun kasu batzuetan, lan-kide batzuek gezurritzen bat baino gehiago erabili izan dutelako. He-mendik dator lankide-kopuru zehatza ezin eskaini ahal izatea.

Hitzaldi honetan, aldizkari honen alderdi koantitatiboak beste ekinaldi baterako utzita, lortu nahiriko helburuak eta zabaldu nahiriko mezua zein izan azaltzera mugatuko natzaizue.

Aldizkariaren tesiak

Seguraski zuzenago litzatekeen arren zuzendaritzaren tesiak deitzea, hemen aldizkariaren tesiak ezarri dugu, zeren aldizkaria bertan parte hartzen duen idazle-multzoaren adierazle baita. Han-hemen modu batera edo bestera formulatuta errepikatzen diren tesiak ezaugarritzen dute *Euzko-Gogoa* aldizkariaren pentsamendu kolektiboa. Kasu honetan, gainera, gerraurreko euskaltzale-multzorik kualifikatuarenari dagokiona izango da. Nahiz eta guztiak ez izan irizkide, gehienek oniarritzeko suposizio komun batzuk sostengatzen dituzte. Aipatzera goazen tesiak aldizkariaren zuzendaritzak formulatuak badira ere bere atarikoetan, iruditzen zaigu aldizkariko lankide gehienek, ñabardura batzuk salbu, bere egingo zituztela zailtasun handirik gabe idatziak izan ziren garai hartan.

Euskara gabe ez da Euskal Herririk

Tesi nagusitzat jo daitekeen formulazio horrek markatzen du *Euzko-Gogoa*-ren jokabidea. Aldizkari-bilduman aipu asko dira tesi honen alde idatzitakoak. Lehen atarikoan bertan formulatu zen tesi hau, labur baina zehatz¹:

“Euskaldun euskarak egin gaitu, beraz, euskera gabeko Euskal Herririk ez tugu opa”.

Euskal nortasunari buruzko beste pasarte honetan esaten denez, euskara da elementurik “egiazkoena” edo bereizgarriena²:

“Ez du inork zertan arritu gure erriaren osagailurik egiazkoena euskera dela badiñogu. Euskerak iraun zun bitartean gure erriak ere erri iraun zun, gogo ta lurraren iabe. Euskeraren ondamendiak aldiz, erriarena ere ekarri digu euskal-gogoarekin batera. Etzitezkean bestela

¹ “*Euzko-Gogoa* eta gu”, op. cit.

² “Euskal Batzarrea” atarikoak, *Euzko-Gogoa*, 1-2, Ilbelta-Otsailla, 1955.

izan ere, izkera baita erriaren arima ta izkera galduz gero erriarenak ere egin du (...) Euskerak ba'dirau, gure erriak ere iraungo du!”.

Beraz, baldin onartutzat ematen bada euskera izan dela beste giza mota guztietatik bereiz eutsarazi gaituena, hemendik ondorioz ateratzen da, euskara galduz gero, Euskal Herriak ere berea egin duela³. Il-do beretik zihoan Andoni Agirrezabalen iritzia ere, zioenean “erri bakoitzari jatorriz dagozkion berezitasun guzti auen arteko bat, zalantzarik gabe, norberaren izkuntza dugu(la) garrantzi aundienetako”⁴. Andima oraindik urrutiago joan zen hizkuntzari herri-nortasunaren ezaugarri gisa egozten zizkion atributueta, zerena, euskarak aspalditik txoraturik zeukala aitortu ondoren, berarentzat “euskera euskotarren ezaugarri bakar eta nabariena” zela baieztatzen baitzuen⁵.

Euskara herri baten ezaugarriak “egiazkoena”, “argiena”, “garrantzitsuen”a, “nabariena” eta horrelakoak esatea, ados. Konbentzimendu honen adierazle besterik ez dira aipu horietan tartekatzen diren “zalantzarik gabe” eta horrelako adberbioak. Baina hemendik “bakar” dela esatea –guk hau ere zalantzarik gabe diogu–, gehiegi esatea da, beste kultur elementu gehiago ere sartzen baitira haren osaketan.

Euzko-Gogoa-k urrats izugarria eman zuen hizkuntza, gure kasuan euskara, herri-nortasunaren ezaugarri nagusitzat hartzean, euskal nazionalismo historikoaren bidean zerbait berria zena. Puntu honetantxe egingo du zubi Federiko Krutwigek gerraurreko euskaltzale hauekin, nazionalismoa ez arrazan baizik hizkuntzan oinarritzen baita. Haren ustez, Lafon Euskaltzaindian sartzeko hitzaldian esan bezala, euskaltzale eta abertzale izateak euskara jakitea ez ezik erabiltzea ere inplikatzeko du⁶:

“Euskaldun batek bere arbasoen hizkuntza ikasi ta irakatsi bear du, bere nazional-hizkuntza delakotz. Euskalherria maite izaita ta euskararen ez-erabiltzea eztoaz elkharrekin; euskaraz mintzatzeke ezta-go euskalzaletarzunik. Euskalherria maite duenak ‘egin bear dituten gauzetarik lehena’ euskaraz mintzo izaita da”.

³ “Atarikoa”, *Euzko-Gogoa*, Ilbeltza-Otsaila, 1955, 1.

⁴ “Nun Euskal-Erriaren nortasuna”, *Euzko-Gogoa*, Epaila-Iorrraila, 1956, 59.

⁵ “Paper artean ito bearrez”, *Euzko-Gogoa*, 11-12, 1951, 14.

⁶ “Lafon Yaunari ongi-etorria Euskaltzaindian”, *Euzko-Gogoa*, Epaila-Yorrraila, 1952, 53.

Hain da beharrezkoa hizkuntza baten erabilera herri baten kultur bizitzan, ezen bere hizkuntza galtzen duen herriak bere gogo edo espiritu bereziak galtzen baititu. Horrelako zerbait gertatu bide zen, Andoni Agirrezabalek esatera⁷, Euskal Herriko “erdal-lurraldeetan”, zehazki Araba eta Nafarroan, non, haren ustez, beren burua euskalduntzat zutenak banaka batzuk besterik ez baitziren.

Euskararik gabeko euskal kultura ez da benetakoa

Goiko aipu horietan baieztaturakoaren arabera, ildo beretik beste urrats bat harago emanez, herri baten kultura egiazki ezaugarritzen duena hizkuntza dela esango du Andoni Urrestarazuk⁸:

“Zertan ote datza berezitasun ori, kultura bakoitzari berezitasuna ematen diona? Ez ote da, alegia, erri bakoitzaren izkuntza. Bai, noski; gurezat beñepein, ementxe dago azalpen nabariena, errien eleetan, izkuntzetan. Parantzerak ematen die parantzetarrei beren yakintza ta azitasunaren ikur berezia; españerak, españarrai; englanderrak, englandarrai, e.t. Beraz, Frantzia’ko kultura, España, England, e.t.ekoa, parantzeraz, españeraz, englanderaz, ... egindakoa; alakotz, euskal-kultura, euskaraz eta ez bestez egindakoa. Parantzeraz, españeraz, englanderaz edo beste izkuntzaz egindako kultura, naiz eta euskel-gai utsak erabiliarren, ez da iñoiz izango ben-benetako euskel-kultura, beste ele bakoitzarena baizik”.

Aipu horretan baieztatzen dena onartu ala ez, ezin da ukatu benetan garrantzitsua dela esaten dena, batez ere kontuan hartzen bada noiz idatzia den gazteiztarraren artikuluko hori. Ohikoa baita euskaltzaileen artean ere euskal gaiez erderez jardutea, joera nagusi honen kontra jaikitzen da, esanez erdarazko kultura, euskal kasuari dagokionez, ez dela “iñoiz izango ben-benetako euskal kultura”. Horregatik, beste pasarte honetan ondorioztatzen duen bezala, euskal kulturak, benetakoa izan dadin, euskaraz egindakoa izan behar du⁹:

“Beraz, euskal-kultura auxe edo dugu: euskeraz, euskerazko oldoz-menez, Ludi’ko ta Yakintza’rez ezagupenak lortu ta edatzeko Euzkadi’n

⁷ Op. cit., 59.

⁸ “Euskera eta euskel-kultura”, *Euzko-Gogoia*, 11-12, Azila-Lotazila, 1954, 187-188.

⁹ *Ibid.*, 188.

erabiliko den era berezia. Egiz eta ertsikiz ezin euskel-kulturaz mintzatzea, malla guzietako kultura euzkeraz egin eta jaso arte: erriko bizi guztia, goian eta bean, arunt eta yakintzako, euzkeraz okitu arte”.

Dena den, delako “ben-benetako” adjektibo horren edukia, egi-leak egiten dituen zehaztapenak egin eta gero ere, aski ilun geratzen da, ez baita esaten hizkuntzak zein neurritan mugatu edo ezaugarritzen duen herri bateko kulturaren muina. Helburua, desiren paradisua, badaki zein den: euskaraz egindako kultura. Baina erdaraz egindakoa nagusitzen den une honetan, zer egin behar da? Hona hemen ematen duen erantzuna¹⁰:

“... erderaz egindako lan guztia, gero euskeraz egingo danaren oiñarriztat artu bear dugu. Lan guztietan mallak daude; orobat, bearrez, egiten ari geran gurean ere. Ontzat artu ditugu beti orain arte egindako lan guztiak; areago egitea nai dugu beti ere, baina euskerari gero eta toki geio ta aundiagoz”. Zentzu honetan, bada, erdaraz egindako lan guztia –Eusko-Ikaskuntzak egindakoa, kasurako–, ezin da esan lan alferra denik. Lan onurakorra da, nahiz eta osatu beharrekoa izan”.

Beraz, laburtuz, hauxe da haren tesia: hots, euskararik gabe ez da goela ben-benetako euskal kulturarik eta, helmuga horretara iritsi ahal izateko, euskal kultura osoaren antolaketa egin behar dela, oso zehatz, euskal kultura osoki euskalduntzeko prozesu horretan mailak ezarri, zeinetan euskararen beharrari lehentasuna emango baitzaio.

Euskaltzale guztiek ez baitzuten berdin sentitzen euskararen beharra ezta berdin baliosten euskarari euskal kulturgintzan dagokion lekua, maila praktikoan, jadanik euskal pizkundetik hasita, jokabide desberdinak mantenduko dira euskal idazle elebidunen artean. *Euzko-Gogoa*-ko zenbaki desberdinetan zehar maiz aurkitzen gara euskal kulturaren inguruan sumatzen den gehiegizko erdarazaletasuna salatzen duten pasarteekin. Luma batzuk oso minberakor agertzen zaizkigu idazle ustez erdarazalegien aurrean. Euskarari buruzkoetan nekez barikatzen duen horietakoa den Andimak –hemen “Elentxu” izenordearekin izenpetzen duenak–, noizbehinka ziztada batzuk botatzen ditu. Euskal gaiez diharduten aldizkarien gainean egin ohi duen aipamen laburretako batean, “aldizkari ok, damurik, erderaz ugari eta euskeraz

¹⁰ Ibid.

urri dituzu” esango digu, eta aldizkari elebidun horien artean, euskara gutxi darabilela salatzen duen aldi berean, Jose Migel Barandiaranek zuzentzen duen *Euzko-Jakintza* kultur aldizkaria goraiatzan du gehien¹¹:

“Euskal gaietaz, erderaz agertzen dan aldizkaririk aberatsena auxe. Ba’duke euskalzaleak gogoan nun ase, yakituri yatorrez eta yakin-bideak eskatu ariora idatzi lanez. Euskera gutxi darabilte gure letradunek, baina *Euzko-Jakintza*’ren zuzendariak asmorik garaienak darabilzki utsune ori betetzeko”.

Izan ere, Elentxuren aldizkari-aipamena irakurtzen hasi eta, ohartzten gara Guatemalan *Euzko-Gogoa*-k eta Donostian *Egan*-ek berean euskarazko bidea hasi zuten 1950eko hamarkada-hasiera hartan, euskal kultur aldizkari gehienak elebidunak edo erdaldun hutsak zirela: *Gernika*, *Boletín de la R.S. Vascongada*, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, *Gure Herria*, *Alderdi*, *Euzko-Deya*, *Euzko-Jakintza*, etab.

Aldizkarietatik euskararen aldeko kultur erakundeetara etorrita, ikusiak gara nola Andimak idazten zuen 1954ko bigarren zenbakiaren hasieran Eusko-Ikaskuntzaren Batzarrak antzuak gertatzen ari zirela euskararik erabiltzen ez zutelako. Beno, bada: zenbaki beraren bukaeran, salaketa Euskaltzaindiaren Batzarretaraino ere iristen zen. Erakunde honek Arnault Oihenarti buruz Gipuzkoako Foru-Aldundian antolatutako hitzaldiak oinarritzat hartuta, Luis Mitxelena gaztearen hitzaldi “ederra” aipatzen zuen, baina, Jose Migel Barandiaranen aldizkariarekin egin bezala, honi ere gehienbat erdaraz ari zela gogorazten zion¹²:

“Ezaguna da, dagoeneko Mitxelena iauna euskal arloan, bañan erderaz ari izan da geienbat, gure izkeraren illunbeak argitu naiez. Gure artean gaurkoz dugun izkeralaririk aipatuena dala esango ba’genuke, ez genuke noski, gezurrik ialkiko, ez orixe. Bañan Koldo Mitxelena, euskeraz ere maizu (sic) dugu. Izkera aberats, errex ta ixurkorra darabil bere euskal lanetan. Ez nolanaiko euskal lanetan, iakin-tsuetan baizik”.

¹¹ “Aldizkariak barna”, *Euzko-Gogoa*, 9-10, Irailla-Urri, 1951, 68.

¹² “Idazti berriak”, *Euzko-Gogoa*, 3-4, Epailla-Yorrailla, 1954, 71.

Baina gatozen Andimaren testura eta orduko testuingurura. Euskararen egoera orotara hartuta, ikusten zuen haren idatzizko erabilera txoko batean baztertuta zeukatela euskaltzale jakintsu gehienek. Bali-teke batzuekin besteekin baino zorrotzago jokatzea, guztiakin neurri bera ez erabiltzea. Jose Migel Barandiaran bati, adibidez, “asmorik garaiena” opa zizkion bere aldizkariari buruz. Andimaren gutunak eskuarteant ditugun honetan, badakigu zergatik zituen ezarriak horrelako esperantzak aldizkari horretan. Batetik, Paristik Zaitegiri 1951ko otsailaren 19an egindako gutunean datorrenez¹³, “Barandiaranek *Eusko-Yakintzako* administrazioa bere eskuetan” utzia zuela jakiten dugu; bestetik, urte bereko abuztuan, adiskide berari jakinarazten zion “Barandiaran jaunak euskera sartu nai luke(ela) inbestigazio lanetan, eta *Eusko-Yakintzan* euskal lanak argitarazi”¹⁴. Etxekoa zitzaion aldizkari honek, ordea, euskarazko lanetik gutxi du.

Andimak hori idatzi eta handik bi urtera, 1956ko lehen zenbakian, U izenordearekin izenpetzen zuen Andoni Urrestarazuk, orri batera ere iristen ez zen artikulutxo batean, bere harridura agertzen zuen Euskaltzaindiaren *Eusker*a aldizkaria ia osorik gaztelaniaz zetorrelako¹⁵:

“Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindia’ren aldizkaria: ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube ta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia. Dirudienez, zenbaiten iritzian, euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea da. Nik behintzat, eztut aien begietatik ikusten, ala bearrrik. Bazterretan ugari ditugu ainitz ta agitz euskeraz dakitenek: euskeraz, ordea, urri itz egin ta idatzi oi dute-ta, iakintzaren sail geientsuenetan euskera larru gorritan ageri zaigu. Areago euskeraz mintzatzeko ta idazteko garaian bizi gera, euskera dala-ta erderaz baino”.

Hizkuntzalaritza euskaltzaletasunaren beharrean dagoela esanez bukatzen du bere parrafoa¹⁶:

¹³ Parisetik Guatemalara, Zaitegiri (Urkizu, P. <prest.>: *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967*, op. cit., 45).

¹⁴ Jokin Zaitegiri Paristik Guatemalara, 1951-08-8 (Ibid., 60-61).

¹⁵ “*Eusker*a. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak I, 1956”, *Euzko-Gogoa*, Ilbeltza-Otsaila, 1956, 115.

¹⁶ Ibid.

“Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu, noski baino noskiago, beste nonbait idatzi nunez”.

Nahasketarako bide eman zezakeen Umandiren azken esaldiko iritzi horrek, Andimaren aurreko kilimatxoa aski ez izanda, Koldo Mitxelenaren hasarre-puntua piztuko du, zeinek, salaketa horretan bere burua zeharka aipatua ikuski, *Euskera* aldizkariaren defentsan atearako baita *Egan*-etik sei orrialdeko artikulu batean¹⁷:

“Beldur naiz orratik, etsai izugarriak eta erraldoi itzalak apurtzen dituelakoan, ez ote den ardi otxan eta aize-errotekin borrokan ibilli”.

Arazoa ez duela behar bezala planteatzen, alegia. Zailtasunak ez dira aurkitzen maila teorikoan, jokabide praktikoan baizik. Horregatik, beste pasarte batean, berak ere euskaran oinarritutako euskal kultura nahi duela baieztatu ondoren, ikerketa-lanetan erdara arrazoi praktikoengatik erabiltzen duela zehaztuko du¹⁸:

“Munduan barrena dabiltzan esku-liburuak, euskaldunen ikasbiderako, itzultzeari eta aien gisakoak antolatzeari ezin obeki derizkiot. Baiña jakintza-arloan billa ari denak ezer berririk euskeraz adierazi? Zertarako? Kontatzen dakienak eztu orrelakorik egingo”.

Ezin garbiago esan zezakeen Koldo Mitxelenak esatekoa. Bi muga gaindiezinak dauzka euskarak: bata, ez dela nazioarteko hizkuntza, eta bestea, diziplina zientifikoak garatzeko ez dagoela behar beste landua. Ikerketa zientifikoek zabalkundea eta kalitatea behar dute. Horra!

Jokin Zaitegi da, ez Umandi, *Euzko-Gogoa*-ko editorialetik erantzungo diona, nahikoa gogortxo gainera¹⁹:

“Bigarren agerraldiko *Euskera*-ren lenengo banakoari buruz bere iritzia eman zun U’k. Okerrean ezpagaude, bere lantxoan auxe adierazi nai zien Euskaltzaindi’ ari ta bertako euskalariei, beren lanak euskeraz emateko beraren aldizkarian, alegia. Euskaltzaindi’ari ta zenbait euskalariei ori eskatzea, ordea, ONU’ri ta Einstein edo Fleming’i beren erabaki ta asmakizunak euskeraz emateko eskatzea bide da: zentzugabekeri ta quijotekeri utsa, alegia. Ori dala-ta, U. ori astinduka

¹⁷ *Egan*, 5-6, 1956, 157.

¹⁸ *Ibid.*, 160-161.

¹⁹ “*Euskera* ta *Euzko-Gogoa*”, *Euzko-Gogoa*, Orrila-Garagarrila, 1956, 1.

darabil Mitxelena iaunak, eta iseka ta bista onik egiten du bere buruaren pozetarako ta irakurlearen saminetarako”.

Inoren kontura farra egitea dela errazena iradoki ondoren, bere ustez euskaltzale baten egitekoa zein den esatera pasatzen da gero, hemen ere hitz-erdika ibili gabe²⁰:

“Zuzen ala oker, euskararekin bat eginda egon nai genuke, gure erriaren gogoia ortantxe mamiturik ikusten baitugu batez ere. Mintzabide soila eztugu euskera, gure gurasoen gurasoek beren biotz-etzpainetan birloraturik zerabilten izkera baizik: abendaren odolez igortzia ta aren gogoaren arnasez lurrindua baitago, mun eginda erabiltzekoa dugu. Ori dala-ta, euskerak aurrerarik egin dunean, txaloka asi gera ta horrela iarraituko dugu gure euskal-idazleak arrotuz, oiek baititugu gure erriaren era gure euskeraren aldeko gudari berriak, egunero, orduoro, uneoro, norik bere kitatxoan, lanean ari diran euskaldun beinenak”.

Jokin Zaitegik, era berean, beste bi puntu gogoraraziko dizkio itzulian Mitxelenari: bat, *Euskara* aldizkarian gaiak euskaraz idaztea ez dela kixotekeria bat, egingarri ez ezik egin beharreko zerbait baizik, eta bi, oraindik ere euskararen sustapena euskaltzaletasunaren beharrean dagoela. Oro har euskalgintzari eta, zehazkiago, kultura akademikoaren lanketari dagokionez, sekula erabat bat etorri ez diren bi mundu dira Zaitegirena eta Mitxelenarena, eta diogunaren frogarik handiena da, beren idazlanak orotara hartuta, arrasatearrak oro euskaraz burutuak dauden bitartean, errenteriarren euskarazkoak ez direla laurdena ere iristen. Honek, noski, zerbait adierazten du. Badakigu listoak zer gaineratuko duen: edukien kalitatea. Bego.

Andimak, Urrestarazuk eta Zaitegik salatzen dutena ez da gezurra, ez den bezala desbideratua haiek helburutzat proposatzen dutena: kultura akademikoa euskaraz lantzea, alegia. Gu gaude historiak Zaitegiri eman diola arrazoia. Guk ere, bere garaian, eta espantu handirik gabe, antzeko iritzia agertu genuen Koldo Mitxelena hizkuntzalari jakitunari eskaini genion atalean²¹. Kazetari batek, maisuari errespetua galdu geniolako edo, guk al dakigu zergatik, lauposbat artikulua idatziz eraso zigun *Zeruko Argia*-tik. Ez genion erantzun, zeri erantzunik ez

²⁰ Ibid., 2.

²¹ Begiarmen (Iztueta eta Apalategi): *Sei idazle plazara*, I, Jakin, 1974.

zegoelako. Gainera, errenteriarrak ez zuen bere buruaren defentsarako inoren beharrik. Bere arrazoiak *Anaitasuna*-n agertu zituen²², zeinak, funtsean, jadanik *Euzko-Gogoa*-rekin izandako eztabaidan agertutakoak baitziren.

Orduan bezala orain ere berdintsu pentsatuz segitzen dugu, hots, hark bere hautua eginik zeukala: barruko nahiz kanpoko bezero akademikoarentzat erdaraz idaztea, eta bezero euskaldunentzat, berriz, euskaraz, bereziki gai arruntagoetan. Noski, hautu hori hertsiegia zeritzon Andimari, baita guri ere, lehen eta orain. Orain areago, UEU eta EHUri esker, prosa akademikoak euskaraz urrats galantak eman baititu. Zorionez, Koldo Mitxelenaren ikuspegia zein jokabidea, biak jadanik ederki gaitituak daude.

Nolanahi ere, aldizkariak eta erakundeak alde batera utzita, hari edo honi maila pertsonalean kontuak eskatzerakoan, emaitzak dira kontuan hartu beharrekoak. Eta maila honetan, estatistikak lekuko²³, askoz gehiago da Mitxelenak euskaraz idatzia utzi duena Barandiaranek baino: hots, lehenengoak % 21,58 eta bigarrenak % 3,11 besterik ez. Alderik bada! Bestalde, J. M. Barandiaranek *Euzko-Gogoa*-n lau emanalditan argitaratu zuen “Euskal-mitologiaren ikaspiderako” lana²⁴, nahiz eta itzulpena dela esaten ez den, Andimak esanda dakigu berak itzuli zuela Guatemalan 1954ko urte-bukaeran²⁵.

Erdaraz egindako “euskal kultura”, Andoni Urrestarazurekin esateko, “ben-benetakoa” izateko zerbait falta zaion hori, uste baino indartsuagoa zen gerraurreko euskaltzale ikasien artean. Hizkuntza behar adina menderatzen ez zutelako edota, Koldo Mitxelenak esatera, irakurle birtualak etxean baino kanpoan gehiago aurkitzen zirelako, kontuak kontu, praktikak erakusten zuena zen euskara eta euskal kultura pizkortzeko xedearekin sortutako erakunde nagusiak, hala Eusko-Ikaskuntza nola Euskaltzaindia bera, gehienbat erdaraz ari zirela beren jardunetan.

²² “Epe berri bat?”, 1975-01-15.

²³ Iztueta, Paulo, “Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia”, *Uztaro*, 9, 1993, 127.

²⁴ *Euzko-Gogoa*, 1954, 9-10, 155-157; 11-12, 198-201; 1955, 1-2, 23-25; 3-4, 56-57.

²⁵ Hau esaten dio Alfontso Irigoieni Guatemalatik Bilbora 1954ko azaroaren 16an egindako gutunean: “Egun auetan amaitu dut Barandiaranen euskal-mitologi berria euskeraz. Aldizkarian agertuko da zatika” (Urkizu, P. <prest>, op. cit., 174).

EAJ/PNV bera ere ez zen erabat salbatzen erdalkeriaren gaitz honetatik, *Euzko-Gogoa*-k 1954ko hirugarren zenbakiko atarikoan haxe baitzekarren²⁶:

“Gure erriak, berriz, ez du izan inoiz ere ortarako kemenik, euskera aintzat artu ta zegokion gaindegira eramateko. Aitzitik, betidanik erakutsi izan du erri-elearekiko arbuiorik lotsagarriena, eta arbuio ortan darraiki oraindik ere. Abertzaletasunak itsualdi ontatik euskotarrak aterako zitula esan edo uste zitekean. Ez ba... Gurean Jel-alderdia izan da abertzaletasunaren arrobia, baita euskeraren illobia ere. Ez noski, asmoz ta iakitez, bai ordea, bear bezalako gizontasunik ukan ez duelako izkera-auzi latz ontan; etzun euskera artu alderdiko ele barkartzat, alderdikide guztiak aberri-izkera itzez ta idatziz erabiltzera bearturik, enda-ezaugarri bakar ta garaientzat euskera ezarririk. Erdera izan du ele nagusi; oraindik ere ez du euskeraren miñik bere aratoletan nabaitu. Euskera ez dala aski abertzale zintzo izateko darasate... Eta erdal merkatari etoi biurtu zaizkigu euskaldunok oro”.

Abertzaletasunak berak ere huts egin baitzuen, horregatik zihoan euskara “amilbera”. Editorial honen atzean noren luma ote zegoen? “Ia seguru Jokin-ena” dela pentsatzen du Joseba Intxaustik; guri Andimarena dela iruditzen zaigu, bera baita, beste pasarte batean ikusia dugunez, hemen ere euskara “enda-ezaugarri bakar eta garaientzat” hartzen duena. Batarena ala bestearena izan, zuzendaritza bera da horrela pentsatzen duena. Bazekien, espero zuten, etxeokoe etxeokoen ajea horrela salatzeak minik sor zezakeela abertzaleen familian, ez baita gustagarri izaten, aurrean etsai handiagoak daudenean, etxeokoen zapi zikinak aireatzen hastea. Urte bereko azken zenbakiko “Irakurlearen txokoan” zetorrenez, salaketa hark “sumindura” sortu zuen EAJko sektorerik euskaltzaleenean²⁷:

“Orril-Dagonilleko zenbaki bikoitzean agertu zan Ataurrekoa’k irakurle zenbait mindu edo ditu (...) Ondo genekigun esakera batek maiteen ditugunak naigabetuko zitula, eta hala gertatu da”.

Euzko-Gogoa-ri erantzunak handik eta hemendik etorri zitzaizkion, baina beti EAJren organoetik. Lehen erantzuna Mexikoko *Euzko-*

²⁶ “Amilbera” atarikoak, *Euzko-Gogoa*, 5-8, Orrilla-Dagonilla, 1954, 74.

²⁷ *Euzko-Gogoa*, 11-12, Azilla-Lotazilla, 1954, 205.

Deya-tik etorri zen, euskaltzalerik maiteenetako baten eskutik, hain zuzen, halaxe baitzen Antonio Ruiz de Azua (“Ogoñope”) idazlea. Honen erantzunari “bidetsu ta neurritsua” zeritzon zuzendaritzak eta bere egiten zuen “euskerak, beste ezeri baiño gehiago, abertzelatasunari zor diola” zioen esaldia. *Euzko-Gogoa*-ren asmoa justu alderantzizkoa zen: abertzale euskaltzaleak ez, erdalzaleak salatzea baizik²⁸:

“Aberzale aunitz erdel-uiolaren ur zikiñetan narraz dioazkigu, eta orixe eragotzi nai genun gure aturrekoan. Ez da goxo maiteen ditugunak iotea, baiña noizipein bearrezko gertatzen da gogoz bestera ere”.

Hurrengo urtean, *Alderdi*-k²⁹, eztabaida zuzendaritza-mailan kokatuz, beste editorial batekin erantzun zion, zeinetan EAJk euskararekiko duen jokabidean, bi maila desberdineko arrazoiak ematen baitzitu. Lehenengoa soziologikoa zen, zioena, nahi izanda ere, EAJk ezin zuela euskara hizkuntza bakartzat hartu, “bere bazkide geyenak erdeldu-nak” omen zirelako. Bigarrenak arazoaren alderdi etikoa azaltzen zuen, aitortzean, euskararen alde behar adina egin ez arren, hala egiten gogotik ahalegintzen zela³⁰. Eta esandakoaren zuzeneko frogatzat, *Euzko-Gogoa* bera ere abertzaleen laguntasunari esker bizi dela baieztatuko da³¹.

Beraz, zeharka bada ere, jeltzaleengandik hartutako laguntza legoke *Euzko-Gogoa*-ren atzean. Zuzendaritza prest agertuko da azken 50 urteotan egindako gehiena, –egindakoa iñola ere “aski” izan ez arren–, “nolarebait” JEL alderdiari zor zaiola onartzeko, baina errotik ukatuko du *Euzko-Gogoa*-k abertzaleen laguntzarik jaso izana. Azken puntu hau, Jokin Zaitegi zuzendariak ondoegi zekien bezala, ez zen egia, Guatemalan bederen bere izerdiz atera baitzuen aurrera, eta hori irakurri beharrak min izugarria eman zion. Aldizkariarekin abiatu eta hurrengo urtean Zaitegi kexu zen harpidedunek ere ordaintzen ez zutelako³²:

²⁸ Ibid.

²⁹ “Nor euzkeraren erailleak?”, Otsailla, 1955, 2-3.

³⁰ Aipu zehatza hauxe da: “... esan nai badu Jel-alderdiak ez duela bear ain egin, euzkera zegokion malletan ipintzeko, zuzen dago *Euzko-Gogoa*, baiño oker dabil esan nai badu gure alderdiak gogotik euzkeraren alde alegindu ez dala” (Ibid.).

³¹ EAJren ustez, ez da “Jel-alderdiak aurretik, barrendik edo gibeletik eragin gabekorik” eta ondoren galdera hau egiten du: “*Euzko-Gogoa* bera, abertzaleen laguntasunik gabe, zer izango ote litzake?” (Ibid.).

³² “Eup! *Euzko-Gogoa*’ren arpidedunei!”, *Euzko-Gogoa*, 5-6, Orrilla-Garagarrilla, 1951, 53.

“Bigarren urtean barrena yoan goaz ta oraindik askok ez digute igazko arpidearen saririk ordaindu, are gutxiago aurtengoa. Ez uste *Euzko-Gogoa* aberats porrokatua danik. Guztion laguntzaren bearrean gera, bide berriok barna aurrera yo dezagun”.

Zaila da gertatzen dena garbiago esatea: laguntzarik jasotzen ez duelako ari da laguntza eske. Horregatik, bi urte geroago eztabaida hau sortuko denean, harpidedun bizkarroien berri zehatzagoak eman-go ditu³³:

“Abertzale ta jeltkideengandik eskura dugun laguntza utsaren urrengoa izan da zoritxarrez. Mexiko ta Venezuelako abertzale, jeltkide ta euskaltzaleen artean bospaseik bakarrik ordain izan dute beren arpide-saria; ta ala bestea”.

Guatemalako azken urtean, aldizkariaren aldeko publizitate-orrian –ziurrenik Andimak egindakoa–, *Euzko-Gogoa* aldizkaria zuzendaria berak bakarrik gidatu eta finantzatzen zuela berresten zen³⁴:

“Aldizkari au sortu ta zuzentzen duenak soilik dakizki zer nolako lan-nekeak izan dituen aurrera ateratzeko. Ala ere, neke ta eragozpen guztiak bakarrik gainditu ditu, bakarrik, irakurle, euskaldun eta euskotar guztiak izotza baiño otzago aren dei gartsuari erantzuteke zirau-telarik”.

Euskal amerikanoak ere entera zitezen, gaztelaniaz emana zetorren hurrengo orrian.

Eztabaida honek zenbait arazo argitan jartzen ditu: bat, kokaguneari dagokionez, arazoa EAJren barruan ematen bada ere, bistan da hizkuntz politikaz ikuspegi eta, halaber, jokabide desberdinak daudela, zeinetan euskaltzaleak eta erdaltzaleak bereizten baitira; bi, *Euzko-Gogoa*, filosofiaz eta sentimenduz EAJren hurbilekoa den arren, kudeaketa autonomoa eramaten duela, nabarmenki Guatemalako aldian, agian, ez hainbeste, Miarritzekoan; hiru, euskararen erabilerari dagokionez, irizpide nagusizat arrazoi praktikoak agertzen direla. Ageri denez, bada, betiko arazoan aurrean aurkitzen gara, orduan bezala gaur ere proiektu egingarrien eta utopikoen arteko sokan baikabiltza dantzan.

³³ “Irakurlearen txokoa”, *Euzko-Gogoa*, 11-12, 1954, 205.

³⁴ *Euzko-Gogoa*, 1-2, Ilbeltza-Otsailla, 1955. Azken bi orriak.

Dena den, *Euzko-Gogoa*-ko zuzendaritzak hain zeukan barneratua Euskal Herriaren hizkuntza “bakar eta garaiena” euskara dela eta, hala izan dadin, kultura jaso euskaraz landu beharra dagoela, ezen aldizkariaren hasierako aurkezpenean bertan finkaturik utzi baitzuen printzipio hori³⁵:

“Arrezkero, euskaraz bakarrik idatzi nai dugu, eusko-gogoaren barne-muiñetaraino eldu gaitezen”.

Berriro orain, eztabaida honen beroan, inon zalantzarik bada, bere iparra zein den ere zehaztua geratuko da³⁶:

“Argi argia da gure iomuga, ez diteke argiagorik: euskera ta euskera soilik Euskadi’ko bazter eta gizamailla guztietan”.

Berrikitan Gotzon Garatek argitaratu duen “Euskal Herria elebidun” artikulua elektrikoa irakurrita, konturatu gara *Euzko-Gogoa*-ko zuzendaritzaren tesi horrek berealdiko gaurkotasuna duela, zeren Deustuko filologoak ere, euskaldunok euskaraz bakarrik egitea oso kaltegarri izango litzatekeela diotenen kontra, epai salomonikoa bailitzan, zalantzari leku izpirik uzten ez dion uste hau botatzen baitu³⁷:

“Ziur egon gaitzek: Euskal Herrian euskera nagusituko da ala erdara. Biek elkarren ondoan irautea ezinezkoa da. Euskal Herria batera euskaldun eta erdaldun izatea zentauro bat bezala izatea da. Zentauroak mitologian bakarrik izan dira. Gizaburua ta zaldigorputza zuten izaki horiek ez dira sekula izan. Euskeraz eta erdaraz ari den Euskal Herria zentaurokeria hutsa da”.

Biribilik bada, biribila esaldia, gurean azken hamarkada hauetan elebitasunaren inguruan eraikitako diskurtsoa hankaz gora jartzen duena eta gu ere aspalditxotik geure eginez gatozena. Horrelako musika noiz entzungo amorratzen geunden.

Eztabaidok, alabaina, familia abertzaleari barnekoak zaizkio eta zuzendaritzari ez zaio interesatzen bere indarrak barne-liskarretan urtzea, ezta kanporatzea ere. Bere oharkabetasunean, adierazgarria da detailetxo hau: editorialean pizten den eztabaida, irakurlearen txokoan

³⁵ “Gure asmoa”, op. cit.

³⁶ Ibid.

³⁷ *Jakin*, 121, Azaroa-Abendua, 2000, 83.

itzaltzen da, besterik gabe. Bistan da, aldizkaria lankide-multzo batek osatua denez, honentzat lehenagokoak dira taldearen batasuna eta ko-hesioa, nahiz eta zuzendaritzak, zenbait puntutan, besterik pentsatu. Oinarritzko puntuan, halere, ez du amore emango, ez Guatemalako aldi mitikoan, ezta etsaiak erraldoi bihurtuko zaizkion Miarritzekoan ere. Betiko leloa errepikatuzera dator 1958ko lehen zenbakiko atariko³⁸:

“Guk geure iardunbidea aukeratua dugu aspaldinaik, argi ta garbi, izan ere: ots, zuzen ala oker, euskeraz egin eta eragin, euskera-ren alorrek gorritu, irauli, ta lur zarrak berritu, inoren esanei iaramo-nik egiteke, ta inoren mutil izateke. Guzien gogoko ba’gina, galduak gindezke, izan”.

Jokin Zaitegi zuzendariak, hitzezko gizona izaki, esana bete egin zuen. Atarikoan idatzi bezala, “zuzen ala oker”, euskaraz egingo du bere bide propioa. Bere garaiko goren mailako euskal idazleen artean, Jokin Zaitegi izango da ehundik ehun euskaraz idatzi duen bakarrenetako bat, erdaraz sortutakoak ere euskaratuta argitaratu zituen horietako bat. Guztira, 2.627 orrialde³⁹. Hara hemen, metaziria baino tenteago, Zai-tegik euskal kultura landuari utzitako herentzia ezin aberatsagoa.

Euskal Herria euskarak salbatuko du

Hau aurrekoaren ondorio zuzena da. Baldin onartzen bada eus-kara dela Euskal Herriaren hizkuntza bakar eta garaiena, beste hau ere onartu beharrekoa omen da: Euskal Herriaren askapena euskararen berreskurapenean datzala, alegia. Andima Ibinagabeitiak 1955eko zenbakietako batean zekarrena da hau⁴⁰:

“*Euzko-Gogoa*’ko gizaldiaren auzia Euskal Herria dugu, eta auzi orren askabidea Euskera, Euskera soilik. Orainarteko gure gizaldiek ez dute guk bezela Euskal Herriko auzia azaldu. Auzi ori, esan bear, aiek ere beren barne-muñetan sentitu zuten, auzi orren askabidea ordea, ez zuten guk bezela izkeraren gainean ezarri, euskararen gain, alegia. Ez dago besterik: gure auzia euskerak askatuko du, ez beste ezerk”.

³⁸ *Euzko-Gogoa*, Ilbelta-Otsaila, 1958, 1.

³⁹ Iztueta, Paulo, “Euskal kulturaren kontraesanak: teoria eta praxia”, op. cit., 127.

⁴⁰ “Etxe-aldaketa”, *Euzko-Gogoa*, 5-12, Orrilla-Lotazilla, 1955, 65.

Horregatik, hizkuntza alderdi guztien gainetik dagoenez gero, “euskeraren auzia ez du politikak andeatu bear”⁴¹.

Hizkuntzarena, beraz, ez da politizatu behar. Andima, tesi hau formulatzean, euskal nazionalismoaren inguruan ikuspegi berria, benetan iraultzailea, planteatu zuelakoan zegoen. Eta neurri handi-handi batean halaxe zela esango genuke, hizkuntz nazionalismoaren formulazio hain garbi eta hain errotikorik ez baitzen beste inongo kultur plataformetan –gutxiago erakunde politikoetan–, egin. Egun ere indarrean dagoena dugu nazionalismo-mota hau. Hizkuntzarena despolitizatu behar den ala ez, eta baiezkoan, zein neurritan deslotu behar den, puntu hauxe da batere garbi ez dagoena. “Nazionalismoarekiko desidentifikazioa” proposatzen duenik ere bada, baina kontzeptu honi ekarpen berria izan daitekeen ezein eduki berezirik ez diogu atzematen⁴². Guk jadanik idatzirik daukagu hizkuntza eta botere politikoa elkarri ertsiki loturik datozela eta gizarte-fenomeno biok ezin direla ulertu elkarren erreferentzian ez bada⁴³.

Abertzaleetasuna “euskaldun-fededun” esloganean mamitzen da

Lehen zenbakian, “Opariz” izeneko zatitxoan esplizituki formula-tua zetorren 1970eko hamarkada arte EAJren muin ideologikoa izan-dako printzipio aranista hau:

“Zure semerik maiteenak izan nai dugunok, Aberri laztana, lurretiko guziak baño aintzakotzat zaitugula badaki gure Yaungoikoak. Gure zaiñetako odol beroa eskeintzeko ere gerturik gaituzu, ala bear ezkerok. Ez baidugu azturik Arana-Goiri’k agindua: *Gu Euzkadi’rentzat eta Euzkadi Yaungoikoarentzat*”.

Askok ere zehatzago, *Euzko-Gogoa*-k bere lehen atarikoan adieraziko du zein den berak hautatzen duen bidea⁴⁴:

“Alderdikeriak oro bazterreratu ta euskaldun guziak onartu bear dutena onartu dugu. Euskaldun fededun izaki, erdiko bide zabaletik barna jo nai izan dugu”.

⁴¹ “Atarikoa. Euskal Batzarrea”, *Euzko-Gogoa*, 1-2, Ilbelta-Otsailla, 1955, 1.

⁴² Zabalo, Julen, *Abertzaleak eta ezkertiarnek*, Elkarlanean, 2000, 159.

⁴³ Iztueta, Paulo, *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2000.

⁴⁴ “Ataurrekoa. *Euzko-Gogoa eta gu*”, *Euzko-Gogoa*, 1954, 1-2, Ilbelta-Otsailla, 1.

Horko aipu horretan agertzen den “euskaldun fededun” hori arnismo jeltkidearen itzulpena besterik ez da, zeinaren arabera nola euskaltzaletasuna hala abertzaleatasuna, biak, erlijio katolikoan oinarritzen baitira eta elkarrekin banaezineko batasuna osatzen baitute. Egiatzko euskalduna izateko, bada, fededuna izan beharra dago. Euskaldunaren jatortasuna fedearekin uztartzen da, 1956ko atarikoan datorren galdera honek islatzen duen bezala⁴⁵: “Nor euskaldun iatorra baino Jainko-zaleagorik?”. Beraz, zenbat eta euskaldunago orduan eta Jainko-zaleago.

Kristau-jatortasunaren eta euskalduntasunaren eredutzat Eusko Jaurlaritzako Jose Antonio Agirre lehendakaria zeukan Zaitegi zuzendariak. Hari bere heriotzaren omenez eskainitako azken zenbakiko atarikoan, hain zuzen, euskaldun fededunaren eskakizunak bete eta azken ondorioetaraino eramaten bera izan zela gidari esaten da pasarte honetan⁴⁶:

“Besteak beste, euskaldun fededun aren bizitzarte guzian bi Irakasbide nabarmengarri ditugu, nere uste kaxkarrean: ta baldin labur adierazi nai ba’genitza, ‘euskaldunak bat’ itzetan mamiturik arkituko ditugu. Bai-baitzekien inor ezin ditekeala kristau on izan, bere Erria benetan maite izan ezik. Areago oraindik: euskalduna ezin daitekeala kristau on izan, euskaltzale ezpadaite: endaz beste, euskararengan baitago gure Erriaren besterik ez bezelakotasuna”.

Hara hor, bada, kristautasuna, euskaltzaletasuna eta abertzaleatasuna errealtate bat-berean urtuta. Euskaldun on eta jatorra izateak berekin dakar kristau eta euskaltzale zintzo izatea, hots, norberak bere herria maitatzea. Horrelakoxea izan zen Arana-Goiri maisua. Horrelakoxea, halaber, Jose Antonio Agirre jauna ere, aldizkaria argitaratzen lagundu ziona eta une latzetan herritar guztiak elkartzen jakin zuena: alderdi guztietakoak, ezker-eskubideak, langile eta ugazabak, ikasiak eta ez-ikasiak, agintariak eta menpekoak, elizgizonak eta herri-gizonak, emakumezkoak eta gizonezkoak. Zuzendariarentzat bera izango da “berrogei ta amar urteotan gure Erriak izan duen gizonik eginena eta eraginena”. Adierazgarria benetan: lehendakaria hiltzean, hilko da *Euzko-Gogoa* ere.

⁴⁵ *Euzko-Gogoa*, Ilbeltza-Otsaila, 1956, 1.

⁴⁶ *Euzko-Gogoa*, 3-6, Epaila-Garagarrila, 1959, 121-122.

Dena den, “euskaldun fededun” esloganak axioma baten antzera funtzionatzen badu ere eta, areago oraindik, aldizkariko lankide gehienak kristautasunari atxikiak badira ere, esan behar da zuzendaritzak esku aski zabalez jokatu izan zuela agiriko agnostikoekin bezala paganoekin ere. Orixereren antzeko integristentzat Mirande edo Krutwig bezalako idazleak susmagarriak izan arren⁴⁷, horiek eta horien antzekoek aldizkariko atea zabalik izan zituzten beren lanak argitaratzeko. Jokin Zaitegirekin egon ginenetako batean, Txillardegik argitaratzen baitzuen *Leturiaren egunkari ezkutua*, behin batez, berriketan ari gine-la, igerri genion ez zegoela hain ados ez haren ideologia existentzialistarekin eta, agian, ezago haren jokabide politikoarekin. Halere, gogai-de izan ala ez, ongietorri ezin hobea egin zion bere aldizkarian, hasikin gisa, “Negu” atala argitaratuz eta argitalpena goraki agurtuz⁴⁸:

“Norberak aukera-bearra du gai ta ardatz. Azalez ta mamiz orre-lakorik eztugu irakurri euskeraz lenago. Edonongo ele ederrean poza-ren atotsiko luketen eleberria, nik uste”.

Euzko-Gogoa-ren jokabidea, orokorrean, aski zabala da bere kانون ideologiko aitortuaren barruan. Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia bikoteak badaki lankideen aukerak errespetatzen, idazle ortodoxoen ondoan heterodoxoei ere leku egiten. Hau aldizkariaren alde aireatu beharreko meritu bat da.

Aldizkaria desagertzearen arrazoiak

Badakigu zertarako sortu zen *Euzko-Gogoa*. Beharbada ez da oraindik beharbeste argitu zergatik hil zen. Arrazoi batzuk eman izan dira: bat, ez zela desagertu idazleen zahardadez, zuzendariak zabalkundearen arazoa sekula ongi askatu ez zuelako baizik⁴⁹; bi, *Euzko-Gogoa*-ren

⁴⁷ Martin Oizartzabali 1953ko azaroaren 10ean egindako gutunean, hari buruzko iritzi hau agertzen du: “Mirande ori txori bitxia da. Iudutar (heberkera mintzaten bide du), komunista, nik ez dakit zenbat –ista. Eler edertzale oriek galtzen dute edozer auserkeri ta gordinkeria ontzat emanaz. Satsa gainzuriturik ere, barnean beti ustel. Zaitegiri esana daukat ez dutala aurrera *Euzko-Gogoa* irakurriko” (*Karmel*, 1980-1, 36).

⁴⁸ *Euzko-Gogoa*, Uztailla-Daguenila, 1956, 3.

⁴⁹ Jose Intxausti, “Zaitegi eta *Euzko-Gogoa* (eta II). Hamar urteko lana (1950-1959)”, *Jakin*, 13, 1980, 111.

tiradak harpidedunen kopurua baino handiagoak izaten zirela eta horrela, bera hil zenean, 1956, 1957 eta 1958 urteetako 1.034 ale aurkitu zituztela bere etxean alfer-aferrik pilatuta⁵⁰. Honela uste dutenentzat, Jokin Zaitegi diru-administratzaile koxkorra izan zelako edota behar bezala gizarteratzen jakin ez zuelako jo zuen lur aldizkariak. Badirudi Jokin Zaitegi zuzendariaren erru pertsonala izan zela aldizkariaren heriotza goiztiarra.

Baina beste arrazoi batzuk ere badaudelakoan nago ni, agian oinarritzakoagoak direnak eta ibilaldi honetan, han-hemen, azalduz etorri garenak.

Zuzendariak bazekien, jakin, aldizkariaren bizitza irakurlearen baitan zetzala neurri handi batean eta ahalegindu ere, ahalegindu zen haste-hastetik ahalik eta gehien zabaltzen eta lurralde desberdinetan arduradunak ezartzen. Bigarren zenbakian arduradun hauen izenak datoz: Peli Irizarrena Parisen, Andoni Arozarena Caracasen, Galindezena New Yorken. Harpidedunak egiten ere saiatu zen. Guatemalako aldian, guztira, 339 harpidedun egitea lortu zuen, honela banatuta: Euskadin 180, Espainian 10, Europan 41 eta Amerikan 108. Kopuru polita erbestean argitaratzen den aldizkari batentzat. Baina zuzendariak, aldioro, aterabide zaila zeukan arazo batekin egin zuen topo, eta zen 339 kopuru hartatik 64k, hots, % 18,8k ez zuela ordaintzen⁵¹. Kobratzeko zailtasunik handienak Europa eta Amerikan zituen. Erbesteko jeltzaleen artean, beraz, harpidedun gehienak kultur giro horretakoak baitziren. Ikusi dugun bezala, Zaitegik eta Andima Ibinaganabeitiak behin baino gehiagotan azaldu zuten “jelkide” diruzale horienganako hasarrea. Andimak, aldizkariaren idazkaritza hartzean, hirurogeiren bat izen ezabatu zituen harpidedunen zerrendatik. Zenbaki bakoitzetik ale gehiegi ateratzen zituela? Agian, bai. Guatemalako aldian, 500 ale guztira. Ez da gehiegi ere, baldin kontuan hartzen bada horietatik 400en bat harpidedunentzat zirela⁵². Gauzak horrela, huts egiten zuzena ez ote zen jeltzaleen euskaltzaletasun eskasa eta ez hainbeste, esan izan den bezala, zuzendaritzaren antolaketa nolabaitekoa?

Miarritzeko aldian, 874 harpidedun izatera iritsi zen aldizkaria, Guatemalako aldian baino 535 gehiago, honela banatuta: Ipar eta

⁵⁰ Velez de Mendizabal, Josemari, op. cit., 120-121.

⁵¹ Ibid., 111-112.

⁵² Ibid., 111,

Hego Euskal Herrian 554, Espainian 21 eta Europa eta Amerikan 299. Bigarren aldi honetan, mila ale atera zituen eta horietatik, 1957ko datuen arabera, 800dik gora banatzen. Baina hemen beste arazo-mota bat sortu zitzaion: harpidedunek ez zituztela eskuratzen aldizkariak, alegia. Hori batetik, eta bestetik, muga isilpean pasatu beharrak kos-tuak handitu egiten zituela eta bidean ale batzuk galdu egiten zirela⁵³.

Ipar Euskal Herriko erbeste-egoera hartan, zabalkunde-sarea antolatzen ahaleginak egin arren, hari-punta guztiak lotzea ez zen batere erraza gertatzen, zuzendaritzaren eskutik at aurkitzen baitziren aurrikus ezin zitezkeen hainbat zirkunstantzia. Horregatik, zuzendaritzaren diru-iturri pertsonalak ahitzearekin batera desagertu zen aldizkaria ere.

Litekeena da Jokin Zaitegik horrelako egoera latzak eskatzen zuen zuhurtzia guztia ez erabili izana bere aldizkariaren kudeaketan. Baina haren alde esan beharra dago –arras goitik esan beharra, gainera–, erbestean beste inork ez bezala sortu zuela dirua euskararen alde. Zaitegik dirua erruz sortu zuen eta dena euskal kulturaren zerbitzurako. Landibar lizeoa sortu eta gidatzeko kuraia eta gaitasuna izan zuen eta, neurri handi batean, horri esker bideratu zuen *Euzko-Gogoa*, Orixe eta Andimaren lankidetzak ordaindu, bere idazlanen argitalpenak finantzatu, eta beste hainbat ekimen burutu. Ez da zuzena, arinegi esan izan den bezala, Jokin Zaitegi diru-kontuan nolabaitekoa zelako, dirutza handiak xahutu zituela. Nire ustez, *Euzko-Gogoa* desagertzearen arrazoiak, ez Jokin Zaitegiren zuzendaritzari legokiokkeen maila pertsonalean, erbeste-egoerari berari dagozkion egiturazkoetan baizik kausitu behar dira. Azken honetan, batez ere. Erbestean aldizkariak laguntza nonbaitetik jasotzekotan, instituzio-mailan, Eusko Jaurlaritzatik espero zezakeen. Ez dakigu zenbateko diru-laguntza hartu zuen, baina, bai, Jose Antonio Agirre lehendakaria hiltzean, laguntza hori bukatu egin zela. Jeltzale dirudunek, berriz, aintzakotzat ere ez bide zuten hartu euskararen aldeko kausa. Parisko Batzar Nagusikoan proiektu dotoreak agertu ziren, Ipar Euskal Herrian burutu beharrekoak, baina dena amets hutsean geratu zen. Hemengo euskaltzale populistentzat ere Jokin Zaitegiren kultur asmo igoak ahuntzaren gaueko eztularen pareko ziren eta entzungor egin zien.

⁵³ Ibid., 119-120.

Labur esanda: *Euzko-Gogoa* bezalako aldizkari batentzat ez zen ez dirurik ez aski onarpenik euskaltzaleen munduan ere. *Euzko-Gogoa*, azken batean, Jokin Zaitegiren obra pertsonala zen, eta izan zen, berak finantzatua, espirituz eta sentimenduz jeltzalea, baina antolaketa eta kudeaketaren aldetik erabat autonomoa. Horregatik, jeltzaleen erbeste- teko beste aldizkari politiko eta sindikalak ez ziren hil; *Euzko-Gogoa*, ordea, bai. Haiek erakundekoak ziren; hau, euskarazkoa izateaz gain, autonomoa. Biziraupenerako zailtasun bikoiztua.

Bada beste arrazoi bat ere, hau ere, nire ustez, garrantzi handikoa, eta da Hego Euskal Herriko bizi-girotik aldendua geratu zela *Euzko-Gogoa*, moztuta bezala, eta, horregatik, ez zuela lortu belaunaldi berria bereganatzea. Bestalde, ez da ahaztu behar *Egan* aldizkariak idazle berriak bereganatzeko aukera askoz hobeak zeuzkala, batetik, finantz sostengu osoa zuelako Foru-Diputazioaren aldetik eta, bestetik, zuzendaritzak bedeinkazio politiko guztiak zituelako bere kudeaketarako. Ez zeukan ez harpidedunen arazorik ez bestelakorik. Errazegi ahazten bada ere, erbesteko bizi-baldintzak eta barrukoak ez ziren berdinak, batetik bestera legalitatetik klandestinitatera dagoen tartea aurkitzen baita. Ez da ahaztu behar *Euzko-Gogoa* aldizkariari frankismoak ate guztiak itxi zizkiola. Barne-exilioa gauza bat da, frankismoak modu berezi batez ezarri zuena euskal gizarteko maila guztietan eta, bereziki, kulturean, baina hortik egiazko erbestera jauzi kualitatiboa dago, testuinguru batean eta bestean gizarte-koordinatuak erabat aldatzen baitira. Errazago da gastuak iturri publikotik ordaintzea norberak egingdakotik jokatu beharra izatea baino.

Horixe da Jokin Zaitegiri *Euzko-Gogoa*-rekin gertatu zitzaionei: azken batean, bakarrik geratu zela eta, pordiosoro-moduan, berriro Amerikara emigratu behar izan zuela. *Euzko-Gogoa* aldizkariaren desgertzean, bada, zuzendariari maila pertsonalean legezkoenak baino askoz harago, gure ustez garrantzizkoagoak diren beste faktore batzuk guruzatzen dira, batik bat, politiko-kulturalak eta ekonomikoak. Arazo bakarra ez zen izan frankismoak ezarritako zentsurarena. Nolabait laburtu beharrez, egiturazko arrazoi horretaz aparte, beste biok ere aipatuko nituzke: bat, erbesteko komunitate jeltzalean ez zuela aski onarpenik izan, ezta Iparraldeko euskaltzaleen artean ere, eta bi, Hego Euskal Herriko euskaltzaleek beste kultur proiektu alternatibo batzuk bideratuak zituztela, –legalitatean eta diru-iturrietan babestuagoak zeudenak–, eta, ondorioz, barrutik, laguntza ez, baizik konpetentzia-

ren eraso etorri zitzaioa. *Euzko-Gogoa* ez zen aurkitzen *Egan* edo *Jakin*-en lehiakide izateko egoeran. Hauxe da kultura erbesteratuaren patua: bakardadea. Eta biziko bada, aldioro eta nonahi, kanpoko eta barruko indarren kontra borrokatu beharra. Jokin Zaitegiren erbesteko bizitzan zenbat eta barruago sartu, gero eta barruago sustraitzen zaizkit horrelako sentipenak.

GERRA ZIBILAREN ONDOKO
EUSKAL DIASPORAREN IDENTITATEA
FOLKLOREAREN BIDEZ:
CARACASKO EUSKO ETXEA

ROLDÁN JIMENO ARANGUREN¹

*Euzko Gaztedi Caracas'koa
Venezuela'ko kabian
Euzkadi aske ikusi arte,
tinko bere babesian.²*

Caracasko euskal erbestealdia³

1939an euskaldunak, Euskal Herritik ihesian, Venezuelara arrapaladan ailegatu ziren. Gerraren ondoren bizitza berri bat eraiki behar izan zuten euskaldun haiek kolonia bat eratuz. Euskaldun haietako asko Euskal Herrira itzuli arren, beste asko han geldituak dira, euskal

¹ Eusko Ikaskuntza (RIEV aldizkariaren koordinatzailea). *gaztelu_riev@infonegocio.com*

² Caracasko *Euzko Gaztedi* taldearen txangoen eta bestelako ekintzen abestia. Jolur, "Euzko-Gaztedi en la tradición vasca", *Euzkadi. órgano divulgativo del Centro Vasco de Caracas*, 6 (1978), orr. gabe.

³ Ikerketa hau 1995ean Espainiako Kanpo-Arazoetarako Ministeriotik jasotako Inter-campus E/AL programaren bitartez hasi nintzen, geroago Caracasko Eusko Etxeko adiskideen bitartez burutuz. Hauen artean Leunda-Viscarret familia aipatu behar dut, hainbat urte Venezuelan bizi ondoren, Iruñera berriro etorritakoak. Nire esker-rrona Txomin Peillen adiskide mirestuari luzatu nahi diot, bere egunean jardunaldi hauetan parte hartzearen gonbitea luzatzeagatik.

kulturaren eta herriaren askatasunaren alde lan egiten. Hiru milioitik gora Caracasen, edozein tokitan aurki daiteke euskaldunen presentzia: zenbait etxeren estilo eta izenak, jatetxeak eta, batez ere, euskal ohiturak. Diasporaren euskal folklorea interesgarria da bai historiatik bai antropologia sinbolikotik ikertzeko, bere balore ideologiko, interes politiko eta ekonomikoaz ikusiz⁴.

*Atzerria eta militantzia politikoa*⁵

1939. urtean, Venezuelak herria sustatzeko populazioa handitu beharra zuen. Méridako sendagile zen Simón Gonzalo Salasek “zurien inmigrazio jendetsu baina aukerakoaren” komenientziaz teorizatu ondoren, Frantzian ziren 80.000 euskal errefuxiatuak herria garatzeko egokienak zirela erran zuen. Pentsaera hau oinarri, Venezuelako gobernuak itsasontzi batzuk jarri zituen euskaldunen eskura, eta, 1939tik 1945era, mila eta bostehunen bat errefuxiatu politiko sartu zen herri hartara. Banaka batzuk salbu, guztiak afiliazio nazionalistakoak ziren, Venezuelako gobernuak berak ezarritako baldintzetako bat betez.

⁴ Oinarri teoriko hauen finkapena ikusteko, Fernández de Larrinoa, Kepa, “Anthropological Trends in the Study of Folk Theatre in Soule Valley”, *Jentilbaratz*, 6 (1997), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 20-40. Ibid., “Jai eta ospakizunaren Antropologiari buruz zenbait ohar”, *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Congrès International. Hendaye, 1997*, Eusko Ikaskuntza, Donostia; Euskaltzaindia, Bilbao, 1998, 361-366. Eta hauen adierazpen praktikoa bere liburuan, *Mujer, ritual y fiesta. Género, antropología y teatro de carnaval en el valle de Soule*, Pamiela, Pamplona, 1997; eta gure gaiarekin erlazio handiagoa duen *Ospakizuna, errituala eta historia. Mendebalde urrutiko euskal jaiak antropologiaren harira*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1992. Bertzalde, Amerika eta euskaldunei buruzko *corpus* bibliografiko bat agertu zen 1998an, hemendik aurrera gai honi buruzko edozein ikerketa hasteko erreferentzia garrantzitsua: Aduziz, Iñaki; Ascunce, José Angel; Zabala, José Ramón, “América y los vascos. Introducción y estudio bibliográfico”, *RIEV*, 43-1 (1998), 117-147.

⁵ Josu Chueca eta Juan Carlos; Pérez EHUko irakasleak ikerketa proiektu bat egiten ari dira oraintsu, euskal atzerriaritzearen gaineko materialak biltzeko asmoz. Bildu beharreko materialak interesgarriak izanzen dira, ez bakarrik historia garaikideari dagokionez, baizik eta esku artean dugun hau bezalako antropologi azterketetarako ere. Venezuelako euskal atzerria orokorki ikusteko, ikus San Sebastián, Koldo, *El exilio vasco en América (1936-1946). Acción de gobierno*, Txertoa, San Sebastián, 1988, 115-128. orr.; eta jardunaldi hauetan Edurne Alegria Aierdik aurkeztutako lana.

Honela, talde honek kohesio handia izan zuen eta, Europa utzi aitzin ere, bazuen talde izaera sendoa⁶.

Lehendabiziko euskal exiliatuek lan handiak egiteko eta aberri berrira moldatzeko garaia ezagutu zuten, gehienek igaro eta bukatuko zela uste bazuten ere. Atzerriratze politikoak, hortaz, itsasoa Amerikak aldera zeharkatu zuten euskaldunek historian zehar izan zuten izaera azpimarratzen zuten: itzultzeko joera⁷. Bestalde, euskaldun hauek aberri berrian diferenteak⁸ sentitu ziren eta, honekin bukatzeko, bere elkar- tze estrategiak sortu zituzten⁹, nahiz eta laster Venezuelako gizartera modu batera edo bestera egokitu behar izan¹⁰.

Venezuelako euskal koloniaren bihotza Caracasko Eusko Etxean dago. 1942an haren lehenengo egoitza inauguratu zen¹¹, baina *El País Vasco* izenekoaren gaur egungo eraikina 1950eko Aberri Egunean za- baldu zuten¹². Venezuelako euskal guneetarik¹³ Caracaskoa izan da, eta egun ere bada, nabariena. Gaurko Eusko Etxearen egoitza eraikin handia da: jatetxe aipagarria –euskal sukaldaritzako karta zabala es-

⁶ Arciniegas, Germán, “Los vascos en Caracas”, *Euzkadiko Erriak. Antes “Pueblos del País Vasco”*. *Venezuela. Homenaje a Bolívar*, Caracas, c. 1945, orr. gabe. Duplá, Antonio, *Presencia vasca en América (1492-1992). Una mirada crítica*, Gakoa, San Sebastián, 1992, 130. Urrutia, Txema, *El Roble y el Ombú. Viaje a la América de los Vascos*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1992, 40-41. San Sebastián, Koldo, “América y la guerra en Euzkadi”, *Bilduma*, 12 (1998), 113-116. Jimeno Aranguren, Roldán, “Navarras y Pamplonas de la diáspora”, *Signos de identidad histórica para Navarra*, II, Caja de Ahorros de Navarra, Pamplona, 1996, 240.

⁷ Lhande, Pierre, *La emigración vasca*, II, Auñamendi, San Sebastián, 1971, 12-13.

⁸ Brah, A., “Difference, Diversity, Differentiation”, *Revue Internationale de Sociologie*, 2 (1991), 53-71.

⁹ Hau, oro har, herrialde guztiekin gertatutako fenomeno da. Cfr. adibidez ondo ikerturiko Ipar Amerikako kasua: Daniels, R., *Coming to America: A History of Immigration and Ethnicity in American Life*, HarperCollins, New York, 1990.

¹⁰ Fragoso, J., “Adaptation, Acculturation and Ethnicity”, *Hispanic Journal of Behavioral Sciences*, 13-4 (1991), 448-455.

¹¹ Ugalde, Martín de, *Mientras tanto fue creciendo la ciudad*, J.A. Ascunce, Donostia /San Sebastián, 1992, 17-18, eta Ajuria, Peru; San Sebastián, Koldo, *El exilio vasco en Venezuela*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1992, 117-120.

¹² Ajuria, Peru; San Sebastián, *El exilio vasco*, 123-124.

¹³ Haien historia ikusteko, *Ibid.*, 124-129.

kaintzen du-, igerilekua eta pilotalekua –bere hartan taberna– dauzka, eta bostehun bat bazkide ditu.

Arrazoi politikotik hutsengatik Venezuelara joan ziren atzerritarren kopurua hasieran oso handia izan ez bazen ere, Martín de Ugaldek dionenez, gehituz joan zen, frankismoak langile soberakinei atea zabaltzen zizkion heinean, Venezuelara atzerritarren lehen eta bigarren mailetakoa senitartekoak eta, ondoren, adiskideak ere iristearekin baitean. Berrogeita hamarreko hamarkadan hasi zen kopurua handitzen, eta hirurogeikoan segitu zuen, beren ezagutza Venezuelako industria-*boomari* eskaintzen zioten profesional espezialistei esker, hauetako askok Francoren erregimenean deseroso sentitzen zirelarik ere¹⁴. Azkenik, etorkinen hirugarren etorkin-saldoa eman da euskal erbesteratu politikoen eskutik, ETA kideak, alegia.

José Ángel Ascunceren ikuspuntutik, Euskal Herriaren historian iraunkorra izan da beti bereari eusteko eta bizirauteko borroka, kultura nagusiekiko integrazio prozesu gogorren edo ez hain gogorren artean nortasunaren defentsa bortitza¹⁵. Baziren, bada, atzerritar nazionalisten baitan kultura bati atxikitzeko eta dinamika emateko erronka eta konpromisoa, euskal kulturarekin eta hizkuntzarekin zerikusia zuen guztia-*ren* etsai amorratua zen militarren diktadurari esker desagertzeko arriskuan ikusten baitzuten. Gogo prestaketa baino handiagoa izanik, beren kultura askatzeko eta lantzeko eginkizun bikainean hasi ziren¹⁶.

Venezuelara joan ziren euskal atzerritarrek beren era berezian bizi zuten euren sentimendu nazionalista, pisu politiko handiz, eta, ahal zuten neurrian, Euskal Herriaren askapenerako borrokan laguntzen ahaleginduz. Politika nazionalistak atzerriko historian gorabeherak izan zituen, gainezkako baikortasun garaiak, kamusada aldiak eta etorkizun berrietako garai berriak¹⁷. Ez hain urruneko denboran, Cara-

¹⁴ Ugalde, Martín de, “Euskadi”, Naharro-Calderón, J.M. (Coord.), *El exilio de las Españas de 1939 en las Américas. ¿A dónde fue la canción?*, Anthropos, Barcelona, 1991, 356-357.

¹⁵ Ascunce Arrieta, José Ángel, “América y los vascos. Relaciones de una deuda cultural”, *RIEV*, 43-1 (1998), 16.

¹⁶ *Ibid.*, 30.

¹⁷ López Adan, Emilio, “Beltza”, *El nacionalismo vasco en el exilio. 1939-1960*, Txertoa, Donostia, 1977, eta, ikuspegi zabalago batetik, San Sebastián, Koldo, *El exilio vasco en América*; eta, *ibid.*, “América y la guerra en Euzkadi”, *op.cit.*

casko Eusko Etxeak laguntza eta babesa eman die maizki atzerriratuei, eta, gainera, bertako kide izateko, Euskal Herriko Autodeterminazioaren eskubidearen alde izatea eskatzen da¹⁸.

Caracasko Eusko Etxean euskal espirituaren erakusgarri guztiek dute leku, hizkuntzaren lanketak, pilotak, *Pizkunde* abesbatzak eta dantza taldeek ere, inguru egokian. Caracasko euskaldunek *Euzko-Deia* saioa dute (1959ko abendutik) eta, bertzalde, Caracasko hegoaldeko hilerrian panteoi bat ere bai. Ikastola egon izan da Euskal Etxean urte batzuetan, eta hor aurrek euskara ikasi dute, gero ahaztua baldin badaukate ere gehienek¹⁹. Ikurretan ikur da gudariaren omenez Eusko Etxeko lorategietan duten oroitarria, Vicente Arnotegik egina eta 1962ko ekainaren hiruan inauguratua. Leku hau Estatu Batuetako euskal ostatuekin parekatu beharra dugu. Han ere euskaldunek, festak, dantzaldiak, pilota, euskal gastronomia eta abar dituzte. Beraz, Kepa Fernández de Larrinoak dioen bezala, jaigiro kontestu baten barruan, mundu zaharretik berekin ekarri zuten identitatearen ezaugarriek ekitako aukera ederra eman zien euskaldunei ostatuak, gizarte zabalari begira talde edo komunitate etnikoaren mugaldeak indartzen zituen²⁰.

Gaztediaren motorea

Belaunaldiz belaunaldi, diasporaren euskal nortasunaren etorkizuna gazteria euren gazteetan egon da. Gazteria izan da neurri handi

¹⁸ Garmendia, Elixabete, “Urrezko ezteiak”, ETBko erreportaia, *Hemen eta Munduan* programan botatakoa (zuzend. E. Aldamiz-Etxeberria), ETB, Albiste Zerbitzuak, 1989.

¹⁹ Hezkuntza garrantzi herriaren identitatea mantentzeko garrantzi handia izango du. Cfr., besteak beste Estatu Batuetako kasuekin, adibidez: Banks, J., *Multicultural Education. Theory and Practice*, Allyn and Bacon, Boston-Massachusetts, 1988 (2. ediz.); Slonim, M., *Children, Culture and Ethnicity: Evaluating and Understanding the Impact*, Garland, New York, 1991; eta ikuspegi zabalago batekin Russell F. Farnen, “Nationalism, Ethnicity, National Identity, and Multiculturalism: Concluding Observations”, R.F. Farnen (ed.), *Nationalism, Ethnicity, and Identity. Cross National and Comparative Perspectives*, Transaction Publishers, New Brunswick-London, 1994, 443-462. Caracasko Euskal Etxeko euskarazko irakaskuntzak ere bere garrantzia izan zuen hainbat pertsonatan, bere bizitza osoan mantendu dutenetan alegia, hauen artean, Edurne Alegria Aierdiren kasua esanguratsua delarik.

²⁰ Fernández de Larrinoa, Kepa, *Ospakizuna, errituala eta historia. Mendebalde urrutiko euskal jaiak antropologiaren harira*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1992, 71.

batean hasieratik Eusko Etxea mugitu duen motorea, eta honen jarraipenak izan behar duen harroina. Gertaera honek inportantzia handiagoa hartzen du folkloean. Hau ikusten da, batik bat, dantza aldoirean, dantzariak adin jakin batera iristean uzten baitiote dantzatzeari.

Caracasko gazte euskaldunen elkarteak, “Euzko Gaztedi”, 1948ko apirilaren 24an eratu zuten atzerriarituriko gazte euskaldunek. Lehenago bazen izen bereko erakunde bat, baina, uneko egoera berezia zela eta, orduko gazteek “Euzko Gaztedi” misto hau sortu zuten. Neska-mutilak biltzen ziren jarduera pila batean aritzeko, euskal nortasuna iraurarazi eta zabaldu nahian, eta Venezuelako komunitatearekin trukeak egitearren, pixkanaka ari baitziren hartan sartzen. Lehen unetan, gehienek zuten Euskal Herrira laster itzuliko zirelako itxaropena eta, hartarako, beren jaioterriko ohitura eta bizimoduari eutsi beharra zuten. Denbora aitzina joan zen eta gazte haiek beraiek bere egiten eta gozatzen hasi ziren herri miresgarri hartako bizimodua, sorleku zuten Euskal Herria, jakina, ahantzi gabe. Urteak igaro ziren eta gazte belaunaldi berriek ere Euskal Herria eta Venezuelaren arteko harremanak sendotzen zituzten kultur eta kirol jardueri ekin zieten. Ildo honetatik, folkloreakin zerikusia zuten jarduerak inportantzia handia izan zuten²¹.

Urteak pasa ahala, giza igarotze naturala gertatu da “Euzko Gaztedi”n, belaunaldiz belaunaldi, eta lehen urteetako gainezkako berotasun aberkoiaren ikusmoldea egungo egoeretara aldatu da, eta hauetan gurasoen kontakizunetik jaso dute beren euskalduntasuna²².

Azken urte hauetan, Eusko Etxeko gaztediaren bulkada Eusko Jaurlaritzak babestu du, erakunde honek Ameriketako diasporarekiko sentiberatasun handia baitu. “Gaztemundu” programa 1995ean Gasteizen egindako “Euskal Gizataldeen Mundu-Batzarrean” sortu zen, eta haren bidez hartu zuen Eusko Jaurlaritzak munduko Euskal Etxeetako gazteentzako jarduerak egiteko konpromisoa²³. Helburu nagusiak

²¹ Jolur, “30 años: un joven que ya es maduro”, *Euskadi. Órgano divulgativo del Centro Vasco de Caracas*, 6 (1978), orr. gabe. Jolur, “Euzko Gaztedi de Caracas”, *Euskadi. Órgano divulgativo del Centro Vasco de Caracas*, 2 (1977), orr. gabe.

²² Antzeko gauza gaur egungo Estatu Batuetako guraso euskaldunen seme-alabekin gertatzen da, baina han, exiliorik izan ez denez, alde politikoak ez dauka halako garrantzirik. Fernández de Larrinoa, Kepa, *Ospakizuna, errituala eta historia*, 71-72.

²³ Kongresu honi buruz, ikus *Euskaldunak munduan, construyendo el futuro. Congreso Mundial de Colectividades Vascas – Euskal Gizataldeen Mundu-Batzarra*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1995, 37.

egungo euskal baloreak zabaltzea eta gazteak beren Etxeetan gehiago sartzea ziren. Munduko Euskal Etxeetako kideek, bada, bi astez edo, Euskal Herri osoan barnako bisita paregabea egiteko aukera dute. Euskal etxeetako kide diren 20 eta 30 urte bitarteko gazteek hartzen dute parte, diasporaren eta euskal etheen gaineko ponentzia bat eginez. Hau guztia jatorri izateaz harro gotea merezi duen herri bat ezagutzeko²⁴.

Erbestealdi politikoak euskal aurrekarien bila

Venezuelako historiaren euskal aurrekariak atzerritik ikusiak

Euskal diasporak bere herri berriarekin harremanetan sartzeko historiak eragiten duen identitate sinbolikoan oinarritu ziren. Horregatik, lehen erbesteratuak laster Venezuelako euskal historia edo euskal kutsua zeukan folklorea izan zuten gustoko. Horrelako ikerketa-materialak lortzea erraza zuten, izan ere, duela zenbait mendetatik hona, euskaldunek Amerikan izan duten historiaren protagonista herri hau izan da. 1939ko euskal atzerriratuek bere egin dute gertaera hau, hartu dituen herriarekiko zubiaren bila. Honela, Venezuelara erbesteraturiko historialari eta jakintsuek “Real Compañía Guipuzcoana de Caracas” delakoaren gaineko ikerketa anitz egin dute.

Baina Venezuelarren nortasun nazionalaren ikur nagusia, Simón Bolívar alegia, egin zuten bere onartu dituen herriarekiko lotura. Bolívarrek, Espainiaren menpe zeuden Hego Amerikako herrien Askatzaile handiak –hortaz, pisu sinboliko izugarria du–, aitzineko euskaldunak zituen eta, bertzalde, euskaldun askok hartu zuen parte harekin Hispanoamerika askatzeko eginkizunean²⁵. Venezuelako herriak berak onartua du Bolívarren, bere Askatzailearen²⁶, euskal jatorria, eta Caracasko Euskal Etxeak Simón Bolívarri ematen dion inportantzia hain

²⁴ *Gaztemundu*. Ikus interneten www.kromasys.com/cvc/Gaztemundu/QueEs.html

²⁵ Grases, Pedro, “Presencia vasca en Venezuela”, Ignacio Arana Pérez (koord.) *Los vascos y América. Ideas, hechos, hombres*. Espasa-Calpe/Argantonio, Madrid, 1990, 147, eta Amezaga Aresti, Vicente, *Nostalgia*, II, J.A. Ascunze, Donostia, 1993, 348-353. Eta, ikuspegi antropologikoago batetik, Pastor, Robert, *Euskal Herria en Venezuela*, Ediciones Vascas, San Sebastián, 1979, 28-33.

²⁶ Pastor, Robert, *Ibid.*

da funtsezkoa, Caracasen honen omenezko oroitarriaren aitzinean oroitzapenezko ekitaldiak ere egiten dituztela. Eusko Jaurlaritzak, babilio sinbolikoaz eta Espainiako Inperioaren Askatzailearekin dauden loturez oharturik, euskal diasporari hitz egin dionean, haren itzala baliotsi du, Karlos Garaikoetxeak 1983an Amerikak bisitatu zituenean, adibidez²⁷.

Folklorean ere aurrekariak bilatuz

Juan de Liscanok, 1967an, “Noticia sobre la presencia vasca en el folklore venezolano” titulukoa argitaratu zuen. Azterketa honek joan den mendearen bukaera eta honen hasieran sorturiko metodologiari oraindik zor zion folklore azterketaren kontzeptuan du eremua²⁸.

Haren tesien arabera, “Compañía Gipuzkoana” izenekoaren kudeaketak, misioek eta beste zenbait arrazoik agertarazi zituzten Venezuelako folklorean euskal ezaugarrien antzeko batzuk. Teoria honen argudio nagusiak Isabel Aretzen tesia du oinarria, Venezuelako ohituretako askoren sustraia Misioetan bilatu behar dela dioena, erlijiosoek dantza indigena batzuk ordeztu zituzten Europako, edo Espainiako, batzuek, eta Santu zaindariaren omenez eginarazten zituzten. Hark eranstean duenez, Falcónen adibidez, 1947an, parroko batek eskaini zizkion eskuz idatzirikoa koadernotxo zaharretan ikus daiteke Venezuelan zehar Ezpatadantzak, Zintadantza, Zortzikoa eta bertze zenbait dantza eta honelako musikak ibili zirela²⁹.

Han izaniko euskaldunek bertako folklorean aztarnaren bat utzi zuten, are gehiago misiolari batzuek euskal folklorearen zenbait ezaugarri bertakoan sartu zuten tokietan, aipatu dugun horretan, adibidez. Baina ez dugu gertakaria honengatik handiagotu behar. Bertze

²⁷ Elkar Lanean, *El lehendakari en América. Viaje del presidente del Gobierno Vasco don Carlos Garaikoetxea a Panamá, Caracas y Bogotá (17 al 25 de mayo, 1983)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1983, 10.

²⁸ Fernández de Larrinoa, Kepa, “Fronteras y puentes culturales: Folklore, danza tradicional e identidad social”, *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social*, Pamiela, Pamplona, 1998, 15.

²⁹ Liscano, Juan, “Noticia sobre la presencia vasca en el folklore venezolano”, Martín de Ugalde (zuz.), *25 años del Centro Vasco de Caracas*, Caracas, 1967, 22-24.; Isabel Aretzen lana: *Panorama del Folklore Venezolano*, Biblioteca de Cultura Universitaria, Caracas, 1959, 93.

alde batetik, Juan de Liscanok ausarki dio Venezuelako María Lionza eta Euskal Herriko Mari gurtzeko ohituren arteko paralelismo batzuek euskal eta venezuelar nekazarien arteko harremani esker gertatu zirela³⁰. Alderdi hau burugabekeria da. Euskal nekazari eta abeltzainek XVIII. mendetik aurrera izan zuten inportantzia Venezuelan³¹, eta gainera María Lionzaren gurtza tokiko berezitasunak dituen fenomeno unibertsala da, hobekien ezagutzen duenak, Jacqueline Clarac de Briceño antropologoak, adierazi duen bezala³².

Venezuelako zenbait dantzatan euskal ezaugarriak?

Juan de Liscanoren aburuz, Venezuelako dantza batzuek izan dute euskal eragina. Jadanik galdurik legokeen *Paloteo* izenekoa aipatzen du, eta haren euskal paraleloa. Ez dago guztiz galdurik dantza hori, baina ez da ezaguna Venezuelen. Hala ere, Apure estatuko zenbait herritan eta Ciudad Bolívarren dantzatzen da. Dantza honen funtsa indigena eta konkistatzaileen arteko borroka imaginarioa da³³. Dantza hau, beraz, ez dugu euskal folkloarekin zuzenean erlazionatu behar, Mairu eta Kristauen antzezenekin baizik. Borrokek, Hispanoamerikan, konkistako dantzak adierazi nahi dituzte³⁴.

Makilekin egiteko beste dantza batzuek, Lara estatuko “Tamunangué” izenekoa edo Mérida estatuan “Dancers de la Candelaria” deiturikoek egiten dituztenak alegia, euskal Makildantzarekin erlazionaturik daudelako susmoa azaltzen du. Venezuelako dantza horrek ez du izen bakarra, “Danza de la Candelaria”, “Danza de los vasallos”, “Moros de la Candelaria”, “Negritos de la Candelaria”, “Dancers de la Candelaria”

³⁰ Liscano, Juan, “Noticia...”, 24.

³¹ Ugalde, Martín de, “Los Vascos en la Agricultura”, Martín de Ugalde (zuz.), *25 años del Centro Vasco de Caracas*, Caracas, 1967, 46-51.

³² Clarac de Briceño, Jacqueline, *La enfermedad como lenguaje en Venezuela*, Universidad de Los Andes, Mérida, 1992, 117-125.

³³ Domínguez, Luis Arturo; Salazar Quijada, Adolfo, *Fiestas y danzas folklóricas en Venezuela*, Monte Ávila editores, Caracas, 1969, 189.

³⁴ Carrasco Urgoiti, María Soledad, “Representaciones de Moros y Cristianos”, Joaquín Álvarez Barrientos eta María José Rodríguez Sánchez de León (koord.), *Diccionario de literatura popular española*, Ediciones Colegio de España, Salamanca, 1997, 281-284.

edo “Baile de la Candelaria” erraten zaiolarik³⁵. Liscanok Makildantzarekin ikusi nahi duen paralelismo zuzena kultur eremu ezberdinetan diren makildantzekin erlazionatu behar da, Espiniako estatukoe-kin, adibidez³⁶.

Zuhurrago agertzen zaigu Juan de Liscano Venezuelako alde askotan egiten den “Baile de las Cintas” izeneko dantza eta euskal Zintadantzaren arteko paralelismo bila, gertakari unibertetsala baita³⁷. Euskal eragina duen bertze dantza bat, egile honen ustez, Venezuelako “Baile de la botella” izan daiteke, Godalet-dantzaren zorduna, dantzariak, botila apurtu gabe, gainetik egiten du jauzi, eta euskal dantzan ardoz berteriko basoa erabiltzen du³⁸.

Folklore eta identitatea

Folklorearen garrantzia atzerrian

Martin de Ugaldek, Caracasko Euzko-Gaztediren sortzaile eta lehen presidenteak, Euzko Gaztediren hogeita hamargarren urteurrenean, sorrera gogoratzen du:

“Orduan gazte giñenok bide bat instituzionalizatzeko eta iraunkor egiteko kezka izan genuen, garai hartako atzerriko behar soziopolitikoari emateko behin-behineko erantzuna izan zitekeen bidea. Ez ditut orain gure estatutuak xehetasunez gogoratzen, oso eztabaidatuak izan ziren, baina, idaztean izan genuen asmoa agerian egon zen, hots, geure indarra zuzentzeko erak, gazteok adierazteko behin-behineko behar-rako bidea eta, aldi berean, Euzkadi Amerikan zerbitzatzekoa, hau formakuntza aberkoia eta bere kultur adierazpenetako bi hauen bidez: Euskara eta folklore tradizioa³⁹.

³⁵ Domínguez, Luis Arturo; Salazar Quijada, Adolfo, *Fiestas y danzas folklóricas*, 38.

³⁶ Ikus, adibidez, Abaladejo Imbernón, Norberto A. (koord.), *Tradición y Danza en España*, Comunidad de Madrid – Ministerio de Cultura, Madrid, 1992.

³⁷ Aurreneko kasuan bezala, Espainiako Estatuan bakarrik adibide ugari topa dezakegu, Norberto Abadalejok koordinaturiko lanean ikusten ahal den bezala.

³⁸ Liscano, Juan, “Noticia...”, 24.

³⁹ Ugalde, Martín de, “Euzko-Gaztedi en la tradición vasca”, *Euzkadi. Órgano divulgativo del Centro Vasco de Caracas*, 6 (1978), orr. gabe.

Euskal atzerriaren historialariaren solas hauek ederki islatzen dute folkloreak eta euskal hizkuntzak sentimendu aberkoiari diasporan eusteko duten inportantzia⁴⁰. Dantza⁴¹, euskal kirola eta musika inportantzia handikoak izaten dira euskal etxe guztietako folklore lanketan. Kultur adierazpen hauek *tradiziozkotzat*⁴² jotzen dira, eta Caracasko Eusko Etxeko aldizkari, txartel eta orri guztietan etengabe errepikatzen da hitz hori. Antzeko ildotik, Alberto Saramonek, Río de la Platako euskal komunitatearentzat egin zuen Euskal Herriari buruzko saiakera batean, Euskal Herriaren *sustrai* existentzialak aztertu nahi izan ditu⁴³, euskal folkloreak berezitasuna barne harturik⁴⁴.

Txema Urrutiaren ustean, Caracasko euskaldunen kultur jarduerak euskaldun izatearen adierazpena ziren, bere herrian berean denaren naturaltasunaz, baina, ez itzultzeko joana, utzi zuenari eustekorik ez duenaren larritasunik gabe. Haiek Euskal Herriari begiratzen zioten, Aberri askera itzultzea amesten zuten eta hori lortzeko borrokan, ahal zuten neurrian, aritzen ziren. Gertaera hau bizipen aberkoi etniko-kulturala da, eta honetan oinarritu beharra dauka euskaldun izateak hurrengo belaunaldiei halareztako. Egile honek, beraz, Venezuelako euskaldunentzat etorkizuneko drama hau honetan laburtzen du: Euskadiren askatasunaren alde berrogei urtez borrokatu izan ondoren, Herria *beraiek gabe* berrantolatzen ari den egoera politiko berriaren errealitate gordina ikusten dute. Azken batean, ez daude Euskal Herrian eta ez dira inoiz izanen, eta Venezuelan izan beharko dute euskaldun, Argentinakoen antzera⁴⁵.

⁴⁰ Kultur adierazpen hauei gutxienean eta banakakoen diren bertze batzuk erantsi beharko genizkieke, literatura lantzea, adibidez. Ikus, bertzeak bertze, Patri Urkizu, *Exiliatuok ez gara inongoak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1994.

⁴¹ Dantzak berezko identitatea suspertu nahi duten herrietan garratzi handia dauka. Horrela bada, Kataluniako Generalitatetik *Sardana* dantza Herri horretako *ikur* edo *sinbolo* bezala ikusten da: Dolcet, Jordi; Moga, Antoni, *Symbols de Catalunya*, Generalitat de Catalunya, Barcelona, 1996, 77-88. orr.

⁴² *Tradiziozko* hitza antropologian deskribatu da, aipagarriak E. Hobsbawm eta T. Ranger (arg.), *The invention of Tradition*, Cambridge University Press, Cambridge, 1983.

⁴³ Saramone, Alberto, *Los abuelos vascos en el Río de la Plata*, Biblos Azul, Buenos Aires, 1995, 11.

⁴⁴ *Ibid.*, 136-138.

⁴⁵ Urrutia, Txema, *El Roble y el Ombú*, 43-44.

Izan ere, Argentinako diasporako euskaldunen festak bestelako filosofiak betetzen ditu. Buenos Airesko “Laurak Bat Elkarteak” Euskal Aste Nazionala antolatu zuenetik, adibidez, herritar guztiei euskal herriaren antza etnokulturala ezagutzera emateko bide izan zen, eta Argentina, Amerika eta Euskal Herriko euskal komunitatekideen artean adiskidantza, kultur eta merkataritza loturak sustatzeko, baita, haien garapen, ongizate eta hazkundera –giza, adimen eta ekonomia aldetik– bultzatzearen, komunitate horien arteko osaketa handitzeko ere. Izan ziren ekitaldietan, jakina, euskal folkloreak ere tokirik izan zuen⁴⁶. Halaberean, atzerrian euskal musika eta dantzek duten inportantziaren adibide paradigmatikoa Argentinako “Saski Naski Elkarte” izanen da. 1952ko estatutuetan azalduko helburuak Euskal Herriko eta Argentinako Nazioko kultura, folklorea, artea, koreografia eta musika zabaldu eta Euskal Dantzen Akademia sortzea ziren, bertzeak bertze⁴⁷.

Bertze alde batetik, Ipar Amerikako testuinguruan Bilbao eta Douglasssek diotenez, Lehen Euskal Jaialdi Nazionaletik aitzina batez ere –Sparks (Nevada), 1959–, gaur egun ere Amerikako Mendebaldeko euskaldunen bilera nagusia izanik, komunikabide bihurtu ziren euskal festak, elkarrengandik arrunt urrun bizi diren pertsonak lehen-go adiskidantza harremanak berrizta edo berriak egin ditzaten. Honela, bada, festara joatea sartzeko mekanismo inportantea izaten da eta, hein batean, kohesioa ematen du, populazio bat berresten den –bere irudia euskalduna ez den gizarteari proiektatuz– talde etniko bihur dadin beharrezko kohesioa. Hemen, euskal kirolez gain, herri dantzak beti izaten dira ikusgai, eta bertze euskal kolonietako dantza talde gonbidatuek ere hartzen dute parte. Toki bakoitzeko zentruak bertzeak gainditu nahi ditu bere festa arrakastatsuz. Agian, festa bateko herri dantzetan, kanpoko bi edo hiru komunitatetako haur dantzarien taldeak zentru babesleko taldearekin batean arituko dira, eta ikusleek begi kritiko eta ironikoez begiratuko diete guztiei⁴⁸.

⁴⁶ www.juandegaray.org.ar/noti.html. Kultur Intereseko izendatu zuen Nazioko Presidentziako Kulturarako Idazkaritzak eta Buenos Aires Hiriko Intereseko hiri horretako Gobernuburuak.

⁴⁷ García de Cortázar, Fernando (zuz.), *Historia de la emigración vasca a Argentina en el siglo XX*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1992, 274.

⁴⁸ Bilbao, Jon; Douglass, William, *Amerikanuak*, 476-478.

Hala ere, alderdi nagusietan, Estatu Batuetako Euskal Jaietako dantzek, Caracasko Eusko Etxeko erakustaldietan bezalaxe, *ezaguera kolektiboaren* adierazpide eta bereizgarria eskatzen dute. Ezaguera hau, Kepa Fernández de Larrinoak ikusten duen bezala, lehenengoz dantza taldean ikasia da, gero kanpoan erakusteko eta egiaztatzeko. Horrela, dantza taldera sartzean, gazteak ezaguera zehatzetan jarduten hasten dira, herentzia bat jasoz eta elkarren arteko ezaguera bat ikasiz. Azkenik, jaialdiaren lengoia kulturala dela medio, dantza egitea ezaguera kolektibo bat dramatizatzen duen irudia eta metafora da. Ezaguera honek, haren ihardueraren bitartez, “identitate-adierazpide” bilakatzen delarik⁴⁹.

*Folklorearen ikastea*⁵⁰

Euskal folklorea hizkuntza ez bezala, erraz ikasten den kultur ezaugarria da eta, hortaz, identitatea berresteko bitarteko xumeago bihurtzen da. Gainera, 39. urteko erbesteratu guztiak ez zuten euskaraz hitz egiten, transmisio naturala zailagoa bihurtuz. Bertzalde, folklorearen –eta batez ere dantzaren– ikusgarritasunak, mugimendu eta ikuskizunak, gazteek jardun dezaten interesa ematen diote. Edozein erakustalditako dantzariaren irudiak zalantza kanpo uzten du. Kepa Fernández de Larrinoaren ustez, errepresentazio kolektibo baterako irudi ikasiak dira eta, berauek direla medio, festibalak identitatea erakusteko eta sortarazteko zabalgunen bihurtzen dira⁵¹.

Identitatearen elementu den aldetik, dantzan ikasteak hurbileko aurrekari bat du. Bigarren Errepublikan talde abertzaleen ekitaldietan folklore emanaldiak izaten ziren, eta hauetan dantza jaialdiak. Garai honetan abertzaleek euskal dantzak zabaltzeari gogor ekin zioten⁵².

⁴⁹ Fernández de Larrinoa, Kepa, *Ospakizuna, errituala eta historia*, 107.

⁵⁰ Honen inguruan bestelako ikuspegi zabalago bat eman genuen: Jimeno Aranguren, R., *Estrategias educativas en la enseñanza de la danza tradicional en el exilio: el Centro Vasco de Caracas*, en “Jornadas de Folklore: el folklore y la educación”, Eusko Ikaskuntza, Bilbao, 1999 (Eusko Ikaskuntzako *Jentilbaratz* aldizkarian argitaratuko dena).

⁵¹ *Ibid.*, 107.

⁵² Granja, José Luis, “The Basque Nationalist Community During the Second Spanish Republic (1931-1936)”, William A. Douglass (ediz.), *Basque politics: a case study in ethnic nationalism*, Basque Studies Program-University of Nevada, Reno, 1985, 168. Chueca Intxusta, Jesus P., “Euskal Nazionalismoak herri nortasunaren eraikuntzan folkloreari emandako zeregina (1931-1939)”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, XXII, 55 (1990), 27-33.

Izan ere, Josu Chuecak dioen bezala, orduko jelkideentzat euskal folklorea, hizkuntza edota herri ohiturak bezala desagertze arrisku larrian zegoen eta hau gertatzekotan berarekin batera herriaren zati garrantzitsu bat hil egingo zen. Beraientzat “Erraondoko txistularia” zen imitatu behar ez zuten historia tristea. (...) Horregatik folkloreak eustea eta ekitea herriaren nortasuna finkatzea zen⁵³.

Espiritu hau atzerrian indartu zen. Venezuelara euskal erbestertuen talde bat eraman zuen *Cuba* itsasontzian bertan osatu zen dantza talde bat. Bidaia hartan, gainera, garaiko euskal txistulari onenatariko bat zihoan, Segundo de Atxurra. Caracasko Eusko Etxea sortuz geroztik, Etxeko lehen dantza taldea eratu zen, eta gero bertze batzuk: Ekintzaleak, Eusko Gaztedi, eta abar. 1989an euskal dantzan lau talde hauek ari ziren Venezuelan: Caracas, Puerto La Cruz eta Valenciako etxeetakoak eta hiriburuko Aldazka⁵⁴.

Gaur ere, txikitatik ikasten da dantza. Adin horietan, ikasketa honen helbururik garrantzitsuena euskal identitatearen ezagupena eta berenganatzea dugu. Horrela, euskal folklorea identitatearen zutabe bat bezala ikusten da eta, honen bidez, Euskal Herriaren partaide izatearen sentimendua suspertzen. Venezuelan⁵⁵, euskal erbestertuaren haur hezkuntzan, beste zenbait herritan bezala, dantza funtsezko gaia izaten da⁵⁶. Caracasko Euzkadi Ikastolako jarduera anitzetako bat dantzak ikastea zen, hain zuzen⁵⁷.

Dantzaren mundua ezin bereizi da txistulariarenetik. Txistulariak ere euskal etnizitatearen irudian garrantzi handia izanen du⁵⁸. Hau horrela, Venezuelara joan ziren txistulariak anitz eta kalitate handikoak

⁵³ Ibid., 33.

⁵⁴ Ajuria, Peru; San Sebastián, Koldo, *El exilio vasco en Venezuela*, 157.

⁵⁵ Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran dantzak ez zeukan garrantzi handirik ikastolako heziketan. Ikus. Pastor, Robert, *Euskal Herria en Venezuela*, 275-276.

⁵⁶ Arrien, Gregorio, *La generación del exilio de 1939. Génesis de las escuelas vascas y colonias escolares (1932-1940)*, Onura, Bilbao, 1983, 269-272.

⁵⁷ Apalategui, Maribi, “La vida en el centro vasco”, Martín de Ugalde (zuz.), *25 años del Centro Vasco de Caracas*, Caracas, 1967, 72-73.

⁵⁸ Gaarder, Lorin R., “Preliminary Comments on the Basque Colony in Mexico City”, W.A. Douglass; R.W. Etulain; W.H. Jacobsen (ediz.), *Anglo-American contributions to Basque studies: essays in honor of Jon Bilbao*, Don D. Fowler, [Reno], 1977, 65 eta 68.

ziren. Belaunaldi berriek ere txistuari eusten diote musikari berrie-kin⁵⁹. *Basterretxea* txistularien banda 1966. urtearen hasieran sortu zen, Aberri Egunean aritu zen lehenbizikoz eta, geroztik, ekitaldi inportante guztietan ezinbertzekoa izan da⁶⁰.

Euskal diaspora osoan, eta Caracasko Eusko Etxean batik bat, folkloreak gorakadak eta makalaldiak izan ditu, Etxeko antolaketa karguetan egoten direnen arabera. Horrela, bada, Robert Pastorrek zioenez, hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran, zail zen Caracasko Eusko Etxean aurrekua ospe handiko ekitaldietan dantzatzeko dantzaririk aurkitzea⁶¹. Arazo hauek gutxitzeko, Euskal Gizataldeen Batzarrak lau urteko plangintza onartu zuen. Bertze erabakien artean hau hartu zen, euskal erakundeek Euskal Etxeek izaten dituzten euskal musika eta folkloreak loturiko kultur ekitaldiak irauarazi eta hobetzeko laguntza ematea, horrelako interesa zuten Euskal Etxeetara argitalpenak eta irakasleak igorritz⁶².

Dantza erakustaldiak

Hasieratik, euskal erbesteratuek dantza erakustaldien bidez agertu nahi izan zuten beren identitatearen berezitasuna. Caracasen izan zen lehen ekitaldia 1939ko San Inazio egun handian (uztailak 31)⁶³.

Euzko Gaztedi eratuta hartu zuten inportantzia handiagoa dantza erakustaldiek. Hartan euskal dantza taldeak sortu ziren, eta haiek, Eusko Etxeko festei *kutsu tipikoa* emateaz gain, kanpoko hainbat jaialditan ere jardun zuten, batzuetan Venezuelako erakundeek eskatuta, eta venezuelarrei erakutsi zieten gure folklorea⁶⁴.

Eusko Etxeko historiako une sinbolikoetan beti izan da dantza. Caracasen dagoen Gudariaren oroitarria –"Eusko Gudariak" kantaren

⁵⁹ Ajuria, Peru; San Sebastián, Koldo, *El exilio vasco en Venezuela*, 157.

⁶⁰ Apalategui, Maribi, "La vida en el centro vasco", 75.

⁶¹ Pastor, Robert, *Euskal Herria en Venezuela*, 275.

⁶² *Euskaldunak munduan, construyendo el futuro*, 38.

⁶³ Ajuria, Peru; San Sebastián, Koldo, *El exilio vasco en Venezuela*, 157.

⁶⁴ Jolur, "Euzko Gaztedi de Caracas", *Euzkadi. Órgano divulgativo del Centro Vasco de Caracas*, 2 (1977), orr. gabe. Forcada Odriozola, Marcos; Amezaga, Vicente de (zuz.), *Los vascos en Venezuela. 20 Aniversario del Centro Vasco de Caracas*, Caracas, 1962, 17.

lehen bertsoek gogorazten dute euskal gudaria— 1962an inauguratu zenean ez zuen huts egin⁶⁵. Bertzalde, bisitari nabarmenei dantzariak egiten diete harrera⁶⁶. Eta 1983an Lehendakariak Caracas bisitatu zue-
nean ere hartu zuten parte Eusko Etxeko dantzek lore eskaintzan, Ca-
racasko Bolívar plazako Askatzailearen estatuaren aitzineko ekintza
sinbolikoan⁶⁷.

Baina, zalantzarik gabe, Manuel de Irujok egin zuen bisita apain-
du zuen euskal dantzak beste edo zerk baino gehiago; 1975eko Aberri
Eguna zela eta, joan zen eta Caracasko Eusko Etxeko Ohorezko Le-
hendakari izendatu zuten. Goizeko mezan dantzariak eman zuten bizi-
tasun ukitua. Ondoren, Eusko Etxean, Manuel de Irujoren omenezko
aurreskua dantzatu zuten eta, gero, Etxeko pilotalekuan, Euzkadi-Ve-
nezuela ikastolako dantza taldeak aritu ziren: Leitzako Ingurutxoak,
Agurra, Makildantza, Zapidantza, Ezpatadantza, Txakarrankua, Mi-
nue, Zintadantza, Uztaidantza eta Aurresku. Arratsaldean, pilota par-
tiduaren ondotik, EGIA dantza talde berriak bere aurkezpenari eman
zion hasiera. Euzko Gaztediko adin guztietako hirurogeita hamar gaz-
terien dantzak eta koreografi eszenak izan ziren ikusgai⁶⁸.

Azken emanaldi hau izan zela eta, Eusko Etxeko Zuzendaritzak
omendu zuen EGIA taldea, eta ekitaldian horrela mintzatu zitzaien
Manuel de Irujo gazteei:

Sinets ezazue, egiten duzuen ez da dibertsio hutsa, ez da denbo-
rapasa, ezta heziketa soila. Gehiago da. Besteei lezioa ematea da. Nik,
hori guztia ikusteak gogobeteta, zeren Caracasko Eusko Etxera honen
sortzaileen seme-alaben eta biloben gaztetasuna ekartzen baitu, espe-
ro dut, gainera, zuek egunen batean Eusko Etxetik telebistara atera-
tzea, unibertsitatara, karrikara, gainerakoei zer garen erakustera: zer-
gatik dantzatzek garen, zer erran nahi dugun dantzatzek garenean,
zein puntutaraino moldatzen den egungo errealitatera geuregan, geure
hizkuntzan eta dantzetan bizi den historiaurreko arima hau; oraingo
unean abiaturik, dantzan eta dantzan dabil, ongia goresteko, askata-

65 Forcada Odriozola, Marcos; Amezaga, Vicente de (zuz.), *Los vascos en Venezuela*, 14.

66 Ibid., 8.

67 Elkar Lanean, *El lehendakari en América*, 70-73.

68 Anasagasti, J.M. de (zuz.), *Boletín Informativo del Centro Vasco de Caracas dedicado al Aberri Eguna, 21 de marzo al 17 de abril de 1975*, Caracas, 1975, 7-8.

sunaresteke, aurrerapena garesteko, azken finean, zibilizazioa, kultura eta elkartasuna garesteko. Zilegi bekit elkartasunaren gainean mintzatzen akitzea, ez baitago elkartasun keinu handiagorik ongi dantzaturiko dantza baino⁶⁹.

Caracasko Eusko Etxearen festak

Festa, folklorea eta identitatea

Caracasko Eusko Etxeak festa anitz antolatzen du, eta, haietan guztietan adierazten da identitate ezaugarrietan nagusi bihurturiko euskal folklorea. Festen egutegia Enrique Ali Gonzálezek jaso du, Caracasko Egoitza Festei buruz egin duen azterketan; lan bikain honetan, Caracasko *komunitate etniko bikultural-binazional*etako⁷⁰ 2.201 festa, laurogeita hamarreko hamarkadakoak⁷¹, sistematikoki bildu zituen.

Egile honen idurikoz, festak komunitate baten oinarrizko kultur sarea dira, eta, hortaz, komunitateak urtean zehar zenbat eta festa kolektibo gehiago egin, hainbat eta kohesio eta identitate maila han-

⁶⁹ Ibid., 15.

⁷⁰ Izen hau honelako mikrogizarteei ematen die: kulturari eta estatu-nazioarekiko identifikazioari dagokienez, alderdi bikoitza dutenei, eta ezaugarri hau dute komunitatekide anitz naturalizazioz edota jaiotzez venezuelar delako. Gertakari sozio-kultural honetan giza talde batzuek bi kultura eta bi herriekin identifikatzea erabakitzen dute, eta erabaki honek kultur gune bereziak bihurtzen ditu. Komunitate Bikultural-Binazional hauek oso ezberdinak dira kide kopuruan eta jatorri etnikoan. Venezuelako batzuk Europatik atera ziren (Espainiako estatua, Portugal, Italia, Frantziako estatua, Kroazia, Ukraina, Errusia, Hungaria, Letonia, Lituania, Alemania). Amerikaren ordezkari kolonbiarrak, perutarrek, ekuadortarrak, boliviarrak, txiletarrak, argentinarrek, guyanarrak, uruguitarrak, estatubatuarrek eta mexikarrak dira. Asia arabiarrek (libanoarrek, siriarrek), judu-israeldarrek, txinatarrek eta japoniarrek gogorazten dute. Afrikako Saharakoak Marokotik XIX. mendetik aitzina abiatu zirenak ditugu, kultur alorrean komunitate arabiar eta juduekin harremanetan. Gaur egun, Komunitate Etniko Bikultural-Binazionalak herriko biztanleriaren % 50, batzbeste, osatzen dute.

⁷¹ González Ordosgoitti, Enrique Ali, *Calendario de manifestaciones culturales de Caracas. 2201 fiestas caraqueñas*, Fondo Editorial Fundarte, Caracas, 1992. Hemendik lortu dugu epigrafe honetako datu asko.

diagoa izanen du⁷². Caracasko Eusko Etxeak jaiegun andana ospatzen du urtean, euskal komunitatearen taldetasuna indartzen duena. Ipar Amerikako euskal diasporaren jaien nortasuna luze aztertu dute Bilbao-Douglass-ek⁷³ eta Fernández de Larrinoak⁷⁴, baina gutiago Argentinako eta Venezuelako atzerrikoena, politika osagai dutela eta, oso ezberdinak direnak.

Venezuelako atzerriko festak eta Ipar Amerikako diasporarenak, askotan, politika osagaiak bereizten ditu. Estatu Batuetako festen nortasunak etnia izatea berretsi nahi du, Venezuelakoei dagokienez, berriz, etnia izatearen berrespenak aldarrikapen politiko argiaren sentimendua du bere baitan: Euskal Herriaren askatasuna. Kutsu hau bi festatan da ageri. “Gudari Eguna” euskal gudariaren omenezko festa da. Bertan eskupilota partiduak, herri bazkaria, eta rock kontzertuak daude. Lehen ekitaldiak lore eskaintza eta Gudariaren Oroitarrian Ohorezko Aurreskua dira. Bigarren aldarrikapen-festa eguna “Aberri Eguna” da, Berpizkunde Igandean ospatua, Euskal Herriaren independentziaren aldeko borrokaren eta itxaropenaren ospakizunaren ikur. Irratsaio berezi baten ondoren (“Euzko Deia”), hurbileko eliza batean meza egiten da, eta, ondoren, banderak jaso eta, Gudariari loreak eskainirik, dantza erakustaldia. Egun osoan zehar segitzen du festak, bazkaria, pilota lehiak, sokatira eta bertze zenbait joku herrikoi izaten dira, baita musika eta dantza saioak ere.

Santu Zaindariarekiko identitate sentimendua San Fermin, San Sebastian eta San Ignazioaren omenezko festetan berresten da. Lehendabizikoa uztailearen 7tik hurbilen den larunbatean ospatzen da. Hauetan meza, herri bazkaria eta folklore emanaldiak egoten dira. Caracasko euskal gizateriak berezko hiru festa ditu. Hauetan xede bakarra *jai lagunartekotasuna*⁷⁵ da, bere giza taldearen nortasunaren alderdiak

⁷² Ibid., 49.

⁷³ Bilbao, Jon; Douglass, William, *Amerikanuak. Vascos en el nuevo mundo*, Universidad del País Vasco, Bilbao, 1986.

⁷⁴ Fernández de Larrinoa, Kepa, *Ospakizuna, errituala eta historia*, op.cit.

⁷⁵ Kontzeptu honi buruz, ikus Montesino, Antonio, *La Fiesta del Carmen. Revilla de Camargo. Un estudio antropológico sobre religiosidad popular en Cantabria*, Límite, Santander, 1992, 86-88. Nafarroari buruz, ikus José Ignacio Homobonoren “Romería de San Urbano de Gaskue. Expresiones de religiosidad, sociabilidad y reproducción de identidades colectivas”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 54, (1989), 407-503.

berresteko nahia. Caracasko euskaldunen festa nagusietako bat “Etxearren Eguna” da. Ohiko pilota partiduak, herri bazkaria, erronomia eta dantzaldia eskaintzen da. “Euskal Astea” 1989an hasi ziren ospatzen, baina ez dute beti egun berean egiten. Kultur eta folklore jarduerak antolatzen dira, eta bereziki gonbidaturik joaten diren E.A.E.ko pertsona ospetsuen bisitak eta hitzaldiak izaten dituzte. Euskal sukaldaritzaren inguruan jaialdia egiten dute. Azkenik, “Urtezahar” gaueko afarira eta dantzaldira nahi duten bazkide guztiak joan daitezke, gauaren hasieran edo 24,00etatik aitzina.

Etorkizunari begira

Gerraondoko erbesterratu politikoek euskal kontzientzia oso barneraturik zeramaten, berezko identitate sendo bat adieraziz eta geroago etorritako etorkinei euren izaera kutsatuz. Gaur egun euskal venezuelarrek bi bandera eta bi himno dituzte: euskalduna eta Venezuelakoa⁷⁶. Venezuela izan da berrogeita hamar urteotan hainbat eta hainbat euskaldunen aberri, halabeharrez eta gerraren indarkeriaz Euskal Herritik aldegin eta gero. Bide horretan sorturiko jendeak bihotza Euskal Herrian eta egunerokoa Venezuelan izaten du.

Baina Venezuelan, euskal diasporaz gain, bertze hainbatek ezagutu du populazio handien desplazamendua, herri berriak harturik. Emigrarazi zieten egoerak bukatu eta gero jatorrizko herriekin harreman iraunkorrak mantendu ahal izateko bide izan zuten identifikazio soziokulturalaren osagai anitzi (zenbaitetan hizkuntza eta erlijioa barne) eutsi zioten. Harreman hauek, gero eta maizagoak, nazio adskripzio bikoitzaren kontzientzia hartzeko aukera eman zieten, bai herri berriari direnei bai jatorrizkoan geratu zirenei⁷⁷. Honen inguruan Eusko Jaurlaritzak diasporarekin duen ardura aipatu behar dugu. Politika horri kontra eginez, Nafarroako gobernuak azken urteotan diaspora nafarrekin harremanak bizkortzeari ekin dio, sentimendu nabarrista

⁷⁶ Estatu Batuetan ere bi himnok ematen diete hasiera euskal jaiei, eta Estatu Batuetako bandera eta ikurriña antzeztokian egoten dira jaialdia amaitu arte. Fernández de Larrinoa, Kepa, *Ospakizuna, errituala eta historia*, 101.

⁷⁷ Malvinetako Gerran adibidez, Europako Ekonomia Batasunak Argentina gaitzes-tea erabaki zuenean, Italiak, boikota ez betetzeko aitzakia, Argentinan bizi diren italiarren ondorengoekiko lotura bereziak agertu zituen.

areagotu eta nafarrak euskal etxeetatik baztertzeko asmoz, baina, ezinbertzez, horietan nafar identitate gisa egiten den folklorea euskal kultur eremu osokoa da⁷⁸.

Politika hauek ikusita, zein den nazioari dagokionaren benetako dimentsioa galde genezake. Nazioek, gaur egun, etnia-kultura-nazioa segidan jartzen dute enfasi handiagoa, lurraldeari soilik dagokionaren gainetik. Etorkinaren botoak, gainera, aulki bat edo bertze erabakitzen ohi du autonomia parlamentuetan, eta pertsona hauen estatus sozioekonomikoa, zenbait herritan, altua izaten da, herri horrekiko harremanetarako funtsezkoa. Hau guztia dela eta, diaspora E.A.E.ko eta Nafarroako gobernuetara interesatzen zaien bitartean, folklorea sustatuko da, identitatearen elementu, ikasten erraza eta ikusten ederra, den aldetik.

Ameriketako euskaldunen errealitatea, Argentinako Juan de Garay Fundazioaren filosofian islatzen den bezala, Euskal Herriko egoerarekin bat etortzen da oso gaur egun:

“Lotzen gaituzten lokarri sendoak direla eta, arazo eta aukera berberetan hartzen dugu parte era ezberdinetan, eta, honekin batean, gure herrietako zailtasunei eta itxaropenei aurre egiten diegu, aldi berean zeharo amerikarrak eta zeharo euskaldunak izateko paradoxan. Euskaldun guztiok izanen dugu mende aldetari buru emateko erronka eta parada anitz. Honek hausnartzera eta jardutera bultzatzen gaitu. Mendeetan zehar beti gertatu izan den bezalaxe”⁷⁹.

Errealitatea, baina, goibelagoa da. William Douglasssek, Euskal Gizataldeen Mundu-Batzarrean, euskal diaspora bere existentziaren larriunean dagoela erran zuen. Ez dago orain ez kolonia eremurik ez diasporari eusteko emigratzen duen jendetzarik. Baina komunikabide berriek eta Ama Lurreko errealitate politiko berriak etorkizunerako posibilitate berriak zabaltzen dituzte⁸⁰. Caracasen, bada hamar urte

⁷⁸ Imbuluzqueta, Gabriel, “Argentina”, *Navarros en América. Cinco Crónicas*, Gobierno de Navarra, Pamplona, 1992. Eta adibide politiko adierazgarri, Miguel Sanz Nafarroako Lehendakariak 1998ko abenduan Mexikora egindako bidaia instituzionala bi neskek dantzaturiko auresku eta guzti: ikus *Diario de Noticias*, 1998-XII-9, 22.

⁷⁹ www.juandegaray.org.ar/panorama.html

⁸⁰ Douglass, William, “Intervención”, *Euskaldunak munduan, construyendo el futuro. Congreso Mundial de Colectividades Vascas – Euskal Gizataldeen Mundu-Batzarra*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 1995, 26.

baino gehiago ikastola kendu zela, inor guti mintzatzen da euskaraz eta Venezuelaren ekonomia krisiaren ondorioz, euskaldun batzuk beren sorterrira itzuli dira⁸¹.

Folklorearen egoera berrira egokitu behar da. Gaur egungo ezau-garri nagusietako bat orokortasuna eta kulturen arteko komunikazioa handiagoa izanik, gero eta maizago gertatzen dira kultur mestizajeak, baita festaren munduan⁸² eta, hortaz, folklorearen munduan ere. Ez dago purismorik, Eusko Etxeko gazteek euskal dantzak ikasten dituzte, baina, halaber, Venezuelako dantzak ere ederki ezagutzen dituzte, anglosaxoien herrialdeetatik mundu osoan barna zabalduriko dantzak baztertu gabe.

⁸¹ Itzulitako sentimendua Caracasko Eusko Etxearekiko Iosu Ostéiz Arangurenak idatzitako iritzi zutabearen isladatzen da (“Eusko Etxea de Caracas, 50 años”, *Diario de Noticias*, 2000-X-31, 4).

⁸² Ideia honi buruz, ikus: Jimeno Aranguren, R., “Configuración de la identidad festiva: multiculturalismo en las encerronas de Ampuero (Cantabria)”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, XXXI, 73 (1999), Gobierno de Navarra, Pamplona, 67-82.